

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Usurbil



Aurkibidea

Udalerria: Usurbil

Sarrera



Usurbil Donostialdean dago, hiriburutik 10 kilometrora. Hainbat auzo ditu, Oria ibaiaren alde banatan: Zubieta (zati bat Donostiari dagokio), Santu Enea, Urdaiaga (San Esteban) eta Txoko Alde, hegoaldean; Kalezar, Kaleberri, Atxegalde, Txikierdi eta Aginaga, iparraldean. Oso herri euskalduna da. Hainbat lan egin dira bertako euskara bultzatzeko, besteak beste Noaua! kultur elkartearen ekimenez. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMako (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da.

- **Biztanleak:** 5.793
- **Euskaldunak:** %70,6

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **49**
- Zintak: **88**
- Pasarteak: **1.066**
- Transkribatutakoak: **158**
- Audioak: **11**
- Bideoak: **635**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Ez dago sinesterik zenbat kanbiatu den!
- Gazte gara gazte
- Hitza Jasoz
- Lasarte-Oriako Ahotsak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea
- Usurbilgo Ahotsak

Hizlariak

Hilari Aizpurua Zeberio (1917-2007)



Usurbilen jaioa. Bost anai-arrebaren artean zaharrena. Zendoianean bizi izan zen beti. Etxe-izena gurasoen tabernatik dator. Etxe berean izeba-osabak zuten okindegian egin zuen lan. Urteetan, egunero, Orio arteko bidea egiten zuen osabarekin auzo eta baserritarrei ogia, enkarguk, botikak e.a. eramanez. Martin Manterolarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituen. Beti Usurbilen bizi izan zen eta herritar asko ezagutzen zituen. Baita herriko hamaika istorio ere.

Jorge Aizpurua Zeberio (1921-2004)



Usurbilen jaio zen Barrenetxan 1921ean; gurasoak usurbildarrak ziren biak. Gerratik juxtu-juxtu libratu zen, eta soldadutzara Afrikara joatea tokatu zitzaion. Lanbidez okina, okindegian aritu zen lanean. Hitza Jasoz proiektuan hartu zuen parte 1996an.

Mertxe Aizpurua Zeberio (1925-2022)



Usurbilgo Zendoian jaio zen, oraindik kale-baserria zen garaian. 5 anai-arrebaren artean gazteena, Zendoiako taberna bere familiak eramaten zuen, eta Mertxeri ere umetatik tokatu zitzaion tabernako lanetan aritzea. Barraren atzetik herriko hainbat pertsonaia eta bizipen ezagutu ditu.

Irati Alduntzin Alegria (2004)



Usurbildarra, aita bertakoa du eta ama tolosarra. Elkarrizketaren unean Lasarte-Oriako Oriarte institutuan zebilen, Batxi-2 egiten, eta futboleko jokatzeko zuten. Enara Villafafila lagunarekin batera egin genion elkarrizketa, hitanoari eta aisialdiko hizkuntza-ohiturei buruz, institutuan. Aurreko ikasturtean noka ikastaro batean parte hartu zuten. Lasarte-Oriako Udalarentzat egindako elkarrizketa, Ele-meleka proiekturako.

Eustakio Alkorta Lertxundi (1923-2005)



Usurbilen jaio zen, 1923. urtean, Egioleta baserrian. 9 senide ziren, eta Eustakio zen seniderik zaharrena; beraz, bera gelditu zen maiorazko. Beti baserriko lanean, 16-24 abelburu izaten ziren Egioletaaundin. Oso baserri indartsua zen, eta bere inguruko lurak erabiltzen zituzten. Maria Lertxundi, Eustakioren ama zena, egunero joaten zen Donostiako San Martin plazara, ekoizten zituzten produktuak saltzera. Egioletan fruta asko izaten zen: muxika, brinoia, arana... saltzen zuten. Astoarekin Igeldoko Iturrietara joan, han bazterrean lotuta utzi, eta gero autobusez Donostiara. Eustakio 28 hilabete egon zen soldadutzan, Afrikan. Altzako Amueder baserriko alaba zen Joxepa Sarriegirekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Praixku Alkorta Zabala (1922)



Agerre baserrian jaio zen, zortzi anai-arrebaren artean laugarren. Aita Agerrekoa bertakoa zen, eta ama Enbil Enea baserrikoa. Baserritik bizi izan da bere bizi guztian, eta ondo ezagutzen ditu baserriko lanak. Gogoan du oraindik gerra garaian bizitakoa eta ikusitakoa, eta gerra ostean pasatakoa. Usurbilgo eskolan ikasitakoa, pilotarako zaletasun handia izan du umetatik. Ezkondu eta 4 seme-alaba izan zituen.

Teresa Altuna Agote (1929)



Usurbilen jaio zen 1929. urtean, Atxegaenea edo Artzaienea baserrian, zazpi senideko familian. Bere ama Maria Agote Izeta zen, Aiako Landarbidezar baserriko alaba; eta aita, Pedro Altuna Jauregi, Amezketako Zurutuza baserrikoa, artzaina. [Fermin Roteta Labaka](#)rekin ezkondu zen Urdaiaga baserrira. Bost seme-alaba izan zituzten. Beti baserri-lanetan aritu izan dira biak.

Milagros Alzaga Illarramendi (1930)



Olarrondo baserrian jaio zen, sei senideren artean bosgarren. Aita Olarrondo bertakoa zen, eta ama Ostapekoa. Baserritik bizi izan dira beti eta Donostiara esnea saltzera joaten zen gaztetan. Mojetan ibili zen eskolan eta historia sakratua ikastea gustatzen zitzaion gehien. Pilotan aritzeko zaletasun handia izandakoa, sendabide naturalak ondo ezagutzen ditu. Ezkondu eta bi alaba izan zituen.

Benito Aranburu Gaztañaga (1923)



Aginagako gurasoen semea, 10 anai-arrebaren artean bera izan da zaharrena. Eskolara joateko gogoia izaten bazuen ere, etxean laguntzea tokatu zitzaion umetatik, eta zazpi urte zituenerako angulak harrapatzen ibiltzen zen aitarekin batera Oria ibaian. Ordutik anguletatik atera izan du ogibidea, eta 100 kilo angula harrapatzen zireneko garaiak ere ezagutu izan ditu. Ezkondu eta zortzi seme-alaba izan zituen. Elkarrizketa garaian Aginagako bere jaiotetxean bizi zen.

Nieves Aranburu Otaegi (1936)



Usurbilen jaio zen kale nagusiko Markesaren etxean, bederatzi senideko familian. Aita udaletxeko funtzionario-lanetan aritzen zen, eta ama soroko lanetan, seme-alaben eta senarraren laguntzarekin. Bi urte eta erdirekin hasi zen eskolan, eta han ibili zen hamalau urte izan zituen arte. Oso gustuko zuen eskolara joatea, eta pena handia hartu zuen utzi egin behar izan zuenean. Michelinen aritu zen lanean urte batzuetan, baina ezkondu eta bi alaba izan zituenean utzi egin zuen lan hura. Gurekin egon zenean, [Antonio Orbegozo](#) senarrarekin bizi da Usurbilen.

Teodoro Aranburu Otaegi (1928)



Usurbilgo Kale Nagusian jaio zen, bederatzi senideren artean laugarrena. Aita etxe hartakoa zen, eta ama Zegamakoa. Baserritik bizi ziren, eta aita udaletxeko langile ere izan zen. Teodoro 18 urterekin hasi zen lanean "Abrasive" fabriketan, eta 21 urterekin soldadutzara joan zen. Hura bukatutakoan, Michelinen hasi zen lanean, eta han jardun zuen erretiroa hartu arte. Gaztetan soinu-jotzailea izan zen, eta motorra hartuta hainbat erromeriatara joaten zen musika jotzera. Kontu hauek guztiak kontatu zizkigunean, bere jaioterrian bizi zen Mari Karmen Ayerbe emaztearekin.

Antonio Pello Aranburu Sagardia (1920-2003)



Udaletxean bertan jaio zen. 14 urterekin utzi zuen eskola eta Lasartera joan zen lanera gerra zibila hasi zen arte; gerrara joan behar izan zuen orduan eta hainbat lekutan ibili zen frontean. Gerora, 1942an makien mobilizazioa egon zen eta Burgosa eraman zituzten. 9 urteren ostean, soldadutzatik libratu zen azkenean. Usurbilgo aguazila izan zen urte askoan eta herriko kontuen ezagutza handia zuen.

Begoña Aranzadi Manterola (1935)



Usurbilgo Aginaga auzoan jaioa, Galardi kale-baserrian. Aita Segurakoa zuen, kamineroa, eta ama Aginaga bertakoa. Bost senidetan hirugarrena da Begoña. Auzoko eskolan ibili zen, 14 urterarte. Amari Donostiatik ekarritako arraina saltzen laguntzen zion. Angulak salmentarako prestatzeko prozesuan ere hartzen zuen parte, osabaren negozioan. Larraulgo mutil batekin ezkondu zen, Lasarte-Orian asko egoten zena Michelin lantegian zebilelako lanean. 60 urte baino gehiago daramatza Lasarte-Orian bizitzen. Hiru seme-alaba izan zituzten.

Beñat Arruti Aizpurua (1993)



Beñat Arruti Aizpurua 1993ko uztailaren 25ean jaio zen Usurbilen. Kirolari porrokatu da Beñat eta horrez gain, begiralea ere bada bere denbora librean. Haurren aisialdiaren inguruan mintzatu gara berarekin.

Maria Angeles Arruti Izeta Aiarra (1951)



Aian jaioa 1951n. Gurasoak ere aiarrak zituen. Bost senidetan nagusiena. Bost urte zituenean Usurbilera joan ziren bizitzera. Aginagara ezkondu zen eta hiru seme izan zituen. Mai-ona sagardo lantegiko bulegoan lan egin zuen 11 urtez. Irakurtzea gustuko du.

Kristina Bengoetxea Urruzmendi (1921-2016)



Egiluzeaundi baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebaren artean seigarrena. Gurasoak Usurbilgoak zituen, eta bi amona ere beraiekin batera bizi ziren. Baserriko lanetatik bizi ziren, eta Kristina umetatik joaten zen Bretxara esnea saltzera hango bezeroei. Usurbilgo eskolan ibilia, historia sakratua ikastea gustatzen zitzaion gehien. Gaztea zela, neskame lanetan aritu zen Huescan eta gerora Usurbilen ezkondu zen. sei seme-alaba izan zituzten.

Joxe Beraetxe Aranburu (1927-2004)

Usurbilen jaio zen, 1927. urtean, Zeltxeroenea etxean. 1996 inguruan Hitza Jasoz proiektuan parte hartu zuen.

Felix Bereziartua Maioz (1909-1998)



Aginagan jaio zen, 1909. urtean, Etxeberri baserrian. Orioko Kanpanario baserriko Maria Luisa San Sebastián Eizagirrerekin ezkondu zen, eta Uriberri baserrian jarri ziren bizitzen. Uriberri baserria, ibaiaren alboan dagoen baserria da eta Felix Bereziartuak oso ondo ezagutu izan ditu ibaiko hegaztiak (azetak, hontzak, pitxenak, ahateak, uroiloak, urtxoriak, saguzarrak, enarak, mikak, putreak, kuartzak, erbinudeak, igarabak, igarrak...)

Joxe Juan Bereziartua Maioz (1913-2005)

Aginagan jaio zen, 1913. urtean, Mutiozabal baserrian. Inor baldin bazen Aginagako erroia ondo ezagutzen zuenik, bera izan zen. Gaztetatik egin zen erriozale, eta zahartzaroak aginduta utzi behar izan zion bertara joateari. Arrantza guztietan saiatu izan zen, baina aingiretan aritzea zuen gogokoena.

Justo Camino Ibargoien (1930)



Errementaldegi baserrian jaio zen, bost anai-arrebaren artean gazteena bera. Aita Txoko Aldekoa zen eta Arozena zentrolean egiten zuen lan; ama Kalexarkoa zen. Baserrian lan asko egindakoa, 35 urtean Ingemarren egin zuen lan, eta hara joateko Txoko Alde eta Usurbil arteko trenbidearen tunela zeharkatzen zuen oinez egunero. Kontu guzti hauek kontatu zizkigunean, Txoko Alden bizi zen [emazte](#)arekin, baserriko lanekin jarraituz.

Jexuxmari Errekondo Aizpurua (1929)



Arruenea Berrin jaio zen, sei senideren artean bosgarren. Aita Usurbilgoa zuten eta ama Zubietakoa. Gerra hasi zenean, amaren baserrira joan ziren Zubietara, eta 1956an itzuli ziren Usurbilera bizitzera. Baserriko lanetan gogor aritutakoa, Usurbilen eta Andoainen ikasi zuen. Baserrian sagardo asko ekoizten zuten gero saltzeko, eta hartarako osabak handik eta hemendik ekarritako makinen laguntza izaten zuten. Erreboteko jokalaria izandakoa, 1956tik erretiroa hartu arte zerrategian egin izan du lan, eta ondo ezagutzen ditu zuhaitzen gaineko kontuak. Udaletxean ere egin izan du lan, lehenengo Francoren garaian, eta geroago Franco hil ostean: hirigintzako lanen arduraduna izan zen, eta baserrietako telefonoa eta ura jarri zuten orduan, besteak beste. Usurbilgo ikastolaren sortzaileetariko bat izan zen, eta baserriarren sindikatuan ere egin zuen lan.

Juanito Galarraga Huegun (1943-2009)

Aginagako Galdagorri baserrian jaio zen 1943. urtean. Bertan bizi izan zen beti. Aginagako erria ondo ezagutzen zuen. Gaztetatik egin zen erriozale, eta beste aginagarrekin batera, aingiretan aritzen zen bera ere. Euskara aberatsekoa eta hiztun ona, oso azalpen interesgarriak eman ditu angularen inguruan.

Martzial Goenaga Gorriti *Herreronekua* (1925)



Ekainak 30 San Martzial egunean jaio zen, eta hortik datorkio izena. Usurbilgo kale nagusian jaio zen, bost senideren artean laugarrena. Aita eta aitona errementariak zituen, eta bera ere gaztetan hartan ibili bazen ere, Luzuriagan aritu izan da bizi osoan mantentze-lanetan. Txisteak kontatzeko zaletasuna eta umorea beti izan ditu adiskide. Ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituen, eta gaur egun Usurbilen bizi da.

Patxi Illarramendi Zubeldia (1911-2003)

Usurbilen jaio zen, 1911. urtean, Txokoaldeko Ximonea etxean. Hitza Jasoz proiektuan parte hartu zuen 1996 inguruan.

Lander Iribar Zumeta (2004)



Usurbildarra, ama bertakoa du eta aita Getariakoa. Elkarrizketaren unean Lasarte-Oriako Oriarte institutuan zebilen, Batxi-2 egiten, eta saskibaloian jokatzen zuen. Aimar Vazquez lagunarekin batera egin genion elkarrizketa, hitanoari eta aisialdiko hizkuntza-ohiturei buruz, institutuan. Zortzi bat urtetatik hitz egiten du hika, kalean ikasita. Lasarte-Oriako Udalarentzat egindako elkarrizketa, Ele-meleka proiekturako.

Joxe Mari Lizaso Peñagarikano (1911-2003)

Usurbilen jaio zen, 1911. urtean, Itxaskuenea baserrian. 2003. urtean hil zen.

Juanita Lizaso Peñagarikano (1919)



Itxasku baserrian jaioa, aita bertakoa zuen; ama, berriz, Tolosakoa. 10 senidetatik 8 irten ziren aurrera, eta Juanita laugarrena zen. Baserriko lanetan ibili zen umetatik. Sagardotegia ere bazeukaten. 14 urtera bitarte eskolan ibili zen, eta gero etxeko tabernan (orduantxe ipini zuten), amarekin batera: *Bulano* bezala zen ezaguna taberna. Josten ikastera ere joaten zen. 16 urte zituela, gerra hasi zen. Orduko kontuekin ere gogoratzen da. Usurbilen bertan ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten.

Patxi Maioz Aizpurua (1939)

Aginagako Mapil baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da. Angulatan aritutakoa da, eta gai honetan oso jantzia; hainbat dokumentaletan bere adierazpenak agertzen dira, baita Xabier Pikabeak egindako liburuan ere.

Manuel Maiz Labaka (1924)



Gaztañaga baserrian jaio zen, 10 anai-arrebaren artean zaharrena bera. Umetan meza-mutil ibilia, dantzaria ere izan zen. Gerra hasi zenean, ordea, dantzako klaseak bertan behera geratu ziren, eta gerora ez zuten jarraitu. Umetatik baserriko lanetatik bizi izan da.

Simona Maiz Labaka (1927)



Gaztañaga baserrian jaio zen, 10 anai-arrebatatik 3. Eskolan moja frantsesekin ibili zen, eta frantsesa ikasteko aukera ere izan zuen. Ezkondu zenean bere jaiotetxean jarri ziren bizitzen, eta ordutik han bizi izan da. Baserrian lan asko egitea tokatu zaio eta 6 seme-alaba izan ditu.

Mari Karmen Mitxelena Illarramendi (1938)

Usurbilgo San Esteban auzoan jaioa, Sutegi etxean (Zubiaurre gisa ere ezaguna). Ama Usurbilgoa zuen; angulak harrapatzen ibiltzen zen, familiakoekin. Aita Oiartzungoa zen; Illarramendi lantegian zebilen lanean. Bi senide ziren, eta Usurbilgo eskolara joan ziren. Ikasteko zuen trebetasuna ikusita, Donostiara bidali zuten batxilergoa ikastera, moja teresiarrengana. Magisteritza ikasi zuen ondoren, Ategorrietan. 1958an isilpeko ikastoletan hasi zen andereño, Elbira Zipitriarekin urtebeteko praktikak eginda. Kaiko etxebizitza batean jardun zuen. 1970. urtean Orixe ikastola sortu zuten. 1979-1983 legealdian EAJko zinegotzia izan zen Usurbilen, lehen emakume zinegotzia. Gipuzkoako Foru Aldundiak Urrezko Domina eman dio berriki, 60ko hamarkadan andereño ibilitakoen ordezkari gisa. Azken urteetan Donostian bizi da, Antiguan.



Eneka Muñoz Lasa (2004)

Usurbildarra. Bere aita Extremaduran jaioa, bi urterekin Usurbilera joan zen bizitzera; ez du euskaraz hitz egiten. Ama Andoaingoa da eta euskaraz badaki, baina ez du asko erabiltzen. Enekak lagunekin euskaraz egiten du. Elkarrizketaren unean Lasarte-Oriako Oriarte institutuan zebilen, Batxi-2 egiten, eta futboleko jokatzeko batera egin genion elkarrizketa, hitanoari eta aisialdiko hizkuntza-ohiturei buruz, institutuan. Aurreko ikasturtean noka ikastaro batean parte hartu zuten. Lasarte-Oriako Udalarentzat egindako elkarrizketa, Ele-meleka proiekturako.



Felix Olasagasti Mujika (1923-2014)

Txara baserrian jaio zen, bost anai-arrebaren artean gazteena. Aita Igeldokoa zuen, eta ama Txarakoa. Gerra hasi zenean 13 urte zituen, eta gogoan gorde zituen gerra aurreko liskarrak nahiz gerrako gorabeherak. Gerra ostean kontrabandoan ibilitakoa, Añorgako harrobian eta Michelin fabriketan egin izan zuen lan erretiroa hartu arte. Usurbilgo udaletxean zinegotzi ere izan zen zenbait urtez, eta garai hartan sortu zuten Zubietako lanbide-heziketako eskola, besteak beste. Sei seme-alaba izan zituen, eta Txaran egin zuen bizimodua.



Antonio Orbegozo Lizarazu (1928-2014)



Kalexarko Errebal Txikin jaio zen, zazpi anai-arrebaren artean hirugarren. Pobrezia zer zen ondo ezagutu zuen umetan, eta bere familiak egoera latzak bizi behar izan zituen ez baitzuen etxebizitza egonkorrik. Gazte zela morroi-lanetan ibili zen, eta hala ezagutu zuen gerora emazte izango zuen Nieves Aranburu. Lan hartan ikasitakoak oso baliagarri izan zitzaizkion gerora, Luzuriagan mantentze-lanetan ibili baitzen bizi osoan erretiroa hartu zuen arte. Bi alaba izan zituen eta Usurbilen osatu zuen familia bere [emaztea](#)ren alboan.



Maritxu Pikabea Sarasola (1932)



Jose Jabier Portu Gorriti (1937)

Usurbilgo San Esteban auzoan jaio zen 1937an. Gurasoak ere biak usurbildarrak ziren. Apaiza.

Miren Jone Rekondo Aizpurua (1926)



Usurbilgo Arruenea Berrin jaio zen, 6 senideren artean hirugarrena. Aita udaletxeko idazkaria izan zuten, eta horrek arazo bat baino gehiago ekarri zizkien gerra garaian. 10 urte zituela Zubietara joan ziren bizitzera amaren baserrira; eta gerra bukatutakoan ere han gelditu ziren 1956 arte, batetik, Usurbilgo etxea erre zelako, eta bestetik, aita desterratu egin zutelako. Sukaldari trebea, gaur egun bere jaiotetxean bizi da.



Fermin Roteta Labaka (1925-1998)

Urdaiaga baserrian jaio zen 1925. urtean. Teresa Altunarekin, Agote Atxegaeneako alabarekin, ezkondu zen. Bost seme-alaba izan zituzten. Beti baserriko lanetan aritu izan zen [bere emazte](#)arekin batera.



Elias Sagardia Salsamendi (1925-2006)

Usurbilen jaio zen 1925ean, autobidea egiteko bota zuten Artikulatxiki baserrian. Aita baserri bertakoa zuen eta ama Egiluzetxikikoa. 5 senide ziren familian. Lanbidez zurgina edo arotza, soldadutzan 29 hilabete eman zituen. Baserriko bizimodua ondo ezagutu zuen. 1981. urtetik 1990. urtera bitartean, Usurbilgo epaile-lanetan aritu zen.

Ixone Santxez Encinas (2004)



Usurbildarra, ama bertakoa du eta aita Caceresen jaioa baina Usurbilera mugitutakoa, euskaldun berria. Elkarrizketaren unean Lasarte-Oriako Oriarte institutuan zebilen, Batxi-2 egiten, eta futboleko jokatzeko zuten. Eneka Muñoz lagunarekin batera egin genion elkarrizketa, hitanoari eta aisialdiko hizkuntza-ohiturei buruz, institutuan. Aurreko ikasturtean noka ikastaro batean hartu zuten parte. Lasarte-Oriako Udalarentzat egindako elkarrizketa, Ele-meleka proiekturako.

Joxe Mari Soroa Berrotaran (1932-2018)



Donostian jaio zen, Kontxa inguruan, Izaburu Berri etxean. Ama Hondarribikoa zuen, aita oiartzuarra. Bost urterekin Usurbilera joan ziren bizitzera, eliza ondora. Hamar senide ziren. Anaietako bat maisua zen, eta hark erakutsi zion eskola umetan Joxe Mariri; gero, Donostian ikasi zuen batxilergoa, marianistetan. Aitak txofertzan egiten zuen lana, eta gero sagardo lantegia ere jarri zuen: Illarramendi. 18 urterekin negozioaren kargu egitea egokitu zitzaion Joxe Mariri. 1964an Eva sortu zuen, sagardo apartsua eta muztioa egiteko lantegia. Langile gutxirekin hasi arren, erretiroa hartu zuenean 50 ziren. Igeldon bizi da azken 40tik gora urtean. Ezkondu, eta sei seme-alaba izan zituen. Hamar aldiz egin du Donejakue bidea; erromesei argibideak eta ura eskaintzen dizkie. Zazpi hizkuntzatan hitz egiteko gai da. Zahar etxeetara ere joaten da, gitarra jo eta abestera. 70eko hamarkadan "Joxe Mari eta Mikel" taldekoa zen; herriz herri ibiltzen ziren kantuan.

Joxe Torregarai Gorostidi (1937-2016)



Usurbilgo Gaztañaga baserrian jaio zen, hiru senideren artean bigarren. Aitona Demetrio Montevideon jaioa zen, baina familia guztia Gaztañagara itzuli zen hura gaztea zela. Baserriko lanetan jardundakoa, Joxe txerri-hiltzailea izan zen gaztetan; gerora, Lasarteko Michelin fabrikari aritu izan zen lanean bizi guztian, erretiroa hartu arte. Ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituen. Gizon argia, umoretsua eta parte-hartzailea, oso ondo ezagutzen zituen Usurbilgo gorabeherak.



Idoia Torregarai Martija (1974)

Kazetaritzan lizentziaduna da eta UEUko komunikazio-arduraduna.



Joxe Mari Urbistondo Zendoia (1906-1999)

Azpeitiko Aratz Erreka auzoko Iborla baserrian jaio zen, 1906. urtean. Zortzi anai-arreba ziren familian. Ezkondutakoan, lau urtez Mantximentan bizi izan zen bere emaztea hangoa baitzen. 1955ean, Usurbilera joan zen bere familiarekin; 'Arozena' enpresarentzat egin zuen lan, argi-kontagailuetan. Liho-lanetan eta basolanetan ere aritzen zen.

Matilde Urkia Arruti (1922)



Matista-enean jaio zen, 6 anai-arrebako familian. 13 urte zituela, Paris etxera joan ziren bizitzera. Mojetan ikasi zuen Miserikordian. Bere izeba Gertrudis serora zen; eta, horrez gainera, Paris etxean dotrina eta eskola ere irakasten zituen. Matilde bera ere, izebarekin batera hasieran, gerora berari erreleboa eginez gerora, serora-lanetan aritu da eta aritzen da Usurbilgo parrokan. Makina bat lan egindakoa herritarrei begira: garai hartan berak egiten zituen hainbat eta hainbat eginkizun, gaur egun funeraria zerbitzuek betetzen dituztenak. Berak egindako lanen artean, besteak beste, hauek izan dira: kanpaiak jotzea, bataioen eta hildakoen inguruko zereginez arduratzea, eliza zaintzea, garbitzea, dotrina eta eskola irakastea...

Iñaki Urkia Urdanpileta (1935-2022)



Usurbilgo Paris etxean jaio zen, 3 anai-arrebaren artean gazteena. Aita Matista Eneakoa zuen eta ama Kalexarkoa. Usurbilgo eskolan hasi zen ikasten, geroago Añorgako Rezola fabrikaren eskolan jarraitu zuen, eta azkenik Donostiako arte- eta lanbide-eskolan ikasi zuen. Argiketari lanetan ibili izan da bizi guztia, eta kulturarako zaletasun handia izan du: umetatik dantzan ikasten ibilia, gerora dantza irakasten aritu izan da; eta antzerkian ere erakutsi du bere balioa. Umorea beti lagun, ezkondu eta hiru seme-alaba izan ditu.

Usurbilgo bertsolariak

Aimar Vázquez Saizar (2004)



Usurbildarra, aita bertakoa du eta ama Berastegikoa. Elkarrizketaren unean Lasarte-Oriako Oriarte institutuan zebilen, Batxi-2 egiten, eta saskibaloian jokatzen zuen. Lander Iribar lagunarekin batera egin genion elkarrizketa, hitanoari eta aisialdiko hizkuntza-ohiturei buruz, institutuan. Zortzi bat urtetatik hitz egiten du hika, kalean ikasita. Lasarte-Oriako Udalarentzat egindako elkarrizketa, Ele-meleka proiekturako.

Enara Villafafila Illarramendi (2004)



Usurbildarra, guraso biak bertakoak ditu. Elkarrizketaren unean Lasarte-Oriako Oriarte institutuan zebilen, Batxi-2 egiten, eta yoga egiten zuen. Irati Alduntzin lagunarekin batera egin genion elkarrizketa, hitanoari eta aisialdiko hizkuntza-ohiturei buruz, institutuan. Aurreko ikasturtean noka ikastaro batean parte hartu zuten. Lasarte-Oriako Udalarentzat egindako elkarrizketa, Ele-meleka proiekturako.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Ikastolako kantua I

- **Hizlaria(k)**: Mitxelena Illarramendi, Mari Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: USU-001/045
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 01:35:48. **Bukatu**: 01:36:27

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** Edukia lantzeko erabiltzen zituzten abestietako bat abesten du Mari Karmenek pasarte honetan.

Transkripzioa

Akerraren adarraren makurraren makurra,
hik bahuan, nik ez nikan, akerraren beldurra,
ahuntzaren esnearen gozoaren gozoa,
nik banian, hik ez hukan, opor esne beroa,
jauzketari, jauzketakiña, oi pittika, politta,
enetako, hiretako, gurea duk Battitta.

- Eta hori izaten zan ume oso txikiñekin?
- Bai, ttiki-ttikikin, 5 urtekuakin itten gendun, bai.

1.2. Ikastolako kantua II

- **Hizlaria(k):** Mitxelena Illarramendi, Mari Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** USU-001/047
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:38:46. **Bukatu:** 01:40:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** Edukia lantzeko erabiltzen zituzten abestietako bat abesten du Mari Karmenek pasarte honetan.

Transkripzioa

Baziren bi txerri Ttip eta Ttup,
bi txerri tturrin-tturrin
buztan-arin, mutur gorri.
Ttup beti gose, ezin ase,
beti zebilen dena tripirezka
Eta Ttip, gaixo Ttip, aska zolan milika
Eta Ttip hip-hip-hip maiz nigar-hipaka
Eta Ttup, urde Ttup, glu-gluk eta urrup bien bazkaz betteka
Ttupek behin tturrin-tturrin Ttipen buztana,
buztan arina, aho zikin
Ttipek orro, Ttupek irri,
Jaun triperoa etorri eta honek Ttip utzi,
ez baitzuen aski gantz eta txitxi
Eta Ttupek egin tturrin-tturrin lukaink eta odolki
Jan, jan, potolo, txingar eta talo
Ai, baina hip-hip-hip ez izan dena trip.

- Ez det esan hor daon bezela, e? Zeatik hor daude nahasketa batzuk...
- Eta hori iten zan antzerkian, ez?
- Bai. Baiño, bueno, txapuza bat atera zait.

Ttupek behin tturrin-tturrin Ttipen buztana,
buztan arina, aho zikin
Ttipek orro, Ttupek irri,
Jaun triperoa etorri eta honek Ttip utzi,
ez baitzuen aski gantz eta txitxi
Eta Ttupek egin tturrin-tturrin lukaink eta odolki
Jan, jan, tripero, txingar eta talo
Ai, baina hip-hip-hip, ez izan dena trip.

- Ez dakit nola gelditu dan o ze.

- Orduan, bi txerri: bat potoloa eta bestea...

- Klaro, bat potoloa dago, dana jaten zulako! Biak aska-zulo batian aitzen zian. Batek danak jaten zittun eta bestia gelditzen zan ezer gabe. Eta, noski, gero zer gertatzen da? Ba, Ttup potolo-potoloa eta Ttip ttiki-tttikia, flako-flakoa. Eta etortzen da "Jaun triperoa", txerri-hiltzailea, eta, noski, Ttip hantxe uzten du bazterrian eta bestia hiltzen du eta bestiakin egitten dittuelukainak eta odolkiak. Eta ordun esaten dio: "A, jan, jan, tripero, txingar eta talo! Baiñan ai hip-hip-hip, ez izan dena trip".

1.3. Ikastolako kantua IV

- **Hizlaria(k):** Mitxelena Illarramendi, Mari Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** USU-001/050
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 01:42:14. **Bukatu:** 01:42:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** Edukia lantzeko erabiltzen zituzten abestietako bat abesten du Mari Karmenek pasarte honetan.

Transkripzioa

Beste bat... "Ni ez naiz..." aber...

"Ni ez naiz xomorrua
izanagatik lau begi
atoz, atoz honera
ez zoazela igesi."

Eta holako... lurtean jarrita izaten zan hoi.

1.4. Ikastolako kantua V

- **Hizlaria(k):** Mitxelena Illarramendi, Mari Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** USU-001/051
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 01:42:45. **Bukatu:** 01:43:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

- **Laburpena:** Edukia lantzeko erabiltzen zituzten abestietako bat abesten du Mari Karmenek pasarte honetan.

Transkripzioa

Arratoia ariletan, xagua danbolin jotzen,
astoa ta idia dantzan, zorria parrez itotzen
txantxilon eta txantxilon, Koldo, Bixente eta Antton,
Miren, Idoia, Aizpea, hauxe nexxa-mutil taldea.

1.5. Berorika noiz eta norekin

- **Hizlaria(k):** Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** USU-002/011
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:09:24. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Berorika
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Periko "Markesaneakoari" buruzko anekdota kontatzen du. Berorika, zuka eta hika noiz erabiltzen zuten azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta Usurbillen anekdota ona bazan. Periko Markesenekua deitzen geniyon guk, markesa bizi zan ba eta oso mutil jatorra. Oain kargua kulturako kargua izan du Alavako diputaziyuan edo; kargu ona izan du ta. Hoi egun batian, don Francisko zan apaizetako bat, ta atzenengo meza eman du ta kanpoa zihoala argik piztuk oaindik eta Periko han errezatzen. Bakarrik elizan, beste danak alde egiñak eta. Ateatzekuan esan emen zion: "Periko, geo argik itzalduko al dittuk" eta: "Bai jauna, bai, jua hai beorri lasai" (barreak). "Bai-bai, jua hai beorri lasai". Horrekin parre earrak itten genittun.

-Apaizari orduan berorrika.

-Bai ba. Eta "jun hai".

-Apaizari berorrika eta medikuari ere bai.

-Bai, bai, "beorri". Eta aiton-amonei eta?

-Bai, bai. "Zu" ezta pentsatu're. Ezta pentsatu're aitta ta amai're.

-Aitta eta amari ere ez?

-Ez, ez.

-Eta "zu" nori?

-Zu daneiri. Hi oso gutxiri, anaieri eta; oso-oso laguna bihar zun izan hi esateko. Beste daneiri zu. Gu hola ohittu giñan.

-Amari ta "beorri".

-Bai. Errespetua dana, oso-osua.

1.6. Goitibeheran ibiltzeko prestaketak

- **Hizlaria(k):** Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** USU-002/016
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:20:22. **Bukatu:** 00:21:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Ibilgailu-industria
- **Laburpena:** Goitibeheran ibiltzen ziren, eta iltzeak zituenez, amak zakuekin egiten zizkien galtzak, horrela ez penarik emateko zulatzen baziren ere. Goitibeherak beraiek sortzen zituzten, materiala handik eta hemendik lortuta.

Transkripzioa

-Geo ibiltzen giñan gu, jetxiera estazioa zan bastante fuertia ta goitibeheran. Ta, klao, goitibeherak iltziak-eta eukitzen zittuen, ta galtzak-eta ez puxkatzeko gue amak iten zizkiun galtzak azukre-zakua buelta eman, Kubatik etortzen zien azukre-zakuak zian zurik. Ordun gue attack, txoferra zan, baiño geo itten zun, fabrika montatu zun sagarduena beste lau lagunekin. Ta ordun sagardo goxua itteko azukria ekartzen zuen ta azukria ekartzen zan zaku txuritan eta ordun buelta eman ta harrekin eiten zizkigun galtzak. Puxkatuta're josi el siete ahal zan bezela ta segi aurrea!
-Ta goitibeherak zuek egindakuak izango zien, ezta?
-Bai, bai, dana, dana. Rodamientuak-eta konsegitzen nittun Michelin-dik eta zeatikan eta geonek itten gendun dana. Egurra hartu, gastatu, jarri ta bengal! Konkursua bezela gaiña, aber onena zenek zun. Goittikberik onena zenek zun.

1.7. Larunbat santuko trikimailuak

- **Hizlaria(k):** Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** USU-002/017
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:21:32. **Bukatu:** 00:23:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Gabon eskean eta Santa Agaten ibiltzen ziren kantari. Larunbat santua ere egun garrantzitsua izaten zen: etxez etxe joaten ziren su berria banatzen. Egun hartan Urkamendin gosaria pezeta batean egoten zenez, lehenengo nahi izaten zuten hara iritsi. Su berria elizan pizten zen eta horregatik esaten zen bedeinkatuta zegoela.

Transkripzioa

-Gabon eskian edo ibiltzen ziñaten kantari?
-Bai, eta Santa Agedan'e bai. Eta bestia izaten zan gutzako oso garrantzitsua Larunbata Santuan, gabezko partez, oain gabez itten da, "lo lógico", ezta", ordun itten zan goizetik. Launbata goizian itten zan ya su

berriya. Su berriya itten zanian ardagaiyak eukitzen genittun, ardagai bat, ezta, osua. Ardagaiya badakizu zer dan? Arbolai ateatzen zaizkan perretxiku tipuak hola. Haitzari ta haundik ateatzen dia. Hoik ardagaiya da. Ta ordun eamaten gendun bat txiki-txiki inda boltsan, pillan, baiño bestia sua piztuta. Ordun genittun basarrik ezagunak. Urkamendi aurrena jutun zanak izaten zun... Zenbat izaten zun... Pezta bat eta gosaiya uste det izaten zula. Jode, danak aber aurrena zein aillegetzen zan Urkamendia. Urkamendia Usurbildikan kaletikan egongo dia bi kilometro ta erdi edo hola. Korrika aurrena zein aillegetzen zan. Ta ordun batzuk itten zuen tranpa. Su berriyakin piztu biharrian etxian piztu ta... Su berriya partitzea jutun giñen etxez etxe. Ta propiña ematen ziuten. Erriala ematen zunak asko. Hamar xentimo, "perro haundiya" esaten zana.

-Eta su berria partitzeko nun hartzen zuten beraiek?

-Gero etxian, ekonomikatan sua.

-Sutara bota?

-Hara bota ta ya bedeinkatuta geatzen zan (barreak). Hoik gauzak, e.

-Esaten zan zerbait su berria partitzen zanian? Bazan esaeran bat?

-Ezer, ezer ez. Eman itten zizuen. "Bai, ya izandu da". Mekauen la mar, beste lekura korri. Goiz guztiya korrika batetik bestea aurrena aillegetzen.

-Eta su hori nun pizten zan?

-Elizan.

-Elizan. Horregatik zan bedeinkatuta edo.

-Bai, bai, klaro. Apaizak bedeinkatzen zunian, hartaa elizan sartzen zanian bera errezatzea, piztu ta korri batea ta bestea. Ya kalkulatu "hi noa jungo haiz?" ta ba ni hara jungo nauk eta ni bestea jungo nauk eta. Hola ibiltzen giñan.

-Ta hori zenbat urtekin?

-Ttiki-ttikitatik. Bost urte, sei urte...

1.8. `Zirt-zart´ abestia

- **Hizlaria(k):** Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** USU-002/043
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 01:05:27. **Bukatu:** 01:08:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Zirt-zart` abestia kantatzen du. Oso gustuko du kanta hori adineko jendeak. Berez kanta zaharra da, baina bere taldeak berreskuratu egin zuen.

Transkripzioa

Zirt zart,
gogoz egin zan par
pardel ezkontza baiñon
hobe den neskazahar.

Hamaika andre gaztek
etxian badute
giltza gabe pardela
salgai eta merke

baldin erostunikan
baldin ba luteke
eskerrik askorekin
salduko luteke.

Lalaralalala...

Zirt zart,
gogoz egin zan par
pardel ezkontza baiñon
hobe den neskazahar.

Hamaika andre gaixo
ikusten dittut nik
beren bizi moduaz
odoi asperturik
senarraren pardela
eraman eziñik
neskazaharrak ez dute
horrelako lanik.

Lalaralalala...

Zirt zart,
gogoz egin zan par
pardel ezkontza baiñon
hobe den neskazahar.

Ez gaude garai hontan
ezkongairik gabe,
ugari dittut baiñan
gustokorikan ez
Luis ta Ambrosio
Tomas eta Andres
ja, jai, gehiago ere
badabiltza galdez.

Lalaralalala...

Zirt zart,
gogoz egin zan par
pardel ezkontza baiñon
hobe den neskazahar.

- Joe, oso polita!
- Egiya kanta polita dala?
- Oso polita.
- Ez dakizu zahar guztiak nola... nola kantatzen duten.
- Eta hau zuek berreskuratu zenuten?
- Bai, bai, hau galdua zeon. Hau...
- Galdua zeon.
- Hau bai, hau gure kanta bezela azaltzen da. Nik guria dala esaten diyet.

1.9. `Erreguetan´ abestia

- **Hizlaria(k):** Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** USU-002/045
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 01:09:01. **Bukatu:** 01:13:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** `Erreguetan´; abestia kantatzen du.

Transkripzioa

Erreguetan ari nintzala
hartu nuen albistea.
Ama zureak nahi ez duala
biok alkarganatzea.
Nolaz ez neukan oraindiokan
gauz hori erabakia,
berbertatikan asmo hartzen det
lekaimetan sartutzea.

Min-eriturik arkitzen danak
egin beharko negarra.
Nahiagatikan logratu ezin
desio nuen izarra.
Mundu hontatik eramango det
damutasun bat bakarra:
zu gabetanik nere bizitza
hemen igaro beharra.

Ez egin arren, lñaziotxu,
horregatikan negarrik.
Mundu honetan ez dago, bada,
[egiterikan] nahi danik.
Oroitu zaite beste bat ere
badeguela oraindik,
goiz-gabetako erreguetan
ez naiz ahaztuko zugandik.

Zure izena badaukat eta
egin...

(Egon. Aiba diez! Korta, korta.)

Zure izena badaukat eta
ez zait sartuko besterik
Debekatutzen duten ezkerro
ezkondutzea lurrean,
saia gaitezen ahalegiñian
elkartutzeko zeruan.

Hau ez deala kantatu... Jesus! Urtiak ez deala kantatu hau, e!

1.10. Kanta "berde" bat

- **Hizlaria(k):** Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** USU-002/047
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:14:05. **Bukatu:** 01:16:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** Kanta "berde" bat abesten du.

Transkripzioa

-Berde bat kantatuko dizut. 3R, e! 3R da hau.

Tturruku-ttuku-ttuku

Ez neri ukuttu,

Aita ganbaran da ta

Sentittuko gaitu.

Aita ganbaran eta

Ama sukaldian,

Neska-mutillak berriz

Eskailera azpian.

Neskak esaten dio

Azpitik ai-ai-ai!

Mutillak gaiñetikan

Isilik egon hai!

Kaliaren erdian

Nahi degun guztia

Han kunplittuko degu

Gure kutizia.

Tturruku-ttuku-ttuku

Ez neri ukuttu,

Aita ganbaran da ta

Sentittuko gaitu.

-Polita da hori ere.

-Berdia. Hori kantatuta parre eiten duen zarrak baakizu ze izandu dian gaztetan. Alproja earrak. Ta holaxe.

1.11. Dena bekatu zeneko garaia

- **Hizlaria(k):** Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** USU-002/052
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:22:54. **Bukatu:** 01:24:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- **Laburpena:** Misioak izaten zirenean, beldurgarria izaten zen dena. Lehen dena zen bekatu. Neskak eta mutillak ez ziren elkarrekin ibiltzen.

Transkripzioa

-Misiuak-eta egoten ziren Usurbillen?
-Bai, bai, honbre! Leiho danak jarri tela more kolorekoa ta dana illun-illun-illunian jarri ta. Bueno! Sermoiak eta misiuak eta, bueno, bueno!
-Sermoi bildurgarriak, ez?
-Bai, dana bildurra. Dana pekatua ta dana bildurra.
-Inpernua ta...
-Dana, dana.
-Eta orduan zer zan pekatu?
-Galde zazu zer ez zan pekatu (barreak).
-Dana pekatu orduan, dana.
-Zan beste jangoiko bat, mekauben la puñeta. Ze parrek ingo zittun harrek goitikan hori ikusten zunian. "Ni ez nak hoi", esango zun, "ni ez nak hoi".
-Eta pentsatzen det zuek libreago ibiliko ziñatela emakumiak baiño.
-Bai. Guk ez gendun, ez giñan alkarrekin, gutxi ibiltzen giñan. Neska-mutillak ez giñan asko ibiltzen gure garaiyeen. Gu "por libre" beti.
-Pekatu zan eta.
-Bai ba. Honbre. Guk oilluak harrapatu ta geo aingirak harrapatu ta elizaa eaman eta... Bueno! Kastigatuta aldarea eaman han paretean jartzea ta. Ni bosterditan eta bost urte ta erdikin hasi nitzan monagillo seitako mezetan, e. Ta seitako meza lagundu eta geo estudiatzea zortzietako trena arte. Ttiki-ttikitatik.

1.12. `Herriko festak´ kanta

- **Hizlaria(k)**: Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: USU-002/061
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 01:36:38. **Bukatu**: 01:40:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: `Herriko festak´ kanta ezaguna da, Arrate Irratian sarri jartzen zuten. Kantatu egiten du. Euskal kantuen "hit paraden" lehenengo egon zen kanta hori.

Transkripzioa

- `Herriko festak´... `Pello Joxepe´ igual ezagunagua da `Herriko festak´ baiño, ez?
- Bai? O `Herriko festak´? `Herriko festak´ ezaguna da, e! Jesus! Oain, oain... urtetan Arrateko zeak, radiyuak, jotzen zittun gure kantak eta bat `Herriko festak´ izaten zan beti.
- Nahi dezuna zuk.

Herriko festak zian biyamonian,
berak nahi zuten txoko, txoko batian,
harri txabal-txabal baten gaiñan,
ari ziran, ari ziran trukian.

Lau atso: hiru neskazahar,
bat alarguna, jarririk itzalian,

harri txabal-txabal baten gaiñian,
ari ziran, ari ziran trukian.

Hasi ziradenian kartak partitzen,
eta gaiñera tantuak kontatzen.
Truk jota, lñaxik txota,
Mariak txaldun, ta Errufinak hirua.
Mari Martin, zoratu al zain burua?
lauarekin hiruaren kiñua.

Herriko festak zian biyamonian,
berak nahi zuten txoko, txoko batian,
harri txabal-txabal baten gaiñian,
ari ziran, ari ziran trukian.

Neska egon hadi ixil-ixilkan
hik ez den ikusi nere kiñurikan!
Ttanttan bat edan ezkerro,
begiyak briz-briz, ezin egon ixilik
edan ezan, edan ezan gogotik,
katillua, katillua beterik.

Herriko festak zian biyamonian,
berak nahi zuten txoko, txoko batian,
harri txabal-txabal baten gaiñian,
ari ziran, ari ziran trukian.

- Hau oso politta da kanta hau.
- Bai, bai, oso politta da.
- Honek atera zun aurreneko puestua. Uste det ziela hau eta `Erreguetan´, ta `Zirt-zart´ e bigarrena. Ordun bazan "un hit parade de la canción vasca".
- A bai, e?
- Bai, ta hor danak giñan, e! Lertxundi ta Lete ta danak giñan hor, e! Ta guriak atera zun.
- Eta nola erabakitzen zan hori, "hit parade" hori?
- Botuak. Jendiak botuak botatzen [...]. Bai.
- A bai? Ta hori irratiyan ala nola?
- Bai, bai, bai. Irrati... "Radio Loiola" zan ordun, uste det. Bai, Loiola uste det zala hor zeona en la calle Getaria, goien, Jesuita gaiñian zeon hua. `Radio Popular´, `Radio Popular de Loiola´ uste det izena zula ordun.
- Eta zuek radiyorako ere kantatzen zenuten?
- Bai, bai. Radiyuan ta telebisiyuan ta... leku askotan. Leku askotan.

1.13. `Andre Madalen´ eta beste zenbait bertso

- **Hizlaria(k)**: Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: USU-002/063
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 01:40:29. **Bukatu**: 01:43:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

- **Laburpena:** Umeei `Andre Madalen´ abesten zieten, lotarako edo dantzarako. Abestu egiten du. Doinu bera erabilia, beste bertso sorta bat abesten du (Txirritaren `Dantzariyaren premiyua´).

Transkripzioa

- Loarazteko `Andre Madalen´. Gure kanta internazionala hoi da. Ume danairi, lotarako, `Andre Madalen´. Ta dantzako´re bai, `Andre Madalen´ beti.

- Eta nola da?

- Andre Madalen, andre Madalen,
laurden erdi bat oliyo,
aitak jornala ekarritzian,
amak pagatuko diyo,
amak pagatzen ez baldin badu,
aitak pagatuko diyo,
aitak pagatzen ez baldin badu,
hor konpon eta ariyo.

Gaiñea hoi da... Aittu zazu hau:

Juan dan astian Saran izan naiz
Santa Kurutzak pasatzen,
lau neska gazte etorri ziran,
etziran asko lotsatzen;
mutur igarrak zituzten, baiña
ondo zekiten dantzatzen,
horrelakorik munduan zanik
ez nuen asko pentsatzen.

Titi gabeko mutur igar bat
presentatu zan lenbizi,
bi eskuaidi txistu emanda
plazan saltoka zan hasi;
nere begiyen aurrian ez det
bizkorragorik ikusi,
on-ustekuak baziran, baiña
hura zan hango nagusi.

Beste bi beltz-beltz ensaiatutzen
ibilituak jai ta aste,
beren ordua heldu danean
haik ere deittu dituzte;
duro erdi bana eman diyote,
geldittu dirade triste;
esana diye: «Ez dizkiñagu
pattarretako hainbeste!».

Laugarren honek ere bazuen
dantzatzeko jenyua,
esanaz: «Gora edari ona,
pakia ta uniyua!».
Zertarako dan erakutsi du
hark bere oponiyua;
titi gabeko mutur igarrak
eraman du premiyua.

1.14. Eskolatik irteteko trikimailuak

- **Hizlaria(k):** Orbegozo Lizarazu, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-003/011
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:16:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Anaiari ez zitzaion gustatzen eskolara joatea eta bizkarrean eramaten zuten. Lehengusuari galtzetan kaka egiteko eskatzen zion, horrela etxera joan ahal izateko.

Transkripzioa

-Gure Jabierrek historiya. Gure Jabier eskolaa jun nahi ezik beti. Eskolaa juteko negarrez madarikatzen. Ni berriz kontentu juten niñun eta. Ni niñun juten ez nintzana. Ta "Largo" badakik zein zan, "Largo"; harek bizkarrian eamaten zin. Bizkarrian harek askotan, ostikoka eskolaa. Gero lehengusua, Xanti, ez huan ezautu, Apaolaza. Xanti Apaolaza.

Nieves: -Ezautuko ez zuan ba, Juantxon anaia.

-Apaolaza Orbegozo, ezautzen al huan?

Nieves: -Ezautuko ez zuan ba?

-Eskola jun eta Jabierri esaten [emen zion]: "Hi, Xanti, in zak kaka galtzetan biok etxea juteko".

-Eta iten al zun?

Nieves: -Tarteka alde ingo ziyon. Ordun eskolaa gustoa umiak ez jutia..., zigortu iten zuen.

1.15. Erromerietako giroa eta debekuak

- **Hizlaria(k):** Orbegozo Lizarazu, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-003/035
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:51:52. **Bukatu:** 00:53:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Erromerietan dantza egiten zuten. Leku guztietan ez zegoen debekatuta dantza lotua. Orduan zer musika izaten zen aipatzen du.

Transkripzioa

-Eta juten ziñatenian orduan, dantza eiten zenuten erromerietan edo ze...

-Dantzan in, sueltuan eta, baltsian eta.

-Baiña debekatuta ez zan egoten edo?

-Guri ez,

-Mutillei ez?

-Mutillai ez.

-Mutillak zeñekin ingo zuten ba lotuan?
 -Neskakin.
 Nieves: -hemendik kanpoko herritan ez zeon hemen bezelako.
 -Hemen bezelako zerik ez zeon.
 -Zer zan, hemen bestetan baiño itxiao?
 -Hemengo erretorian gorabeherak.
 -Joxe: -Hemen eta Zubitan ere bai, e.
 -Zubitan ere ez zien uzten.
 Joxe: -Usurbillen eta Zubitan ez zien uzten.
 -San Estebanen'e /Ixtebanen/ ez, San Estebanen'e ez zien uzten, Baltsian ez ien uzten, ez, ez, ez. Eta Agiñan'e ez dakit ba.
 -Osea ke danok ihesi joaten ziñaten nun egin lotuan.
 -Ba hemen neska gutxik uzten zuen. Geo ni [...] hasi nitzanian nahikua itten nun.
 Joxe: -Baiño gutxi, ez zien uzten.
 -Gogua bai dantzan eiteko.
 -Bai. Honbre! Joe.
 -Orduan ze musika izaten zan?
 -Ba banda're bai ta. Orkestina're bai ta. Ba, ba, ekartzen zuen, ekartzen zuen. Ta horren aitta ttunttuna jotzen eta. Trikitixa, trikitixik ez, trikitixa geoztik hasi zan hemen. Oan bai mordua do Usurbillen trikitixa baiño.
 -Eta dantza nun ikasten zenuten?
 -Ba plazan, frontoiyea eta. Festetan berriz udaleko, han izaten zan bailia. Balkoi haundi hartan izaten zan festetan. Gaiñontzian frontoiyea.
 -Egiñez ikasten zenuten, ez ziñaten juten klasera.
 -Bai, klasera, ezta pentsatu're.

1.16. Emakumeen makillajea

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Nieves
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-004/037
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:59:03. **Bukatu:** 01:00:18
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Ezkondu zen egunean arreglatu zituen lehenengo aldiz bekainak. Ordura arte makillajea ez zen erabiltzen ia. Masailetan hautsak eman gabe kolorea izateko modua bazuten.

Transkripzioa

-Orduan makillajia ta nola zan, noiz hasi ziñan?
 -Makillajia?! Ezkondu nitzan egunian Joxeba Herreruanequak, Martxiel, Martxieli in diyozue ba? Haren arreba zan oso jostun ona. Eta harek jositako soiñekuakin ezkondu nintzan gaiñea. Ta ezkondu nintzan egunian aurren-aurrena betazalak arreglatu zixkian harek. Lehenengo aldiz!
 -Zenbat urtekin ezkondu ziñen?
 -Hogeita bikin.
 -Ta lehenengo aldiya, e?
 -Lehenengo aldiya. Makillajia ordun? Bueno...
 -Begiya pintatu edo?
 -Ezpaiñak bai, baiño keba, ezta ezer'e.
 -Zerrekintzatzen zenituzten ezpaiñak?

-Ezpaiñak? Ba pintalabios.
-Eta nundik erosten zenuten hori?
-Drogeriya bazan hemen Usurbillen, bai.
-Eta ematen al zenuten hautsikan edo?
-Ezta ezer'e. Nik sekula ez det eman. Sekula ez det eman, ez det egiya esan. Gerora eman det.
Joxe: -Hautsak bazian, e.
-Baiña nik ez nin ibiltzen. Hola in, hola fuerte-fuerte ta kalea.
-Zer zan hori?
-Koloria pixkat ateatzeko. Hola toailla mutur batekin hola bero-bero in eta kalea.
-Hara!
-Honbre! Guk ez gendun erosteko're ezer'e e?

1.17. Gizon-dema

- **Hizlaria(k):** Alkorta Zabala, Praixku; Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-007/006
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:06:58. **Bukatu:** 00:08:19
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Deman ibili izan dira gizonak. Bizkaitik etorri ziren gizon batzuk dema mota hori erakustera; eta, haiei imitatu nahian, Usurbilgoak ere saiatu izan dira.

Transkripzioa

-Agiñakuak noiz etortzen ziren herrira?
Joxe: -Etortzen zianian ezagun izaten zan.
-Dema-harriakin'e hor ibiltzen zian borrokan herrikuak eta languak.
-Dema-harriekin gizonak? Edo idiekin?
-Demak.
-Zeinek tiratzen zuen harria?
-Agiñako kuadrilla eta Usurbilkua bata bestian kontran.
-Gizonak?
-Bai. Harri haundiyekin'e ibili hittuan hor, harri haundiyekin'e. Hor do aspaldin geldik baiño harri haundiyekin.
Joxe: -Hoi eakutsi zuen bizkaitarrak. Bizkaitik etorri zian, ez dakit zenbat gizon etorri zian. Sei gizon edo etorri zian.
-Sei izango hittuan.
Joxe: -Sei etorri zian harri haundi horrena, ta in zuen plaza bat, plaza bat uste det in zuela. Ta gero haren zean, hemen gizon haundik bazian, Agiñan'e bai: "Haik ibilli duenerako guk'e ibilliko giñikek". Ta beti hala izaten zan, urtiak jun, urtiak jun, ta "Joño, haik ez zien in gue aurrekok baiño guk ingo giñikek" eta. Ta beti holaxe egondu da harri haundi hoi. Ta hortxe do, eta hor eongo da ere.
-Aspaldin geldituta do.

1.18. Gaueko eskolan ikasi zuen gehien

- **Hizlaria(k):** Alkorta Zabala, Praixku
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-007/015
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:20:29. **Bukatu:** 00:21:32
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskola bukatu zuenean, lanean hasi zen baserrian. Gaueko eskolara joan zen gerora negu batean Teodoro maisuarekin; han ikasi zuen gehien.

Transkripzioa

-Hamabi urtekin eskolatik atera egin behar, bukatu egin zan eskola zuretzako.

-A bai.

-Eta orduan ze in zenun, baserrira lanera?

-Lanian hasi. Attak esaten zizuna in in bihar.

-Eta gau-eskolan gero ibili ziñan?

-Gabeko eskolan hantxe. Lehen esan deun Teodoro horrekin.

Joxe: -A bai, e.

-Maixubakin, bai. Negu batian hoi, e. Behin.

-Eta orduan zer ikasten zenuten gabeko eskolan?

-Gehina orduntxe ikasi nun nik. Orduntxe. Gabeko eskolan.

-Zergatikan? Zuk gogo gehio jarri zenuen edo?

-Hoixe ba, nolabait'e arreta gehiyo hartu ta.

Joxe: -Lagunik ez al huan? Arratzaindikan edo?

-Ez.

Joxe: -Egioletatik edo Urtetatik ez al hun lagunikan?

-Ez. Hoitan gabeko eskolaa-ta hola ez.

1.19. Bi txiste

- **Hizlaria(k):** Goenaga Gorriti, Martzial
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-008/008
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:14:24. **Bukatu:** 00:15:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Tortillaren txistea kontatzen du. Ebakuntza estetikoari buruzko txistea kontatzen du.

Transkripzioa

-Mutil bat bee lagunakin juntatu zanian: "Ze mouz?" eta "motel, motel, etxian erotzat egokitzen natxiek". "Erotzat? Zeatikan?". "Tortilla-patata asko gustatzen zaitelako". "Tortilla? Nei're ikeragarri gustatzen zatak". "Guazemak etxea, guazemak! Armaioa dana betia zekat eta".

-Argiñanok esan zuna politta bestia, beste neska (b)at han emen zeon

klinikan edo, operazioan, nola deitzen die ba? Estetika edo. Ein emen zizkien ezpaitzak, kokotza ere bai, masaillak... Geo petxuk'e bai hazi ta. Orduako aspertuta eongo zan meikua eta bueno. "Me parece que ya estás ya como para ir a casa; estarás a gusto, no?". "Pues mira, me gustaría que los ojos parezcan mayores, más saltones". "Enfermera, trae la factura!".

1.20. Gerraostean, gerrikoak baino hobe tiranteak

- **Hizlaria(k):** Goenaga Gorriti, Martzial
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-008/026
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:32:53. **Bukatu:** 00:34:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Estraperlo asko egiten zen Plazaolako trenean. Etxean bazuten irina txikitze makina; goseari aurre egin zioten. Garai hartan ez zeuden gerrikoak, tiranteak baizik.

Transkripzioa

-Garai hartan estraperloa eta baziren?

-Bai.

-Eta zuk ezagutzen dozu baten bat hor ibiltzen zana edo? Zertan egiten zan estraperlua?

-Hor asko behintzat hemen Plazaolako tren hortan ibiltzen ziela uste det hor. Hor asko.

-Eta zer ekartzen zuen?

-Ogiriña edo, ez dakit ba nik.

-Eta zuek goseik gutxi pasa zenuten ordun?

-Guk baiño gehiagoko askok behintzat bai. Gurian talua edo besteik ez bada iriña edo ez bazan, etxian txikitze makina bazeon eta. Artua edo deitzen ziyen zea bat itten zan eta.

Joxe: -Morokillua ta.

-Zer zan morokillua?

-Esniai botata jeneralian jaten zan.

Joxe: -Artua irindu be gehiegi. Osea, oaindikan artua gehiyo iriña baiño. Ta hua bota ta "morokillua" esaten zitzaion.

-Ba ordun zinturik ez zan saltzen, zinturik ez, dana tirantiak gerrin galtzak geratuko balin bazien. Ni neroni eguerdin bazkal aurretikan behintzat galtzai heldu eziñikan. Tiranteik jantzi nahi ez, ta behin bazkaldu ezkeo hor nunbaitt. Ni plakua, gu bi amaiok baiño plakuagoik ez huan eongo Usurbillen. Joe, bazakat fotografi bat hor.

-Emaztea: -Bere besuak belaunak baiño beherago, luzego.

-Fotografia bazakat nik hor.

-Gero erakutsi.

-Bai, erakutsiko dizuet, erakusteko modukua da eta, tripa haundiik be.

1.21. Ximon mezalagunaren anekdota

- **Hizlaria(k):** Goenaga Gorriti, Martzial
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-008/037
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:48:48. **Bukatu:** 00:49:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Meza-laguntzen ibiltzen zen mutilari buruko anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

-Meza laguntzen bat zakina zan. Ximon zakina zan, ta bestia Anttonio ikasten. Ta ordun apaizak oain bezela libruk sokik-eta ez ziten izaten eta billatu eziñik ibiltzen hittun. Ta kakaillatu dek gue Ximon hoi ta "Honek denboa asko pasako dik ta ni baniek kaka ittera ta". Harek alde in dunian hasi da: "Eta introibot tal tararei" apaizak eta. "Ximon kakaiñara jun da eta pixkatian egon bei!". (barreak). Hori gue aitta zanak kontatzen zin, bai. Holan artua zurtzekuan eta, han geldiaraztiatikan eta.

-Zer, zer izaten zan hori?

-Artua zuritzen. Zurikiña kendu, baakizu gero. Bestela alde iten gendun eta, hua holako kontu batzuk esanez.

1.22. Itziarko apaiza hil gerra denboran

- **Hizlaria(k):** Maiz Labaka, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-012/010
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:17:42. **Bukatu:** 00:18:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena:** Gerra garaian apaizak kalez jantzita ibili ziren. Itziarko apaiza hil zutenekoa kontatzen du.

Transkripzioa

-Gerra denbora gaiñea tokatu zitzaidan. Oain'e paisano, ordun'e paisano ibili zian apaizak.

-Nola paisano?

-Sotana kenduta, gerra denboan.

-Eta hori ze ba?

-Hoi bildurrakin. Gorrik zian, bestiak zurik Francon ze hauek. Hilko ziyen bildurrakin eta.

-Baten bat hil zuten hola?

-Hemengoik ez baiño hor zean bai. Itzauko Anttoniok esaten du nola ikusi zuen gaiñea. Itzauko hortan erriyo baztarrian Itziarkua izan bihar zun apaiza. Gorrik, esto, zer zian hoik, "guardias de asalto" zian. Ta haik bonetia edo txapel zea nola etxetik beira ta bonetia kendu ta raaa! hari

deskarga bat ein txapelai ta geo beai; apaiza nola hil zuen ta nola erriyoa eroi zan. Anttonio Itzau.

1.23. Mojekin frantsesez ikasten hasi zenekoa

- **Hizlaria(k):** Maiz Labaka, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-014/013
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:22:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
 - Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- **Laburpena:** Elizara igandero joaten ziren gaztetan ere. Eskolan denetik ikasten zuten, entziklopedia erabiltzen zuten klaseetan. Frantsesa ikasten hasi zen eskolan; izan ere, irratiko kantak abestea gustatzen zitzaion nahiz eta frantsesez izan eta ordura arte frantsesa ulertu ez.

Transkripzioa

Gaurko estudioik ez. Liburu bat. Elizara bai ugari. Goizian mezetaa ta, jaiyan nobiyuakin ni zea juten nitzan, sankristira juten nitzan, azpi hartaa juten nitzan dotriñan eitea, e. Pentsa zazu, nobioakin ibilli arren. Hola ohittu giñen relijio hortan... Eta ez dakat penaik gaiñea, ez dakat penaik. -Ze ikasten zenuten eskolan.

-Eskolan? Danetatik. Geografia, Historia... Una enciclopedia, bat, dana han sartzen zana. Pentsa zazu. Hamaika-hamabi urtekin atea giñen, bizimoua atea deu behintzat aurea. mutiplikaziuak eta sumarrak eta kebraduk eta ikasi giñun; ja-ja, batxillerraik ez baiña behintzat bizitzeko aiña [at] ikasi gendun.

Joxe: -Dotriña bai.

-Hoi bai. Ni frantsesez'e hasi nitzan bastante. Eske nun... Gaur'e bai, oaindik ez da denboa asko Marixabelek, aldameneko gukin bizi danak esan zidan: "¿Ximona, sabes qué recuerdo tengo de tí? Que no hacías más que cantar. Sabías todas la canciones de la radio". Nik bai, nik radiua jarri ta... Eta gaur igual, ikeragarri gustatzen zait. Eta, klaro, ordun ba frantsesez ikasten, ez nun gogoik hola nik estudiantzeko, atxurra're nahiyo, eta edadia're halako zea ta, bueno. Behintzat monjak: "¿No os da vergüenza? La Simona que está cantando ya ves, las canciones en francés..." Yo en francés todo, todo lo que me den decación todo. Eta "tienes que aprender el francés" esan zidan egun batian. "Que no, que no madre, que no". "Que sí, que sí Ximona" ta hasi nitzan, oraziuak-eta, parre eiten die umiak oain esaten dizkitenian, oraziuak eta numeruak cieneraiño ikasi bainiñun. Pero luego eso de la O con la U y no sé qué, anda ya! Se me hacía tan violento que no. Letzen ez nun ikasi.

-Dana belarritikan?

-Honbre, ez, han giñun gere kuadernoak eta.

1.24. Astoarekin izandako eskapada

- **Hizlaria(k):** Maiz Labaka, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-014/016
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:24:59. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Zaldi gainean ibiltzeko zaletasun handia zuen Simonak. Behin astoarekin izandako istripua kontatzen du. Abereak iel egoten dira eta behiak susara.

Transkripzioa

-Ta afizua nun zaldi gaiñian ibiltzeko, Joxe. Ni aberatsa izan banintzan, hipika. Seguro, e! Harekin Luberrira juten nitzan. Pozik juten nitzan, mendia jun bihar zan eta. Haren gaiñian juteatikan juten nitzan.

Joxe: -Astua zan hua, e!

-Astua? Ni behin garbitu ez niñunian! Olloki aldea jun nitzan sagar bila, bi xesto eukitzen zittuan astuak. Ezautuko dezu, noski, "al costau". Haik betetzea, astalkak, sagarrez, hurrungo egunian Donostia eamateko. Eta tira eta tira /tia ta tia/ ta Ollokitikan ya barrena, belardin barrena netorrela, ta zeon asto bat Kontseju Txikikua edo Olloki aldian. Hua arrantzaka eta honek jun nahi ez. Eta hoi emen da arra ta emia zialako. Fíjate!, zeluak. Saltatzen zait gaiñea, heltzen nau bizkarretik. Hola, e, hartu nion, hemenditxik azal-azalian. Ordun txikitu nahi baniñun azpin harrapatu ta txikituko niñun ni. Haren jeniua, hua larriya! Geoztik nun bildur bat! Ikeragarri eskapaa in nun, bakar-bakarrrik nitzan mendin eta, gaiñea saltatuta, raa!, hortzakin.

-Eta gero...

-Ba hoi zan zeagatikan, ahal zan bezela etxea etorri ta. Ez zan klinikaik eta residentzirikan. Hori emen zala horreagatikan, arra ta emia zialako. Beak entzuten dittue beren marruk, entenditzen dia nubaitt. Eta harek nahi zun emia, guria arra zan eta.

-Nola esaten zaio horri, zaldiak emia nahi dunian.

-Que está en...

Joxe: -Igel...

-Igel aittu izan det, "en celo", que está en celo".

Joxe: -Aberiak "iel", behiyak "susa".

1.25. Arantzazu txokolatea

- **Hizlaria(k):** Maiz Labaka, Simona; Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-014/044
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:08:35. **Bukatu:** 01:10:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- **Laburpena:** Arantzazu txokolateari buruz hitz egiten dute: oso txarra eta gogorra omen zen.

Transkripzioa

-Ba harriya baiño gogorraokua zan baiño txokolate naturala hua. Jolin.
 -Ze txokolate zan hura?
 -Aranzazu.
 -Nundik ekartzen zenuten?
 -Hemen, dendetatik.
 Joxe: -Hua? Zeakin iten zuen, hondarrakin. Txarraoik!
 -Txokolatia baiño arenilla, latz-latza.
 Joxe: -Hortzak galdu ez giñunian harekin, ez zeon puxkatzeik hua ezta...
 Joe, ze txarra.
 -Papera bere Arantzazuko Ama Birjiñian imajiñakin eta. Dotoria.
 Joxe: -Ez zun baezpare Lorit-eta jartzen. Lorit goatzen al zea? Lorit txokolatia, joe, ear askua!
 -Baiño garestia izango zan.
 Joxe: -Ikeragarri garestia. Arantzazu ta bestia nola zan?
 -Ez naiz goratzen. Zuk esan dezulako Arantzazu're.
 -Eta nun egiten zen Arantzazu hori?
 Joxe: -Hori iten zan zean, erriyo baztarran, hondarra eukitzen zun eta harekin.... Hua ez zeon iteik fabrikan. La ostra!
 -Hau xelebria!
 Joxe: -Suchard edo.
 -Bai, egia, Antiguako la fábrica Suchard.
 Joxe: -Hor iten zala uste det Arantzazu, e.
 -Izango zan bai, bai. Gaurko zera bezelakua ez zan, gaurko txokolatia bezelakua ez zan.

1.26. Ezkontzako jantzia

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Urruzmendi, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-016/020
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:33:37. **Bukatu:** 00:34:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
 Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Ezkontzako jantzia propio egin zuten beretzat: tela erosi eta jostunarengana eraman zuten egitera. Jantzia nolakoa zen deskribatzen du.

Transkripzioa

-Trajia nundik ateratzen zenun, ezkontzetako trajia?
 -A, propiyo tela erosi ta ein in ziguen Donostin, Parte Zaharrian.
 -Eta hori normala zan edo, normalian etxian josten zan edo? Edo baita ere hola juten zan baten batengana, jostun batengana?
 -Bai, bai, bai. Jostun batengana jun giñan Parte Zaharrian eta han in zizkiguen hemen sekulako bordadurakin hola. Zeoze hemen ikusten zayo pixkat, baiño... Dana. "Y entallao".
 -Zer zan, gona edo soiñekoa?

-Ez, ez, txaketa ta gona.
-Eta gero gaiñian, belua edo...?
-Gaiñian zea bat zan, eta gero hau mantilla zar hoi [...].
Joxe:-Elbik ez sartzeko.
-Bai, bai, bai. Hoi atzea botata polittauak egongo giñan baiño horrekin...
Orduko kontuk, orduko kontuk.
-Bai, ba, garaiko kontuk.
-Garai-garaiko kontuk, orduko kontuk. Jesus!

1.27. Eskolan ikasitako aditzak oraindik gogoan

- **Hizlaria(k)**: Bengoetxea Urruzmendi, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-016/023
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:37:46. **Bukatu**: 00:39:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- **Laburpena**: Eskolan zer ikasten zuten aipatzen du: matematika, gramatika... Ikasitakoa galdetu egiten zieten gero mojek.

Transkripzioa

-Eta ze ikasten zenuten eskolan?
-Boo! Jesus! Ze ikasten gendun? Aurrena hor tablerua esaten geniyon, eta tokatzen zana tableruan aritmetika jartzen zun zean bat itea, ondo iten gendun eo gaixki iten gendun ta. Geo, ze ikasiko gendun? Gozian jun ta elizaa, goizian zortzi terditako meza. Zortzi terditako mezetatikan jun zerea ostea eskolaa, han'e beste esplikaziyuak eta hola. Eta geo tokatzen zan bezala. Berbuak eo, ez dakit ze hurrungo egunian ez dakit ze ta, aritmetika ta. "Sumar" ta "restar" ta "multiplicar" ta "dividir" ta. Bai ba. Geo berbuak'e bai.
-Berbuak ze ikasi zenuten?
-Jesus! "Yo he amado, tú has amado, él ha amado, nosotros hemos amado, vosotros habéis amado, ellos han amado. Y pluscuamperfecto, yo hubiera amado, hubiese amado; tú hubieras amado, hubieses amado; él hubiera amado, hubiese amado; nosotros hubieremos amado, hubiesemos amado, ellos hubieran amado, hubiesen amado". Bueno, bueno.
-Oraindik gogoratzen zaizkizu.
-Oooo! Ikeagarri goatzen zaizkit, ikeragarri, lehenguak. Eta oainguak regular.
-Hori gero galdetzen al zizuen? Hori ikasten zenuten eta gero azterketaikan...?
-Geo galdetzen ziguenian "A ver Cristina verbo o no sé qué", esan in bihar gendun dana, dana. Bueno, bueno, bueno.

1.28. Historia sakratua buruz ikasi eta oraindik gogoan

- **Hizlaria(k)**: Bengoetxea Urruzmendi, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider

- **Erref:** USU-016/024
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:39:33. **Bukatu:** 00:40:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Historia sakratuan ikasitakoak buruz gogoratzen ditu oraindik. Hainbat pasarte esaten ditu.

Transkripzioa

-Geo Historia Sagradakuak'e bai gauza asko. "Caín y Abel y no sé. Caín era malo, Abel era bueno. Dios quería mucho a Abel, Caín tuvo envidia de Abel y le mató. Por castigo la sombra ensangrentada de Abel perseguió a Caín toda su vida".

-Ondo gogoratzen dezu historia.

-Bueno, bueno, bueno.

-Beste historin bat hola buruz gogoratzen dezuna edo?

-Gauza asko. Bueno!

-Josena badakizu?

-"De José quién?"

-Saldu zuen hua. Bai, anayak nola saldu zuen. Faraoiria iritsi zan hua.

-Etxoin. "Gedeón por sus hazañas, Sansón por su fuerza y Samuel que fue el último juez por la santidad de su vida". Bueno! Bueno-bueno-bueno!

Bueno, dakizkit, hola tarteka gehiyo're gogoratzen zaizkit.

1.29. Polizia-zakur zintzoa

- **Hizlaria(k):** Camino Ibargoiien, Justo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-018/006
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:12:14. **Bukatu:** 00:14:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Natura » Fauna » Etxeko animaliak
- **Laburpena:** Lehen gutxi batzuek agintzen zuten. Don Anbroxio zaharrarenean lanean aritu zen Justo; polizia-zakurra zeukan eta zakurrak esaten zitzaion guztia betetzen zuen.

Transkripzioa

-Ordun dana holaxe zan, hemen bi-hiruk agintzen zuen. Geo zea hemen, don Anbroxio zaharra, ezautu al hun? Bai? Ta ni pixkat ibilli nintzan hor lanian eta. "Zu Lontxon semia emen zea?" ta biyak jiratsukuak zian eta. "Bai, hala naiz bai", ta "Hua nee launa da" esaten zian eta. Jardíñian, oain hondatuba do dana baiño, jardíñian bayan pasa bere neurriko learra, Oriyotik ekarri ta learra pasa ta bidietan botata eukitzen zun. Eta bidiak garbi-garbi einda. Bi-hiru mutil beti lanian eta. Rak! rak!, rak!, rak!, dana buelta.

Joxe: -Hemen bixarra ez al zun hola?

-Bai. Ta buelta guztiya jardíñai rak! eman eta. Geo gure aitta difuntuak

esaten zun, zakurra polizia-zakurra emen zun. Ta mendia Andatzaa askotan juten emen zan eta; mendia jun da eta egualdiya bastante ona emen zeon jun zanian eta hara jun zanian ebiya hasi. Ta baiño zakurra beakin, polizi-zakurra ta. Esan emen ziyon dak! eta poligrafoa ta papera hartu emen zittun eta eskribitu emen ziyon, eta "hau eramayozu...", izena aittu det makiña bat bider, "amai eramayozu hau" ta zakurrai hortzetan eman diyo papera ta, etorri da, ta guardasola eamateko, ta guradasola hartu ta berriz Andatzaa zakurra. Baiño egunero berakin. Hizketan ez zun jakingo baiño beakin beti zakurrakin. Holakoxe istorik izaten zittun.

-Txakurra polizia-txakurra?

-Polizi-txakurra, bai.

-Nolakuak zian haiek?

-Oain ikusten dia polizi-zakurrak hola tarteka.

-Horrek zer egiten dia, entrenatu o?

-Bai. Egunero beakin zabillega, hizketan ez baiño gaiñontzian dana. Hola jarri ta. Esaten diyona dana aitzen dula, bueno. Bai, izugarri.

1.30. Komunioko erantzunak txibatu zizkiotenekoa

- **Hizlaria(k)**: Camino Ibargoiien, Justo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-018/012
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:26:09. **Bukatu**: 00:28:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Matilderekin joan zen eskolara, baina ez zuen eskolarako gogorik izaten. Komunioa egiteko, galdera batzuk erantzun behar izaten zituzten eta Justori ondokoak txibatu zizkion erantzunak.

Transkripzioa

-Eta eskolara jun al ziñan?

-Bai.

-Nora?

-Matildekin-eta ibili nintzan, Matildekin ta pixkat, gutxi baiño gutxi. Gogoik ez nun eskolarako. Oain baten batek esaten bazian "Hi, idikin holako tokitaa jungo al haiz?", jode, bai gustoa! Eskolaako gogoik ez nun.

-Eskolatik piper egiten?

-Ez, ez, piperrik ez baiño ez nun zerikan. Goguan dakat hor honek ezautzen dittu bi anai apaizak horkuak, ta komuniyua itteko saltoka galdetzen ziun erretoriak, eta ni apaiz in zan horren onduan, ez nun gorreriyaa haundiik, harek ixil-ixilik esaten zian eta nik taka! Hua zala medio, bestela... Zea, Pepita Ikutza ezautzen dek hik; hua kalabazero aurreko urtian-edo, kalabazero bialdu zin. Ta ni're bildurrak ta...

Joxe: -Kalabazero zan ez zula aprobatu.

-Ta gero Donostin in zun, gero Donostin in zun. Ta nik'e bildurra ta, ez nun gorreria haundirik, harek ixil-ixilik esaten zian, Patxik, eta nik taka!, ta hala salbatu nintzen. Bueno.

-Nola ikasten zenun?

-Bai zeoze ikasi bai, baiño geo ez nintzan geo haren galderetara ondo

saltatzen. Harek puntua hemengua eta hurrungo horkua ta galdetzen ziun eta.

-Iten al zenuten txuletaikan orduan?

Joxe: -Esan du... txuleta, "le chivaba el otro".

-Baiña txuleta idatziya ez.

-Ez. Esan izandu niyon, geo apaiz ein zan hau ta esan niyon: "goatzen al zea Patxi nola...?", ta parre itten du. "Goatzen al zea nere aldamenian jarrita nola..."

1.31. Eskolara joan baino nahiago lan egin

- **Hizlaria(k)**: Camino Ibargoiien, Justo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-018/013
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:28:21. **Bukatu**: 00:29:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Eskolan doktrina ikasten zuten. Eskolara joan baino nahiago izaten zuen lan egin. Zer maistra izan zituen azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta zer ikasten zenuten eskolan?

-Eze asko ez baiño dotriña edo zeoze. Geo nik hola "dividir" ez dakit ikasi nun o, nahiko lan. Hortxe geatu nintzan. "Multiplicar" ta holako zea batzuk itten nittun baiño gaiñontzin ez nun gogoik eskolaako nik. Ezta...! Jesus Maria ta Jose!

-Zuk nahio lan in? Lan o lagunekin ibili o...?

-Nik bai. Bueno, hemen edozeiñek esaten bazian "hi, etorriko al haiz?" ta bueno. Hoi bai baiño besteik... Eskolaako gogoik gutxi nun nik.

-Ze maistra izaten zendun?

-Gertrudis ta. Hik ez al hun ezautu Gertrudis?

Joxe: -Matilde.

-Matildekin'e bai. Oaindik bizi da Matilde.

Joxe: Bai, hombre.

-Bizi da.

1.32. Angulak harrapatzen zebiltzala, tiroak

- **Hizlaria(k)**: Camino Ibargoiien, Justo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-018/020
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:38:53. **Bukatu**: 00:39:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

- **Laburpena:** Ibaian angulatan aritzen ziren; eta horretarako, baimena behar izaten zen. Norbaitek ez zeukan baimenik eta tiroka aritu ziren beste aldetik. Ahal zuten moduan egin zuten alde orduan.

Transkripzioa

- Geo angulatan'e pixkat ibiltzen giñen erriyuan ta in bihar zendun holako patente zea bat atea, permisua. Ta bazakiyen baten bat atea gabe zegola ta hor tiroka ta ibili zian zubitik, erriyoko zubitik.
- Ze urtetan hori?
- Ez dakit, baiño urte asko. Hemen leno nola egondu gea Joxe Mari portukua?
- Bai.
- Hua hor huban ingurun, zean, zubi onduan tirouak ibilli zianian. Ahal zunak ahal zun tokia alde in genun, jata hara ta honea ta... ordu jende txar asko zan, ikeragarri.
- "Treinta y ocho" aldian o hola izango ziñaten.
- Ez zakit ze urte...
- "Treinta y ochua" izango huan zuek zeatu zenduenian.

1.33. Soldadutzako zereginak

- **Hizlaria(k):** Camino Ibargoiien, Justo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-018/036
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:07:42. **Bukatu:** 01:09:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Burgosen negua gogorra zen eta gaueko guardia egitea tokatzen zenean, ezin izaten zuten ordubete baino gehiago aguantatu. Maniobratu ere aritu ziren soldadutzan.

Transkripzioa

- Ta geo neguba ikeragarriya ta, guardia eukitzen zanian bi ordu in bihar izaten zian ta, ezin aguantatu hotzakin, Burgos ikeragarri hotza da ta. Ordubetetikan'e kanbiatzen giñun hotzakin.
- Abrigo berezin bat edo?
- Errona ona hoi bai, bi traje udarako ta negurako; errona ona baiño hala're han geldiegonian edo zabiltzala ez zun...
- Joxe: -Paseo harek nola zun izena, Paseo la Castellana edo?
- Ahaztuba zekat nik.
- Joxe: -Ez al haiz goatzen?
- Ez. Geo zean'e maniobretan ibilli giñun mando zaharrakin. Ordu sikiraik gabian lo lasai itten huan ta libratzen hitzan gaiñontzekotatikan eta. Baiño maniobretan'e jipoiya.
- Jipoia?
- Bai. Mendin barrena biaje asko in bihar izaten da eta geo tiruan'e ibilli giñan hoge bat edo.
- Joxe: -Jan txarra, gosia...
- Ta geo lurrian jarri hola zea hoge bat edo ta, blankuak hemendik trenbidea bezela ta, benga! fuego!, eta, ta! ta! ta! ta! ta! Ez dakit nora juten zian. Ez zien blankora ailleituko noski ta. Geo hua berotzen zanian,

beste hogei bat edo atzetik etorri eta ra! jartzen zien eta. Holaxe ibiltzen giñen.

1.34. Sendabide naturalak

- **Hizlaria(k)**: Alzaga Illarramendi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-020/014
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:23:06. **Bukatu**: 00:24:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena**: Armiarma-sareak zauriak estaltzeko erabiltzen zituzten. Eltxoek kosk egiten zutenean, ozpinarekin igurzten zuten eta azkura kentzen zuten.

Transkripzioa

- Ta armiarmak eta izaten zian?
- Bueno! Bakizu zer? Hola heriden bat o iten gendunian, armiarma-sare lodi-lodik eoten zian, hayek bildu eta jartzen gendun, ta oso ona zan, bai, oso ona zan odola gelditzeko.
- Bai e? Zer zan, hura jarri ta gero aparte beste zeozer, o harekin?
- Bai, ez dakit, aparte jarriko ziyen zeozer hari heltzeko. Zapi puxken bat, maindire zaharren puxken bat edo.
- Osea ke armiarmak izanda're ez zenuten kentzen?
- Bai, kuartotan ta hola baldin bazian bai, baiña ukuillun ez.
- Ta bitxon bat gehio hola zeozer ona iten zunik edo? Moskituak eta ba al zian orduan gauetan?
- Bai, bai.
- Eta? Pikatzen zizuen?
- Hombre!
- Eta harentzako bazeon zeozer?
- Ke ba, moskituentzako, moskituentzako...
- Azkuria kentzeko zeoze izaten zenuten o?
- O binagriakin igortzi o... Bai.
- Binagriakin e?
- Binagria're ona izaten da, bueno hori esaten zan, oain ez dakit, oain gauza geyo do ta.
- Ta ordun ze iten zun binagriak, azkuria kendu o?
- Erre iten zun, harek indako txoluan pixkat erre iten zun ta azkuria're kendu. Ze gauzak ai zean enteratzen.

1.35. Bataioaren ostean ama elizan sartu arte teilapean egon beharreko ohitura

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref**: USU-022/022
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:33:27. **Bukatu**: 00:34:41

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena:** Bataioaren ostean, bazkaria izaten zen. Ama ohean egoten zen orduan, jaio eta berehala izaten baitzen bataioa. Elizan sartzea egin arte, amak teila bat buruan zuela atera behar izaten zuen etxetik.

Transkripzioa

-Bataiua eta gero egiten zan zeoze, bazkarin bat edo?
 -Izaten zan bai, merienda eo bazkaiya eo zeoze.
 -Eta ama juten al zan horrea edo ama etxian?
 -Ama oyian. Zeatikan bataiyatuta korrika batayatzea juten [zien] hiltzeko beldurra, umia linboa jungo zala ta, korrika. Esaera badek...
 Emaztea: -Geo elizan sartzia itten zan, elizan sartzia in arte teillatupetik amik ez zan ateatzen kalea. Nik hor badakat gaiña zea bat, disko bat. Baratzaa juten da ama ta teilla hua burun hartuta juten da.
 -A bai, bai, ohitturak bazian, burun teilla hartu ta baratzan ez dakit nun teilla hua jarri.
 -Teilla hura jarri ez, behar zuna baratzatik hartu hua burun.
 -Elizan bataiya, zea, familiya izan eta elizan sartzia iten zan ama sendatzen zanian edo, handikan zortzi egunea edo.
 -Beatzi egunea.
 -Ta ama oyian, zeatikan bataiyua seittun egun berian edo hurrungo egunian korrika batayatzea, umia hiltzeko bildurrez. Hil'e asko itten zien ordun, e. Umiak asko hiltzen zian zeatikan oingo bezelako adelantoik ez zan eta. Umia hiltzen baldin bazan linboa jungo zala ta, lehen esan deu ba linbuan asuntuoi. Ta korrika batayatzea.

1.36. "Tabakorik ba al dek?"

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-023/013
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:19:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak
- **Laburpena:** Usurbilgo bi laguni gertatutako anekdota barregarria kontatzen du: "Domingo, tabakorik ba al dek?".

Transkripzioa

-Txistia bezela da hau're baiño, Domingo Herrera, Martxielen aitta, ta Munoa, bi launak. Munoa hoi gaiña elizatikan teillatutik erorita hil zan. Hargiña, igeltserua hoitakua ta, azkeneko teillak eta jartzen ai zala erorita, Torbeko hartara erori huan. Munoa, bai. Han Aranzadistroki apellidua. Domingo ta biyak badijuaz -ordun danak oiñez ibiltzen zan jendia. Bizikletan batzuk hasi zian baiño aurrena-aurrenien danak oiñez garai

hartan-. Hemedik Agiña, antomoillak bakizu, ez zan antomoillik, Usurbillen bakarria zan, ta zenbat ibilliko zien kamiyuan. Agiña aldea badijuaz biyak [...] biyak oiñez eta Munoa horrek esan zio: "Domingo, tabakoik ba al dek?" eta "Bai". Ez eman, martxa. Handik pixkatea berriz'e, "Domingo, tabakoik ba al dek?". "Bai, bai, tabakua". Ez ematen, martxa. Handik puxkatea Lasao aldea jun dittuk eta, "Domingo, tabakoik ba al dek?" eta "Bai", "Emidak ba", ta "Esan zak ba!"... Klaro, "Domingo, ba al dek?" eta "Bai" ta "Emidak ba" ta "Esan zak ba! Ez det esaten!".

1.37. Abizen luzea izatearen abantailak

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-023/014
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:19:13. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Lanbideak » Polizia
- **Laburpena:** Usurbilgo bi lagunek guardia zibilekin izandako anekdota barregarria kontatzen du.

Transkripzioa

-Beste baten biyak bizikletan. (Eta eon pixkat aber goatzen naizen... Bai, bizikletan). Eta Munoa hoi farolik gabe /pe/. Ta Domingok xeixe bai baiño. Guardia zibillak: "Alto!", ta hor Agiña aldiandijoztela geldittu dittuk eta. Multa in bihar, guardazibil hoi argiya pixkat in, illuna ta, eskribitzen eta. "Cómo se llama usted" eta "Joxe Antonio Aranzasistroki Ipurzulozarreta". "Cómo, cómo?" "Joxe Antonio Aranzasistroki Ipurzulozarreta". "Marche! Marche!". Eskribitzen ez zin jakingo. Eskribitzen ez zin jakingo. "Marche! Marche!", "Cómo, cómo?", "Jose Antonio Aranzasistroki Ipurtzulozarreta", "Marche! Marche!"

1.38. "Usurbil, ¿y esto qué es?"

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-023/016
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:21:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Lanbideak » Polizia
- **Laburpena:** Behin Iruñera zihoazela guardia zibilekin gertatutako anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

- Oi! Neonei pasia dek zean, Irurtzunen, biyok Panplona guazela. Nere kotxe zahar horrekin bagiaztik, eta Irurtzunen estopa huan lehen, uain bariantia iña dao, baiña estopa. Ta estop hartan nere aurretik kotxe, matrikula ez zakit, Granada... Granada o zer zan. Ta ni haren atzetik. Estopan mantso-mantso pasa dek hua, ta ni're mantso-mantso ta aurrexeo ta "alto" guardia zibillak. "No ha hecho usted stop". "No, pero el de adelante también, como ha pasau despacio...", "Sí, pero aquello ha hecho un poco más que usted". Andaluza. "Escribe. ¿Cómo se llama usted?". Karneta eman ziot, ta eskribitzen hasi ta eskribitzen, ta geo Usurbil jartzen du ta "eto de Uzurbil qué eh?" guardia zibillak, pentsa zazu ze autoridade. "¿Ete Ujubil qué eh?". Zer nahi dezu esatia? Hor da autoridadia, zeak, guardia zibillak.

1.39. Kaxianori etengailua non zegoen esan ziotenekoa

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-023/037
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:52:06. **Bukatu:** 00:53:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Kaxianorekin gertatutako anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

Joxe: -Hik ezautu al hun bertsoan zea, Idiazabalko hua? Xepai?

-Xepai, bai.

Joxe -Hua ezagutu al huan hik?

-Xepai? Bai, bai.

-Ze mouzkua zan hua?

-Ona bertsoan. Elektriko hoitakua. Bai, bai, baiño kriston abailla zuna, bai.

Ona bertsoan. Kaxianokin..., Kaxioano aitzera ba al dezu?

-Bai.

-Zein zan Kaxiano?

-Itsua.

-Hoi da. Xepai horrek taberna zun Idiazabalen, eta oandikan han segitzen du tabernak. Oain gaiña taberna bastante lujoko, bastante dottore jarrita dao taberna hua. Kaxioano hoi eaman du tabernan soiñuba jotzeko, ta soiñuba jotzen eguna pasau da` eta gauian kuartoa lagundu, bakizu, itsua. "Bueno, lagunduko dit kuartoa". Kuartoa jun dek eta. "Bueno, Kaxiano, argiyen llabia hemen dakak, e!" Ta "jakingo dek ba nik horren biharrik ez dedala". Ta, mekauden, ordun konturatu bertsolariya, ño!, hanka sartu dit. Bai ba, itsuai "argiyen llabia hemen dakak" itsuai, batere zeatu gabe /be/. "Aizak, nik horren biharrik ez deala jakingo dek ba" itsuak. "Mekauden, ez zaiyok iñoi esan holako..." bertsolai horrek, "ez zaiok iñoi esan, zeatikan lotsakizuna dek neretzako ta". Hurrengo egunian jeiki dek Kaxiano ta herri guztiyak ba omen zitxakin! Herri guztiyak ba omen zitxakin, beak kontatu.

1.40. 'Lazkao Txiki' artista zen txisteak kontatzen

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-023/041
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:55:55. **Bukatu:** 00:57:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Lazkao Txiki artista zen txisteak kontatzen. Haren txiste batzuk kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Txistiak kontatzen izugarriya zea zan, Lazkao Txiki. Joo, Lazkao Txiki zan, artista zan Lazkao Txiki. Batian Martutenen festetan arreba Martutenen bizitzen zan, eta festetan han junda batian bersotan baiño gustoago eendu giñan ordubete batian haren txistiak eta haren zeak. Bueno! Ona! Lazkao Txiki espeziala zan. Kamiyuan geldittu due guardia zibillak eta: "Usted no ha hecho stop" eta...

Joxe: -"No ha visto usted el stop?" eta: "sí he visto el stop, pero a vosotros no".

- Ta beste batian, "usted no ha hecho stop, le voy a poner una multa". "Y usted cómo me ha visto?", "Ese de arriba", "El de arriba quién?" -alegiya, el de arriba, jainkuak-. "No, no, el helicóptero que anda ahí arriba". Beste batian amon batena, baiño izugarri earki kontatu zun harek, Barranka aldeko amona. Barranka zea da, Irurtzun eta hor goiko zea hoi, Barranka. Hango amonen baten kontua ta, plastikoko ontzik atea zienian. Ta nunbait peria jun eta erosi dittu, nunbait ikusi dittu plastikoko ontzi hoik, eta harek kontatzen zun bezela ta. Gustoa etxea ta etxea jun eta eakusten, a ze gauza ekarri dittuan eta gauzak eta holako gauzak arin-ariñak, eta gaiñea ez dia puskatzen, eta sekulako ixtorik. Jarri dik, baburrinak jarri dik eta jarri dixkik egosten plastikoko ontziya surtan. Baiño harek kontatzen zun bezela. Gero plastiko bakizu, surtan raaa baburrinak eta dana surta eta.

- Dana desegin.

- Baiño izugarri earki kontatzen zizkin, earra huan Lazkao Txiki.

1.41. 'Lazkao Txiki' ren txistea

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-023/043
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:57:58. **Bukatu:** 00:58:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Lazkao Txikiren txiste bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Beste bat'e bazun, kojua. Mattin bertsolaiya, Xalbadorren laguna, frantsesa, Mattin. Ta Lazkao Txiki, biyak txikik. Ta kojo bat ikusi die pasatzen eta: "Ño! Horrek, motxa dek ba hori're, horrek hanka bat motza zakak" eta: "Bai, horrek bat, guk biyak". Lazkao Txikik: "Horrek sikira bat dik motxa, guk biyak".

Joxe -Ttikik zialako.

- Onak bazixkin.

- Ona, ona, ona.

1.42. Bertsolariak adar-jotzaileak lehen ere

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-023/045
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:58:54. **Bukatu:** 01:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena:** Bertsolariak tabernatan ere egiten zituzten bertso-saioak eta adarra jotzen aritzen ziren bertan zeudenei. San Juan eskeko bertsoa abesten dute. Kaxianori ziria sartu zioteneko anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

-Bertsolariak zebiltzanian, begira zeudenekin ere sartzen zian edo, bazilatzen zien hor zeudenei, edo beraien artian bakarrikan?

Emaztea: -Neska gazten batzuk bazian aurrekaldian igual.

-Bai, publikuakin eta pixka bat bai. Ez zian hortaiño zeatzen. Geo tabernan itten zittuen saio haundik. Atsaldian eta geo tabernan, afaltzen'e bertan igual geatzen zien eta. Kriston saio, tabernan itten zuen eta. Ordun bai jendiakin eta. Geo jendiakin asko sartzen zien, etxeko familiyakin eta sartzen zian, San Juan eskian eta ibiltzen zienian. Famili guztiko danaidi bertsua. Bat eamaten zuen aldamenian esaten: "hau holako, aittak holako izena dik, amak holako izena dik", eta bertsua harekin botatzen ziyon. Joxe: -"Alaba soltera dik".

-Bai. San Juan-esketarako ta ordun bai, ordun zea... Gaiñontzian bertsolaik jendiakin ez zan hortaiño zeatzen.

Joxe: -Hoi ba, oain esaten deuna, San Juan hemen Kalearren, eta hoik ekartzen zittuen bertsolaiyak gabian eskian ibiltzeko. Eta ordun hau da koplariya. Ta nik esaten diot: "Hi, etxe hontako nausiyak hau dik izena, etxekoandriak hau dik izena, ta alaba badiye soltera daona". Ta ordun koplutzen zittun danak.

-San Juan eskia noiz egiten zan, San Juan egunian edo?

-Joxe: -San Juan bezperan.

-Bertsotara junda erretore-etxea jun dia ta limosnik ez, ateik iriki ez eta, hala bota emen ziyola bertsolaiyak: "Kura parroko mondongo/ hik ez dek asko emango/ hik emandako dirubarekin ez diyau asko edango".

Emaztea: -Hoi gaizki, propina txikiya ematen zuenai.

-Kaxianona bestia. Bi itsuk emen zeen, Kaxiano ta beste bat, ta batzun

batzuk etorri dia ta "hemen gizonak gizajuak, emaiyok-emaiyok propina horri" ta zein ta. "Aiba!". Ta Kaxianok bestiai: "Hi, zenbat eman dik?", eta "Nei ez zidak /etzak/eman, hiri emango zin", eta "nei're ez zidak /etzak/eman". Iñoi eman ez. Eta ondo geratzeatikan "aiba propina!" ta. Ta biyak itsuk. Eta "zenbat eman dik" eta "nei ez zidak eman". "Hiri ez dikela eman? Nei're ez zidak ba eman". Iñoi eman ez.
-Ziriya earki sartuta.

1.43. Eta trena non da?

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-024/032
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:52:43. **Bukatu**: 00:53:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Behin eskolan eskulan bat egin behar zuteneko anekdota kontatzen du Teodorok.

Transkripzioa

- Eskolan, Batista Armotei ezautu huan hik?

- Bai.

- Eskolan ta maixuak esan diye dibujan "In zazue trena ta trenbidia, ta trena, ta tunela ta in zazue". Ta ahal duen bezela, ta Batista Armoteiko horrek trenbidia in dik, ta tunela. Ta "Bueno, ¿ya está?" maixuak, "¿y qué?" eraman due danak: "Bien, bien". Batista horrek eraman dik eta erakutsi zioke eta "Sí, la vía y el túnel... y ¿dónde está el tren?", "¡acaba de entrar en el túnel!"

1.44. Morfinaren ondorioak

- **Hizlaria(k)**: Aizpurua Zeberio, Mertxe; Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-025/031
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:48:28. **Bukatu**: 00:49:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Sanatorioan morfinazaleak egoten ziren. Zer nolako eraginak zituen. Alkoholarekin nahasten zuten, tabernara joanda.

Transkripzioa

-Morfina hartzen zun jendiak, gero ze-nola jokatzin zun o ze iten zien? Ze efekto eukitzen zun morfinak? Azeleratu edo?

-Bai, baiña ez ziyen ematen denborik. Katalan bat bagenu, Fernandito.

Harek holako bermuta basua eraten zun. Ta berak esaten zun: "me estás mirando y no me vais a ver. Me estás mirando y no me vais a ver lo que hago". Patrikan sartu eta zas!, berak sartzen zun. Indiziyua, tak! Indiziyuan sartzen zuen. Eateako, basua eateako hasten zan balantzaka. "Ya estás, ya estás feliz, no? Ya eres feliz, no? Ya estás borracho. Ahora que venga quién quién va a venir a buscarte?". "Periko, Periko", enfermerua. Abitu iten zan beti etxea, baiño geo hor billatzen zuen erorita. Katalana zan hua. Morfina hartzen zuen hor, morfinomanuak. Eta morfina pastillan eongo zan ordun eta pastilla sartuko zuen, ta honek esaten duna, erre ta... Oain iten dan bezela.

1.45. "Francoren erregimenean, tripa handirik ez"

- **Hizlaria(k):** Rekondo Aizpurua, Miren Jone
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-027/051
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 01:15:56. **Bukatu:** 01:16:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** "Francoren erregimenean, tripa handirik ez".

Transkripzioa

-Rejimenik ba al zan orduan?

-Rejimena?

Joxe: -Obligatuba. Bueno, rejimena esaten zuen, esaten zuen, Franco aintzen eon zanian Usurbillen ez zeon tripa haundik.

-Bai, e? Errejimena, horreatikan.

Joxe: -Gosia.

-Nahikua ez zeolako, ordun justubakin bizi giñalako. Momentu desberdiñak zialako. Milla gazagatikan. Dudik ez gaiñea.

Joxe: -Danak rejimenean harrek jarri zittula.

-Bai, bai, estraperluan zan dana ta. Ta rasionamentuan, rasionatuta zeon dana ta. Orduan baserria zunak defendittu ingo zan eta baserria ez zuna auskalo nola.

1.46. Eskolako materiala

- **Hizlaria(k):** Olasagasti Mujika, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Erref:** USU-029/012
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:13:19. **Bukatu:** 00:14:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena:** Eskolan arbela eta klarion zuria izaten zuten. Eserlekuak eta mahaiaik nolakoak ziren azaltzen du. Katona erabiltzen zuten. Arkatzak zorrozteko modu ugari zeuden.

Transkripzioa

- Ze material izaten zenuten eskolan?
- Pizarra. Eta klariona txuria. Eta kitto.
- Nun eseritzen ziñaten?
- Bankun. Bankuk zien hola errenkan eta zeatu tapaakin. Bankuba hola. Nola esango dizut nik. Bankuba ta geo banku harek tapa zun eta barrenen librua edo zeoze sartu nahi badezu. Holakoxia, zeorren tamaiñakua.
- Liburuak zuenak izaten ziran?
- Liburuak? Ba al zan liburuik? Bueno, zea bat, A B C CH jartzen zun katon bat eta fuera.
- Eta idazteko zeoze ibiltzen zenduen?
- Idazteko ez da ezer ere. Esan dizut ba, zeozer nahi zendunian, benga altxa, benga hara.
- Baina zuek ez zenduen apuntatzen arbelekua gero etxian ikasteko?
- Lapitzak izaten zian. Lapitzak igual alkarri ostutzen genizkan.
- Arkatzak nola txorrozten zenituzten?
- Bazian ordun e katxarro..., ez naiz goatzen baiño bazian. Bazian bai, bazian.
- Ez zan kutxilluakin...
- Kutxilluakin askotan.
- Zuek bazenekiten?
- Hoixe. Etxian'e bai. Oaiñ'e.

1.47. Dantzako arropa eta bikoteak

- **Hizlaria(k):** Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-037/008
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:13:27. **Bukatu:** 00:15:00
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Dantzako arropa nolakoa izaten zen azaltzen du. Dantza-taldean bi bikote sortu ziren.

Transkripzioa

-Dantzarako ze erropa erabiltzen zenuten?

-Guk grupuan galtza zuriyak eta gerriko gorriya eta txapela. Dantzari txikiyen zea. Ta geo izaten zien tarteka..., izaten dia. Zintzarrikin eta.

-Oiñetakuak eta?

Oiñetakuak, alpargata zeak [...]. Eta geo bai, geo dantzak zatoztin, dantzak bakoitzai. Batez'e Naparroko dantzak zan bere erropa. Bizkaitarrak eta gipuzkoarrak, leheno esan deuna, hoi, galtza zuria ta zea. Baiña naparrak eta hor ya, joer! Ta segitze ezkeo, klaro, zailla zeon. Eta hola bukatu zan. Gero, gaiña, klaro, bat nobiyuakin hasi, bestia ez.... Dantza taldetik, nik ezaututako taldetik bi bikote sortu hittukan. Bat alkatia izandakua, Joxe Antonio; ta Ana Mari Xumeta. Handik hasi zian nobiyo. Ta bestia Beristain, hil huan, eta Josefina Atxega, Juan Josen arreba. Hoik bi bikote sortu zien dantza-taldetik.

1.48. Hondarribiko festetako estropadak

- **Hizlaria(k)**: Torregarai Gorostidi, Joxe; Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-037/017
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:29:28. **Bukatu**: 00:30:18
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- **Laburpena**: Hondarribiko festetan estropadak izan ziren eta Joxeren trainerua gonbidatu zuten. Festak zirenez, hondarribitarrak ez zeuden estropadan zentratuta.

Transkripzioa

Joxe: -Oena izandu zan danetan Fuenterrabikua. Ordun bai gustoa.

Fuenterrabin festak zian. Ez dakit noiz izaten dian.

-Oain, atzo.

-Konbidatu ziguen hara regatak itea ta giñan, zein izango gea ta Fuenterrabia bea ta beste bat; baiña bestia oso txarra zan. Ta, aze ostiya in behar [deun] Fuenterrabiyai. Ta mozkor-mozkor inda zeen, bate erretiratu gabe /be/, bate erretiratu gabe /be/ zeen eta, jo!, oaindik iristeko [...], Fuenterrabian jaten ai zian gu etorri giñaneako.

1.49. Inuxente eguneko "telefono-zerbitzua"

- **Hizlaria(k)**: Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-038/017
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:37:53. **Bukatu**: 00:41:14
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

- **Laburpena:** Inuxente eguneko inuxentekeria barregarria kontatzen du Iñakik. Anaiak ere telefonoarekin beste inuxentekeria bat egin zuen.

Transkripzioa

- Ta zeoze esaten al zan? Baten batei broma in ta tragatzen baldin bazun, zeoze esaten al zitzaion: "Inuxente!" o...

- A! Hoi bai, esango dizut bat, ikeragarriya in gituan, ya hau hazi xamarrak. Estankon, estankun genitxen. Ordun badakik han gaztiak: Amantxi, Mari Tere, Kontxi, hiru neska gazte're bada're ta hantxe.

- Aitta Bixente.

- Aitta bai, baiña Bixente hilla huan nik esaten deteneako. Hilari ta Bixenten semia, txikiya hoi. Ta bazkalondo batian han, zeatik zan taberna, mertzeriya, "de todo" nola esaten da? Fruteriya ta dana. Ta han genden neskakin ta inuxente eguna. Ta nik esan nitxon Mikeli: "Hi, inuxentada earra ingo genikek, ba! Hola ta hola", "Ingo diuk!", "Bale". Hartu det telefonua, ta ordun huan Eliasek eta Juanek jarri berriya telefonua taillerreko zean, gure Parisko behean arotzerin, bi-hiru egun lehenuo jarri zuela telefonua. Ta nik banitxakin numerua. Deittu dit. Juan atera zitxatan, Elias ez zeon ta Juan: "Bai?", "Oiga" ta nik trapu bat jarrita bozik eta ez ezautzeko, paiñuelo bat... "Sí, aquí la Telefónica. Estamos haciendo... es un teléfono nuevo, ¿no?", "Sí" - harek - "sí", "Estamos haciendo pruebas", "Sí", "Meta usted el dedo en el número tres" ta ordun diskua zan "y gire el disco", "¿Cómo, cómo?" ta entendituarazi nitxon, ta raaa! "Ya está", "Sí, sí, ahora meta en el siete", raaa! "ya está", ta "ahora mévalo en el culo". Tak. Zea, kolgatu nitxon. Ta handik bost minutua Mikelek ostea deittu. Ta deittu dik eta ez hartzen, baiña halako batian hartu zitxon harek: "¿Oiga? ¿Diga?", ta "Oiga, ¿han estado llamando ahí unos gamberros? Aquí la Telefónica", "Sí, sí, sí, aquí ha sido, aquí ha sido" iñez eta "Pues era para decirle que ya puede usted sacar el dedo, ¿eh?". Inuxente eguneko zeak dittuk hoik; baiño geo, aguantatu ezin guk'e parrez, ta gora etorri dittuk ba, ta Elias orduako Juanek esan "Mekauen... hola ta hola ta izandu dit", eta guri ikusi zigunian, "hoitakon bat izango huan". Ta nik hoi gure anaiyai, nik ez bainakin ez zala moztutzen, zea, disku harek, ai haiz hizketan eta "meta usted el dedo en el cuatro", "ya está" ta ez dek konbersaziyua kortatzen, segi iten dik. Ta gure Joxek Beatrizi in ziyona Añorgatik, zea, prueba iten ai ziala ta txistua "Quiero un sonido fino, ¿sabe silbar?" ta "no sé a ver, fii, fi-fi!" iñez hasi dek ta Arantxak "ze ai haiz, neska!", txistua jo eziñik. Ordun iñuxente eguna era... puff, bai.

1.50. Hiletan kategoriak eta haiek ordaintzeko anekdota

- **Hizlaria(k):** Torregarai Gorostidi, Joxe; Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-038/020
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:45:41. **Bukatu:** 00:48:52
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

- **Laburpena:** Lehen norbait hiltzen zenean, etxean janzten zuten. Zer arropa jartzen zitzaaien azaltzen dute. Ez zen lan gustagarria izaten. Batzuek hiletarako aseguruia ordaintzen zuten. Hiletatan kategoriak zeuden. Familia batek hileta ordaintzeko apaizarekin izandako elkarrizketa graziosoa kontatzen du Iñakik.

Transkripzioa

- (J) Ordun etxian jazten zan.
- (I) Bai, etxian jantzi ta etxian dana.
- Nola izaten zan? Ze erropa jartzen zitzaion?
- (I) Normalki han esaten zuena.
- (E) Zeozer gehio sartzen zan?
- (I) Sudaiyuak o hoi're bastante denbora...
- (J) Ordun sartzen zan zea...
- (I) Galtzerdi beltza, behiñik behin, gure osaba Ramonek esaten zuna.
- (J) Bai, nik aittona goatzen diyat, ta bere trajia beltza harek'e, hua ta... Matildek zeatu zian hura.
- (I) Matildek? Bai, Matildek'e hok gehienak.
- (J) Bai, Matildek. Ez da gustagarriya e? Ez da gustagarriya. Baiño baten bat behar ta.
- (I) Ordun kajak'e Pattok iten zixkin, arotzak, ta gero forratu beltzez ta letrak eta kristuak eta... danak berdiña.
- (E) Garestiya izaten zan orduan ere kaja ta hori dana, entiaruan gastuak eta?
- (I) Hoi ez dakit nik. Hoi batzuk aseguratura Ocason'e bade... Bai, merke ez da izango.
- (J) Ordun ez zan izango Ocasoik e?
- (I) Bai, gure amagiñarreba zana ta hoik aseguratura zitxen urtetan. Oain, jendia asko ez zala zeatuko? Bale. Oain, nik ere aittak esaten zitena "Hiltzeako diruba zeatu? Ni hiltzen naizenian nahi badue putzua bota neroni". Ui! Egiya dek eta!
- (J) Hoi hala da, hala da.
- (I) Ui! Leno badakik entiarruak primerakuak eta terzerakuak... primerisima're bai. Argi guztik...
- (E) Primerisima?
- (I) Bai, bai, primerisima, argi guztik piztuta hor.
- (J) [...] Nikanor primerisima zan.
- (I) Bai, ta a tienpoko mezak esaten zitzaizen, a tienpo, aldare bakoitzian mezak, bat eta besten eta... bueno! Hola.
- (J) Hura zan zerura juteko, direkto juten zian hoyek.
- (I) Ta hoi, hortaz bado, txiste bat'e bado, txiste bat o: baserritar aitta-semiak bakarrik bizi, ta aitta gaiñea denboa askuan gaixo, ta azkeneako zittuen xoxa danak basarriyai kiebra jotzeaiño hil zaneako. Ta hil da ta erretoriai, erretoriak ze entiarro in ber ziyen. "Entiarua? Nahi duna in beyo, baiño nik ez dakat entiarua pagatzeko diruikan", "Joño! Hortaiño, tertzerako bat....", "Ez, ez, nik ez dakat", "Ez al dezu familiartekoik o, joño, baten bat laguntzeko?", "Ez, arreba bat banun, ta hua deabruak eraman zien", "Deabruak eraman zula?", "Bai, moja sartu zan", "Bueno, bueno! Hua Jaungoikuakin ez konduta dao!", "Ordun kontuba koiñaubai pasa ber diyok!"

1.51. "Txerri-muinak ordainetan"

- **Hizlaria(k):** Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-041/011
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:15:09. **Bukatu:** 00:15:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena:** Txerri-muinak ordainetan esaerak zer esan nahi duen azaltzen du.

Transkripzioa

-Zer esan nahi du "txerri muiñak ordainetan"?

-Nik zuri eskatzen dizut gaur gauz bat. Eta zuk uzten diazu gauz hoi; edo ematen diazu edo nahi dezuna. Baiño esango dizut: "Hi, txerri muiñak ordainetan", e!". Alegiya esan nahi nizun bueltatu in bihar zala.

-Hortik etorriko da orduan?

-Bai, txerri monik ordainetan, bai. Toki asko ondikan aitzen da oañ'e, aitzen da, bai.

1.52. Etxeko janaria eta tomatea gordinik jaten ikasi zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-041/013
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:18:03. **Bukatu:** 00:20:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Etxean zer jaten zuten azaltzen du: oinarria txerrikoa eta barazkiak izaten ziren (patata asko, tipulak, porruak, tomateak...). Tomatea gordinik jaten 1956 inguruan ikasi zuten. Lehenago tomatea txikituta eta prestatuta jaten zen.

Transkripzioa

-Eta ze jaten zenuen etxian?

-Aber. Haragirik ez zan faltatzen. Baiño txerrikiya zan. Basia txerrikiya. Guk'e txerria hil iten genun etxeako ta.

-Ta zuek behiak zenezukatenak?

-Behiyak mataderoako hoik. Baiña behiyak bakizu zenbat irautzen dun, ezta? Hamaika-hamabi urte. Esnia ematen, esnia ematen eta urtian ume bat iten du. Eta umia hazten zanian pues ordun hua karnizeirako edo ateatzen zan.

-Gehienbat ordun txerria, txerrikoa?

-Hoi da, bai.

-Barazkiak eta?

-Barazkia asko.

-Ze barazki?

-Dana oaintxe dan bezelaxe, igual-igual.

-Patata ta hoiek?
 -Patata, asko.
 -Beti ezagutu duzu patata?
 -Bai, eta asko gaiñeaz, e. Gar eta baiño gehiyo. Geo pues tipulak, porruk, tomatiak... Tomatia sartu zan honea..., guk tomatia jaten ikasi genun erdaldunak etorri zianian honea.
 -Noiz izan zan hori?
 -Cincuenta y seis edo cincuenta y siete edo.
 -Eta nola izan zan hori?
 -Etortzen zien eta gordiñik jaten zuen zea, tomatia. "Kauen la letxe, hauk jaten diek ba zea!". Ta baatzetaa juten zian ta rast!, pasaran hartu ta. "Kauen la letxe" ta. Nik ikasi nun, gue etxequak'e bai.
 -Lehenago nola jaten zenuten ba?
 -Ez genun jaten. Iten zan tomatia iten baldin bazan, pues lapikuan zeatu, txikitu ta... Baiño gordiñik ez. Txikituta. Bai.

1.53. Guardia zibilekin izandako anekdota

- **Hizlaria(k)**: Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-041/015
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:22:27. **Bukatu**: 00:24:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 Euskara » Euskararen egoera
 Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: Kanpotik lan bila Usurbila etorri ziren jendearekin ikasi zuten gaztelania. Herriko batek gaztelania gutxi jakin eta guardia zibilekin hitz egin behar izan zueneko anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

- Ta zuek erdera nun ikasi zenuten?
 - Hamentxe, hoikin.
 - Haiekin?
 - Bai.
 - Eta zailla in zitzaizuen erderaz itia?
 - Erdera? Bai.
 - Eta oain zer moduz hitz eiten dezue?
 - Esango dizut anekdota bat: hemen baserri bat bazan, horrek badaki, Urkamendi, Euxebio're bai, ezautu zun nagusiya, ta basarritikan atera zan hola kanpora beira ta guardia zibillak ikusi zittun behetikan gora. Ta ordun guardia zibillak juten zian haraiño iritsi ziala esatea, ta firma bota behar zan basarri hortan. "Honeaiño iritsi gea ta firmatu iazu paper hau". Ta hala ikusi zun "oi, guardia zibilla, kauen...". Ta neskamia eukitzen zun, ta neskamiak ez dakit ze izena zun, oandik bizi da neskamia, Joan Antzonekua... Maria. "Maria!" "Zer dezu?" ta "Oain datoztin hoidi firmatu yozu papera". Ta jetsi zan behera ikustea, ta guardia zibilla ta "Nik ez! Nik lixatzen lan asko dakat eta nik ez diyot hoidi zeatuko, onartuko". Ta "Bueno, neonek errezibitu beharko diyet". Ta atera zazu, atera zan hoi, Euxebio hoi, kanpoa ta "¡Hola! ¡Buenos días! Buen día, ¿eh? Nik esan

behar dittudanak esan dizkit, hortik aurreakua zuek esan beharko dittuzue". Zenbat zakin harek zeon, e! Aber zenbat zakin harek, ezer gehiyo ezer.

1.54. Eskolako zigorrak zergatik

- **Hizlaria(k):** Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-041/020
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:29:06. **Bukatu:** 00:29:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena:** Eskolan zigorrak jartzen zizkieten, baita etxean lan egitearren eskolara ez joateagatik ere.

Transkripzioa

-Eta zigorrik edo bazeon eskolan gaizki portatu ezker?
-Joder! Zuk hau ez zendun ezautu? (atzamarrak biltzen ditu). Hola jarri bihar zendu eta bestiak reglakin jo, hemen.
-Eta zergatik izaten ziren zigorrak?
-Edo... egunen batian jun ziñan eta "Atzo ez ziñan etorri". "Ba ez, attak esan zian baatzan zea in bihar nula". Ta ordun zigorra ematen zizuen.
-Baratzan lan egiteagatik?
-Zigorra, bai. Geo etxea junda ematen ziyon... Hari esaten ziyozun: "Gaur zigortu in [nahi nue]". "Ze in diye ba? Ta horregatikan?, jesus maria ta jose!" Ezta inportantzikan'e.

1.55. Dantza lotua uztea, negozioa egiteko beste modu bat

- **Hizlaria(k):** Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-041/023
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:38:14. **Bukatu:** 00:40:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- **Laburpena:** Erromerietan dantza soltea egiten zuten. Dantza lotua debekatua zegoen leku gehienetan, San Estebanen ezik. San Estebanen, hala ere, relikiak izaten ziren eta erretoreak dirua ateratzen zuten handik.

Transkripzioa

-Erromerietan eta dantzan egiten zenuten?
-Bai.
-Ze dantza klase?
-Dantza librian. Zeatikan Usurbillen plazan ez zeon helduta ibiltzeik.

"Agarrao" ez zeon; Zubitan'e ez, eta bakar-bakarrikan San Estebanen. Bai, eta San Estebango erretoriak esaten zun: "Emiak arra nahi dik, emiak arra nahi dik", ta San Estebango erretoriak jotzen dunian kanpaia, "relijiak" jakingo dezu zer dan, ezta?, "relijias", santun relijik, San Estebanek, harek jotzen zun tin!-tin!, tin!-tin!, tin!-tin!, ta danak juten zian muxu ematea relijiai, ta diruba botatzen zon, ta harek esaten zon: "Nik uzten zet baltsian iten, baiño diruba're nei etortzen zaitela. Bai-bai, hoi beak esana, beak esana, bai.

-Ta jende asko juten zan orduan?

-Bai, asko. Ta san Estebanek zun, reliji horrek karetxak sendatzen zittun. "Orzuelo" edo karetxa zer da? "Verrugas".

-San Estebanek?

-Bai. Ta jendiak fedia, fedia, fedia. Hara jun eta ttin!-ttin!, ttin!-ttin!, ttin!-ttin!, eta jendia tak!, tak!, tak!

1.56. San Ferminetatik itzuli eta guardarekin izandako elkarrizketa

- **Hizlaria(k):** Aranburu Sagardia, Antonio Pello
- **Elkarrizketatzailea(k):** Taldea, Hitza Jasoz
- **Erref:** USU-051/010
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:12:52. **Bukatu:** 00:13:19
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** San Fermin batzuetan, gazte batzuk Iruñeara joan ziren eta bueltakoan mendiko guardarekin egin zuten topo. Orduko anekdota barregarria.

Transkripzioa

- San Fermin batzutan joan dia nunbaitten Iruñea, ta hurrungo egunian mendiko guarda, fin-fiña emen zan ta, "Egunon" ta "Egunon". Ta fin-fin horrek: "¿Qué tal ayer?", ta "¿Ayer? Bien. Pamplona. Casa Paco. Comer y escapar. ¡Jódete Paco!"

2. Politika

2.1. Umetako denbora-pasa: animaliak

- **Hizlaria(k):** Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** USU-002/004
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:03:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** 5 urte zituela, Usurbilera joan ziren bizitzera. Pozik bizi izan da Usurbilen. Txoriak harrapatzen eta oiloak lapurtzen ibiltzen

ziren umetan. Gerra garaian, katu arrak harrapatu eta jan egiten zituzten.

Transkripzioa

-Zu oso txikia ziñala Usurbillera joann ziñaten bizitzera.

-Bai. Gu jun giñan, nik bost urte izango nittun Usurbillea jun nitzanian. Ta han bizittu giñan. Ba, herri politta Usurbil. Paketsua, danak ezagunak. Ta betiko gazte-bizitza, gure tiragomak eta. Harriyik onenak zenek zittun eta. Denek..., gehiyena botatzen zittun txorik eta. Hola ibiltzen giñan, kabik harrapatu ta. Oilluak lapurtu-ta jateko-ta.

-Bai, e, hainbeste bai?

-Bai, bai. Bat artista bagendun gaiñea. Harrapatzen zittun aidian eta dak!, hola lepotik heltzen ziyen eta ez zuen haek kikik'e itten, iñor ez zan enteatzen. Eta geo gerra garaiyan Usurbillen katuak, arrak, emiak'e batzun batzuk, baiño arrak danak jan genittun, aleik ez zan geatu. Emakume bat gendun gaiñea, este, Orbeldeikua, hoge durogatikan edo kazuela prepaatzen ziguna. Hari ematen genizkian. Harrek preparatzen zittun kato danak.

2.2. Etxea errekisatu zietenekoa

- **Hizlaria(k)**: Orbegozo Lizarazu, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref**: USU-003/004
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:05:36. **Bukatu**: 00:06:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Etxearen egitura nolakoa zen azaltzen du. Gerra etorri zenean, aita fabrika utzi eta hutsa zegoen baserri batean jarri ziren bizitzen. Egun batean, ordea, epaileak etxe hartatik bidali zituen.

Transkripzioa

-Etxe harek zenbat gela zeuzkan?

-Gelak? Bi quarto, sala, ta etxetikan ateata erremintak eukitzeko tokiya. Han bi ohi, jarri zittuen bi ohi han, ta beste bi kuartotan beste bina ohi eta geo salan, ezkondu zienian Maria ta.

-[...].

-Ordun gerra etorri zanian Xapatillanekuak danak alde in zuen. Gure aitta fabrika utzi ta iri paria ta behiyak eta zian eta hara jun zan; ama're bai ta, danok hara jun giñan. Xapatillanen bizittu giñan. Aittai pixkat laguntzeko edade pizkat ordun, asko ez, hamar bat urte edo hola. Eta egun batian jueza jun zan, danok atea giñun plazaa; jarri zun, nola jarri zun? "Requisado" jarri ta plazan geatu giñan famili guztiya. Iñoa junik ez daukagula, izebanea batzuk eta bestiak hara eta bestiak Kaxkonea ta.

2.3. Janaria kanpokoei emateagatik hemengoek gosea

- **Hizlaria(k)**: Alkorta Zabala, Praixku; Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe

- **Erref:** USU-007/022
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:37:13. **Bukatu:** 00:38:23
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- **Laburpena:** Praixkuren familiak gosea pasa zuen gerra ostean. Izan ere, II. Mundu Gerrako soldaduentzat biltzen zen janaria eta hemengoak gosez geratu ziren.

Transkripzioa

-Denpora hartan gosete earrak izan zien.
 -Zuek pasa zenuten gosia?
 -Bai, bai, bai.
 -Eta flakatu egin ziñaten edo?
 -Bai.
 -Noiz arte gosia? Noiz hasi ziñaten berriro normal jaten.
 -Ez dakit ba nik zenbat urte...
 -Joxe: -Gosia ekarri zun, gerra mundialak ekarri zun hemen gosia. Hauk'e bai ordun eta guk'e bai ta danak hemen. Mundialeako alemanak gerra zeatu zuenian hemengueiri genezkaun artuak, hemen genezkan garik eta danak haintzako zan, e, haintzako zalako. Ta horrek izurratu ziun guri. Gosia horreatikan pasa gendun. Bestela guk ez gendun goseik. Hairi Francok zera baizun, este zea bat in baizun... alemana ta hari emateko gui kendu, hemengo zeai. Besteik ez zan zeatu. Horregatik pasa zan hemen pasa zan gosia.

2.4. Soldaduak "apopilo" zikinak

- **Hizlaria(k):** Goenaga Gorriti, Martzial
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-008/021
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:25:08. **Bukatu:** 00:26:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerra garaian, Francoren aldeko soldaduek errementeria konfiskatu zieten eta armategia jarri zuten bertan. Etxeko ganbaran ere geratu izan ziren lotan; zikinak ziren soldadu haiek. Soldaduek oiloak lapurtzen zituzten etxetik.

Transkripzioa

-Armeriya bezela eoten zan, bai. Bi-hiru laun aitzen zien armak konpontzen ta zean. Zaldi pare bat egoten zian ta. Ta gure etxian ganbaran lotan'e bai. Hoitakuak, Francon aldekuak. Ta sarri gaiñea jentia goitik behera pixa eroitzen huan. Cielo raso bazian gue etxiak baiño goitik behera pixa jeixten ... Zikiñak hittuan. Ta oain Felipe Aierben alarguna bizi dan etxi hortan'e, hoi're dana betia egon huan. Ta gue behera jetxi ta oilluak eta ostu ta gora iyo. Etxi horrek zera baitu, nola dakan sukaldia, Andazpek, hortik itten huan eskaillera behera. Hoi jardiña huan. Eta hortikan eskaillera zizkin. Han gaiñian gurutzia. Hua han huan ta beherako oilloteira atia huan, noizpaiteko bide bat huan. Bai, bai, behera eskaillera. Gue oilloteira,

bueno, guria ez huan, erretorian terrenuak hittun. Guk oilloteia ta hara jeixten huan hoi. Ta handikan jeixten hittuan ta oilluak gue amai ostu ta; gue amak uju earrak ateatzen [zizkin] baiño goorak hittuan, ez ziyen aitzen.

-Eta zeinek uzten zien gelditzen, edo zergatik gelditzen zien zuen etxean?

-Holaxe etxe askotan, segun nolabaitt... Horik pixkat jefiak holakuak zian, ezta, nik eztakit, ni soldau oandik juteko nau ta baiño. Kabuak edo sarjentuak ze izango zian, bestiak trintxeran ibiliko zian baiño.

2.5. Usurbilen fusilatu zuten mutila

- **Hizlaria(k):** Goenaga Gorriti, Martzial
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-008/023
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:27:55. **Bukatu:** 00:28:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Martzialen aitaren lagun bat fusilatu egin zuten, aurreko egunean aitaren hiletan egon eta gero.

Transkripzioa

-Hik esaten dek, gue etxian asko ibiltzen zana zea huan, Batista, Aginaga, Karlos. Gaztaiñan bizitzen hittuan.

Joxe: -Hua afusillatu in zien, bai.

-Hua beti gue etxian ibiltzen [huan], aittan laguna huan. Hua izan huan kanpuan eta geo etorri zanian, eun hartan edo hurrungo egunian, gue aitta zarrak esan emen zion: "Alde in zak hemendikan". "Nik ez det ezer ein eta, nahiago det eta" Hara! Aitten intierrua huan, haren aitten intierrua. Karlos huan aita. Bi haka motzak zizkin, trenak harrapatuta edo. Bai, nik ezautu nik. Ta hala, intierrua bukatu ta seittun eaman zien eta afusillatu zien. Batista huan. Karlos deitzen zzitxoen batzuk baiña Batista huan, Aginaga.

2.6. Errota isilak asmatu zirenekoa

- **Hizlaria(k):** Goenaga Gorriti, Martzial
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-008/025
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:30:36. **Bukatu:** 00:32:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Baserría » Baserriko lanak » Errota
Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena:** Gerraostean, artoa eta babarruna izaten zuten etxean. Errotatik irina ezkutuan ekartzen zuten; behin harrapatu egin zituzten. Errotek ezkutuan egin behar izaten zuten lan, eta soinurik ateratzen ez zuen errota asmatu zen garai hartan.

Transkripzioa

-Gerra garaian gosia pasa zenuten ala orduan ondo bizi ziñaten.
-Gue etxian hor nunbait, artua ta babarruna izaten gendun etxian.
Errotatikan iriña beti bildurrak ibilli bihar bat eta... Askotan, zakua haundina artua eaman genduna Aiako Errekondonea; Saletxe edo. Errota han zeon. Eta eaman [ziuna] harrapatu in zuela eta izurrai, batee gabe geratu bihar. Ta batzutan hemen Txantalen'e bai ta. Hola.
-Ta zeĩnk harrapatu zizuen?
-Hoi? Guardik ibiltzen zien ta harrapatzen zuena kendu iten zizuen. Ta gaiñetik multa.
-Multa ere bai? Ze multa izaten zan, ordaindu gehiyo edo?
-Auskalo, orduko hamar pezta edo, jakin tzazu, ez dakat goguan hori baiño.
-Ta zeĩni harrapatu zion, zu zenijoala edo?
-Guri ez, errotariai. Gue artua ez dakit harrapatu zun, gue artuak behintzat han geatu zien ta.
-Joxe: -Errotaiyak esan ziyon artua harrapatu in ziyela berai errotaiyai, ta geatu zan errotaiya artuakin ta hau bate be.
-Orduan eamaten zendun artua ta ez zendun paatzen. Iriña ekartzen zendun baiña kentzen zizuen horrenbesteko bat eta hua beak geatzen zuen.
-Joxe: -"Laka" zin izena, ezta?
-Laka deitzen zitxoan. Laka.
-Hori dana gerra bukatuta gero.
-Bai, gero. Baiño itxi iten zittuen harrapatzen zuna martxan. Ta soiñua ateatzen zuen gaiñea. Ta geo jarri ziyen batzuk soiñua ateatzen ez diela. Oandikan ikusten dia, hor Agorregi. Agorretta. Aiako zerean, beheko zuloan, ez zekit ikusi dezuen. Politta dek, ikustia meezi dik. Han badae bi errota, bata soiñua ateatzen duna eta bestia ateatzen ez dun hoitakua. Garai hartan sumatutako inbentuba zan hoi.
-Ta nola egiten zan soiñuik ez ateatzeko? Badakizu edo?
-Joxe: -Urakin, ezta'
-Bai, hoik danak urakin ibiltzen zianak. Baiño gero tak!, tak!, han alia botatzen 'ue eta han nolabait'e ez zun soiñuik ateatzen. Bestela gautan harremana izaten baizan, tak!, "errota ai dek hor".
-

2.7. Aginagako en jarrera politikoak

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Gaztañaga, Benito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-010/013
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:34:35. **Bukatu**: 00:35:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
 - Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena**: Aginagan gehienbat nazionalistak zeuden. Behin gizon bat karlisten aldeko botoa ematera derrigortu zutenekoa kontatzen du.

Transkripzioa

-Agiñako jendia danak karlisten aldekuak zian ala bazeuden hemen ere...?
-Nazionalistak batzuk, beste batzuk... Gehiena nazionalista. Baiño don Juan

zanak esan ziyona Praxko Ikutza zarrai: "Botua karlistai eman bihar diozue". "Ez, nagusiyak...", Hoik zea ziyen, nagusiya Zatarain.

Joxe: -Joño! Don Anbroxio.

-Bai, zarra.

Joxe: -Don Anbroxio zarra huan bai.

-Bestia're Don Anbroxio huan, semia're.

Joxe: -Semia're bazin, bai. Zaharra ezautu nian nik, bixar txuriakin eta, bai.

-Eta "nagusiyak esan diu nazionalistei botatzeko". "Orduan nagusiyak esaten badizue teilatutik behera salto eiteko're salto in biharko dezue".

"Bai jauna, behera baiño errexo". Holako zerak zien. Hemen nazionalistak gehina; gehiyena. Karlista batzuk.

2.8. Usurbildarrak Dibisio Urdinean

- **Hizlaria(k)**: Maiz Labaka, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref**: USU-012/035
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 01:00:25. **Bukatu**: 01:01:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
 - Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Alemaniarren alde edo kontra ibiliak
- **Laburpena**: Soldadutzan zegoela, II. Mundu Gerra zen. Herriko hainbat mutil Dibisio Urdinera boluntario joan ziren. Hotz galanta pasa omen zuten han.

Transkripzioa

-Eta zu soldaduskan ziñala II. Gerra Mundiala justu hortxe.

-Baita, ordun zian. Boluntaio jun zuenak bazian boluntaio jundakuak, zea, "División Azul". Agustin Illarramendi ta.

Joxe: -Gehiyo ba al zian?

-Bai. "Rusua" esaten ziyena, hua ta, bestia Amerin bestia, morroi egondu zana, Ameriko bat'e bai.

-Haeik boluntario nahi zuelako.

-Bai. Boluntaio eskatu zerbitzeko nunbait Francok, bestela obligazioz jun biharko zun. "División Azul", bai.

-Alemanak lehen Francoi laguntzen hemen ibili. Ta geo beai.

-Osea ke "División Azul" hori zan Alemanian aldeko...

-Bai, Alemania. Rusuen kontra jun ziena. Rusuen eta kontra.

-Gero bueltatu zien haiek herrira?

-Bai, bizi zienak bai. Biziik geatu zienak ba. Hemen bueltatu zien, Austin etorri zan eta, Rusua're bai eta medikua're bai ta.

Joxe: -Zubitakua're.

-Ta han ze kontatzen zuten, han ze bizi izan zuten?

Joxe: -Hotza galanta pasa zuela. Puf!, uste det zala...

-Bizirik etortzeko suertia izandu zuen harek.

-Eta boluntario zenbat jun zien edo ze motibazio zeukaten juteko?

-Nik ez dakit. Ni ez nitzake boluntario jungo.

2.9. Gerrako soinuk

- **Hizlaria(k)**: Maiz Labaka, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-014/023
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:36:27. **Bukatu**: 00:38:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerrako bonben soinuk gogoan ditu. Gerran zauritu zuten mutil bat eskutan nola ekarri zuten ikusi zuen. Sirenak entzuten ziren noizean behin, bonbardaketa hastera zihoala abisatzeko.

Transkripzioa

-Gerra hasi zan eguna gogoratzen dezu?

-Gerra hasi zan eguna. Ez, ni tiroteuen hoi ta nola etorri zian guardik eta. Eta gero gaiña bat hortikan botatzen zuen, esan dizut, oain aitzen detenian telebisiuan, ematen nau halako zea bat, fiii! nola bonbak zeatzeko hoi ta. Bum!, halako batian lehertu da, ikusi gendun jata nola lurra gora zeatu zian ta sekulako zea iña izango zan, nola esaten zaio zuluai, zuluu ta. Bai, hua begin aurrian dakat. Umiak, beatzi urte, kalea jun eta nola ekarri zuen kamillan Kulturetxia don hortan, azpin kapilla zan, ez dakit jun zan behiñ'e eliza, kapilla txiki bat zan mojetan, bai hortxe. Sartu ta ezkerreta aurrenengo zea. Horrea sartu zuen bat kamillan handik herittuta. Oain bizi zan ala hil zan ez dizut esango. Baiño begin aurrian dakat eskutan nola ekarri zuen. Ordun ez zan anbulantziaik eta ezer. Klaro, zan tiroteuakin'e ez zan giro izango igual, ta eskutan nola ekarri zuen eta guan beira. Soldadu bat, hoi bai, hor bat lehertu zan.

-Tiroteua...

-Tiroteuana gootzen zait soiñu hoi. Geo sirena jotzen zuen fiii!. Jotzen zuen, nik ez dakit zeatikan.

Joxe: -Gordetzeko. Bonbardeua hastera zijuala. Ahal zunak ahal zun lekun gorde.

-Klaro. Hala izango zien. Ni gootzen naizena hoixe. Inpresia ematen dit gaur oaindikan entzuten detenian, telebisiuan entzuten detenian soiñu hoi fiii!, fin-fin-fiña ta, bum!

2.10. Estraperloko jeneroaren prezioa

- **Hizlaria(k)**: Maiz Labaka, Simona; Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-014/041
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:02:26. **Bukatu**: 01:03:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Aginagan estraperlistak ibiltzen ziren eta orduan olioia zer preziotan saltzen zuten azaltzen du. Aginagara bizikletaz joaten ziren jeneroa erostera. Estraperloan aritu zirenak aberastu egin ziren.

Transkripzioa

Joxe: -Ordun saka izaten zan. Oliuak eta azukriak eta.

-Estraperluan.

Joxe: -Zea're bai, ekonomatua.

-Ekonomatua're bai. Estraperlua'e bai hamaika pezta pagatzen gendun litrua (olioa), orduako oso garestia zan, Agiñako Eizan. Estraperlista hoik zian. Nola kamioiak ibiltzen zian mutil hoik, hara jutun giñan, eta hamaika pezta asko zan ordun, e. Aizu, hogeitxemo esnia, errialahahi, hua hartu ezin eta makina bat aldiz marmitak aldamenian nittula egondu gea Donostin. "De veinte céntimos a una peseta va mucho". Ba hamaika pezta litro oliua ekartzen gendun. Agiñako Egiza, rebuelta txar-txar bat bado elizan azpikaldian.

Joxe: -Hoik zian hemengo kontrabandistak eta.

-Eta nola zijoan hori, bertara jutun ziñaten?

-Bai, biharko, biharko. Bizikletan izango zan, besteik ez zan, ordun ez zan motoik eta, kotxeik. Bizikleta zuna're asko.

-Nundikan ekartzen zuten haiek?

-Estra..., zera, kamioneruak.

-Eta nundik?

-Nundik, jakin tzazu. Hoik diru asko in zuela garai hartan esaten zuen.

Joxe: -Hoik ikaragarri. Gehiena Valentzitik ekartzen zuen.

-Eske hemen ez zan ezerre ta.

2.11. Gerrako oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Urruzmendi, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberría, Eider
- **Erref:** USU-016/034
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:53:05. **Bukatu:** 00:54:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra gogoratzen du. 15 urte zituen hasi zenean. Baserritik gertu egon zen frontea. Buruntzatik botatako bonbak bi lagun hil zituen. Inguruko baserrietakoak haienera etortzen ziren babestera.

Transkripzioa

-Gero, eskolan ibili ziñan ta gero gerra iritsi zan. Zuk goatzen dezu gerra?

-Bai, bai.

-Zuk zeneuzkan orduan...?

-Hamaika, hamar-hamaika hola.

-Hamabost urte.

-A bai.

-Gogoratzen dezu?

-Goatuko ez naiz ba. Jesus!

-Ze gogoratzen dezu?

-Dana! Milizianuak eta ez dakit ze ta. Nik al zekiñat, gorriya, beste batzuk gorrik ziala, beste batzuk ez dakit zein. Eta bueno, bueno. Eta gure basarriko gaiñian Bordatxon frentia hor gendun eta. Gure basarriko goyen eta. Ta danak danak. Ene, ene!

Joxe: -Zea're bai, hemen Usasku're.

-Baita. Person, persona bat hil zan. Zeatikan, Andoaingo nundikan bota

zuen?

Joxe: -Bi hil zian.

-Bai... Bi al zian gaiñea? Andoaingo zeatikan bota zea, Buruntzatkan, eta jata beste baserri batea da! ta bi hil. Booo.

-Zuek frentetik hain gertu?

-Gu bai, laster, behien. Bordatxotik behera gu, eta Usaskutikan'e laister. Zeien, erdi-erdin gure baserriya.

-Harea juten al zian soldaduak zeozarren billa edo eske?

-Soldauk ez dakit jun zien baiño baserritar batzuk jeixten zien gure etxera, ez zegoela han egoteik eta Arratzainguak-eta gure etxera jeixten zian.

-Refujiyua edo.

-Esaten zuten han goian ezin zutela egon.

-Bai ba. Gure basarrira jetsita-ta egon zian. Bueno... Egun trixtiak ordun'e, egun trixtiak.

2.12. Gerra hasi zen eguneko oroitzapenak

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-022/031
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:49:26. **Bukatu:** 00:51:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Gerra hasi zen eguna gogoan du. Herriko defentsa eratu zen orduan, eta errepublikaren alde azaldu ziren herritar batzuk.

Transkripzioa

-Gogoratzen al dezu zuk gerra hasi zanian nola izan zan?

-Gerra hasi zanian treintaiotxuan ni tanborra jotzen ari nintzan aittakin plazan. Aittak txistua ta ni tanborrakin. Ta "dieciocho julio" egun hortan plazan hor, ta hemen Patrinetik behetik gora grupo bat, ez zekit zein zian, pistolakin da!-da! bi tiro in eta "fuera grupos!" eiñez eta. Jente guztiya korrika, Gertrudiseneko portalea sartu giñun eta zean eta. Hua zan hasiera gerran. Orduako nunbait deklaratu zan gerra ta haik ez zekit zein izango zian, zein partidutakuak izango zian; "fuera grupos" eta zean etorri ta. Hasiera. Huaxe gooratzen zait.

Emaztea: -Treintaiseisian zala.

-Treintaiseisian, bai. Nik zortzi urte, zazpi urte. Zazpi ta erdi nittun. Ta hasiera hua gootzen zait. Eta geo... Bai zeoze goatzen dia, hemen plazan kuadrilla juntatu ta Andatzaa, gerra zatorrela ta hemen nazionalistak eta milizianuak eta hola juntatu ta gerra iteko haien kontra, militarren kontra. Militarrak altxatu zian. Republika zeon eta militarrak altxatu zian republikan kontra ta. Geo republikan ze alde atea zian ba, ba hemen ordun zian, guardazibillak'e batzuk bai republikan alde. Klaro, republika baizan gobierno zea, natuala. Ta guardazibillak eta mikeletiak'e bai ta republikan alde atea hittuan. Ta hoik zian geo milizianuak zian "Frente Popular", eta hoik danak juntatu zian militarren kontra itteko. Baiña militarrak etorri zianian danak...

-Hemen elkartu zianian danak hori prestatzeko, zein zan horren buruzagiya hangua?

-Bazian ordun'e, baiño nei ez zaizkit gooratzen zein zian.

2.13. Herritarrek defentsa antolatu zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-022/032
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:51:34. **Bukatu:** 00:54:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, herritarrak elkartu egin ziren eta defentsa eratu zuten. Frontera nora joan ziren aipatzen du. Herrian bertan ez zen egon borrokarik, inguruko mendietan baizik. Zaurituak herrira ekartzen zituzten.

Transkripzioa

-Zer zian herriko batzuk, pixkat moituagoak hor?

-Bat badakit hemen plazan edo hola zea gaztiak, nunbait, gerra jun bihar zala ta. Ordun partidua hemen zan nazionalista, bat, Partido Nacionalista Vasco. Ta bestia... Ez zekit beste partiduik, UGT ta, holako zeak bahittuan. Emaztea: -UGT sindikatua.

-Bai, sindikatua zian, baiño geo partiduk'e bazian, CNT ta hoik danak sindikatuak zian, baiño. Behintzat kuadrilla gazte-jendia plazan juntatu dek kuadrilla ta. Ordun herriko jauntxuak izaten zienak, bat behintzat Joxe Olano zana, zaharra, aitta, e! "Ia mutillak, oain dek garaya eta! Ia mutillak!", eraiyak ematen eta "Ia mutillak!" eta. Baiña ez naiz hortaiño, handikan aurrea zein zien mandokuak eta hola ez zait goatzen.

-Gero haiek elkartu izanagatik eta zigortu zituzten gero bestiek, edo defentsa montatu eta listo?

-Bai, gerra, frentiak eta geo pixkat organizatu zian geo. Militarrak bai organizatuta zeuden baiño hemen geo pixkat organizatu zian. Frente Popular hoi, nazionalistak ziala, gero guardia zibil batzuk, mikeletiak eta pixkat organizatu zian hain kontrako. Bizkain hor zea "Cinturón de Hierro", denboa askon egon zien lutzan hor, batekin ta bestiakin. Hemen'e Bordaxoko gaiñian hemen'e egondu zian zeak bestien kontra. Hor Usaskuko gaiñian kaiñoi bat jarri ziyen eta. Zeatikan, Saldetxutikan kaiñoiyekin hemendik hara eta handikan honea nola bota... Gu hor egoten giñun begira, eta gaiñetik riini! haren granada nola zatorren soiñua sentitzen gendun. Ta hortxe egoten giñan beira. Ta Usaskun zeon hortan bonba, eta bat hil zan gaiñea, eta bestia herittu in zuen hor.

-Zuei ordun ez zizuen bildurrik ematen gerra zanak edo?

-Tartian hor ibiltzen giñan. Baiño hemen bertan herrin ez zan izandu lutzik; hor gaiñian losuko gaiñeku hoi ta geo Donostia hartu zuen, militarrak sartu zian Donostia, eta Donostitikan hortikan Igeldon barrena-ta Oriyora sartu zian ta hemen ez zan izandu herrin. Hemen herrin ez.

Joxe: -Baiño herittuk ez al zittuen ekartzen honea, Mixerikordira.

-Bai, Usaskukuak ekarri ziyen, hildaku hoi ekarri ziyen. Eta herittua horra ekarri ziyen. Mixerikordira ekarri ziyen. Hor eon huan. Han niñun ni han. Ta gizon batek nola esan ziyon han herittubai: "Muchachos, esto es la guerra". Alegiya, jentiak ez baizun iruitzen hola gaiñea gerra zanik eta, ez zitzaion iruitzen gaiñea. Tiroka handik eta tiroka...

2.14. Gerran beldurra eta ihesa

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-022/034
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:54:48. **Bukatu:** 00:55:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Herritik jende askok egin zuen ihes beldurratik. Gerran ezinikusiengatik hil zuten jende ugari.

Transkripzioa

-Kanpoa jun zianak gerratik...

-Alde ein zuenak gerrangatik, bai, askok alde ein zuen, bai.

-Eta zergatik?

-Bildurrangatik! Zeatikan han zatozenak militarrek asko hiltzen zittuen ordun. Hemen Usurbillen zazpi edo zortzi badia hildakua haik etorri zienian. Partidun pixkat destakatuk zienak edo. Koxme, ta Koxmek, hoik partidu nazionalistakua zian. Koxmek'e nunbait mitiñen batian edo destakatu nunbait zean batian eta... Han zatoztin militarrek ez zakiyen hue zein zan, hemen herrin bertan izaten zian hoik zeatu zittuenak. Nik zuri zorra dizut eta diruba hua ez pagatzeatikan likidatu're igual ordun e? Ordun libertadia izaten zan, ez baitzan ordun kontrolik izaten. Gerra garaiyan ez da kontrolik izaten.

2.15. Kanpaiak nazionalek herri bat hartzen zutenean

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-022/035
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:55:44. **Bukatu:** 00:58:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena:** Gerra aurretik zeuden ezinikusiak gerran azaleratu ziren. Gerra garaian, apaizak kanpaiak jotzen zituen nazionalek herriren bat hartzen zutenean. Apaiz hura Francoren aldekoa zen eta gordeta egon zen hainbatetan. Jendea etsita zegoen jarrera horiek ikusita, beldurratik.

Transkripzioa

-Gerra baiño lehenago zorra zeukan horrek nahi zun gerra zorra kentzeko edo gerra hasi zanian, ya ke zorra kentzen deten horregatik kenduko det gaiñetik. Lehenago zego ezinikusia?

-Ez dizut entenditzen.

-Lehendikan zegoen, gerra baiño lehenagotik zegoen ezinikusiya?

-A, klaro!

-Gerra hasitakuan aprobetxatu...

-Klaro! Holakuak bai, asko. Hemen baiño, gaiña, hemen baiño gehiyo Kastilla aldian asko herri koskor hoitan holakuak. Bai, bai.

-Zuek ba al zeneukaten notizirikian gerra nola zihoan hor Espaiñan beste lekutan? Nola zihoan ba al zenekiten? Ba Bartzelonan ze gertatzen zan edo Madriden hartu al zuten. Hori enteratzen ziñaten?

-Enteratzen zan nolabait'e. Kanpana-bueltak'e jotzen zittuen hola herrin bat hartzen zuenian. Hemen ordun gaiña erretoria alderdi hartakua zan, hemen erretoria zea ordukua militar hoitakua zan, hain aldekoa. Erretoria, Don Julian. Beste aldekuak hemen zerenian oaindik militarrek etorri baiño lehen, erretore horren billa etorri zian hiltzeko, harrapatzea ta. Hemen elizan gaiñian hor ganbara do eta hor gordeta egona izan bihar zun. Ta geo nolabait alde egin eta Aian gordeta egona zan. Hua geo etorri zanian, militarrek sartu zanian etorri zan berriz erretoria honea, ta hua izaten zan diskurtsuk eta itten aiuntamentuko plazan, herrin bat hartzen zuenian eta. "Viva España, arriba España!". Erretoria bera, bai. Kanpana-bueltak jo ta. "Bai, zea hartu diyek /hartuyek/, Bartzelona hartu diyek" eta kanpana-bueltak jo ta. Erretori hoi bea zea diskurtsuk iten.

-Ta jendiak?

-Jendia bildurrak. Bildurrak, hil'e in baizittuen batzuk eta jendiak ez zun ezer esaten, eta bildurrak eoten zan jendia ta. Destakatzen baldin baziñan, leña.

Emaztea- Zubitakua, berriz, militarra huan.

-Hua bai, hua berez zan militarra hua.

-Gero gaiña jendia iten da jarri, hala bihar dula irudittutzea. Jarri, ohittu itten zea bizimodu hartan eta hala izango dalakuan. Ohittu iten da eta jarri iten da. Etsi iten du jendiak.

2.16. Dibisio Urdinera Usurbildik joandakoak

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-023/003
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:01:48. **Bukatu**: 00:03:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: II. Mundu Gerran, Dibisio Urdina sortu zen eta Usurbildik zenbait boluntariok izena eman zuen hara joateko. Boluntario haien izenak aipatzen ditu. Garai hartan konformismo handia zegoen.

Transkripzioa

Joxe: -Hi gogoratuko haiz "División Azul" hemendik jun zianak.

-Bai. Hori kuarletean boluntariyuak eskatu zittuen kuarletean. Ordun Agustin Illarramendi eta hoin garaiyan, ta apuntatu in zian jun nahi zunak. Eta hala hemendik eraman zuen Dibisiyu. Dibisiyu zenbat da, milla ta gehiyo soldau, dibisiyu... Konpañiya ehun, "batallón mil, División" igual hamar milla. Hamar milla, hamar bat milla lagun igual eramango zittuen, bai, dibisiyu. Batailloiya, eon pixkat. Konpañiya "mil, batallón tresientos", eta dibisiyu "mil y pico", milla ta gehiyo soldadu izango zian.

-España guztitikan?

-Hemenguak bazian. Agustin Illarramendi, "Rusua", Zubitako hoi.

Joxe: -Hemen'e bai "Rusua" Olarranekuakin ezkonduakua.
-Baita, hori're bai. Hiru bazian hemenguak'e. Hoi're zerai laguntzeko, Alemaniayi laguntzeko. Soldauak bialdu zittun, bai.
-Eta hoiek zer moduz ikusten zian, juten zianak edo.
-Jendia esaten dizut ba ohittu itten zala. Franco etorri zanian harekin bihar zala ta. Jendia ohittu itten da. Regimenan zean. Zea bezela, lehenao esan deun bezela, dantza lotun ta galazten. Eta jendia ohittu itten zan halare. Ohittu. Hala bihar zula ta.

2.17. Lagunaren salbakonduktoarekin aurrera

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-023/011
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Ibiltzeko baimenak (salbakonduktoak) zer ziren azaltzen du. Behin bi laguni ibiltzeko baimenaren ildoan gertatutako anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

- Salbakonduktua deitzen ziyen, pase bat bezela, dokumentu bat bezela zan, pase bat bezela. Konparaziyo batea, oain kamiyoa baldin bazuaz ta "documento de identidad" eskatzen dizue, baiña ordun, orduan ez zan dokumentuik identidadeik, ez gendun ezer ordun, ez zan. Karnetik eta ezer ez zan: ez "libro de familiaik" eta ezer'e. Salbakondukto hoi iten hasi zian herri batetik bestea hemen ibiltzeko, zeatikan edozein tokitan militarrek eta kontrolak egoten zian eta hoi, pasia hoi.

Bati behintzat, hau'de politta da. Lagun batek esan dik: "Ño! Iruna joan behar dit eta salbakonduktuik ez zekat" eta beste lagunak esan diyo: "Nik emango dit!". Eman diyo salbakonduktua bestiak, bestiena, beria e? Ta bidian dijuala, geldittu due guardia zibillak o kontrolian, ta "¡Salvaconducto!", ta eman diyo ta "Oiga, esto está caducado", "¡Allá cuidaus! ¡No es mío!". Anttonio Pellok kontatzen zin hoi. "¡Esto está caducau!", "¡Allá cuidaus! ¡No es mío!".

- Earra.

- Eta, salbatu al zan? Segitu al zun? Segitu zun bidia o...?

- Ez dakit ze ingo ziyen. Ze ingo ziyen? Parre ingo ziyen, ze ingo ziyen ba, aizu. Geo, ze moduzko gizona dan'e antzeman eiten da, ta astapotron bat igual zan ordun, astapotro bastante bazan ordun, asko, gu aurretik geala. Ta ze ingo ziyen ba?

2.18. Aitari kotxea kendu ziotenekoa

- **Hizlaria(k):** Rekondo Aizpurua, Miren Jone
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe

- **Erref:** USU-027/018
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:20:42. **Bukatu:** 00:21:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena:** Aitak kotxea zeukan; behin preso eraman eta kotxea kendu zioten.

Transkripzioa

-Esan dezu, aitak kotxia zeukan.
 -Bai, aitak kotxia zeukan. Ni harkin goatzen naiz. Hiru bider eaman zuen detenittuta Lasarte. Aitta, bai, pistolakin etorrira.
 Joxe: -Lasarte?
 -Bai, Lasarten hor nunbaitt zaken zea, bilketa iteko beak edo. Batian beñipin etorri zitzaizkion eta, Usurbilko baten familikoen anaiya zan gaiñea. Este, falangista jantzita etorri zitzaion pistolekin kotxian billa. Kotxian giltzan billa.
 -Detenitu zuten kotxia nahi ziotelako kendu edo?
 -Bai, bai.
 Joxe: -Kendu're in ziyen, ezta?
 -Kendu're in ziyen, bai, bai. Ta geo bea desterratuta zeola Valladoliden billatu zun kotxia eta ekarri in zun eta konpondu in zun eta jarri in zun; hoik danak in zittun, bai.
 -Suertia euki bihar hori...
 -Suertia... Makiña bat gauza pasako zittun bitartian, makiña bat gauza, bai.

2.19. Aita Usurbildik 500 km-ra desterratu zuten

- **Hizlaria(k):** Rekondo Aizpurua, Miren Jone
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-027/025
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:32:38. **Bukatu:** 00:34:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** 1939an, aita osabarekin batera hasi zen etxea berriro eraikitzeke planoak eta egin beharrekoak egiten. Hartan zebilela, desterratu egin zuten: Usurbildik 500 km-ra bizi behar zuen. Madrila joan zen bizitzera eta familia amarekin gelditu zen Zubietan; han ikasi zuten baserriko lanak egiten.

Transkripzioa

-Hortako hasi zan segittun aita, teintainueve, hasi zan segittun. Osaba Austin han zeon, Frantzin zeon hua're, ... hua're junda zan, eta harrek ba erdi arkitekto, erdi ieltsero zan, obrak eta gustatzen zitzaiona, eta harrekin planuak eta danak in zittun. Etxi hau berritu... Oriokua, Oriyon bizitzen baizan. Eta poiektua ta dana in eta etxi hau, jende asko omen zeon ordun lagundu nahi ziyona gure aaittai, ikusiz herriyan erdiyan etxia nola geldittu zan eskonbroak ateatzeko. Ta eskonbruak ateatzen ai ziala desterratu in zuen aitta. Bai, bai. Usurbildikan bostehun kilometrora ... bihar izandu zun. Ez zeon bertago bizitzeik ez zakan.

-Desterratu zeñek desterratzen zun?
 -Zeñek desterratuko zun. Abertzalia zalako. Aintzen zein zeuden ordun hemen?
 -Hemen alkatiak edo...
 -Hemen, ez dizut esango zein hemen. Dozenerdi bat Usurbillen ikusi nahi ez zuenak.
 -Desterratu ein zuten?
 -Desterratu? Madridentan egon zan aitta.
 -Ze jun zan, bera bakarrik harea?
 - ... ba!
 -Familiyakin edo...
 -Bai zea! Gu danak amakin Zubietan geldittu giñen. Kermanek nolabaitt bukatu zun karrera. Nolabaitt ez, zazpi urte Lekarozen in zittun. Ta geo aukeratu zun kimiko izatia ta geo Zaragozan egondu zan eta geo...
 -Zenbat denboran egon zan Madridentan zuen aita?
 -Madridentan? Urte terdi edo bi. El año cuarenta-cuarenta y uno hola izango zan. Ama gukin han. Danakin han. Eta morroyak bizi zian. Ya neskamiak puxkana-pixkana juten eta guk han ikasi genun bizitzen eta lana iten. Eta lan iten han ikasi genun. Jexus Mari, Mikel, Agate ta ni gutxixean, baip gu labak (laurak) bakoitza bee maillan

2.20. Eskolako zigorrak

- **Hizlaria(k):** Olasagasti Mujika, Felix
 - **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Urkia Urdanpileta, Iñaki
 - **Erref:** USU-029/009
 - **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:09:44. **Bukatu:** 00:10:41
 - **Multimedia:** bideoa online ikusgai
 - **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
 - **Gaia(k):**
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena:** Zubietako eskolan hasi zen ikasten; han izandako maisua fusilatu egin zuten. Eskolako zigorrak aipatzen ditu.

Transkripzioa

-Gero eskolan ibili nitzan, aurrena Zubietan ibili nitzan. Joxemari difuntubakin. Hua afusillatu in zuen.
 -Zein zan hori?
 -Maixuba.
 -Nungua zan?
 -Hoi? Ez dakit Usurbillen jaiua zan. Bueno, horrea pasau gea oain, eskola kontu hortaa. Ni eskolan ibilli nitzan ba mutil koskorra. Ba nittun ba sei urte zazpi. Hemendik juten nitzan. Ta Koxme, goorra zan hua, e. Ba al dakizu zer itten ziun harek? Zeozer gaizki itten bagendun, hola jarri ta reglakin jo, taka! Ta hau iten bagiyon, baten tokin bi. Entenditzen dezu? Eta bestia zun itximurra, trak! More-more inda. Koxme. Ta Koxme hoi, umiak asko ibiltzen giñan, ta Koxme hoi ba bakarrik. Eta laguna hartu zun nee kintakua, Etxenausiko alaba. Et

2.21. Gerrako beldurra, ihesa eta fusilatuak

- **Hizlaria(k):** Olasagasti Mujika, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Erref:** USU-029/016
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:18:51. **Bukatu:** 00:20:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Felixek Koxme izan zuen maisu Zubietan; gerra garaian hil egin zuten hura. Usurbilen 7 fusilatu zituzten. Gerra hasi zenean, jendeak beldurtuta ihes egin zuen edo ezkutatu egin zen.

Transkripzioa

-Zazpi afusillatu zituen Usurbilen.

-Eta haietako bat maixua. Eta zergatikan?

-Harrapatzen zuena fuera. Ze uste dezu? Hemen nola ikusten dezu telebisiyuan Kosovo ta hoitan jendia paketiak hartuta. Kamiyo hontan karretillakin, paketiak bizkarrian hartuta, astuak, danak, ihesi Donostitikan. Hemen taka-taka-taka. Nora zoaz eta Bilbo aldea, martxa aurrea. Nere anaiak Frantzira alde ein zun. Atta berriz meta azpiyan lo eitten. Bildurra.

-Meta azpian?

-Bai, egunak, egunak. Bildurra. Honea etorri zian "Viva Cristo Rey" esanez-ta falanjia. Maldezioa... "Viva Cristo Rey" ta "mecauben dios!" esaten zuen. Hor goitik etorri zian hemen sartu zianian kuadrilla, eta beste kuadrilla hemendik. Eta ordun'e bazian gizonak hemen. "Viva, viva, viva! Ahora no tenemos miedo!" Bigarren gabian bere koiñatua hartu ta ta!, fuera.

2.22. Gerra aurreko ezinikusiak Usurbilen

- **Hizlaria(k):** Olasagasti Mujika, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Erref:** USU-029/017
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:20:36. **Bukatu:** 00:22:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 - Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
 - Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
 - Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Gerra aurretik Usurbilen baziren ezinikusiak. 1933an Usurbilen uholdeak izan ziren eta beren baserriko paretak bota egin zuen urak. Orduan etxea bota eta berria egin zuten: 12 lagun etorri ziren laguntzera, 6 PNVkoak eta 6 errepublikanoak; ez zioten hitzik egiten elkarri.

Transkripzioa

- Eta gerra aurretikan ba al zeon eziñikusikan hemen herriyan?
- Bai, beti.
- Politikagantikan o bestela?
- Bai, hoi're esango dizut. Txara hau "en mil novecientos" trentaitresen inundaziyua izan huan, "trenta y tres".
- Gerra aurretik?
- Gerra aurretik. Bai, "treinta y tres" izango zan, seguro ez dakit," tres, tres o cuatro" zan, hor zan. Ta etxe honi hau atera in zuen hor zeak ta hemen guri bota zizkigun, pareta bota, oyen gaiñea holakoxe harriya erori zan pareta zulatuta ta guk alde in in biher izandu gendun hemendik. Ta honea etorri zian usurbildik Naxario Zendoyanekua eta PNVko jendiak eta zian, laguntzea gabian. Gu atea giñan kanpoa, etxia zakurra, zakurrak sartzen ez ziyen uzten ta zakurra kendu bihar izan giñun. Hoi bat. Ordun geo etxia bota zuen, ez zan guria, etxia, Maria Maria Zapinona, markesen lehengusuba. Haun bizkar'e hoik asko zian e? [...] Hala, hala in gendun etxia, bueno, etxia guk ez gendun ein, lurra kendu bihar zan, Usurbilko batzokitik sei lagun jarri zizkiguen lurra kentzeko hemen hor gora, ta Oriyatik atera zan Oriyako republikanua, eskubiya altxatzeko esan ta ezkerra altxa're, zeoze bazala, baziala, besua biyak altxatzeko esan ta hola ingo bizkarrak. Baiño igual da, oponiyo bat. Ta PNVtikan sei, ta Oriyako sozidadetik beste sei gizon, ta hamabi gizon haik lanian hor aitzen zian. Gu're bai e? Alkarrekin hitz bat ez zuen eitten, itten bazuen, hitz txarrakain, "vete a tomar lo que sea", bakizu. Hoik hola dira e?
- Gerra baiño hiru, bi-hiru urte...
- Hiru urte leheno izango zan hoi.

2.23. Usurbilgo mitinetan entzundakoak

- **Hizlaria(k)**: Olasagasti Mujika, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Erref**: USU-029/025
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:35:30. **Bukatu**: 00:36:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
 - Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Usurbilen mitinak izaten ziren. Behin Urraca Pastora karlista etorri zen mitina ematera eta hark esandakoa oraindik gogoan du Felixek.

Transkripzioa

- Usurbillen mitiñak iten zittuen. Oriako republikanua, nazionalistak eta karlistak. Karlistak'e bazian ordun. Monjak hor zeen ta bale-bale, punto. Etorri zan mitiña ittea Usurbillea, mutil koxkorra, Urraca Pastora. Hori ez zait ahaztuko bizi naizen arte. Karlista. Aittu zian, PNVk esan zion bee gauzak, republikanua'e bai. Ta Urraca Pastora horrek ba al dakizu ze esan zun? "Republikak ze ekarri du, zer ekarri du? 'Guardias de asalto'. Zertako? Pobriai bizkarra berotzeko!". Hoi Urraca Pastora karlistak esan zun. Hoik hemen dazkak sartuta iltziakin.
- Nungua zan?
- Po! Kar-kar.

-Ez zan hemengua.
-Ez, ez, ez. Kanpotik. Urraca Pastora. Demarriyan gaiñian jarri, Usurbillen, plazan.
-Egiten al ziren mitinak Usurbillen?
-Bai.
-Ta jentia juten al zan?
-Lau katu izango zian baiño.

2.24. Fusilamenduak bere begiz ikusitakoa

- **Hizlaria(k)**: Olasagasti Mujika, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Erref**: USU-029/041
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:58:41. **Bukatu**: 01:00:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Behin, gerra garaian Hernanitik Usurbila zetorrela bizikletaz, soldadu batzuek ez zioten utzi pasatzen. Beste bide bat hartu behar izan zuen eta han ikusi zuen nola fusilatzen zituzten hainbat gizon.

Transkripzioa

-Eta ba al dakizu geo hiltzen zittuenian. Hoi ere bai, ni jeneralmente peria nei bialtzen zian, zeoze landaria ekarri edo. Bizikletan, garbi esango dizut, bizikletan ibiltzen nitzan oso habilla. Ni Udarregi difuntuakin eta hoik danakin, Arpidetakin eta hola ibiltzen niñun, e. Hala Hernania jun nitzan eta banatorren etxea Hernanitik eta "alto! Da la vuelta". Bale. Hoi aurrenekuan. Lasarte. Handik barrena.

-Alto zeinek?

-Reketiak edo Falanjiak. Soldaduk. Jakin zan zein zian. Putakumiak, bale. Buelta. Ta Kortaren etxe pareta pasatzerakuan, tarrarraaaat! metrailletakin. Aceros-ko pari hortan goian. Hamar metron okerrik be markatuko nuke nun dan. Etorri zaizkit nei jendia badakitela iñez.

-Zein hil zittuen han?

-Puf! Bueno! Berrogeita hamar bezela ehun. Bueno, bueno, bueno. Geo hurrungo egunian odol mantxak egoten zian. Odola baakizu. Pareta hola, pareta haundia zan, etxe honen altura bai. Ta eskiñan jartzen zittuen ta rrrarraat!, batzuek barrena bestiak kanpoa. Abajo. Tapatu. Kamionakin edo harriya ekartzen zuen, bota eta. "Al otro día otros tantos, y tira palante". Ze uste dezu hau ze izan dala? Kosovo... Bonbak jarri zittuela ta. Oin adelanto gehiyo do ta bonbak. Ordun bonbak izan [balia] ez dakit ze pasako zan. Hoik hola dira. Hoik neronen begiekin ikusik.

2.25. Gerrako abioiak

- **Hizlaria(k)**: Olasagasti Mujika, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Erref**: USU-029/045
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 01:03:57. **Bukatu**: 01:05:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Abioiak Lasarteko hipodromoan lurreratzen ziren. Abioi haiek nolakoak ziren azaltzen du. Gernika bonbardatu zuten abioiak kanpotik etorri ziren.

Transkripzioa

-Abioiak-eta esan dezu hemendik pasatzen ziala.

-Bai, zean jeixten zian, hipodromon abiona. Bonbardatu zuenian zea, bonbardatu zuenian Eibar; bueno, Gernika, haik kanpotik etorri zian. Haundik, alemanak. Hemendik jutun zan bi edo motor batekoa, boon-boon-boon, katxarro zahar bat, hemengua zan eta. Hua jutun zan. Hua ikusten gendunian bildurrak aidian, zein etorriko ote da ta, alemanak edo. Harek jun eta etorri iten zun eta jutun zan eta harek ez zun habilidaderik ezertako. Zera zan, nazionala, hemengua. Jutun zan eta ez dakit nun botako zittun, itsasuan botako zittun noski. Harek ezer ez. Baiño alemanak zian, ño!, haik bai, ostras! Jarri ta dziiii. Alemanak eta italianuak.

3. Aisia

3.1. Esku-pilotan aritzeko odola atera behar

- **Hizlaria(k):** Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** USU-002/008
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:07:38. **Bukatu:** 00:08:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Ikasi eta kirola egiten zuten batera. Hainbat kiroletan izan zen txapelduna. Pilotan ibili aurretik, eskua hartarako prestatzen zuten: ebakiak egiten zituzten odola ateratzeko.

Transkripzioa

-Orduan ikasi eta kirola ere egiten zenuten batera han.

-Bai, bai. Ni nitzan "campeón de lanzamiento de peso" eta, ze gehiyo?, a bai, pelotan. Urtero kanpeoia nitzan. Gue klasian, e. Hua klaseka izaten zan ba.

-Pelotan eta...

-Eskuak pentsa ezazu. Gu pelotan itten gendun. Aurrena eskuak berotu. Geo baten bat karga haundiya zunak zanpatu, eta geo Gileta batekin (Gilette bizarra kentzekoak) ebaki itten genittun odola ateatzeko. Bai, bestela itten zan "clavo" deitzen zitzaiona. Hor tartian odola zera itten zan eta oso txarra zan, mingarriya. Ta hoi itteko Giletakin ebaki ttiki bat eiñ, odola atea ta segi pelotan. Ja-ja, animalik bezela, igual-igual.

3.2. San Juan suaren inguruko pikeak eta Kalexarren historia

- **Hizlaria(k):** Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** USU-002/049
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:16:33. **Bukatu:** 01:19:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » San Juan
 - Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
 - Bestelako kontuak » Historia orokorra
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Kalexar auzoaren historiari buruz hitz egiten du. San Juan sua izaten zenean, norgehiagoka egoten zen zein auzotan su handiagoa egingo. Adi egon behar izaten zuten sua zaintzen, beste auzokoek trikimailurik erabil ez zezaten. San Juan suaren inguruan kantatzen ziren koplak kantatzen ditu.

Transkripzioa

-San Juanetan-eta san Juan sua egiten zenuten?

-Bai. Ta gaiñea zelebria zan zergatikan ze beti izaten zan ze barriyok su haundiaua itten zun eta ordun gu izaten giñan Kalekuak, ta parian zeon bestaldian Kalexar, deitzen zaio. "Ciudad Belmonte". "Ciudad Belmonte" bere historia badu zergatikan kalia zeon jauntxo baten eskutan, Atxegatarren eskutan zeon. Eta ordun Elizalde deitzen zitzaion. Eta hua independizatzeko in zuten erregiak, Enrique IV uste det zala, Trastamara batek eman zion titulo de villa "la ciudad Bemonte de Usurbil". "La ciudad Belmonte de Usurbil" izena zun. Eta oain guk beti Kalexar. Usurbillen zan leku bat "El robledal de París", antes que existiera París. Usurbillen zan hoi. Han juntatzen zien jauntxuak. Herriko zeak, jauntxua bat zan: Atxega, Atxegatarrak. Baiño herriko zarrak han juntatzen zian "en el robledal de París" erabakitasunak hartzea.

-Baiña hori noiz? Aspaldiko kontua, ezta?

-Bai. "In illo tempore". Eta ordun Kalexartarrekin itten gendun guk beti kompetentziya.

-Sua?

-Bai. Ta han bazan kontraio goorra, Bixentiko deitzen zan, oandik bizi da gizajua. Bastante elbarriya egon bihar du. Eta ordun zan, surik haundiña zeñek itten zun. Baiña hoi ez zan txarrena, Kalexartarrak etorri errekatik barrena ta igual guri su ematen ziuten garaiya baiño lehen.

-[...]

-Bai ba. Ta guardiyan egon bihar zan. Ezta muittu're suan ondón [...] zea, egur pillatetik eta. Ezta muittu're. Ta geo aber suik haundiña zenek itten zun. Ta...

1

Dioste salbe, ongi etorri
gabon jainkuak diyela,
legiarekin kunpli dezagun
aita san Juanen bezpera.

2

Han goien goien langetan
eperra dago kantetan,
Kalexarreko nagusi jaunak
kaka egin du galtzetan.

-Kalexarrekeri. Haik gugatikan. Ta hola aitzen giñan. "Arkakuxua dirudi" ta. Ja-ja.
-Eta hori ze kantatzen zan, suan inguruan?
-Suan inguruan, suan inguruan. Gaztiak aitzeko modun.
-Orduan gertu su bat...
-Bueno.
-Aitzeko moduan bazegon.
-"En linea recta" zenbat, hirurehun bat metro?, laurehun? Aitzen zuen, bai, aitzen zuen. Biharko. Biharko.

3.3. Eskaladako materiala eta teknikak

- **Hizlaria(k)**: Orbegozo Lizarazu, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref**: USU-003/028
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:42:30. **Bukatu**: 00:45:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- **Laburpena**: Soldadutzan ikasi zuen eskalada egiten. Zer material, teknika eta arropa erabiltzen zituzten azaltzen du.

Transkripzioa

- Nola ikasi zenuen eskalatzen?
- Eskalatzen? Ibilita gogotik. Ni Usurbilko torria, Usurbilko torria baiño altuotik rapelian jetxia no hirurogei metroa; bi soka hogeita hamar metrokuak erdin korapillau, ta hirurogei metroko zea jetxia no goittik behera, "riiii!"
- Soudauxka baiño lehenao-edo?
- Soldauxkan. Hor irabazi nun ba, hor irabazi nun.
- Ikasi soldauxkan egin zenuen?
- Bai. Nun ba? Nun ba bestela?
- Hi ze kintan jun hintzan?
- "Cuarenta y nueve-cincuenta"n jun giñun gu. "Cien cuenta"n. ! Cien cuenta" in genin.
- Ze material, ze erreminta erabiltzen zenituzten eskalatzeko?
- Jo, danak. Klabinak, horizontalak eta bertikalak eta. Mosketoi...
- Joxe: Hi infanterikua hintzan, e.
- Infanteria, bai.
- Mosketoiak eta zer gehio? Nola egiten zenuten eskalatzeko?
- Eskalatzeko? Soka. Bi-hiru lagun juntatzen, zeaten giñun han. Ikeagarri ona, Tolosakua zan, Ikeagarri earra. Harek, aixe igotzen zan hua. Erakutsi itten dizue, eskuak kanbiatutzeko in bihar dala hanka nol don eta; teorikak ematen dizkizue. Sarjentuak teorika ematen zizkiun baiño geo teniantiak...
- Joxe: "Fábrica Nacional Toledo" (domiñaren idazkuna).
- Bai, handikan ekarriya dek hau, hau ta bi hillabeteko permisua.
- Ze juaten ziñaten, sokakin lotuta gora edo lotu gabe?
- Bai, lotuta, hiru lagun lotuta. Baiño zu juten ziñan ta itten zendun klabinja honta tak!, mosketoiak engantxau ta lasai geratzen ziñan. Ordun hartzen

zendun beste klabija ta itten zendun sartu. Grieta hola baldin bado, bertikala; hola baldin bado horizontala jartzen giñun. Ta geo hua han enpalmatu ta segi puxkanaka-puxkanaka.

- Joxe: Oain'e iten due ta.

-Igua-igual. Bai, igual-igual iten due.

[...]

-Erropa ta ze?

-Erropa ona, ona, erropa ona. Kaltzak lori xamarrak, panazkuak ibiltzen giñun guk asko. Panazko edo hola, ille puxkat. Neguako txarrak zian. Pana ez hainbeste, illia zuen baiño geo eskiatzen ibilli giñanian hoinbesterañoko tela puxkak.

- Nieves: Tejidu zakar bat, basto-bastua.

- Ez zan zakarra, e. Panazkuak zien, e.

- Nieves: Pana ez zan, nik ezautu nittun erropa hoik, pana ez zian.

- Zapatillak-eta nolakuak izaten zien?

- Botak, botak.

- Botak? Oain ibiltzen dia ba beste...

- Botak. Onak ematen zixkiun botak, bai.

3.4. Antzerkiak egiten ibilitakoa

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Nieves
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-003/040
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:00:15. **Bukatu:** 01:01:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Nievesek antzerkiak egiten zituen. Zuzendaria nor izaten zuten aipatzen du. Antzerki onak egiten zituzten.

Transkripzioa

Nieves: -Nik ordun antzerkik iten nixkin.

-Ona huan ikeragarri gaiñea, ona, ona. Oaiñ'e jun bihar zendun.

Nieves: -Antzerkik iten nixkin ta antzerkiya nin behintzet hurrengo igandian edo.

-Mikelek in zin politt askua.

Nieves: Ta handik berehala hasi giñan ateatzen. Antzerki onak itten hittuan hemen.

-Badakik han zinia nun [...] Txamuntun iten zixkiyen.

Nieves: -Garbi Alai. Aurrena Mixerikordin.

-Mixerikordin ta gero han, bai.

Nieves: -Aurrena Mixerikordin, neska-koxkorra nitzala aurrena.

Joxe: -Gioi ona, gaiñeaz.

-Ordun maestra ta, Pilar Galardi ta.

-Enkarni're bai.

-Enkarnina, antzerkiya iten zun. Baiño dirijitzen zuenak zian Maritxu, Lolita ta... Apuntadora behintzat Maritxu.

3.5. Zaldi-dema

- **Hizlaria(k)**: Alkorta Zabala, Praixku; Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref**: USU-007/009
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:11:22. **Bukatu**: 00:12:35
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Zaldi-dema ezagutu izan du Praixkuk: zaldiak idien kontra izaten ziren, eta zaldiek irabazten zuten. Zaldi haiek handiak ziren.

Transkripzioa

Joxe: -Hik ezautu al hittun Bizkaiko zaldik?

-Bai. Ezautu nittun bai zaldik.

Joxe: -Ezagutu hittuan, e?

-Bai.

-Zaldik, Zendoianeko pentze hartan.

-Bat bado ezautu zittuna zaldikin dema, e.

-A, zaldiekin dema egiten zan?

-Bai. Zaldik zian hiru zaldi hiru irin kontra, zian.

-Eta?

-Zaldik irabazi zuen.

Joxe: -Aixa gaiñea.

-Bai.

-Haik? Halako astinduik harri horrek ez du in oaindik, e.

-Baiño zaldik, esaten [zuenez] hik ezautuko dek baiño, mila kiloko zaldik, e. Bakoitza, e.

-Bai. Aundik, haundik zien.

Joxe: -Panaderuenak edo zenenak zien?

-Ez zekit.

-Joxe: -Bizkaiko panaderuanak edo.

Joxe: -Ze animalik zian.

-Haundik!

Joxe: -Ta iri koxkor hoiri harek atzaparra jartzen zuenerako, pla-pla-pla!

Bueno...

-Hik ez huan ezautuko?

Joxe: -Ez.

-Ez, urtiak, urtiak dia.

Joxe: -Horregatikan ba. Aitzera banula bai baiño. Hik ezautuko huan.

-Nik ezautu nun bai.

3.6. Usurbilgo autoak lehen

- **Hizlaria(k)**: Alkorta Zabala, Praixku; Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref**: USU-007/026
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:42:39. **Bukatu**: 00:44:03
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

- **Laburpena:** Donostiara oinez joaten ziren. Garai hartan kotxe gutxi zeuden Usurbilen.

Transkripzioa

-Donostira juten ziñaten danborrada ikustera garai hartan?

-Ez.

Joxe: -Hemendikan, hor goitikan, Arratzaindikan.

-Oiñez tapa-tapa. Hemendikan ordun oiñez ibilli bihar izaten gendun guk.

Ez zan trenik eta autobusik eta ez kristoik. Taxisik'e ez ta. Ordun ba al zan ba kotxeik'e! Kotxeik ez zan.

Joxe: -Usurbillen asko ez.

-Usurbillen?

Joxe: -Andrexek bat.

-Anjel Balerdik.

Joxe: -Bi. Laxaro panaderuak ogiya partitzeko, hiru.

-Geo ekarri zuna Luis [...] taxista.

Joxe: -Hoi gero.

-Taxista.

Emakumea: -Hoi zu ezkondu ziñanian ordun Luix Fulanonekin jun ziñan, ez?

-Ez, ez. Donostikua huen. Hemen ez zan.

Joxe: -Luis ez zan, Luis.

-Ez. Geroztik. Ordun. Ba al dakizue zenbat urte dan?

Joxe: -Jode, la ostra...

-Hirurogei urte lehengo eneruan, hirurogei urte.

3.7. Amuarrainak harrapatzen

- **Hizlaria(k):** Alkorta Zabala, Praixku
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-007/038
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:59:55. **Bukatu:** 01:01:42
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Seme-alabak txikiak zirela, amuarrainak harrapatzera joaten ziren errekarra. Amuarrainak eta aingirak nola harrapatzen diren azaltzen du.

Transkripzioa

-Denpora batian amorraitan hemen beheko erreka hotan. Hoik txiki ziala aldemenian. Urtian bi jaitan, San Pedro eguna bat, atsaldian. Hemen amorraia bastante izaten huan.

-Koño...

-Erreka hontan. Han'e bai ta hemen'e bai. Bitan, bai. Lan asko inda. Goitik hasi, presa in, hustu.

Joxe: -Hau nun jaiotzen da, Ollokin?

-Hau goroo jaiyo. Erreka han hasten dek.

Joxe: -Olloki ze hortan.

-Goraxio. Baiño hau gure menditikan; han ura betikoa dek.

-Eta nola harrapatzen dia amu-arraiak?

-Amorraia? Eskubakin'e bai earki. Eskubakin hola ttaka! ta plast!, kanpoa.

Baiño aingira ez, ez, aingira aluba da.

Joxe: -Labaiña izaten da hua.

-Hua tenedoriakin.
-Tendoriakin? Hortako ere punteria euki beharko da, ezta?
-Bai. Hua zasta sartzen da. Hua leuna izaten da.

3.8. Irrati-nobelen arrakasta

- **Hizlaria(k):** Maiz Labaka, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-014/026
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:42:24. **Bukatu:** 00:43:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- **Laburpena:** Irrati-nobelak entzuteko zaletasuna izan du Simonak. Irrati-nobela bat oso sonatua izan zen eta jende askok entzuten zuen hura.

Transkripzioa

-Radio-nobelak bazeuden?
-Ez. Geroa bai baiño ez naiz goatzen gazte-denboakoa. Geroztik bai, urte gutxi diela nobelak, Jesus Maria!
-Eta zuk entzuten zenituen?
-Bai. Gaiñea behin hasi ezkeo ez dezu uzten eta txarrena hoi. Izandu zan bat ikaragarri inportantia, urte batzuk badia baiño. Donostia jun eta goatzen naiz ni arrandain arraia hartzen eta: "No hay nadie, cómo va a haber, es que está la radio no se cuantos". Programa hoi zeola ta arrandain'e notatzen zala, falta iten zala ordu hortan iñez. Muy importante, ta nik segittu nun. Geroztik esan nun ez naiz hasiko, zeatikan behin hasten bazea gustatu iten zaizu, oain Goenkale bezela.

3.9. Lasarteko automobil-karrera I

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-022/008
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:11:27. **Bukatu:** 00:14:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- **Laburpena:** Lasarten azken automobil-karrera jokatu zenean jaio zen bere anaia. Karrera hari buruz hitz egiten du: orduko autoak nolakoak ziren, orduko markak, ibilbidea...

Transkripzioa

- Eta gure Luis jayo huan Lasarten azkenengo antomoil karrera jokatu zan egunian: "veintidós de setiembre de 1934". Azkenengo antomoil karrera Lasarten jokatu zan. Lasartetik zirkuitu hortan Andoaindik barrena.
- Ze karrera zian hoiek?
- Antomoil karrerak, oan Formula Uno ta izaten dian hoitakuak. Tipo hortan,

Formula Unoik ez zan ordun, baiño antomoillak tipo hoi bazien ordun, karrerako antomoillak.

Joxe: -Baiño Formula Uno huan, e.

- Geroxio Formula Uno izena hoi, geroxio.

Joxe: -Nuvolari eta danak.

- Bai, baiño Formula Unon izena ez zin artian. Formula Uno geo atea ziyen, horko baju-baju zeoik. Ordun antomoillak ze tipo esaten zien hairi, Mertzedesak irabazi zin ordun, azkeneko antomoil karrera, "veintidós de setiembre".

- Nolakuak izaten zian, kotxe haiek zer zian, kotxe normalak motor potentiakin edo?

- Normalak ez zien, hola pixkat karrerako-ta prepaatuk zian hola forma luziakin eta prepaatuta zian haik'e. Karrerako pepaatuk, noski. Hoi pentsa zazu: garai hartan kamiyua, oain bezelako kamiyuak ez zien, kamiyo danak, asfaltuak-eta zihero diferentiak, kurbak. Eta zirkuito, herritan pasatzen zan gaiñea, Lasarten herrin pasatzen zan ta. "Media 167,900 media", orduako. "El año 34, 167 de media, e!" in zuen bueltan. Ta kamiyua esaten dizut ba, kamiyo zaharrian, kamiyo lurra're dana zea, asfaltoa're ez behintzat oan bezelako leun hoitakua ta, oso diferencia zan ta. Hala're ze media iten zuen eta. Martxa haundiya ibiltzen zuen haik'e. Treintaikuatruan.

- Eta nundikan nora izaten zan bidia?

- Lasartetikan Oriya bitartian zan salidako tribuna.

- Oriyo?

- Oriya, Oriya, tartian hor. Pepe panaderuan etxian onduan. Eta handikan juten zian Andoain aldea. Andoain, Bazkardon buelta eman, handikan Urnitaa. Urnitatik barrena... (Urnitak kalia barrena pasata, e? Ez zean, pistan). Handikan Hernania. Hernanitikan ateatzen zian Irubidea, Errekaldea, Hirubidea, eta Hirubidetikan Lasarte. Buelta hoi, hoi zan, hamazazpi kilometroko buelta dala uste dit.

- Ze egiten zan, trafikua moztu egun haietan?

- Moztu? Bueno! Kotxeik, Usurbillen'e bakarra zan ordun.

3.10. Donostiako Kasinoaren diruari esker egindako lanak

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref**: USU-022/010
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:16:46. **Bukatu**: 00:18:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
 - Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
 - Heria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena**: Zaldi-karreratako sariak zenbatekoak izaten ziren aipatzen du. Donostiako Kasinoan lortzen zen diruarekin egin ziren hainbat obra.

Transkripzioa

-Ordun ze premiyo izaten zian?

-"Ni idea". Bat bakarra dakit. Zaldi-karrerak izaten zien ordun. Ta zaldi-karrerak "Premio Copa de San Sebastián" izaten da oain, "Copa de Oro, San Sebastián". Horren premiyoa ordun izaten zala... Aurrena esango dizut

ofizial batek zenbat irabazten zun ordun. Eguneko hiru pezta. Hiru pezta eguneko, zortzi ordu hiru pezta; jornala. Ta premiyua zaldi-karreretakua zan ordun maiorra "medio millón de pesetas". Oan konpara zazu "medio millón de pesetas" ordukua, oan izango litzake hogeita hamar milloio eo gehiyo igual konparaziyua. Ta ordun ba al dakizu zeatik zan hoi? Honbestaiño ko diruba hemen? Hemengo kamiyuak eta danak ordun Kursaalko zubiya, kasinua, hipodromuak, ordun ze dirukin in ziyen hoik? Donostiko zeakin, este, Kasinuakin. Kasinuak uzten zun diruakin. Kasinua honea etortzen dan jendia Frantzitikan ta dirua jokatzea Donostia.

Joxe: -Hik ezagutu al huban ba kasinua?

-Kursala. Kursalen.

Joxe: -Baiño martxan ez, ezta?

-Nola jungo giñun ba gu, treintaizinkuan sei urte, zazpi urte nizkin nik eta. Han zala bai, Kursalen. Kursal bai, gero ikusten genin, gero zinia're ikusten ahal izaten huan. Ta hango diruakin in zian lan hoik danak.

3.11. Lehengo bertsolaritza nahiago

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-023/039
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:54:26. **Bukatu**: 00:55:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- **Laburpena**: Lehen bertsolariek zer gai tratatzen zituzten azaltzen du. Askoz nahiago du orduko estiloa; bertsolarien artean sortzen zituzten gaiak.

Transkripzioa

-Lehen bertsolariek zer gaietaz hitz egiten zuten?

-Oan bezela gairik ez zayen jartzen.

-Libria izaten zan?

-Beak teman bat hartzen zuen. Asko, behintzat, hola Francon garaiyan politika asko sartzen zan, jendiai asko gustatzen zitzaion hoi, politika pixkat sartzen zuen. Bertsolarik kastigatuk'e bazian ordun. Kastigatuk'e. Multak-eta kartzelara're baten bat eramana ta. Bazien. Politikan sartzen zuen eta nunbait jendiai gustatzen zitzaion pixkat saltsa hoi.

-Emaztea: -Eta geo alkarren aitzakik zeaten'e bai.

-Geo alkarri bere bizimouan zipoka ta. Geo andria ta andregaiya ta, ez dakit zer eta. Temak berak sortzen zittuen, askoz'e polittaua zan gaiñea hua, askoz'e polittaua, bertsolarik ordun aitzen zian bezela. Oango zer hoik tema jarrita; tema zaillak jartzen dixkie gaiñea askotan eta. Hoi, hua pentsatzeko ta. Meritua gehiyo izango du oangu horrek baiño lehengua askoz'e polittaua huan.

Joxe -Frantses hua zein zan?

-Beren artian sortzen zittuen temak.

-Emaztea: -Xalbador. Ta bestia zea, Mattin. Earrak zian bai haik'e. Lengan telebisian eman zuen Xalbadorren paisajia, etxia ta danak eman zittuen.

3.12. Errebotean nola hasi ziren

- **Hizlaria(k):** Errekondo Aizpurua, Jexuxmari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-034/002
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:00:08. **Bukatu:** 00:02:19
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Gerra aurrean pilotan aritzen ziren Jexuxmariren arbasoak. Etxean haiek pilotan jokatzeko erabiltzen zituzten tresnak topatu zituzten, eta hala hasi ziren beraiek pilotan. Erreboteko saskia nolakoa zen eta nondik lortzen zuten azaltzen du.

Transkripzioa

-Gutxigora behera asuntua da, pelota asunto hau, gu oso, lenguan esan bezela, oso gaztetan jun giñan Zubitara ta bagenikin gure aurrekuak nola ibiltzen zian errebotian, gerra aurrian. Gerra etorri zanian dana moztu zan pelotak eta gaiñontzeko guztik, danak moztu zian. Ta han basarrin hala gabiltzala billatu gendun kutxa zar bat, kutxa haundi bat dana pelotaz ta xestoz ta guantez ta betia. Ta halaxe hasi giñan haik hartu ta pelota zarrakin eta abar eta. Halaxe hasi giñan gu nolabaitt'e.

-Zeintzuk hasi ziñaten jolasten?

-Ba anaiyak eta auzoko gaztiak, bertako gaztiak. Danak plazan biltzen giñan jaitan eta hola ta; halaxe hasi giñan nolabait'e.

- Zubietako plaza iguala zen oraingo...

-Berdin-berdiña, bai. Ta hortik hasi giñan ta geo pixkana-pixkana ba ikasten. Xestuak zarrak zian. Guantiak aguantatzen dizu nahi dan aiña, larruzkua izaten da guantioi, hoi ez da apurtzen, baiño xestua apurtu itten da, hautsi iten da, ta berrik in bihar zien, ta hor Donostin bazan, azaldu zan bat gizon bat, Olazabal edo izena zuna Grosian. Grosian baiño ere zea aldea, goiko relojuba badek hor...

Joxe: -Ategorrieta.

-Ategorrietan, Ategorrietan zitxakan. Baju batian aitzen huan xestuak iten eta, bestaldeako, Iparraldeako ta. Makiña bat aldiz bizikletan joanda natxik harea, harena, zestua eiñaazi ta. Eskerrak harek berrik iten zitun ta. Harekin moldatu giñan, bai.

-Nolakuak zien zestuak?

-Zestua errebotekua izaten da hola..., ez da izaten ez puntakua eta ez remontekua, baizik beste sentzilogua izaten da askoz'e.

3.13. Partiduak Villabonakoen eta Iparraldekoen aurka

- **Hizlaria(k):** Errekondo Aizpurua, Jexuxmari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-034/003
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:02:19. **Bukatu:** 00:04:34
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota

- **Laburpena:** Villabona eta Zubietakoen artean izaten ziren erreboteko partiduak. Gerra aurrean, ordea, herri gehiagotan jokatzen zen hemen inguruan. Iparraldera ere joaten ziren partiduak jokatzerara.

Transkripzioa

-Harekin hasi giñan eta geo harekin ibilli gea.

Joxe: -Politta da, e.

-Pixkat ikasi gendun bertan eta geo Billabonan'e bazeon, han'e beti ohittura hoi izandu huan. Ta geo haikin, haien kontra ta pixkat bat hola ibiltzen giñan.

-Billabonakoak eta Zubietakoak ziñaten orduan...

-Bai, bai. Gue garaiyan bai, baiño ikusten danez gerra aurrian toki askotan jokatzen zan, Usurbillen'e bai, Agiñan'e bai, Astiasun... Hola herri askotan.

-Hori ez zan gehio errekuperatu edo?

-Geo galdu in zan nunbaitt. Ez dakit ze pasa zan, galdu in zan. Gerra etorri zanian batez'e, gerra etorri zanian galdu zan. Geo ez zan, geo ez zan rekuperatu.

-Iparraldian?

-Iparraldian berriz han eutsi in ziyen. Han gue garaian behintzat herri askotan jokatzen zan eta oaindikan'e bastantetan jokatzen da.

-Baina zuek ez zinaten joaten Iparraldera...

-Bai, bai, bai. Bai, gu puxkat... kostatu zitzaigun ikastia. Hasi're berandu, hamasei bat urtekin edo. Hoi're in bihar da ba umetatik hasi bihar da posturak eta ikasteko ta. Gui ikaagarri kosta zitzaian. Edadetuta hasi giñan eta. Baiño moldatu giñan, moldatzen giñan. Han'e danak ez dia oso onak, punta-puntakuak izaten eta. Baigorri eta, Saran eta. Geo..., hola hiru edo lau herritan izandu gea. Saran askotan, Saran oso lagun onak giñun. Haik hona askotan etortzen zian eta. Oso lagun onak.

-Nola egiten zenuten hareako biagia?

-Kotxian.

-Baten batek eramaten zintuzten?

-Bai, bai. Kotxian eramaen giñen ta ekarri're bai ta.

-Eta haiekin nola hitz egiten zenuten?

-Hemen Santestebanen'e bai jokatu deu, bai. Santestebanen hor, ez dakit ba hiru-lau aldiz edo jokatuko gendun.

-Ta Iparraldekekin hitz egiteko euskeraz hitz egiten zenuten edo nola?

-Guk bai, guk beti euskeraz. Ta haik'e bazekiten honbeste. Beren artian beti frantsesa erabiltzen zuen. Beren artian beti. Ta oaindikan'e bai.

3.14. Ondo jokatzeo jakitea komeni diren mugimenduak

- **Hizlaria(k):** Errekondo Aizpurua, Jexuxmari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberría, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-034/006
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:12:34. **Bukatu:** 00:14:15
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Errebotean zer teknika eta mugimendu egitea komeni den azaltzen du.

Transkripzioa

-Geo joko batzuk izaten dia igual komeni dana bestian taldia...

-Zer ba?

-Bai. Konpaaziyoa, terreno luzetik botata terreno motxian esan deu arraiyak itten diala. Arraiyak ittia da oso inportantia zeatik hor daona dijoala bera oain, hoi lortu bihar da. Partidua irabazten da handik, partidua irabazten da terreno ttikitik. Behin edo behin joko bat itten dek luzetik'e baiño ez dek normala, ez dek oso normala, ez dek.

[...]

-Gertatu leike, terreno luzetik batek arrastaka botatzen du eta bota dun talde hortako bat beste aldian baldin bado, pasatzen baldin bada, hango taldekuak itten die pelotai juten utzi. Paretaraiño ailligatzen baldin bada, ez baita "arraiya", "kinze" bat da, kinze normal bat da. Baiño bota dun taldeko bat baldin bado haruzkaldetik harek geatzen du han eta arraiya da. Orduan joko batzuk daude komeni dana da han egotia.

Joxe: -A, klaro, klaro, klaro.

-Eta harriya [...] ezkeo berrogeira ailligitzian buelta. "Hik oain joka zak handik". Ez da beste munduko gauza baiño puxka bat..., konplikaziyo puxkat bat badu baiño ez da hain zailla. Ta hortxe ibilli izandu gea.

3.15. Erreboteko epaileak

- **Hizlaria(k)**: Errekondo Aizpurua, Jexuxmari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref**: USU-034/007
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:14:15. **Bukatu**: 00:15:28
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Zalantzazko jokaldiak epaitzeko, epaileak egoten dira errebotean. Epaileek esaten dituzten gauzak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Gero izaten dia tarteka dudosuak dian jokuak edo kintziak izaten dia. Hau ze ote zan, eta baiño. Hortaako han egoten dia juezak eta haik erabakitzen duena eta fuera.

- Zenbat juez egoten dira?

- Ba sakako sakia itten dan paeta aldian bi egoten diya, zeatik han losa txiki bat egoten da ta sakiak'e losa txiki horren barrenen sartu bihar du. Ordun ba ondo in dun edo han arrai bat gertatzen dan, ez dan edo, hua ikusten bi egoten dia eta geo beste bi erdiko arraiyan eta beste baldin badae behian ba hobe. Sei bat. Ondo egoteko sei bihar due.

- Ze gauza esaten dituzte, "arraia" edo "kanpora" edo. Euskeraz?

- Bai, bai, bai.

- Ze hitz esaten dituzte?

- Hamabost eta hutsa, hogeita hamar ta hutsa, hogeita hamar ta hamabost; segun.

- Kanpora, barrura, arraia...

- Ez. Arraiya danen ba hogeita hamar ta hamabosteko arraiya ta geo, aber, berrogeira ailligatu bihar du batek.

3.16. Errebotea vs tenisa

- **Hizlaria(k):** Errekondo Aizpurua, Jexuxmari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-034/008
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:15:28. **Bukatu:** 00:16:47
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Errebotearen eta tenisaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Gero gertatzen da, tenisian ez due hola iten, baiño hemen iten da, konpaziyuan bat berrogeiyan bado, arraiyik gabe berregeiyan bado eta bestia hogeita hamarrian, eta hogeita hamarrian daonak itten badu beste kintzia, eztittuk berrogeina jartzen baizik berrogeikua atzea etortzen dek, hogeita hamarrean jartzen dittuk biak. Hemen hala da bai. Eta holako zea batzuk. Hor ibili izandu gea, mundu hortan.

- Eta puntuena nundik dator. Hamabost eta...

- Ez dakigu. Hori guk hola ikasi degu ta aspaldiko kontuak dia ta.

- Hamahiru joko egitea ere.

- Hamahiru joko, bai. Ta hamaika ere izaten da. Baiño normalian hamahiru.

- Hori tenisetikan etorriko duk, ezta?

- Keba, keba! Tenis baiño lehenaokua izango da hau. Hemen behintzat aspaldikua. Hau ikusten danez artzaiyak ibiltzen zien. Badia izena duenak, jokalekuk eta. Jokalurra ta. Badia batian eta bestian. Eta hoik ibiltzen zian eta geo pixkana-pixkana eskuz ibiliko zian baiño geo pixkana-pixkana hasi hittuan ba tresnak-eta sortzen eta.

3.17. Erreboteko janzkera

- **Hizlaria(k):** Errekondo Aizpurua, Jexuxmari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-034/021
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:31:25. **Bukatu:** 00:32:43
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Erreboteko taldeen janzkera nolakoa zen aipatzen du. Nahiz eta Usurbilen bizi, Zubietara begira bizi ziren.

Transkripzioa

-Ze janzkera eukitzen zenuten?

-Zuriz jantzita beti.

-Eta ekipo bat bestetikan nola diferentziatzen zan?

-Ba gerrikuakin. Gerriko gorriya edo gerriko urdiña.

-Osea, pelotarien zea.

-Bai, eskuz jokutzen dan bezela, berdin-berdin. Ez zeon diferentzirik. Holaxe. Gure historia gutxi gorabehera hola izan da.

-Zuk esan dezu hamasei bat urtekin...

-Hamasei bat urte. Hamabost-hamasei hola.

-Zuek Zubietatik honea bueltatu ziñaten berrogeita hamaseian edo.
-Han bizitu giñan.
-Baiña gerora honra etorri ziñatenian....
-Ni berrogeita hamaseian etorri nitzan. Ordun hogeita beratzian jaiua, zenbat urte dia? [...] Ba hogeita zazpi urtekin edo hola etorri nitzan honea. Baiño gu hemen bizi giñan, gu honea etorri giñan baiño hara beira lo itten gendun, e. Je!, urte askuan, e.

3.18. Soldadutzaraino iritsi Usurbilgo jendearen berotasuna

- **Hizlaria(k):** Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-038/003
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:07:43
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Soldadutza Carrascal eta Irunen egin zuen. Carrascalen zegoela gertatutako anekdota kontatzen du: San Ferminetara joateko baimena lortu nahi zuen eta lagun bat Usurbilgo Santixabeletara joan zen; lagun haren bidez mezu bat bidali zion anaiari; azkenean oso ondo atera zen dena.

Transkripzioa

- Soldaduska jun ziñala ere esan dezu.
- Bai.
- Noa jun ziñan?
- Zeara, nik kunplittu nun Carrascalen aurreneko hiru hillabetiak.
- Nun?
- Carrascal.
- Nun dao hoi?
- Hoi, Naparruan. "De Campanas pa'arriba". Muruarte bertan. Ta han hiru hillabete, "de campamento". Ta geo Irunen. Colón. Anekdota bat kontatuko dizut Carrascalekua: han, ni neon Colóngo zean, ta Donostiko zean alfereza zitxon Joxe Mari Koipienekua. Bai, oso lagun oso ona. Ta harek azkeneko, haik hiru hillabete ta hiru hillabete ta hola itten ziyen zea, soldaduska, alferezak eta hoik, eta harek azkenengo tenporada zula uste det han. Ta "Hombre Iñaki!" ta hala, Santixabeletako permisua nahi al nun, konsegittuko zula: "Utzi iak pakian, motel! Nik Santixabelak geo're, ondo baldin banaiz hor zeok", ta berehala San Fermiñak baizian Panplonakuak, ta "hareako moldatuko gaittuk". Bueno. "Ni Usurbillea niak", beak esan zitxan, Santixabelak baiño lehentxio, "zeozer nahi al dek enkarguik o?". Ta banitxakin gure Joxe ta Felix Patri ta Patrinian han izango ziala, ta "Etorri pixkat!", goatu zitxan, hartu nin orri bat eta papera eta sobria ta jarri nitxon: "Querido hermano" dana erderaz ordun "¿tú bien?" galdera "yo bien. Mándame cien". Ta sobre hori sartu ziot Joxe Mariri, Joxe Mari alferezai: "Joxe Mari, hau ta hau", "A! Oso ondo!", ta hartu zin ta etorri dek Patrinea, ta larunbat illunabarra izango huan, ta hor juntauta, ta "Bueno, abixu bat'e badit, zea, Joxe, hitzako", "Hara!... Kauen! Kabroya!" iñez hua,

ta "Hara!" ta "Ze jarri dik?" eta "Hau ta hau ta hau ta...", ta jende asko han "Bueno, hi, nik bi duro emango dizkit... ez dakit zer...".

- Zea!

- Bai, bai, bostehun pezta o ez dakit zenbat danea bildu zeak!

- Ze esaten dezu!

- [...] Bai, bai, handik astelehenea [...] "To, hi!", "Bueno, bueno, adarra jotzen ez hasi", "Egiya! Hau ta hau ta hau ta hau, holako ta...", "Bueno, bueno", hala hartu nun.

- Diru hura zertan ibili zenun? Diru hura zertako zan gero San Fermiñeta juteko o...?

- Noski, ba! Bai, bueno! Han gaiñea, pinta, "la pinta de vino" esaten ziyena hartu hola ta ra-ra-ra-ra... lagunak kentzen zilako e!

- Bestela dana?

- Dana ez det esaten, baiña trago earra bai!

3.19. Antzezlanetako oroitzapenak

- **Hizlaria(k)**: Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-038/010
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:23:01. **Bukatu**: 00:24:40
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Pulmonía doble antzezlan egin zutenean, gripea zeukan Iñakik, baina hala ere antzeztu egin zuen. Beste antzezlan batzuetako oroitzapenak gogoan ditu.

Transkripzioa

-Ze antzerki egin izan dituzue, danak euskeraz?

-Ez, erderaz'e asko. Bat Jabier Soroak goguan eukitzen dik. "Pumonía doble" titulua zan. Erderaz. Ta nik iten nun asistentia, andaluza. Eta Jabierrek iten zin ez zekit ze.

Joxe: -Zein Jabier?

-Soroak. Nik sartu bihar nin ohiyan, beakin batea oihiyan ez zekit ze asuntogatik. Eta ni neon egitan gripazua edo gaiñian nula. Egitan. Ta kalentura edo. Ta Jabierrek: "La hostia! Ez hakan hotz haundik! [sartu hintzanean?]" . Hola, parrez aittu izandu gea. Asko antzerkik. Bueno! Beste bat. Ez zekit neskazarra edo zer zan. Nik ateata berriketan, bezpeako kontuk esaten eta. Baiño Pillare zala uste dit sartu bihar zana, Pillare [...] ta. Klaro, segi in behar, nik nere paperai añaditu bat eta beste, hango illarrak eta ez dakit zer eta badakit zer eta, parre-saiua eman zioz Pilarei. Sartu! ta. Nik han segi behar. Ta gure anaiyak kontatu. Hori bere gisa asmatzen ai dek, iñor ez zaiok sartzan eta. Hoixe iten emen zula. Baiño askotan hola.

4. Itsasoa

4.1. Ibaian arrantza egiteko teknikak eta tresnak

- **Hizlaria(k)**: Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia

- **Erref:** USU-002/014
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:16:27. **Bukatu:** 00:19:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Ibaian arrantzan ibiltzen ziren. Gerra garaian inguruko mendi batean borroka latza egon zen; gerra amaitutakoan, Joxe Mari eta lagunak hara joaten ziren arrantzarako ezpata eta tresna bila. Arrain mota bakoitza nola harrapatzen zuten eta zertarako erabiltzen zuten azaltzen du. Arrantzarako tresna gehienak beraiek sortzen zituzten.

Transkripzioa

-Eta geo erriyuan harrapatu arrantzan, bueno, bueno, bueno! Hor gerra garaiyeen Saldatxur edo deitzen zan mendi bat, hor jende asko hil zan, zeatikan hortik sartu zian naparrak eta Donostiko jendia zeonak, republikano jendiak eta hoik ta naparrak bestetik eta hor zea borroka haundiya izandu zan eta jende asko hil zan. Hor geldittu ezpatak eta puñalak eta hoitakuak hortik ekartzen genittun guk ordun. Eta ezpata haikin geo erriyuan, benga!, arraiyak harrapatzen.

-Bai?

-Bai, bai. Ollakuak eta; Ollakua. Ollakua zan hola pasatzen zan, baiño seiñalia uzten zunian metro bat aurreao bota bihar zan golpia, bestela ez zendun harrapatzen. Eta geo zeak'e bai, este, aingira haundik, "congrios". Galantak, honbestaiñokuak. Bai, arrantza asko itten gendun. Ta amorraiya eskukin asko. Amorraitan ibiltzen giñan, eskukin, e. Nik afiziyo haundia nun.

-Eta aingira haundiyak nola?

-Hoik batez ere zea, papelerak botatzen hasi zianian benenua, hoitakuak asko azaldu zien. Ta barbuak'e, barbuak baiño ikeragarrik, e, harrapatzen genittun. Ta txerrientzako. Etxian txerria gendun eta astoporrak menditik eta. Geo hartzen genittun barbuak hoitakuak, ta Michelindik zea bidoia txapazko hoitakuak ekartzen genittun, berrehun litrokuak, ta han jatekua jarri ta. Grasa haundiya izaten baizun barbuak. Jateko ez zian onak, jateko ez. Guk jan itten genittun ba amorraiya, geo angulak'e harrapatzen genittun presan, han zeakin junda, sare ttiki batekin junda, eta geo beste batzuk etortzen zian "xabalua" deitzen geniyon guk, eta zian languaduan tip..., languaduak izango zian nik uste det. Tipo hoitakuak. Eta hoik harrapatzen genittun, hoik harrapatzeko tablak genezkan jarrik, dana iltziak goitik behera jarrita ta zasta! harrekin. Geonek ateatako, ezpatak bakarrik zian, bestela erreminta danak geonek itten genittun. Ta aingirak'e erreka zikintzen zanian, juten giñen eta jartzen gendun makilla, deitzen geniyon "errosariyua", ta errosariyua zan hari batian jostorratz batekin zizariak, zizarez bete dana. Txitxariak, e, txitxariak pasa ta pasa ta pasa ta bete. Ta ordun hua jartzen gendun makilla baten puntan lurra juaz. Baiña bihar zun ura, ur zikiña. Ta orduan aingirak tak! heldu eitten zion, ta gora ateatzen gendun ta guardasola eregia; tak!, guardasolea. Bestela aingira zailla zan harrapatzen, oso zailla zan aingira. Tenedoriakin, tenedoriakin harrapatzen genittun.

-Tenedoriakin?

-Bai, klaro. harria altxa ta tak! tenedoria. Azkar, bestela fiiitt, fuera.

-Zenbat teknika, ez.

-Bueno! Beste erremedioik ez zeon. Dana jateko, e! Ez pentsa beste gauzeako.

4.2. Angulei esker jende asko aurrera atera zen

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Gaztañaga, Benito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-010/025
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:52:14. **Bukatu**: 00:53:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

- **Laburpena:** Gerra garaian, Oriotik etortzen zen okina ogia ekartzera.

Gerra garaian, angulei eta baserriko lanari esker lortzen zuten dirua.

Angula asko ateratzen zen lehen, eta jende asko salbatu zuen horrek.

Angulen haztegiak non zeuden azaltzen du.

Transkripzioa

-Esan dezu gerran ogia ekartzen zizuela Oriotikan panaderuak. Hari ordaindu egingo zenioten.

-Bai.

-Baiña ze dirukin? Bazenuten dirua gerra garaian?

-Bai.

-Eta nundik lortzen zenuten dirua?

-Anguletatik eta abar eta. Lanea ez giñan ibiltzen artian gu. Atta lanian ai zan, basarritik, basarrin itten gendun. Anguletan egun asko. Hemengo jendia harek salbatu zun, e, anguletan, e. Angula asko ateatzen zan ordun. Biberua hementxe gendun. Oain kanala do. Eta bestia han.

Joxe: -Biberuak anguletako.

-Angulak eukitzeko. Han zean, sagardotegi aurreko...

-Bakizu, angula biberuan egon bihar izaten du belztutzeko.

4.3. Angulen jaiotza eta bizimodua

- **Hizlaria(k):** Aranburu Gaztañaga, Benito

- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider

- **Erref:** USU-010/027

- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:53:33. **Bukatu:** 00:55:14

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

- **Laburpena:** Angulak urruti jaiotzen dira eta gerora ibaira etortzen dira.

Angulak pilaka jaiotzen dira eta bola batean ibiltzen dira itsasoan, jan ez ditzaten; ibaira iristean sakabanatzen dira. Lehen angula asko

zegoen Aginagan.

Transkripzioa

-Nolakoa da angularen bizitza, nun jaiotzen da?

-Nun jaiotzen dan? Urruti esaten duenez, urruti.

-Eta zuek zer egiten dezue, urrutitikan zai honea etortzeko?

-Geo honea etortzen da.

Joxe: -Angula erriyuan sartzen da.

-Angula nolakua da, jaio nola egiten dia?

-Hoi pillan iten due ta geo itxasuan etortzen omen dia hoik bola bezela, pillan, arraiyak ez jateko.

-Ze koloretakuak izaten dia?

-Txuria izaten da. Txuri-txuria izaten da. Geo erriyua jotzen duenian zabaldu iten da. Mubimentu earra izan zan hemen ordun anguletan, joe!

Gaur ikusiko balitz hua, gaur ikusiko balitz mubimentu hua ziniak ingo

litueke. Berrehun bai gutxieneko, oriotarrak kuadrilla arraun ta [pola],

harek ateatzen zittuen soiñuk. Dirriki-tarraka ta.

-Angulak?
-Jendiak. Donostiko Abenidan baiño argi gehiyo hor.
Joxe: -Farolakin.
-Ordun farolak.

4.4. Angula harrapatzaileen martingalak

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Gaztañaga, Benito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-010/030
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:59:00. **Bukatu**: 00:59:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- **Laburpena**: Benitoren amonaren anaiek angula asko harrapatzen zuten; garai hartan gehiago harrapatzeko zer trikimailu erabiltzen zuten azaltzen du.

Transkripzioa

-Nik gue amonai aittuta dakizkit; anaia angulerua, oso anguleruak zian haik, haundiyak gaiñea anguleruak garai haitan arroaka ateatzen, arroaka angula ateatzen. Eta iten emen ziyen bi edo hiru jauntxo zianak argik itzali. Ta "haik jun dittuk etxea", oain alperrik gatxeudek hemen", gaiñontzeko guztiak bialdu...

Joxe: -Martingalas, martingalas. Argia itzali, "alde in diek!". Ta han eon, han bertan eon. Martingalak.

-Gaiñontzekuak etxea bialdu ta beak atea.

4.5. Angulak harrapatzeko teknikak eta tresnak

- **Hizlaria(k)**: Camino Ibargoiien, Justo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-018/028
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:50:55. **Bukatu**: 00:53:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- **Laburpena**: Angulak harrapatzen aritu zen gaztetan; zer tresna eta teknika erabiltzen zituzten azaltzen du. Marea goian zegoela joan behar izaten zen angulak harrapatzera. Gaez joaten zirenean, farola eramaten zuten angulak ikusteko; farolak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

Transkripzioa

-Angulak harrapatzen ibiltzen ziñaten?

-Pixkat bai angulak harrapatzen, bai.

-Nola izaten zan hori? Zenbat urtekin?

-Gaztetan, nik ez dakit zenbat urte baiño bai. Jela galantakin'e jun in bihar, bestiak jun dittuk eta jun hai ta. Danba! ta danba! ta eskuk hola danba! ta

jota. Nikolas Errotako ta Joxe ta. Ikeragarri jendia ibiltzen zan hemendik.
 -Nola izaten zan harrapatzeko?
 -Hor alak zien, ala haundik eta geo itten giniyon zea jarri, atzian makina bat, oaindik goian do makina berri berriya, ta atzian jarri makina, bi lagun bihar, bestia juten zan eta rast! botatzen zun bahia aurrian eta, ra!, ra!, ra! soka erantsi ta tak! geo hola kalka ta tak! ateatzen zun bahia.
 Joxe: -Atoiya edo zer esaten zitzaiion?
 -Bai, atoiya.
 -Ze tresna, nola izena zuten tresnak?
 -Bahiya ta makina. Ez dakit ba nik nola, ze-nola deittu. Ez zakit izenik horrenik. Oandikan ganbaran bado harriya baiño...
 -Eta ze ordutan juten ziñaten?
 -Hori mariakin ibilli bihar izaten zan. Maria nola daon. Gaur ordu bitan, biyar hiruretan, hurruna lautan, hurruna bostetan...
 -Ze behar zan maria goian o behian egotia?
 -Goyen, goyen dola. Jotzen zunian urai ikuitzen zuenerako jun in bihar zendun. Ta angulak hasten zian ura gora datorren bezela, ttaka, ttaka, ttaka ta.
 -Nola somatzen zan nun zeuden angulak?
 -Bai, ikusten zan, oaingo aldian erriyua garbiya zan. Lurreko harri guzik-eta ikusten zien eta, bueno! Ikusten zan earki angula.
 -Gaua bazan ere?
 -Farola eamaten gendun, argiya etortzen zian, argiya eamaten...
 -Farola nolakua zan?
 -Farola? Holakoxe katxarro ttiki bat eta geo aldian ttak! bi txapa zittun eta han sartzen gendun eta jartzen gendun parola ta.
 -Zerrekina egiten zun argiya?
 -Kandelak. Kandlekin, bai. Bi kandela jarri. Hola bi zea zittun eta bitan kandela jarri ta haren argiyakin.

4.6. Angula asko zegoeneko garaiak

- **Hizlaria(k):** Camino Ibargoiien, Justo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-018/029
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:53:24. **Bukatu:** 00:56:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
 Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena:** Lehen angula asko zegoen ibaian. Angula bizirik egonda, garestiago saltzen zen; hildakoan, hondatu egiten ziren. Angula asko zegoenean, merke saltzen zen. Ibaiko angulak zergatik urritu diren azaltzen du.

Transkripzioa

-Zenbat harrapatzen zenuten?
 -Ni ez nintzan hartaiñoko pillakin egokittu baiño hor kilua bi erriellen eta gue izebak esaten zun ezautu zula. Kriston pillak.
 Joxe: -Jode, kilua bi errialian?
 -Bai. Lurrai emateko modun bolara batian. Ikeragarri angula. Gurea orduako zeatu zan pixkat baiño hor... Gue zeak esaten zun, izebak esaten

zun ba egokittu emen zitzaion da!, angulakin itxi bahia ta, zer da? atea ta, buuuu!, dana beteta. Geo zian, hemen dezkau hiru depositu, ta depositura botatzen gendun segittun. Geo hok galdu zianian Goiko Errotako onduan beste deposituba in gendun ta hara eamaten giñun eta.

Joxe: -Bazenituen hemen deposittuk, e.

-Bai. Bana. Honek Irunequak bat, Portukuak bestia ta guria bestia, hiru depositu, bai. Ta oain etxia botatzekuan askotan esaten dit, ura azaldu bihar dik hor. Ordun angulenzako mantentzeko aiña bahuan eta oaiñ'e ura azalduko dek hor. Iruditzen zait.

-Eta zertako botatzen zen depositora, bizirik saltzera eramateko?

-Bai. Bizirik, bai. Bestela akaatu itten zian. Hola pillan ateatakuan akabatu itten da azkar.

-Eta bizirikan euki behar zian jan aurretikan?

-Bai. Preziyo gehiyo itten du biziyak eta. Bestela hondatu itten da segittun.

-Hondatuta ze itxura eukitzen du angulak?

-Txuriya baiño hemen goiyen guk euki giñunien Karlos ibiltzen zan karrayo, hemen aldapa hontan earke ateatzen harek antomoilla ta. Hoik bateko Madrida ta besteko zea, pilla ederra ibilli zuen, jesus! Angula ikeragarri.

-Eta noiz hasi zan angula garestitzen?

-Hori, ez dakit ba nik. Urte batzuk izango dia. Baiño hor angula asko zeonian ordun merke.

-Ibaia zikintzen hasi zanian igual urrituko zan?

-Hor barran ez dakit nik hor. Motorrak asko izorratu due hau. Ez zan lehen motorrik garai hartan. Txalopai motorra jartzen diye eta jartzen dittue hola bi aldetatik bahiak eta hartzen due buuuuuu! ta abailan juden dia. Abailan juden baldin badia angula akaatu itten da. Mantxo jun bihar du. Ta geo hemendik nahi dun bidian juden da ta buelta ematen due ta haik garbitzen due. Baiño ez da sartzen, garai batian bezela ez da sartzen oain itsasotikan angulik.

5. Familia eta harremanak

5.1. Izkin-usoa lapurretan

- **Hizlaria(k):** Soroa Berrotaran, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberría, Idoia
- **Erref:** USU-002/023
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:32:56. **Bukatu:** 00:33:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Izkin-usoak lapurtu egiten zien, mahai gainean zerbait distiratsua ikusten bazuen. Etxearen egitura nolakoa zen azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta izkin-usuakin kontuz ibilli bihar gendun, zeatik egoten zan sukaldian. Gue sukaldia izaten zan erdiya mahiya han egoten zian lau neskak, lau arrebak. Ta bestian ya bat ttikitan hil zan, bestia gerran hil zan, ordun geatzen giñan beste lau gizon. Lau ta atta. Ta amak beti karboneran izkiñan jaten zun. Karbonera zun sukaldiak, karbonera, ta han izkiñan amona han; baiño bestiak partittuta. Geo muebliak izaten zian hoitakoak,

eta han egoten zian platerak eta gauzak, haundi hoitakuak eta goiyan zeon zirrikittu bat. Ta izkin-usua han goiyan egoten zan. Ta deitzen geniyonian, nola izena zun? Bee izena bazun. Ta tak!, honea agertzen zan eta jaten ematen zion eta rak! gora juten zan. Baiño uzten bazendun zeozer zillarrezkua edo brillantia, etorri ta tak" hartu ta gora eamaten zun. Mekauen, oaiñ e falta da! Eta eskaillerak hartu ta iyo ta, "ama hamen nun dakan". Bai, lapurtu itten du izkin-usuak hola brillantia ikusi ezkeo zeozer.

5.2. Kaletarren eta kaleartarren arteko lehia sanoak

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Nieves; Orbegozo Lizarazu, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-003/022
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:34:01. **Bukatu:** 00:35:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena:** Kaletarren eta kaleartarren artean pike handia zegoen. San Juanetan harrika ibiltzen ziren eta nork su handiagoa egingo lehian aritzen ziren. Hurrengo egunean denak lagun ziren.

Transkripzioa

- (A) Hoik kaletarrak, gu kaleartarrak, kontrariyuak ginttun gu beti.
- (J) Baiño hor'e frentia al zan hor?
- (A) Frentekua ez! Hoi geo huan! Geroko kontuk dittuk hoik! Geroko kontuk!
- (N) Larra-asuntuak eta...
- (A) Larra ostutzen genitxien guk. Kaleartarrairi larrak. San Juanetan suba itten zan, baiño San Juanetan hasarre eoten giñan haik eta gu, hasarre. Geo pasatzen zan e? Ta zeatikan, batetik bestea harrika ta Ramuni begi ondua irikita're bai harriyak ta...
- (E) Ai ama...!
- (A) Bai, itten giñun kristonak! Baiño geo hurrungo egunian, geo plazan eoten giñun ikusten aber hor zauden kaletarrak... "Bueno, hemen zek, hor zek". Jun ta hartu ikuillu-atxurrakin zarta ta Olarrondoko, Olarrondoko belardin barrena [...].
- (N) Ta larrak ostu're bai e? Kaleartarrak gaiztuak hituan!
- (A) Ale guztik! Demetrintzako ez genixkin larrik uzten!
- (N) Hua izaten zan ba, zea,ika-mika hua e?
- (A) Bai, baiño geo dana ondo.
- (J) Sano askuak e! Sano askuak....
- (E) Zerreatikan zan hori, baiña?
- (J) Larra...
- (A) Masustak izaten dun zea? Hoi da, hoi da.
- (N) "La hoguera de San Juan". Ta ordun kaletarrak iten zuen suba, ta kalearkuak'e iten zuen suba. Eta zenbat eta denbora gehiyo iraun, haik kanpeon. Baiño ezertako ez zan izaten e? Baiño, ika-mika.
- (J) Ez, ba! Norbeak esaten zun guk gehiyo aguantatu diyau.
- (A) Honen aittonak ematen zien zuma ta, Demetriok. Ona huan Demetrio e? Harekin ikasi genin mataderin eta danin, txarri-hiltzen ta danian.
- (J) Ona zan, oso ona zan.

- (A) Ona.
- (J) Oso ona.

5.3. Nobiotako hasierako lotsak

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Otaegi, Nieves; Orbegozo Lizarazu, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-004/004
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:03:17. **Bukatu**: 00:05:49
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Iritziak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Lehen mutilak ordaintzen zuen zinera joatean. Neskek lotsa izaten zuten gose zirela edo komunera joateko beharra zutela esateko. Emakumearen egoerari buruzko iritzia ematen du Nievesek.

Transkripzioa

-Orduan mutillak neskai inbitatu egiten al ziyon holako gauzetako?

-Bai.

-Mutillak ordaintzen zun beti?

-Eta zinea juten baziñan'e pagatu in bihar zan ta, bokadillua're, gosia izaten zan ta, Parte Zarrera jun, Ormazabalera jun eta bokadillua...

Nieves: -Donostira juten giñan.

-Nik bokadillua eman nahi, baiño bokadillua ez zidan hartu, ni bokadillua jaten ta bera gosiak eta beira. Eskatu... ez atrebittu.

Nieves: -Lotsatu iten giñan neskak. Lotsatu.

Joxe: -Nun esan dezu, Ormazabalenian?

-Parte Zarrian, Ormazabal, bai. Oaiñ'e han zio.

-Nieves: -"Calle 31 de Agosto". Donostira asko juten giñan, zinea.

-Pintxuak jan eta.

Joxe: -Haundi bat al zan hori? Urdiñez pintauta daona, Cepen bestaldian?

-Bai, bai.

-Eta orduan zer egiten zenun, zuk zure bokadillua etxetik eraman ta beak...?

-Ez, nik jan iten nun baiño honek ez zun nahi izaten.

Nieves: -Eske komuneko gogua gendakala esateko're lotsatu itten giñun. Egiya da.

-Ze ba?

Nieves: -Hoixe ba. Gauza raru iruittuko zaizu. Nei're bai oain.

-Holaxe zan bizimodua. Ordun bizimodua holaxe zan.

Nieves: -Nik oain esaten dit, nik oain... eta nere billobaidi're esaten zet, e? Nik oain... (ondo atea zaitelako ta ezkondu eta ondo bizittu gaittuk, ezta?), baiño nik oain gatzia izan eta mutil bat gustatuko balitzaia, nik ez niñuke mutilla etorri zai, mutillak esan zai eongo. Ez al zaizu normala iruitzen?

-Bai bai.

-Nieves: -Nik oain hoi pentsatzen det, baiño ordun giñan giñan bezelakuak.

-Orduan ezin zan esan gustatu egiten diazu edo holakoikan.

Nieves: -Ezta...

-Izandu zittun bai...

Joxe: -Gaur bai, gaur esango zenduke?

-Nik bai. Nik bai. Nik gure billobaidi hori esaten zet gure neskei, Aloña ta

Mariai. Nik oain... Eta zeatik ez gaiñea? Zeatik ez?
 Joxe: -Zeiñek esan digu hoi, Ximonak, ezta?
 -Bai.
 Nieves: -Berak esango lukela?
 Joxe: -Bai. Pena hoi zakala esaten zun.
 Nieves: -Esango lukela. Ta nik'e bai esango nuke. Zeatik ez det esango?
 Eske zeatik bihar deu emakumiak gizasemiak baiño gutxiyo? Hala gea gaiñea, esaten duenez, baiño.
 -Esango dute batzuk.
 Nieves: -Esan bai. Eta zeatik esaten due? Ikusten duelako gehiyo geala.
 Honbre, no.
 -Zuk zer esaten dezu, arrazoi dula?
 -Hala izango due. Esaten ai da ta. Hala izango du.

5.4. Haurdun ez geratzeko neurriak

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Nieves; Orbegozo Lizarazu, Antonio; Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-004/018
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:24:36. **Bukatu:** 00:27:35
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- **Laburpena:** Umeak mantentzea lan handia zen eta neurriak hartzen saiatzen ziren haurdunaldiak kontrolatzeko. Lehen galarazita zegoen haurdun ez geratzeko neurriak hartzea. "Método Ogino" zegoen orduan, baina ez zen oso eraginkorra. Frantziatik haurdun ez geratzeko supositorioak ekartzen zituztenak ere bazeuden. Basektomia ez zen egiten garai hartan.

Transkripzioa

-Ordun zer nahio izaten zan, ume gutxi euki o ume asko euki?
 Nieves: -Guk ez gendun asko nahi.
 -Asko mantentzeko jornal batekin...
 Nieves: -Eta nere amak esan izandu dit, gu beatzi izandu gea, baiño nere amak esan izandu dit haurdun ote no, ez ote no, negar ein eta aurrea.
 Harek ez zittun danak nahiko.
 -Ez, e?
 -Nola ba? Bizitzeko ez zeon ezer'e ta.
 -Ordun mixeriya haundiya zan hemen.
 -Ordun ez zeon neurrikan? Medikiak ez zun esaten nola...
 -Galaziya zeon ordia. Eliza aldetik sekulako...
 -Ezin zan ordun, baiña egon bazeuden.
 Nieves: -Eon..., ez dakit asko eongo zan'e. Ez dakit, zeatikan esaten zuen "El método Ogino" dalakuoi.
 -Zer da hori?
 Nieves: -El método Ogino emen da, ba andria...
 -Joxe: -Japonesa, ezta? Japonesa ez al zan hoi?
 Nieves: -Ez zakit, baiña "el método Ogino, pero de eficaz se ve que no tenía nada. Debía de ser, yo no he usado nunca, e, pero debía de ser..."
 -Joxe: "Todas se quedaban preñadas con el método Ogino", bai, bai.
 -"No era como un termómetro que la mujer en la vagina tenía que tomarse

la temperatura y aquello te decía si tenías, si estabas fértil o no estabas fértil. Pero era una cosa insegurísima".

-Joxe: "Fallaba, fallaba..."

-Ta jendiak ibiltzen al zun hori?

-Bai, bai, guk ez degu ibili behin'e e?

Joxe: -Bai, bai, hala esaten zan: "Zenbat seme dittuzue?" ta "Dittugu hiru normalak eta beste bi Oginonak". Hala esaten zan.

-Laguna ona billatu dezu, e.

Joxe: -"El método Ogino fallaba de todas todas".

-Eta hala ere jendiak sinistu iten zun?

Nieves: -Bueno, zeoze in nahi.

-Termometro hori nun erosten zan?

-Farmazitan izango zan o. Ez, ez zan gaiñea farmazitakua izango. Ordun Frantzitik supositoiyuak ekartzen zittuenak'e ba emen hittuan.

-Ze supositorio, zertako?

-"Para que no fecundara".

-A bai, e?

-Bai. Nei Joxebak esan izandu zaiak. Frantzin supositoiyuak.

-Horrek balio zun zeozertako edo?

Nieves: -Zer baliyoko zun? Hortako esaten zun, ez geatzeko izaten omen zala ta.

-Ordun basektomiak eta existitzen zian?

-Nieves: -Keba! Basektomia ordun? Jesus, Maria ta Jose! Ezta... Oain'e ez gizaseme askotan, e.

-Oain gutxiyo e? Aurrenaldi hartan bai e?

-"Son muy machos los hombres".

-Aurrenaldi hartan bastante...

Joxe: -Basektomia iten al zan?

Nieves: -Ordun ez.

-Ordun zeak ingo zin, ordun ba al huan medikuik, ba al huan ordun hirurogeiko urte hoitan?

5.5. Jaioberrien elikadura

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Otaegi, Nieves; Orbegozo Lizarazu, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-004/023
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:35:36. **Bukatu**: 00:37:20
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- **Laburpena**: Gabriela emaginak lagundu zion Nievesi erditzean. Jaioberriei bularra, hautsa (Pelargon eta Primacas) eta behi-esnea ematen zitzaien jateko.

Transkripzioa

-Eta moztu beste soka (kordoi unbilikala)?

-Gabrielak. Komadronak. Medikua nun nik, aurrenekuakin medikua nun. Geo bigarreguakin nun Gabriela. Ta etxian.

-Ta ona gaiñez emakumia e?

-Bai, asko zeatuta, asko zakin bai harek.

-Umia jaiotakuan burua biguiña eukitzen du. Zeoze ematen zitzaion gogortzeko burua edo?

-Ez, ez. Bere gisa jun zitzayon, bere gisa. Harek forma beria ekarriko zun eta hezurren ateeran muittuko ziyon; geo berriz'e berera jun zitzaion guriai.

-Ta ze janari ematen zitzaion orduan umiai?

-Bularra. Nik asko ez nun. Eta geo ba zea, hautsa. Pelargon ordun. Pelargon huan eta gure zaharrena jaio zanian berri-berriya huan Pimacas izena zun, Primacas hautsa. Ta Pelargon. Pelargon zan ordun...

-Joxe: On-ona, oso ona.

-Pelargon, bai. Ta guria, berrik eta, geoztik eongo dittuk makiña bat, guria zanian Primacas. Eta gero behi-esnia. Behi-esnia ez zala ona esaten zien baiño pixkat zeatuta, ur pixkat botata, arinduta pixkat, fuertia izaten zala umientzako... eta ur pixkat. "Había una proporción de agua con leche". Baiño guriai ez zitxon onik iten zaharrenai.

-Joxe: -Hoixe ez ziyon ingo.

-Ez ziyon onik iten. Ez.

Joxe: -Pelargon eta hoik hobiak zian.

-Bai. Preparatuguak.

5.6. Dirurik ez, baina elkartasuna bai

- **Hizlaria(k)**: Goenaga Gorriti, Martzial
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-008/003
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:08:42. **Bukatu**: 00:10:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
 Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
 mugimenduak
- **Laburpena**: Kale-umeak eta baserritarrak ondo konpontzen ziren elkarrekin. Umetan, 5 xentimo ematen zioten igandetan eta lagunaren diruarekin elkartzen zuen zerbait erosi ahal izateko. Fabrikan hasi zenean, asteko jorjala amari ematen zion.

Transkripzioa

-Kalian bizi ziñaten baiña baserriak egongo ziran baita ere. Ze harreman zenuten haiekin, ondo konpontzen ziñaten?

-Primeran.

-Ez zenien burlaik egiten?

-Keba! Ez. Hemen kalia orduan gaxtuak zianak hola Konportio ta hoik, hairi guk zeoze iten baginion atzetik korrika ta ihesi ta hola ta, baiño beste gaiñontzian..., jende ona zan hemen.

-Ze iten zenuten kalia hola?

-Dirua gendunian baxo-erdi bat edan eta.

-Txikitan ere bai?

-Tiki-tikitan, aizu, tiki-tikitan ez gendun. Nik goguan dakat, nik jaitan bost xentimo izaten nun, bost xentimo. Ta Karteroneko Joxek'e bai. Ta egun bat, jai batian nik harri eman eta harrek hamar xentimokin zeoze. Ta geo

hurrenguan harrek eman eta hola. Pentsatu nola ibiltzen giñan. Diruba?
 -Zeiñek ematen zizuen dirua?
 -Amak. Baiña ez zakan gehiyo ematekoik. Nik goguan dakat ni fabrikan hasi nintzarian hamalau (pezeta) eta hogeita bost xentimo irabazten nitun, erriala, aurreneko urtebetian. Eta nik hua hamalau pezta edo zeon ekartzen nittun etxea astian, eta amak hua aiñeko diru sortik ez zun izaten gure amak. Gue aitta zanak perrak-eta erdik ez zittuen paatzen. Ez zeon, diruik ez zeon.
 -Anaia?
 -Anaia gero soldauxkatik etorri zanian Luzuriagan hasi zan eta geo handikan etorritakuak perrak eta, atta ta biak ondo ibiltzen zien.
 -Eta zuk irabazten zenuen dirua amai ematen zenion?
 -Joe, biharko! Biarko ere ez baiño neronek ematen nion.
 -Dena ematen zenion? Edo zeozer zuretzako?
 -Ez, ez, ez. Gero zeozer ematen zian baiño. Hamalau urte nittun. Oaingo hamalau urtekua oso diferentia da ordukuakin.
 -Orduan amari ematea ohitura zan?
 -Bai, nik uste askok bai. Ez zeon, diruik ez zeon ordun.

5.7. Ezkontzako lekukoak eta bazkaria

- **Hizlaria(k)**: Goenaga Gorriti, Martzial
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-008/029
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:35:51. **Bukatu**: 00:36:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Ezkontzara bi lekuko eramane behar izaten ziren eta galderak egiten zizkieten haiei. Ezkondu ostean bazkaltzeko garaian, ezkonberrien artean apaiza esertzen zen.

Transkripzioa

-Ezkondu bihar zunian bi testigukin jun bihar izaten zan. Eta galdetzen zizuen iñokin ibiliya ote zeon, ez ote zeon... Baiña bazitxakian ze galdetu, e. Ni batena jun niñun asko ibilitakuana ta haren galderik ez zian in. Bazitxakien, ez dituk tontuak ez hoik.
 -[...]
 -Eta gue arreba zarrena ezkondu zana, Donostin bizi da, alargundua do. Ezkondu zianian Zendoianeko ze hortan; ikusi hor fotografia. Bazkaia hor, terrazan, kanpuan zan. Ezkonberrin tartian erdiin erretoria. Kristona zan.
 Joxe: -Zensura.
 Emaztea: -hori iñ in bihar zun, e!
 Joxe: -Garai hartan ez zeon ezer iteik.
 -Ezkondu eta gero ere ez?
 -Ezkondu eta bazkaltzeko garaiyan.
 Emaztea: -Erdin, parejan erdin.

5.8. Nobiotan egiten zituzten irteerak

- **Hizlaria(k):** Goenaga Gorriti, Martzial
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-008/046
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 01:00:35. **Bukatu:** 01:01:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Ezkondu aurretik, 7 urte ibili ziren nobiotan. Igande arratsaldetan ikusten zuten elkar. Lehenengo irteera Donostiara egin zuten Antonio Machín ikustera. Hurrengo irteeran Zumaiara joan ziren bizikletan.

Transkripzioa

-Ezkontzeko eta, neskakin ibili zintzen urte askuan, ezta?

Emaztea: -Zazpi urte.

-Nola ikusten zifiaten nobiotan?

-Hau karnizerin eoten za eta, jai atsaldetan ateatzen giñan. Aurreneko salida ein gendun zeara, Donostia. Zirkoa. Ta zer hoi nola, kantantia? "Angelitos negros", zein zan ba? Antonio Machín. Han zan. Hua ikusi gendun guk.

Emaztea: -Aurreneko salida huaxe in gendun.

-Huaxe in gendun, bai. Ta hurrengua bizikletan. Zumaia edo noa jun giñan? Zumaia. Hua gustatzen zitzaian nei, sillatikan helduta Orioko aldapa jotzen. Gustatu itten huan, bestela ez [...] ezer eitteik eta. Gutxiñian hua ipurdiya ikuttu.

5.9. Ezkontzaren inguruko ospakizunak

- **Hizlaria(k):** Goenaga Gorriti, Martzial
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-008/050
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:04:32. **Bukatu:** 01:05:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Ezkondu aurreko despedida nolakoa izan zen azaltzen du. Ezkontzean ez zen urduri egon. Orion ezkondu ziren.

Transkripzioa

-Ezkondu aurretik egin al zizuten despedida?

-Bai.

-Eta nola izan zan?

-Despedida. Neonek paatzekua, e. Karnizerin Txarok nola euki du pelukeiya? Hoi nik estreñiatu nun. Gue hamaiketakua itten ordun. Hoi aurreneko artian mahiyak eta ondo jarri gabe zeon. Nik estreñiatu nun hoi.

-Zer egin zenduten?

-Ez dakit ba, aurrena salda ta geo haragiya edo ze izango zan edo.

Jendea're bastante nun nik.
-Ta zer zan, egunez edo gauez?
-Ez, eguardin. Ez dakit, igandia izango zan seguru asko, aztua dakat nik.
-Eta hori ezkontza baiño zenbat lehenago egiten zan?
-Hamabost bat egun leheno edo, ez dakit ba nik, hola tankera hortan.
-Nerbioso ezkontzeko edo?
-Nik ez nakan bildurrik.
-Zeiñek prestatu zun ezkontza, nun bazkaldu eta hori dana?
-Ezkondu Oriyon, hau hangua nola baizan. Eta nun apaizan nee familia artekoa, zerekua, Alzokua. Ta harrek ezkondu.

5.10. Umetatik angulak harrapatzen

- **Hizlaria(k):** Aranburu Gaztañaga, Benito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-010/040
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:12:11. **Bukatu:** 01:13:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- **Laburpena:** Benitori aitak erakutsi zion angulak harrapatzen, 7 urte zituela. Hotz galantak pasatzen zituzten, baina ez zioten hotzari beldurrik.

Transkripzioa

-Ta zuri zeñek erakutsi zin angulak harrapatzen?
Joxe: -Iñok ez, berak.
-Zeiñek erakutsi? Attak. Attakin junda. Baiño...
-Zenbat urtekin?
-Bueno!
-Zenbat urtekin?
-Zazpi urtekin hasi nitzan ni. Zazpi urtekin juten. Oain mutil koskorak hemezortzi urtekin.
Joxe: -Ama haik zea earra pasako zuen. Zazpi urteko umia bialduta, e.
-Attakin. Hoixe banin nik, hotzakin bildurrik ez. Gogorra niñun hotzakin. hotzakin ez ikaratzen ni. [...] izotza galantakin manga hutsik juten niñun bizikletan. Manga hutsik, hola. Izotza galantakin. "Hi, erotua al hao zihero, erotua al hao", esaten zitxean. Hotzai bildurrik ez nik.
-Hor ikasi zenduen ta,
-Ikasi biharko. Esaera bezela, ijitoak bizi dianak goorak. Bestela akaatu in behar. Gu're bai.

5.11. Baserrien arteko elkartasuna

- **Hizlaria(k):** Camino Ibargoiien, Justo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-018/027
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:50:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Justo ez da inoiz morroi izan, baina baserrien artean elkarri laguntzen zioten.

Transkripzioa

-Zu morroi ibili zifan?

-Ez, morroi sekula ez. Beti izaten zan hemen basarri txar hontan lana zanian lñarberaiño igual jun bihar izaten genun idi bila. Ta hemen hartzen bazendun baten bat laguntzeko idik dazkana, gero lagundu in bihar zifun haren truka. Holaxe ibiltzen gifan beti. Ta Murgillenea jun izandu gifan eta handik ekarritzak idik eta geo jun hai Andatzaa ta geo jun hai berriz... Ez... ibillera tristia.

5.12. Homosexualak kartzelara "por vagos y maleantes"

- **Hizlaria(k):** Alzaga Illarramendi, Milagros; Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-020/024
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:45:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBQ+
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** Lehen beldurratetik homosexualek ez zuten beren sexualitatea aitortzen. Lasarten bazegoen homosexual bat Franco hona etortzen zen bakoitzean kartzelan sartzen zutena "maleante" izateagatik. Gizon hark umorearekin hartzen zuen kontua.

Transkripzioa

- Dana ixillik pasatzen zan, ta geo ondoriyu hauk izaten zittun: iñork ez jakiten, baiño danak bazakiyen. Baiño dana ixiliki-ixilik-ixilik-ixilik-ixilik eta hor izorratu zioten.

- Oain ai dia armariyotik errex ateratzen ta oain. Ordun?

- Normala da, normala da!

- Bai.

- Normala da, ze ostra!

- Baiña garai hartan bildurra eongo zan ateratzeko're hor...

- Behintzat hola nabarmentzeko bai, hola zeatzeko.

- Lasarten bazan zea homosexual bat, oaindikan goatzen naiz ze izena zun: Arteta apellidua zun, nola zun izena? Ta hua Franco etortzen zanian bea jutun zan kartzela.

- Kartzela jutun zan?

- Bai jauna, bai. hoi zeatzen ziyen "de maleantes" bezela. Bai, bai, bai, bai. Galdetu bestela danaidi ta...

- Bai, bestela harrapatu ezkeo pasaran bat emango ziyen ta.

- Ez, ez, [...] kartzela eramaten zion Francok zeai.

- Bai, baiña esaten det bestela harrapatu ezkeo kalian o pasaran bat igual?

- Sergio Arteta zan eta kultura haundiko gizona, ta hementxe, kargu haundiko gizona zan, baiña hoixe zun harek'e, ta Franco etortzen zanian beak esaten zun: "poco me queda ya pa... ya me viene el madrileño"

esaten zun ta presentatzen zan kartzela.

- Umoriakin hartzen zun orduan.
- Hoi bai, hoi bai.
- Baiño zerbaitten bildurrangatik jungo zan ba!
- Edukatua zan. Zea zan, "vagos y maleantes" zuen ordun izena.
- "Vagos y maleantes"? Zein zian bagoak hor?
- "Vagos y maleantes"
- Osea dana... homosexualak zian "vagos y maleantes"?
- Bai jauna, bai, bai. Artikulu hoi ematen ziyen, bai. Joe, gizona zan piñagua hoi, Sergio Arteta hoi.
- Eta rekonozitu iten zun beak homosexuala zala?
- Bai, bai, bai.
- A bai e? Osea bazeon jendia rekonozitzen zuna?
- Bai.

5.13. Aldare nagusian ezkontzen utzi ez zien azken bikotea

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-023/033
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:47:25. **Bukatu:** 00:49:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Nobiotan Usurbildik kanpora egin zuten lehenengo irteeran merkantziako furgoneta batean joan ziren. Ezkontzean, ez zieten utzi aldare nagusian ezkontzen, kongregaziotik bidali baitzuten emaztea. Beraiek izan ziren azken bikotea zigor hori bete behar izan zutenak.

Transkripzioa

Emaztea: [...] Aurreneko salida biyok Donostia in giñuna merkantzian jun giñun gaiñea.

Joxe: -Merkantzian?

Emaztea: -Merkantziko kotxiak, dana betia, ta bi kotxe edo merkantzikuak. Furgoiyan.

-Furgoiyan sartuta, bai. Ekipajiak eramaten dian furgoyian sartuta jun giñan, bai. Hoi goatzen zat hoi.

-Romantiko ziharo orduan. Eta gero ezkontzeko nun ezkondu ziñaten?

-Hemen.

Emaztea: -Usurbillen San Josen altarian, Hijas de Maria ez giñalako...

-Aldare nagusin ez zuen uzten dantza eindakuaidi. Mutillak ez zittuen kastigatzen, neskak kastigatzen zittuen, ta horrek dantza in zulako kongregaziyotik bialdu zuen eta gero aldare nagusin ez ziyen utzi. Ta San Josen aldarian ezkondu.

-Eta azalpenik eman al zizuen?

-Usurbillen pareja bat bada, elizan ezkontzen utzi ez ziyona pareja bat.

-Emaztea: -Maritxu Beraetxe.

-Ez. Pilar Urkia, bakarrik.

Emaztea: -Maritxu Beraetxek berak ekarri zun frailia ta haek elizan in zuen, bai.

-Pilar Urkia bakarrik. Elizan sankristin ezkondu ta geo eliza etorri meza.

Emaztea: -Eta gu giñan hemen azkeneko beltzez eta san Josen altarian azken ezkondu giñanak, Nieves ta biyok.

-Bai, dantzan indakuak. Ordun puskatu zan zea, kastigua. Indultua ordun izandu zan. Gu azkenekuak. Eta geo hurrengiak Rosario Urkia. Ya libre. Aldare nagusin. Gu San Josenian. Gertrudisek esaten zitxon "earki jarriko dizut nik politta San Josen aldaria, ez zaitezela kejavu". Gertrudis ordun zan seroria.

5.14. Kanpaiak jotzean, etxera; itsua engainatzen

- **Hizlaria(k):** Aizpurua Zeberio, Mertxe; Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-025/009
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:09:31. **Bukatu:** 00:11:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Kanpaiak jotzean, etxera joan behar zuten. Paga. Gailetak hamar zentimora. Candelariaren denda; itsua zen, eta engainatu egiten zuten.

Transkripzioa

-Zuengatik zer esaten zan nolakoak ziñaten?

-Ikusiko dezue eta ez dakit ze, eta beti errita. Beandu [ezin] etorri, aramaikua jotzen zun... Gertrudis...

Joxe: -Jo zan gaur!

-Ta aramaikua jotzeako etxera etorri bihar zan. Elizako kanpanak. Aramaikua jotzen zunian...

Joxe: -Aittak eta amak, "hua jotzeako etxea etorri". Esaiezu gaurkuai.

-Bai. Igual da jaiya ta igual da astia, baiño hua.

-Eta etxea etortzeko ordun hori jota...

-Korrika. Ze uste dezu, diruik ez gendakan, e. Guri aittak ematen zigun, nei hamar xentimo, ta amai gabian bost xentimo eman. Hortako bost xentimokin ze eiten deu? Ezer ez. Ordun'e, orduan'e ez zan ezer'e, baiño... Ordun gailletak hola xorruan hiru. Akordatzen zait, hamar xentimo baliyo izaten zuen. Ta guk hamar xentimo harekin milagroik ezin in. Eta Kandelaria ezautu huan [Amatxionekua]. Haren denda Extebanen etxian taberna nola egondu zan hor. Hor denda txikia zun eta berena zan etxe hua ta dana.

Joxe: -Han Josemaitxo ez al zan?

-Bai, baiño Kandelaria hori izeba edo ez dakit zer zan. Hoi zan erdi itsua eoten zan, ta klaro guk engaiñatu in bihar ba nola edo hala ta, zeozer pekatua're in biharko zan ba ta. Juten giñen trenea, trenbidea, hamar xentimoko harekin. Hamar xentimo ez, bost xentimokin. Eta bost xentimo plantxan jarri eta trena pasatzen zanian pla!, mehe-mehe iten zun, ta iten zun hamar xentimokuen buelua ematen ziyon. Eta geo juten giñan horrena eta esaten ziun: "hau ez da hamar xentimokua" eta "bai, Kandelaria, hamar xentimokua. Beira, beira ze haundiya ta ze haundiya" ta, klaro, harek antzematen zion mihia zala baiño engaiñatzen genun: "bai, hola da" ta "hola da". Ta geo paketia hiru gailletakin. Ba ya está, jaiya pasa harekin.

5.15. Umetako jolasak: arkume hezurak

- **Hizlaria(k):** Aizpurua Zeberio, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-025/013
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:17:34. **Bukatu:** 00:18:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Arkume-hexurretara nola jolasten zuten. Txapak. Hankak harrapatzen, bikotan...

Transkripzioa

-Esan dezu jolasetan ibiltzen zifratela arkume-hezurretan.
-Arkume-hexurak ba al dakizu zer dien? "Tabas".
-Nola jolasten da hortara?
-Hoi? Hola bota, uneta, doneta, [deceta] hola izenak eta han jokatu. Eta nola iten zan, nik galdu det, bestiak, nik galdu det bestiak. Eta hola. Eta txapetan, hola txapak bota zenek urritiyo bota ta hola.
-Urrutiyo txapak botatzia zan kontua?
-Txapak zerbeza boteillan eta txapak bezelako hoik. Hoik hola bota ta urrutina zenek botatzen zun, irabaziz. Ta hankak harrapatzen. Bikotan...
-Zer zan hankak harrapatzia?
-Nola esango dizut ba nik. Korrika jun eta bule ein ta korrika. Hor zintzilik jarri konparazio bateako hortikan eta zu atzetik jun eta harrapatzen bazizun hanketik ya galdu zenun zuk. Bestiak, zuk berriz, ta hola.

5.16. Igerian errekan ikasi eta ibaian gustura ibili

- **Hizlaria(k):** Torregarai Gorostidi, Joxe; Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-037/021
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:34:16. **Bukatu:** 00:35:43
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- **Laburpena:** Iñakik umetatik zekien igeri egiten. Joxeri ez zioten uzten etxean igeri egiten; herriko umeek Puntapaxen ikasten zuten. Iñakik nahiago izaten zuen ibaian bainatu itsasoan baino, urpean ibiltzea gustatzen baitzitzaion.

Transkripzioa

-Ni berriz erriyuan sartu... Artian..., orduako ya bastante zikintzen hasi huan erriyua, baiño. Sartu ta urazpin besteaiño juten niñun.
Joxe: -Ez ziguen etxian uzten, etxian ez ziguen uzten. Hemen Puntapax [...].
-Hor ikasten genin.
Joxe: -Danak hor ikasten zuen.

-Non, Puntapaxen?
 -Puntapax deitzen zaiyon, hemendik, erreka hau.
 Joxe: -Putzua zan, putzu [...] politta, ta
 -[Goala?] jotzeko're bai, ta geo zulo dexentia. Han ikasi gendun.
 -Nola ikasten zan han?
 -Plisti-plasta, pixkana-pixkana....
 Joxe: -Danak hor ikasten zuen. Gure amak utzi? Bueno!
 -Bildurra edo?
 Joxe: -Bildurrak ba, bildurrak.
 -Gero ur gezian... Gero Agiñako estaziyuan parian zioz zea, Don Anbrosion eta nola? Han. Zea, pizina bezela dek han. Han asko ibilli nak ni.
 -Joxe: -Oain'e han eon bihar dik.
 -Bai, bai, han eongo dek hue. Ta ni plaiya jun geo, e, ta nazkatu iten niñun, zeatik ur azpin ibiltzen ohittuba. Eta itxasoko urak gatz asko ta ez baitu zea. Han, kauen!, kontuatzeko gora. Ni erriyoa juden niñun. Orioa jun eta plaiya juteko orde z erriyooan ibiltzen niñun. Ni bai, gehienian.

5.17. Puntapaxen bainatzen zirenekoa

- **Hizlaria(k)**: Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-037/023
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:36:21. **Bukatu**: 00:38:27
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
 Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- **Laburpena**: Jan ondoren ez omen zen ona uretan bainatzea, baina kasu gutxi egiten zioten horri beraiek. Aitaren galtza zaharrak moztzen zituzten bainujantzi gisa erabiltzeko. Mutilak eta neskak ez ziren denak batera bainatzen. Igerian nola ikasten zuten azaltzen du Iñakik.

Transkripzioa

-Ni gogoratzen nak, gaiñea, janda ez dakit zenbat denboan dijestiyua in arte ez dala sartu bihar eta. Artean bazkaiya hemen deula igual ta. Trajebañua aitten galtza zarrak ebaki ta moztu ta segi. Ta han sartu ta aspertzen hitzarian handik atea ta Ugartera perillak jatea (makatzak) riki-raka. Ta perillak ostu ta ja eta ta raust, ostera potzura.
 Joxe: -San Juan sagarrak...
 -Bueno, oaingo igualtsu.
 Joxe: -Aranak, aranak janda.
 -Klaudiak, klaudi aranak, jesus!
 -Ez zizuen ezer iten...
 -Jaten ez zenunian gosia edo hola.
 -Trajebañua esan dezu aitan galtzak moztuta.
 -Aitten galtza zarrak moztu ta, klaro.
 -Hoiiek lortzeko're.
 -Eta nexkak?
 -Nexkak ez zien ibiltzen gukin.
 -Hori mutillen kontua?
 -Neskak juden baldin bazian...
 Joxe: -Neskak'e bazittuan hor ibiltzen zienak, e.

-Izango hittuan.

Joxe: -Bai, bai, bai. Gure arreba zarrena ta hor ibltzen hittuan. Bai, bai, bai.

-Gu giñen mutil... bueno... Bahuan bat, joe, igari bazekila ta. Hor labaderua bezela huan, eta geo zulua. Hemen labaderua, zulora jun dek eta hua lurra ukittuz bai earki. Uuuu, mekauden... Bazekila, ja!

-Ikasiko zun.

-Ikasi beharko.

-Eta nola ikasten zenuten?

-Benga, uretaa bota, benga. Egia esan nik hau (braz), beti, hau (krol) baiño beti zea. Errexo.

5.18. Donostiako zezen-plaza

- **Hizlaria(k):** Torregarai Gorostidi, Joxe; Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-037/026
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:41:53. **Bukatu:** 00:43:22
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- **Laburpena:** Behin joan ziren Joxe eta Iñaki Donostiako zezen-plazara. Donostiako zezen-plaza zaila omen zen; Manolete toreroa ere etortzen zen hara. Plaza hura non zegoen azaltzen dute.

Transkripzioa

-Eta zezenetara juten ziñatela edo?

-Behiñ. Ez dakit nik nundik eta nola jun giñen. Hoi goatzen naiz. Torerua, gaiñea, Cesar Girón. Sekula ez zat ahaztuko. Eta hua bukatu genunian honek entrenamentua zula eta zeara, mollaa.

-Zezenak orain bezelakuak zian orduan ere edo?

-Bai, bai. Estilo hoi. Bai, bai. Banderillak eta kristuak eta.

Joxe: -Ordun Donostia etortzen zan Manolete.

-Bai, onena. Plazik onenetakua zala esaten zuen Donostiya.

Joxe: Zaila, plaza zaila esaten zuen. Hemen belarriya emateko aurrena berai moztutzen ziyen. Toreruai beai ta geo...

-Ez, hemen ateatzeko asko eskatzen zana, osea... Hala esaten zuen. [...] entendittu. Eta oain goatzen naiz hua ikusi, ni gehiyo ez naiz izandu hola korridan.

-Nun zian orduan?

-Plaza de toros, zean zeon hoi, oain Txofre Donostin Groseko ze hortan.

Joxe: -Hor zan bai.

-Hortik nola jun giñen mollaa eta honena goatzen naiz. Oain goiyen.

Joxe: -[...]

-Illunbera?

-Ez zaizu gustatzen?

-Illunbea gauza askotaa jun leikek, e. Konziertuk eta kristuak gaurko egunian.

5.19. Inuxente egunerako egindako abestia

- **Hizlaria(k):** Torregarai Gorostidi, Joxe; Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-038/015
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:35:30. **Bukatu:** 00:37:13
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- **Laburpena:** Inuxente egunerako abesti bat sortu zuen Joxe Soroak. Abestia kantatzen dute.

Transkripzioa

-Inuxente Eguna?

-Inuxente Egunian, lehen esan deuna, Joxe Soroak, este, okurrirtu in zaion, ta prepaatu zian ta danok eta, nola esaten da?, Karnabaletan bezelaxe. Ordun atea zuen abestiya Txamuntona. "Usulbildarrak daukate sagardua alkate", ordun atea zan. "Txamuntuko kale nagusiyan daukagu... Usurbilgo Kale Nagusiyan/ Txamuntuko zapaterian/ daukagu txoko bat maitea/ euskal bilera garbian./ Han egiten dira modu onian konpondu gauza guztiak/ tontuak ere arkitzen dira pozez beterik gure artian". Hoi atea zun Joxe horrek ta Inuxente Eguneako. Eta atea zien, bueno, gue osaba Ezkerra, Mikelen eta aitta, zakillotia, baakik, halakuakin. Bere mantal zuriya ta. "Polvos talco" uste dit ekarri zula Michelindik eta danak hola. Gue Joxek maskara zin. Errerueneko Martxial nola..., hoin astua're kanpuan huan. Ta hola, erokeri kristona ta. Joño. Agiña konbidatuta, Agiña kamioia etorri ta eaman eta. Inuxente eguneko zea hoi zan, Inuxente eguneako ateria.

5.20. Montevideotik etorritako aitona

- **Hizlaria(k):** Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-041/004
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:05:53. **Bukatu:** 00:07:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Joxeren aitona Montevideon jaiotakoa zen eta 25-26 urte inguru zituela itzuli zen hona familia osoa. Santa Kruz apaizaren laguna omen zen.

Transkripzioa

-Aitonak..., aber nola esango nizuken nik, aitona jaio zan Montevideon. Bai. "Por circunstancias de esto" atta ta ama hara jun zian eta han jaio zan attona, bai. Uruguai da, ezta? Bai, Uruguain, hala jartzen zun.

-Noiz arte egon zan?

-Hoixe bai ez dakiula. Baiño kalkulatzan deu hoeitabost-hoeitasei urte arte han egondu zala.

-Eta han euskeraz hitz eiten zun?

-Bai, seguru, seguru asko, bai. Bai-bai-bai.
-Eta geo honea bueltatu, zergatik bueltatu zien?
-Bere atta-ta etorri zien ta semiak honea etorri zien.
-Zein garaitakoa izango da gutxi gorabehera?
-Mil ochocientas setenta y tantos hola, bai; edo sesenta y tantos.
-Beste gerra batzuk zian orduan.
-Bai, zeatikan aitatzen du gue Donostiko ze horrek aittatzen du lagun haundiak ziala zeanakin, "con el Cura de Santacruz". Bai, hori attatzen du, harek aittatu zun. Gue atten attona edo zea Santakruzekin bazin zea.

5.21. Dantza egiteko eskatzeko adoretsuak

- **Hizlaria(k):** Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-041/024
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:40:02. **Bukatu:** 00:41:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Festetan musika nork jotzen zuen aipatzen du. Ondo egiten zuten dantzan. Mutilek neskei eskatzen zien dantzatzeko eta ez ziren errenditzen neskek ezezkoa ematen zietenean.

Transkripzioa

-Dantza. Eta zeinek jotzen zuen musika?
-Musika. Festetan etortzen zian trikitisilariak, trikitixa jotzen zuenak, eta bestela bertakuak zien ttunttuna, ttunttuna, zea. Hau danborrerua zan. Anjel Kartero semiakin, bai, hoi dek. Teodoro ta. Bai. Baiño dantzan..., ta ondo iten genun dantzan, e, oso ondo're!
-Ze dantza?
-Librian, librian.
-Fandangua ta arin-ariña.
-Bai. Zuk ez dezu zeatu?
-Nik gutxi. Eta mutillak eta neskak danak batera dantzatzen zuten?
-Edo bakarka igual. Baiño bai, jeneralian korrua in eta hamar baldin bazian bost neska ta bost mutil.
-Zer egiten zuten, mutillak jun eta eskatu neskei dantzatzeko?
-Batzutan bai. Ta "ze esan dik?" eta "kalabaza".
-Bai, e?
-Honbre!
-Kalabazak emateko nola egiten zuten?
-Juten giñan eta "faborez" esan, "ez!!". Ala pues... Martxa.
-Orduan triste edo?
-Triste? Bost bidar bai osterare ala're! Azkenian baietz esaten zun arte. Bai, bai, ez giñan errenditzen.

5.22. Euskaldunek eta erdaldunek janzkera desberdinak

- **Hizlaria(k):** Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-041/031
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:49:49. **Bukatu:** 00:52:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
mugimenduak
- **Laburpena:** Gaztetan, neska-lagunak gorbatak oparitu izan zizkion, baina gorbata ez zen gogokoa izaten Usurbilen, erdaldunen janzkera zelako. Lehen euskaldunen eta erdaldunen janzkera desberdina izaten zen. Bakoitzaren janzkera deskribatzen du.

Transkripzioa

-Eta berak neskak egiten zituzten opariak?

-Bai, beak'e bai.

-Eta nolakuak izaten zien?

-Ni agostukua naiz eta aurki det. Aurki ingo diye. Nola esango nizuke ba, gorbatan bat edo.

-Baiña hori gaztetan'e bai gorbatak?

-Bai, badittut ordukuak'e bai, ordukuak'e badittut. Nahiz ez jantzi. Zeatik ez zan gogokua gorbata hemen. Erdaldunen zea zalako. Bai. Ez zan, ez zan, ez zan.

-Nolakua zan janzkera, hemenguena eta erdaldunena desberdiña zan?

-Bai.

-Eta Zertan? nolakua zan hemenguena?

-Hemengo jazkera bat zan galtzak milrayas zan. `[...] txikikin eta ez al zea goatzen zea bat? Oandikan'e bado tela holakua. Euskaldunen jantziya hua zan. Ta atorra edo alkandora txuriya ta ahal zunak edo nahi zunak txapela. Nik ez det sekula ibili txapelik. Attak bai, baiño nik ez det ibilli.

-Baiña atorra ta hoi dana bai.

-Bai-bai. Atorrek oandikan badazkau milla ta... mil novecientos veintitantosko zeak'e bai.

-Eta erdaldunen jazkera nolakua izaten zan?

-Haik ekarri zuen hemengo lepoko korbata edo hoi.

-Egunero jazten zuten?

-Gehientxuenetan bai.

Beste gizona: -Galtzak panazkuak edo hola.

-Bai.

-Panazko galzak erabiltzen ziztuzten haiek?

-Bai, haik bai.

Beste gizona: Maletak ekartzen [...]

-Sokakin lotuta, bai jauna.

-Eta zuek galtza milrayasak jazten zenutela. Umeak ziñatela ere galtzak jazten zenitzuten edo galtza motxetan juten ziñaten?

-Galtza motxetan, bai. Eskolara ere hala juten giñan, e. Galtzak, amak esanda, "ya galtzak jazteko ordua iritxi zaik". Bai, eta hamabost bat urte edo. Bai, nik hamalau bat, hamabost bat joko nitek.

-Eta bitartian neguan hotzak eta?

-Galtza motxakin, bai.

-Nola aguantatzen zenuten hotza?
-Hotz earrak pasiaz. Klaro.
-Eta hori normal, natural.
-Bai-bai, normal, normal.

6. Herria, azpiegitura

6.1. Eztei-bidaia eta Aviaco hegazkina

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Nieves; Orbegozo Lizarazu, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-004/013
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:17:32. **Bukatu:** 00:19:28
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** Eztei-bidaian Bilbora eta Madrila joan ziren. Hegazkina hartu zuten hara joateko. Usurbilen ezkontzen ziren guztiak Madrilgo hotel berera joaten ziren. Hegazkina nolakoa zen azaltzen dute, Aviaco konpainiakoa.

Transkripzioa

-Eta gero ezkontza bajaran nora jun ziñaten?

-Madridera.

Nieves: -Bilbora aurrena.

-A, Bilbora; han pasa giñun hiru egun, larunbatetik asteazkenea.

Nieves: -Hiru egun eta geo Madridea jun giñan airoplanuan.

-Hotel Euskalduna. Geo abioi kaskar batian jun giñan Madridea.

-Nola izena zun abioiak? Ze konpaiñia zan?

-Iberia.

Nieves: Hor dauzkat billetiak.

-Hori're bai gordeta?

-Baiño haik soiñuk goi hortan eta haik belarriko miñak!

-A bai, e?

Joxe: Madrident ez al zian zeakuak, Ximonekuak?

-Ximonekuak, Ximoneko bi ahizpak eta aittona Raimundo're bai. Gukin bazkaltzen zian askotan, han egoten huan. Ondo pasa genin.

-Joxe: Gu're hala jun giñun eta.

-A bai, e, zuek'e bai, e?

-Madrident nun izan ziñaten?

Joxe: -Bárcena. Hotela. Horko nausik zian hemen Txokokuak.

-Bai, Ximonekuak. Hil zian.

-Eta harea danak juten zian, Usurbilgo guztik harea?

Joxe: -Bai, Usurbillen ezkontzen zian guztik obligatorio.

-Eta ondo.

-Eta ze in zenuten, Madridera jun abioyian. Nolakua zan abioia orduan?

-Kaxkarra, berrogeita laun berrogeita launekua. Bai, aidian ta bazian, egualdi txarrak eta itten zittun kriston zeak.

Joxe: -Aviaco.

-Aviaco, Aviaco, bai, Aviaco huan, arrazoi dek, Joxe. Aviaco.

-Eta? Nola izaten zan? Hasi zanian hegan ze inpresio egin zizun?

-Inpresiyua, aurreneko aldiya zan, inpresiyua, belarriko miña. Oainguak ez due itten baiña ordun zeoze palta zun abioiak. Kriston belarriko miña

danok.

-Belarriko miña zaratangatikan o alturangatikan?

-Miña. Alturaatikan edo izango zan edo. Oain automoillian aldapa goranzkuan itten diu, tak!, ixten die belarrik-eta. Holakon bat izango zan. Oso altu're ez zan jun, baiño...

6.2. Usurbilgo baserriak eta ermandadea

- **Hizlaria(k):** Maiz Labaka, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-012/008
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:13:36. **Bukatu:** 00:15:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Lehen Usurbilen zer baserri zeuden aipatzen du.
Ermandadea zegoen orduan eta nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

Transkripzioa

-Lehenago hemen zer baserri zeuden inguruan, gogoratzen dituzu?

-Hemen dana baserriya. Baita kalia'e etxeik ez zan izango behiyak eta txerria edo oilluak edo. Kontatzen hasi ezkeo, Kotseju-txiki, Tomasenian, Zendoianian eta.

Joxe: -Horrek danak ezautu dittegu, hemen behetik gora.

-Zein zian?

-Hemendik gora? Olarrondotarrak. Geo Enbillenia ta, geo Olloki urruna ta geo Arratzain. Hor aparte samar dia hoik.

-Zuen artian nola konpontzen zineten?

-Basarritarren artian? Lehen Ermandadiak zian; zer da hoi, sozio edo. Bai, seguroik ez zakelako, ordun seguroik ez emen zan, ta ganaduk'e akaatzen bazian zean geo ermandadian partittu itten zan. Eta beren artian baloratzen zan. Urtian behin edo ukuillua ikusten ibilli, baloraziyua eman eta galtzen bazan, haren konformidadian abonatu baserritarren artian.

-Danen artian?

-Bai, juntakuak, e. Gurian ez dakit zenbat izango zian, hamarren bat edo hamabin bat. Zuena haundigua.

Joxe: -Bai. Oaindik hor da lista. Hamabi bat edo.

6.3. Astoen aparkalekua Donostiara bidean

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Urruzmendi, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-016/003
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:05:44. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- **Laburpena:** Behien esnea Donostiara eramaten zuten, eta hara joateko zer bide egiten zuten azaltzen du. Astoak haiantzako "aparkalekuan" uzten zituzten eta handik autobusa etortzen zitzaien bila. Leku hura nolakoa zen azaltzen du; auzolanean egindakoa zen.

Transkripzioa

-Eta behiak zertako izaten zien, esnetako edo?

-Bai, esnetako, esnetako behiak.

-Eta esne hori eramaten zenuten gero?

-Donostira.

-Zeiñek eramaten zun?

-Zaharrena Anttoni eta ni're bai. Baiño geo ni neskametzaa atea nitzan eta gutxina ni, hiru ahizpetan gutxina ni ibiltzen nitzan.

-Donostira juteko ze bide iten zenuten?

-Donostia juteko ba iten gendun bidea baserritikan, este, Maskulas, Benta, Maskulats eta beheko kamiyoa, beheko kamiyoa.

Joxe: -Aurrena Benta, geo Maskulats, eta geo ya Donostia sartzen zea.

-Bai. Astuak uzteko lekua eta geo autobusa etortzen zan gure billa. Zea, zestuak-eta zesteretan jarri marmidak-eta; astotikan atea eta zestera haundi hoitan.

Joxe: -Donostin zer zenduen, San Martin eo zea?

-Ez, bestia. San Martin ez, bestia. Bretxa, Bretxa. Gu Bretxako ondoa juten giñen. Gu Bretxa.

-Eta esan dezu astuak nunbaiten uzten zenituztela.

-Bai, txabola haundi bat, txabola batian uzten giñuan astuak-eta.

-Eta nun zegon hori?

-Beheko, Maskulasko..., zeian, Donostia hasten zan kamiyoan.

-Eta han utzi nola iten zenuten, lotuta edo?

-Bai, bai, lotuta.

-Uztiagatikan ordaindu in behar zan?

-Ez. Bestela ein zuen txabola bat zeakin ta... Zer dia? Hoik... "sin teja".

Joxe: -Bai, ingo zuen uralita bezela, bai. Igualtsu, igualtsu. Txapakin ta...

-Hoi da, txapakin eindako txabola. Txapa zaharrakin eindako... Ta han lotuta utzi.

-Zeiñena zan txabola hori?

-Danena, danena.

Joxe: -Txabola hori eiña izango zan herri-lanez.

-Geo horrea juten zian basarritarrak, klaro, gure aitta-ta, bestiak-eta, alkarren artean, alkarren artean eindako txabola.

6.4. Herri-lanak Usurbilen

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Urruzmendi, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-016/004
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- **Laburpena:** Lehen lan asko herri-lanean egiten ziren. Urtean behin egiten ziren. Han aritzen zirenei udaletxeak merienda ematen zien.

Transkripzioa

Joxe: -Ordun lan asko eitten zan herri-lana.

-Zer zien herri-lanak?

Joxe: -Herri-lanak? Ni jun izandu nitzan. Bidiak in eta.

-Bidiak in eta ura juten zan zea garbittu, urak juten zian zeak-eta garbittu.

Joxe: -Zangak garbittu-ta.

-Eta hori urtian zenbatian eiten zan?

Joxe: -Behin. Herri-lana.

-Gero eramaten ziyen merienda, ardua ta ogiya edo.

-Eta zeiñek ematen zuen?

-Herriyak, udaletxeak.

-Zer merienda izaten zan?

-Ogiya eta gazta.

Joxe: -Txokolatia're bai.

-Gazta gehixean.

6.5. Donostiara saltzera autobusez

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Urruzmendi, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-016/011
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:20:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Donostiara joateko, goizeko 8etan izaten zuten autobusa astoen "aparkalekuan". Autobus hartan ibiltzeko, zerbait ordaindu behar izaten zuten.

Transkripzioa

-Ze ordutan juten ziñaten Donostia?

-Goizian uste det zortzitan izaten gendula. Arpidetako Tomás Lizarazu.

-Harek eramango zizuen autobusian?

-Autobusian iyo, sartu...

-Han astua utzi, ta harek zean...

-Bai, Bretxaraiño. Ez dakit ze kale zan hua. Tomas, ta Migel eta danak. Sotero ta. Danak, ezagunak.

-Autobus hartan ibiltzeko ordaindu in behar zan?

-Bai, bai. Ez naiz goatzen ni ze ematen zuen. Akaso gure gurasuak... Ni ez naiz goatzen ze.

-Hori ze ordaintzen zan, egunero-egunero o hillabetian behin.

-Egunero ez. Ez dakit noiz pagatzen zuen. Hori ez naiz goatzen, ez naiz goatzen ze ematen zuen.

6.6. Presatik ura jaisteko egiten zituenak

- **Hizlaria(k):** Camino Ibargoiien, Justo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-018/004
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Uraren presa dagoen lekuan zeta-fabrika zegoen. Presan saretoa egoten zen eta ura ez zen jaisten. Makina bat aldiz igo behar izaten zuen Justok saretoa irekitzera.

Transkripzioa

-Geo hor goyan; ez dakit honek izandu dan. Galonian izan al haiz?

Galonetik gorago presak. Uren presa zioz han.

Joxe: -Usurbilko urena. Hor lehenoz ez al zan seda-fabrika?

-Bai, hoi dek, bai.

Joxe: -Seda iten zan hor, e.

-Nun egiten zan seda?

-Hor goyen. Hor goyen do etxe haundi bat, oaiñ'e tente do pareta.

-Zenbat langille egoten zian?

-Ez dakit hoixe nik, akaso zaharren batek jakingo du baiño ez dakit nola.

Geo han genezkan zeak, rejillak San Ixtebango depositora datoztinak, haundiya bat haundiya eta geo haruntzexeao beste bat ttikiya ta. Askotan juten nitzan tela fabrikako hortatikan eta. Ba ura, rejilla nola itxita zeon ura ta, "jo!, oain'e nolabait pasa biharko dit ba ta". Pasa polliki-polliki rejilla iriki ta bajatzen zanian biyak garbittu ta. Askotan geo esaten zian; lehortia zanian, berriz, esaten zian: "jun hai, San Ixtebanea jun hai". Tartian tapatu gabe zeon deposituba, "ta ikustak zenbat ur daon makillakin junda". Ta hola erreparatzen niyon, betetzen zanen gaiñezka itteko zea zun, zulo bat, eta erreparatzen niyon, eta "aitta, honbeste palta du", ta "bueno, bale, ondo ziyok. Oain makina pixkat ura gutxiyo pasatzen dula jarriko dit", esaten zun. Ta holaxe ibili giñan. Zenbat..., xentimoik'pe, e!, buelta ta buelta ta buelta!

6.7. Umetako jolasak eta gozokiak

- **Hizlaria(k):** Aizpurua Zeberio, Mertxe; Torregerai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-025/018
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:25:06. **Bukatu:** 00:26:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Etxeketan ere ibiltzen ziren, udaletxeko plazan. Gailetak eta gozokiak. Bost zentimotan bost gozoki. Erramun konfiteroa. Konfiterian denetik saltzen zuten.

Transkripzioa

-Ibiltzen al zifiaten jokun bat gehio o sukaldian hola, "cocinitas" o...?
-Etxeketako zeak esaten dezu, jostailuk? Bai. Ordun'e izaten zuen, baiño batzuk eta bestiak ez eta hola. Bai. Izaten giñun, e, izaten giñun.
-Eta gustatzen zitzaizuen horta jolastia?
-Jolasian? Hortxen, aiuntamentuko plazan eta. Hoixen, atera.
-Eta orduan zer iten zenuten, atera ta oain goxokiyak jaten dian bezela, zuek ze jaten zenuten? Gailletak eta...
-Eta "contentas". Karameluk. Marianonian erosten bazian. Ez, konfitterin bost xentimokin bost etxian itten zittuenak. Bost.
Joxe: -Joño! Zuek ordun zea..., estankun'e izango zan ba.
-Bai. Nik estankua ezagutu det danetikan. Taberna, denda, erropa, danetikan. Tomaxenian'e bai.
-Baiña hoi baiño lehen Luis Kamiñerua.
-Konfiterua?
Joxe: -Luis ez al zan hua?
-Erramon.
Joxe: -Erramon, bai. Konfiterua, bai. Harek konfitiak...
-Konfitiak ez, ez, han esponjak itten zittuen. Esponjak, urai emateko. Karameluak iten zittun nik ez dakit nola, hola plasta indakuak. Hola kuadrilo txikik. Bost xentimokin bost halako konfitein.
-Nun zegon konfiteria?
-Izena zun konfiteia.
Joxe: -Txiriboga ba al dakizu nun don oain?
-Bai.
-Hortxe zan.

6.8. Txiki Erdiko tren-estazioa

- **Hizlaria(k)**: Rekondo Aizpurua, Miren Jone
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref**: USU-027/029
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:43:10. **Bukatu**: 00:44:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Aitarekin Lekunberrin elkartzeko, trena hartzen zuten. Trenaren ibilbidea aipatzen du. Txiki Erdin tren-estazioa zegoen.

Transkripzioa

-Gero aipatu dezu Tren Txiki?
-Ez, gu Lekunberrira juteko trena zan, fuff!, ikatzakin izaten zan trena.
-Ze ibilbide?
-Hoi Donostitikan Naparruan ba Lekunberri, Leitza ta hoik danak pasata ta ez dakit ba nundik. Lekunberrin behiñipin bai. Ta hor jutun giñan. Ta sarrera Lasarteko estaziyuan edo, Txikierdiko estaziyuan edo. Ez dakit nun izango zun, seguru asko. Nora jutun giñan horrea juteko? Donostiraño jutun giñan? Hoi ez dizut...
-Txikierdin estaziuya zan?
-Estaziuya zan. Gaur do lokal haundi bat baiño hor trenik ez da gelditzen, baiño makiña bat bider Zubietatikan horrea jun gea Donostia juteko,

Txikierdiko estaziyoa. Txikierdin estaziyoa trena gelditzen zana zan, e. Hortxe do oain etxe haundiya. Acerostikan honaxean don etxia. Hoi Txikierdiko estaziyoa esaten geniyon.

Joxe: -Tren hoi oain esaten due Lasartetika Donostiya juten dala. Bazan lehenore. Hoi tren beltz hoi etortzen zan eta hor jiratzen zan.

-Fiii! iñez kia dariola Naparroa aldea, bai.

6.9. Gerra osteko kontrabandoa

- **Hizlaria(k):** Rekondo Aizpurua, Miren Jone
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-027/031
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:45:29. **Bukatu:** 00:46:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Lekunberrira joateko, trena hartzen zuten. Tren hartan kontrabandoa eramaten zen. Gerra ostean dirurik ez zen eta janaria lortzeko nola-hala moldatzen ziren.

Transkripzioa

-Noiz kendu zuten trenbide hura?

-Hori ez dakit. Nik goatzen naiz aitta Lekunberrin zeola, Mugiron zeola juten giñala. Ta ez dakit. Hori ez nizuke esango. Urtiak dia ta urtiak jun iten dia.

Joxe: -Ni goatzen naiz trenbide hoi ta nola eurra ekartzen zun.

-Zeoze izango zan, bai, zeoze ibiliko zuen Naparrotikan honea ta hemendik Naparroa.

Joxe: -Kontrabandua uste det.

-Kontrabandua, klaro. Horregatik esan dizut Mugiron ez zala iriñan paltik ogiya iteko. Ta aitak esaten ziun guri: zuek ez dezue gehiyo ezautuko ogi zuririk.

Joxe: -Kontrabandua ibiltzen zuela uste det...

-Bai, bai. Kontrabandua ibiliko zun ordun, bueno! bueno!

Joxe: -Oaindik badaude makinistak ibili zianak...

-Bai, e? badie oaindikan?

-Hitz eiten duenak, e, hitz eiten duenak. "Eta ze ekartzen zenduen zuek" eta, ba guk ogiya, gariya...

-Babarruna're igual eta. Danetikan, jateko, janariya. Ordun... Eske gerra ondorenan goatzen naiz ni, ikeragarritzko gosetia ibili zan, diruik ez zan, gaiñea. Eske ez zan diruik, diruik ez zan ordun. Dana kontrabanduan, dana kartillakin janariya ibilli bihar bagendun.

Joxe: -Ahal zunak ahal zuna ta.

-Dana horrela. gaur bezela? Jesus!

6.10. Apaizaren telefonoa kommutatu zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Rekondo Aizpurua, Miren Jone
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe

- **Erref:** USU-027/036
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:53:12. **Bukatu:** 00:54:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena:** Zubietan baserrian ez zeukaten telefonorik; apaizak lokutorio publikoa zeukan. Kommutatu egin zuen telefono haren linea.

Transkripzioa

-Geo gaiña Aizpurun telefonoik ez zan. Zubitan zun apaizak lokutoiyua, publikua, eta gero kalean Joxek zun bere telefonua beak industria bat zekalako, zerra ta hoik zazkalako. Eta 7171 zan telefonuoi. 7171. Ta ordun Aizpurun ez zan, iñok ez zun telefonoik. Apaizan etxea iñok ez zun nahi jo telefonoa. Puff!, iñok ez zun jun nahi. Eta kalean dana. Kalean zan Aizpurutikan plaza tartian. Ta juten giñan hara, ta ordun osabak in zun osabak in zun konmutatu kaleakin guria. Ordun biyak telefono bat: 7171 kalean eta 7171 Aizpurun. Ta aurrena beti kaleko Maria, emakume jatorra zan, harrek hartzen zun. Ta Aizpuruako baldin bazan, bigarrenen errepika. Ordun guk hartzen gendun bigarrenengan, ordun Aizpuruako zan seiñalia. Eta guk zeozertara hoi dana baiño lehen kalea jun behar in behar... Hoik lortu zuen. Ordun aurrenengo telefonuak hola zien, gaur patrikan danak.

-Joxe: -Gaur ze?

-Gaur patrikan telefonua. Ze diferentzi. Esaiezu. Jesus!

6.11. Gaztañaga baserriaren historia

- **Hizlaria(k):** Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-041/002
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:01:59. **Bukatu:** 00:04:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Etxean ganadua bazeukaten eta baserriko lanetan aritzen ziren: itulan, besteak beste. Etxeko lurrak non zituzten eta orduko Usurbil nolakoa zen azaltzen du. Gaztañaga baserria XV. mendetik egon izan da hor. Baserriak izandako jabeak aipatzen ditu: Usandizaga musikaria Gaztañaga baserrira bidaltzen omen zuten gaixo zegoenean sendatzeko.

Transkripzioa

-Bazenuten baratzen etxian edo?

-Bai, bai, terrenuak dezente gaiña.

-Eta animalirik bai?

-Animalik bai. Behiyak, behiyak.

-Eta zein ibiltzen zen hoiak zaintzen?

-Ama.

-Eta zuek?
 -Gu lanian.
 -Nun?
 -Michelin-en.
 -Baina han hasi baiño leheno umetan ez zenuten etxian lana eiten?
 -Bai, ingo ez genun ba! Ittulian eta. Bakizu zer dan ittulian? Ganauen aurretikan, ganauba desbiatu ez dein ba xuxen eamateko pues ittulian esaten zan.
 -Eta nun zenezukaten ba zuek terrenuak behiak-eta eukitzeko?
 -Etxi hauk danak eta beheko etxe hue danak.
 -Orduan desberdina izango zan hau dana.
 -Frontoiyen atzetikan gue baserrira arte dana zea zan, baratza zan. Eta hau're bai, hau're. Galtzaragaiña edo hoi're.
 -Eta ordun oain bezela, oain bihotza da, herriko bihotza zuen baserria, erdi-erdian dago. Lehenago ere hola zan?
 -Bai, leheno holaxe zan. Oain bostehun urte holaxe zan eta oain'e bai.
 -Noiztikan dago baserria?
 -Mil kuartozientas sesentaitantos edo.
 -Beti zuen familiana izan da edo?
 -Ez. Hoi aurren-aurrena dakau guk zea Rezolena. Rezola zea, Cementos Rezola. Horrena zan. Bai. Eta geo horrek saldu ziyon gue attonen attai. Donostiarra zan. Gue attonen atta, Don Juan izena zun. Geoztikan hor bizittu izandu zan zea, baiño ez zan harena: Usandizaga. Usandizaga zer zan, maixu bat huan edo. Usandizaga uste dit zala konpositoria. Hemen bizittu zan, haiziak hartzea ekartzen zuen honea, "cambio de aires" edo esaten ziona. Petxutik zeon eta honea etortzen zan. Ta hala're hil in zan.
 -Baiña hori bera etortzen zan zuek hemen zendetela edo?
 -Bai, bai. Ni ez, nere atten atta ta.

6.12. Etxeko pozadera eta Usurbilgo garbitokia

- **Hizlaria(k):** Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-041/012
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:15:45. **Bukatu:** 00:18:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Etxean bazeukaten ura eta argia; etxean pozadera zeukaten. Inguruko emakumeak pozadera hartara etortzen ziren ur bila. Arropa garbitzera udaletxeak jarritako estalpe batera joaten ziren emakumeak; buruan eramaten zuten ontzia. Garbiketa eta sukaldeko lana emakumeek egiten zuten. Gerora ikasi du Joxek sukaldean ibiltzen.

Transkripzioa

-Etxian ura ta argia ba al zenuten?
 -Bai. Eta gaiña aparte genun bosadera. "Poza behera" erderaz esan nahiko du. Un pozo hamaika metro zean goitik behera, ezautu nun nik hua eaten, ur hua, bai. Oandik hor dakat. Etxian dakau. Etxian onduan bai dakau.

-Zer zan, zuena edo?

-Ez ez, guria, guria.

-Herrikuak nola lortzen zuten ura, horrea junda, zuei eskatuta edo?

-Baita hori ezautu genun. Hor barriuan Gaztañan atzian zeen zeak, emakumiak etortzen zian, baldia botatzen zuen, ura atea ta etxea eamaten zuen.

-Garbiketak iteko, erropak garbitzeko ta?

-Honea etortzen zien. Hemen bazan, aiuntamentuak bazun estalpe bat eta emakumiak horra gobara-edo.

-Zer zan gobara?

-Gobara zan erropa. Maindiriak eta danak hor garbitzen zittuen eta gero hortikan etxea juten zian, burun hartu barriñoia ta etxea eamaten zittuen. Zeatu, zabaldu ta.

-Hori emakumian lana izaten zan?

-Bai. Hori gui ez ziun eakutsi, egiya esan. Ez ziun eakutsi, ta horregatikan dakau faillua guk. Nik biñipin, nik hoixe dakat faillua oaiñ ez deala ezer iten. Honbre, esaten baldin badit hau emaiuzu ta holako ordutan eta martxan jarri zazu. Hoi bai, baiño nee kasa ez.

-Eta sukaldian eta emakumiak ibiltzen zian edo?

-Bai, bai. Nik neoni sukaldian baakit, e. Hola gauz bat in bihar danian edo ze bat edo. Arkume bat erre edo oilaskuak erre edo, hoi neonek itten dittut. Bai, hoi bai.

-Hori noiz ikasi dezu?

-Hori gero. Soziedade bat hemen zeatu zanian, pues hor ikasi gendun danak. "Hi ze ai haiz iten?", ta holako, ta ba "nik ikasi nahi dit". Bueno pues holaxe.

7. Baserria

7.1. Donostiara hanka hutsik angulak saltzera

- **Hizlaria(k):** Aranburu Gaztañaga, Benito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-010/032
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 01:01:31. **Bukatu:** 01:02:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
 - Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- **Laburpena:** Benitoren amona hanka hutsik joaten zen Donostiara angulak saltzera, baita elurra egiten zuenean ere.

Transkripzioa

Egunero angulak eramatea Donostia. Ez holako bidia, e. Hor [...] hegaletik barrena huan. Eta hanka-hutsik eta elurretan oiñez Donostira angulak saltzea.

-Hanka-hutsikan?

-Juten zala gue amona. Gue amona, Sorokua ta Etxeberrikoa, hirurak.

Joxe: -Gorrik ikusita, gorrik ikusita hoik'e.

-Hanka-hutsik elurretan, e!

7.2. Gerran ama egunero Donostiara esnea saltzera

- **Hizlaria(k):** Maiz Labaka, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-012/018
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:32:34. **Bukatu:** 00:33:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Mola jeneralak hartu zuen Donostia. Han gertatzen zenaren berri izaten zuten Usurbilen. Manuelen ama egunero joaten zen esnea saltzera Donostiara; bidean ikusten zituenak aipatzen ditu.

Transkripzioa

Joxe: -Donostia hartu zun Molak.

-Mola al zan? Eta hua hemen pasako zan.

-Bai.

-Donostin gertatzen zienak hemen enteratzen ziñaten?

-Zer gertatzen zan? Donostira sartu ziala ta bai.

-Altabozak ibiliko zian ba hemen.

-Ez, altabozik-eta ez zan ibili ezer, ez, ez. Orduan ez zan altabozik eta.

-Nola enteratzen ziñaten, ahoz aho?

-Bai. Gero egunero Donostira juten zien; gue ama zana ere egunik ez zun galtzen. Harek berriz hor kamiyuan Aceros-ko gaiñian eta. Bai, goizian zaldi karruakin juten zan, seiterdietan atea. Oain baiño bi ordu gutxiyo. Ta egunero Donostira esniakin eta zan gauzakin. Eta Luzuriagan gain hortan odol arrastuak eta txapelak eta. Geo aurreao're bai beste kamiyo... Ta gurutzia jartzen due gaiñea. Irubidetikan ze Decatlon eta ze fabrika dia hoik. Hain azpin han, kendu ez badue behintzat han beti eoten zan ze bat.

-Afusillatuk.

-Bai, bai.

-Horko historik. Ta guk eze gutxi dakigu. Gu umiak giñen ta eze gutxi dakigu.

7.3. Esnea saltzeko neurriak eta marmitak

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Urruzmendi, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-016/007
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:13:25. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Saltzeko erabiltzen ziren neurriak txantxilak ziren. Marmitak portzelanazkoak izaten ziren, besteak beste.

Transkripzioa

-Ze neurri ibiltzen zian saltzeko?

-Txantxillak. Zea batzuk, burnizko, metalezko ontzi batzuk beren kertenakin ta ttak!, sartu ta.. Litro erdikuak eta. "Txantxilla" esaten geniyon guk.
Joxe: -Bai, hala zan, hala zan, txantxilla zan.
-Eta noa ematen zian hoiek? Bezeroari nola ematen zitzaion, botelletan edo?
-Marmitakin. Guk hartu gure marmitatikan, sartu txantxilla, ttarraka!, hartu ta ttaka! Litrua edo litro t'erdi eo lokesea.
-Marmitak zer materialetakoak izaten zian?
-Ondo...
Joxe: -"Porcelana".
-Portzelanazkuak?
-Bai, bazian, bazian. Danetatikan zian. Danetatikan zian.

7.4. Idiak, behiak eta zezenak: bakoitzaren funtzioa

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Urruzmendi, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-016/009
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:14:19. **Bukatu:** 00:17:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Idiak zertarako erabiltzen zituzten azaltzen du. Behia susara zegoenean, zezenarengana eramaten zuten. Behiak antzutu egiten ziren zahartzen zirenean. Behiak hiltzean zer egiten zen haiekin azaltzen du Kristinak.

Transkripzioa

-Beste animaliyak zertako ibiltzen zenituzten? Esan dezu zenezkatela idiyak. Idiak zertako ibiltzen zenituzten?
Joxe: -Laneako. Lurrai buelta emateko-ta.
-Baita ere. Goldian ibiltzeko, sorua jiratzeko eta txarrantxa ibiltzeko eta daneako; idik daneako.
-Zer zan txarrantxa?
-Katxarro bat, lurra moldatzen zun katxarro bat.
-Oaingo traktoriek bezela?
-Traktorian hortzak badazkan bezela... idiyak maitu bihar.
-Harek lurra... Idik tira bihar ziyen ta zea hua ibiltzen zan lurrian, lurra moitzen, lurra moitzen ibiltzen zan, bai.
-Eta behiak zenezkatenak?
-Behiyak beti etxian. Eta gero esnia, haik esnetako.
-Baiña haiek eukitzen al zuten... gelditzen al zian... Umeikan eukitzen al zuten?
-Bai, bai.
-Nola egiten zenuten horretako? Nunbaitea eramaten zenuten, zezenen batengana edo?
-Bai, bai, bai. Bizkarren'e bazan zezena. Artxuitan bestia.
Joxe: -Bai, arrazoi dezu, Artxuitan, gootzen naiz.
-Zezenak eoten zien. Behia susa zeonian antzematen ziyen baserritarrak eta eramaten zuen ba...
Joxe: -Estaltzea.

-Bai ba.
 -Eta ba al zeon behiren bat antzua zana, ezin zuna umeik euki edo?
 -Behiya antzua? Behiya ba geo antzutu iten zittuen, utzi iten zuen.
 Zahartzera zijuanian behiya utzi iten zuen.
 Joxe: -Gero ya umeik ez zun iten [...].
 -Gero hiltzen zuen. Kofradia nola esaten da? Nola esaten zayo horri?
 -Antzuba zeatzeko ya bihar zittun hamabi bat urte eo; ta ya ez zun ume
 gehiyo iten. Hamabi urtekin ya azkenengo umia. Ta ba emen zien
 hamahirukuak'e.
 -Geo askotan iten zituen gizendu eta mate(de)ria eaman eta.
 Joxe: -Eo saldu harakiñai eo kopradin bertan eo.
 -"En la kopradia", baserritarren arteko zeian, eta. Beste batzutan akatu're
 bai eo. Eta geo hua partitzen zuen eta geo zeziña, zeziña iten zan.
 Haragiya zintzilika jarri eta sekatu iten zan. Zeziña.
 -Aitza ez dezu "cecina"? Bai, "cecina", hortik dator: guk zeziña esaten
 geniyon, baiño "cecina" da.
 [...]. Geo jarri zintzilika, sekatu eta geo jaso. Eta geo hari puxkak kendu ta
 tipulakin ta askotan eltzia're gozo-gozo jarri, egosi in bihar, ta geo...

7.5. Arraina itsasotik etxeko mahaira iritsi artekoa

- **Hizlaria(k)**: Bengoetxea Urruzmendi, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-016/010
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:17:27. **Bukatu**: 00:19:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Lehen mahaian jarritakoa jan behar izaten zuten.
 Donostiatik hainbat arrain mota ekartzen zituzten, hemen inguruan
 harrapatutakoak. Arraina Donostian nola saltzen zen eta gero etxean
 nola prestatzen zuten azaltzen du.

Transkripzioa

-Gure bazkaia askotan potajia ta hua ta. Ez zan izaten oain bezelako
 zeaikan. Nik hau ez det nahi ta hua nahi det eta hau ez det nahi ez zan, e!
 Ordun jarritakua...
 -Haragia eukitzia bea ere ez zan gutxi izango.
 -Hori da. Ta babarruna ta azak.
 -Geo Donostitik ze ekartzen zenduen?
 -Askotan arraiya. Antxua zanian, antxua zanian, "Baserri, antxua earra!" ta.
 Hurruna ze ekartzen gendun? Antxua bai, eta geo txitxarro kokkor
 hoitakuak'e bai, txitxarruak, txitxarruak. Sardiña ez, ez gendun zetzen. Ta
 bakaillaua ta hoi bai. Eta eltzeko haragiya Donostitikan. Merkenekua.
 Eltzeko haragiya.
 .Donostitikan ekartzen zenuten arrai hori nun harrapatzen zuten, Donosti
 inguruan edo?
 -Bai, bai, hemen bertan harrapatutakua, e. Bai, bai, hemen bertan
 harrapatutakua ordun, garai haitan. Eta geo han aitzen zian arrantzaliak:
 "Baserri, antxua earra badakat ba ta". Kale Okendoko ixkiñetan eta zeien

eta, bai ba.

-Han bertan erosten zenuten.

-Bai, bai. Ta geo etxea. Eta etxean garbittu, xehe-xehe zea batian jartzen gendun eta bueno. Geo merindatzeko-ta askotan, bueno. Soroa ere merienda igual amak eta amonak eta eramaten ziguen, gu soruan lanian zeoze eta han eramaten ziguen goxo asko. Ta geo askotan antxoia txikia baldin bazan gaiñuntzian gaiñea arraultza botata jarrita, goxua.

7.6. Ukuiluko euliei probetxua ateratzen

- **Hizlaria(k)**: Alzaga Illaramendi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-020/012
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:20:41. **Bukatu**: 00:22:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Ukuiluak etxean egoten ziren, sukaldetik gertu. Ukuilutik euli asko etortzen zen sukaldera, eta haiek biltzeko, garoa jartzen zuten sukaldean; eguna amaitzean, euliak zaku batean sartu eta oiloei jateko ematen zizkieten.

Transkripzioa

- Ta zuk goatzen dezu ikuilluak eta nun egoten zian?

- Bai.

- Etxian, etxian ze zatitan egoten zian?

- Ze zatitan? sarreran sartu eta gero itxiya zeon, baiño hantxe bertan, atzian, osea ke, hamar pausoa ukuilluba.

- Ta sukaldetikan gertu egoten zian?

- Baita're, baita're.

- Eta hori ze ba?

- Ze ba?

- Ze ba sukaldetikan gertu ikuillua?

- Ordun ez zan oain bezela gauza beiratzen e?

- Ez?

- Neguako kalefakziyua.

- Berua emateko.

- Bai, bai, bai, bai, bai

- Ganadubak hoixe ematen zula

- Ta usaia o hor euliyak ibiliko zianak sukaldea ez zian sartzien?

- Elbik? Bai hoixe sartzien ziala ta jartzen giñun garuak, garuak hola sortak in garuakin, lotu hayek eta zean tetxuan zintzilika jarri, juerga ibiltzen gendun. Gero gabero-gabero zakuba hartu bi lagunen artian, raast! sartu ta han barrenen elbik!

- Osea ke garota juten zian euliyak?

- Bai.

- Ta zer zeukan ba garuak?

- Ezer ez, baiño sukaldian sartzien zianian, ba, hara.

- Jostatzeke politta e?

- Bai. Bai, zakuba sartu ta elbik zakun gelditzen zian.

- Eta zaku haiekin?

- Gero zakuba lurrian hola jo ta oillueidi.
- Oilluei gustatzen zitzaizkiyen?
- Bueno, oilluak? Bai abaila earrrian jan!
- Beira ze ona. Aprobetxatzen hori're atez ate sistema da e?
- Elbiya asko izaten zan, oain bezela ez zeon zeaik ezer, ta elbiya.

7.7. Arratoiak harrapatzeko, zepoa

- **Hizlaria(k):** Alzaga Illaramendi, Milagros
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-020/013
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:23:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Arratoiak harrapatzeko zepoak erabiltzen zituzten.

Transkripzioa

- Eta ze bitxo gehio eoten zian orduan?
- Bitxuak? Hoik behintzat bat, geo arratoyak.
- Arratoiak ere?
- Bai.
- Ta haiekin ze iten zenuten?
- (Joxe) - Hoik ez zittuen jaten e? Hoiek ez zittuen jaten.
- Hari zepua jarri. Zepuak.
- Zepuan ze jartzen zenuten?
- Gazta pixkat o jarrita, harrapatzen baldin bazun...
- Nun jartzen zenituzten zepuak?
- Bueno, gutxi gorabehera iruitzen zitzaigun nundik ateratzen zian o nun ibiltzen zian ta hantxe jarri behar. Nun-nahi ez, porke...
- Ta ze izaten zian garai batzutan bestetan baiño arratoi gehio o?
- Bai, hoik'e izaten due umealdiya izaten duenian ta ugaritzen dira, bai, bai.
- Eta zuei nazkik edo...?
- Ohittuta genden gu danakin. Nazkik ezta bate, oainguei ematen dizue nazka.
- Bai, bai, bai.

7.8. Hauteskundeetan botoa sekretua eta pertsonala?

- **Hizlaria(k):** Aranburu Otaegi, Teodoro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-022/029
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:47:31. **Bukatu:** 00:48:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublikua

- **Laburpena:** Gerra aurrean, hauteskundeak zirenean, ika-mikak egoten ziren. Garai hartan, nagusiak agintzen zion etxeko maizterrari nori eman behar zion botoa; bestela, etxetik kanpo bidaltzen zituen.

Transkripzioa

-Ez dakit republikako garaiyian izango zan edo lehenozan; zeatikan republikan aurretik zan "dictadura de Calvo Sotelo", "el año"... veinticincotikan treinta edo hola. Republika "treinta, treinta y uno" edo hola [irten] huan, haren aurretikan "dictadura de Calvo Sotelo". Ez dakit hua zan ala republikan zan. Botaziyuak zienian -orduan izango zian hangiak iki-makak-, holakotan "intereses", diputau zein atera ta. Hau diru pixkat zuenen kontua izango zan noski, gaiñontzian ez baiño. Baserritarrak, maixtarrak jeneralian izaten zian eta. Nausiyak esan zuk holakoi bota bihar diozu /bihyozu/.

-Eta harei bota behar?

-Botaziyua ez dakit sekretua edo nolakua izango zan. Usurbillen bazian bat edo bi nausiyak nahi zun diputaduai botua bota ez ziyelako, etxetik kanpoa, baserritik kanpoa. "Y a callar, y no pasa nada".

-Orduan botoa ez zan sekreto?

-Ez zan izango sekretua.

-Eta nolaz enteratzen zian?

-Tranpa ingo zuen eta hor.

7.9. Irinaren kontrabandoa Usurbilen

- **Hizlaria(k):** Rekondo Aizpurua, Miren Jone
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-027/034
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:52:12. **Bukatu:** 00:53:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Miren JoneK berak ogia egunero egiten zuen etxean. Andatzatik egurra jaisten zuten eta kontrabandoa ere menditik barrena egiten zuten. Handik lortzen zuten irina.

Transkripzioa

-Ordun bitartian iriña ez dakit nundik ekarriko zun gure osaba horrek, etxian egiten gendun ogiya, nik ikasi nun ogiya iten, eunero iten nun nik ogiya etxian.

-Egunero?

-Bai, egunero, egunero, egunero. Kaleko Maria ez dakit zuk goatzen zeon, Joxe Kale-ta zerra zuenak, ta haren arrebak, noski, Joxe Kalek ordun eukitzen zun egurra.

-Joxe: Andatzatik.

-Bai, Andatzatikan egurra. Bai, Etxetxo inguru hortan. Eta ordun kontrabandua hemendik barrena ordun, noski. Kalian ez zeon ibiltzeik, dana fiskatuta zeon, aotomoillakin ez zeon pasatzeik eta ezerre ta harrapatu iten ziñuen eta, mendiz. Eta ordun harek iriña nahikua ekartzen zun, Parrilla [...] hor zebillela. Eta ekartzen zun kontrabandua, eta Mariak ogiya iten zun etxian. Kaleko Mariak iten zun ogiya etxian. Ta dozenerdi bat lagun izango zian, baiño ogiya iten zun etxia ordun zan, bueno!

7.10. Baratzeko lanak eta maiatzeko elurra

- **Hizlaria(k):** Olasagasti Mujika, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Erref:** USU-029/008
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Etxean baserritik bizi ziren. Gerra garaiko buelta horretan, behin, maiatzaren batean, elurra egin zuen eta garia alferrik galdu zen; gosea pasa zuten orduan. Pagotxa ere lantzen zuten etxean.

Transkripzioa

-Orduan baserritik bizi ziren gurasuak.

-Bai. Gu're bai, e.

-Ze zenuten, ganadua edo?

-Guk ba itten gendun artua. Garia're gerra-denboan ezautu nun; nik gerra-denboan gariya, ta maiatzeko aurreneko egunian, gerra denpora zan hoi, gerra hortxe zan, pasia ez pasia... In zun elurra. Ta gariya, "Txikia banintzan, haundiya banintzan, maietzian burutu nitzan". Ta maiatzen aurrenian burutuba zeon eta elurra in zunian karga hartu zun burubak ta klak!, hausi in zien danak. Ta geo behiei eman bihar eta guk gosia pasa bihar.

-Elurra in zun ordun?

-Maiatzen aurreneko egunian. Ez dakit ze urte zan, baiño hoi hala da. Ta gari hoi hausi zun buruba hola, izorrai! buruik gabe ez zeikan ezer eitteik, eta behiei moztuta ekarri genien. Jateko berdetan.

-Beste janaririk ba al zenuten?

-Beti izaten zan. Pagotxa. Oain ez da itten, pagotxa ere bai, dotore askuak mototxa gorri-gorriakin. Itaiakin hola, ttak!, zain bat izaten du pagotxak. Hola, tak! Handik zazpi edo zortzi bat hola. Dak! moztu hola ta mordoxka. Gerrik makurtuta, e.

-Soruan zuek ibiltzen zinate lanian?
-Bai.
-Zenbat urtekin hasi zihan zu?
-Esan dizut ba, hamaika urtekin Donostia, gero baserrin lanian.
-Lehenago txikitan laguntzen zenuen edo?
-Lagundu, estorbua're bai makiña bat bider. Hoixe. "Alde in zak hemendik" eta, bueno. Lana aindu ta ez in nahi ta. Baakizu.
-

8. Natura

8.1. Sendabelarren onurak

- **Hizlaria(k)**: Maiz Labaka, Simona
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-014/031
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:49:21. **Bukatu**: 00:50:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Berbena-belarrak erabili izan ditu bizi osoan; onura handiak egin izan ditu hark. Pasma-belarra ere oso ona izaten omen da.

Transkripzioa

-Hasi naiz berbenakin. Bi ordu hola, epela bihar du gaiña, bero ez du bihar, badu bere trukua, oso kuido haundikua da. Aizu, gaur arte, ez operazioik eta ez ezer. Harekintxe sendatu giñun. Egunero tiratuz kentzen zitzaion bere zikiña; berbenakin sendatu giñun hain illuna ta itsusia zakana. Neroni bildurtuta eaman nun espezialistana. Berbena oso ona da. Oain jakin bihar da hartzen, ojo!, "porque es muy fuerte".
-Joxe: -Guk beti hartu izan deu. Ta pasmo belarra.
-Para los bronquios.
-Joxe: -Pasma belarra. Oain'e etxian eukiko det nik jasota. Horrek bihar du, euzkirik ez du ikusi bihar.
-Itzalian, bai. Zimeldu in behar du, iartu ez, zimeldu. Nik fede izugarria diot berbenai.
-Joxe: -Ta pasmo bellarrai're.
-Nik pasmo belarra ez det hartu.

8.2. Berbena-belarraren onurak

- **Hizlaria(k)**: Alzaga Illaramendi, Milagros; Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-020/015
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:24:18. **Bukatu**: 00:26:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Natura » Meteorologia

- **Laburpena:** Berbena-belarra gaixotasun ugari sendatzeko erabiltzen zuten. Berbena-belarra biltzeko egunkariaren papera erabili behar da; lehen beharra zegoenean bakarrik biltzen zuten.

Transkripzioa

- Eta bazenekaten hola erremediyo gehio sendatzeko, ba belarren bat ibiltzen zenuten o, ze belar?

- Zeak, berbenak eta.

- Eta noako ibiltzen zenituzten?

- Berbenak hoi herida gastatzen baldin bazitzaizun, ba, berbenakin tiratzeko ta irikitzeko ta... Berbenak nik oain'e ibiltzen dittut e?

(Joxe) - Katarruantzako?

- Katarruentzako ordun ez dakit, baiño oain bai. Petxun, petxun jarrita.

Batzuk petxun jartzen zuen, ta beste batzuk berriz hemen espaldian.

Bronkiyotatikan gaxki zabiltzan... Nik koiñata monja det eta harek

hemendikan eramaten zittun. Oain gaixua harek'e urtiak dazka ta ez da

etortzen, baiña eramaten zittun berbenak eta han monja batek

bronkiyotatikan oso gaixki ibiltzen zala ta harek jartzen zixkan atzian

enplastuak.

(Joxe) - A, guk aurrian izaten gendun.

- Bai, baiña harek atzian.

(Joxe) - Amak hamen jartzen zun aurrian.

- Ta berbena nundikan ekartzen zenuten?

- Bildu in bihar.

- Edozein lekutan eoten zan.

- Ateatzen dan tokin, eozein tokitan ez da ateatzen e?

- Eta hartako ze juten ziñeten, baten bat gaixotzen zanian haren billa o beti zeneukaten etxian?

- Ez ez, lehen etxian hua ez zan jasotzen oain bezela, oain jaso iten det e?

Bai, ta bakizu nola? Biltzen dittu, baldin bado, biltzen dittu. Oain iten due

herriko jendi honek, aiuntamentukoak, moztu: Bide baztarretako belarrak

eta moztu iten ditue. Lehen asko biltzen nun [...] aldi. Oain jo ta

moztutzen dittue.

- Oain'e han eongo dia.

- Bai, baiño moztu itten dittue, ordia. Bai, bi o hiru bider jun naiz, ta moztu

berrik eta akabo. Ez do, baiño daon tokin hola bildu ta tortoska bat holako

sorta bat periodikuan bildu. Periodikuak e? Ez du plastikuk baliyo.

Periodikuan bildu eta kongeladoran sartu. Bai, ta berde-berde-berde eoten

da. Bai.

9. Ekonomia eta industria

9.1. Hondarribian neskame ibili zeneko lan-baldintzak

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Urruzmendi, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-016/039
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:58:47. **Bukatu:** 01:01:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Lanbideak » Neskameak

- **Laburpena:** Gerra ostean, Huescara joan zen neskame. Hara joan baino lehenago, ordea, Hondarribian ibili zen; baina lan-baldintzak gogorak ziren eta horregatik lan hura uztea erabaki zuen.

Transkripzioa

-Eta gerra ta gero zu neskame jun ziñan?

-Bai.

-Ta noa jun ziñan?

-Huesca.

-Huesca!?

-Oain kanpoa juten dienak baiño salto haundiyagua eraman nun e? Aurrena eskolatik bukatu ta Hondarrabia eraman niñuen, tabernaa, andre batek. Oso ondo zeatuko niñuela eta. Baiño earrak pasa nittun tabernan. Ordu bik arte igual batzuk han, txoro batzuk, erdi moxkorren batzuk. Eta ordu bitan sillak altxa mahaiyen gaiñea danak eta ordu bitan oyea. Goizian zazpitako jetsi, basuak garbittu danak, mostradorian gaiñian danak jarri... Eta kanpoan lo iten zun andre alargun bat bazan goizian etortzen zana, eta "Kristina, kafia jarriko diñat bero-berua!" esaten zian. Eta "bueno, jarri zazu ba jarri". Ta ni mostradoian lejiakin eta zeran-eta garbitzen-eta. Ordu bitan jun, zazpitan han. Eta geo zea pattar txuri hoi botatzen ziyon, anisa hoi. Ai nere gozamina hua eraten nunian! Gustoa, gustoa! Eta holaxe. Geo han urte ta erdi in nittun. Razionamentuk partitzen zian, razionamentun billa ez dakit noaiño juten nitzan, hartu zestua, hua ekarri. Eta, bueno, zeatu nitzan, hemen granuak atera zitzaizkian odol txarrakin eta. Ni eskolatik geldittuta [malo-malua eta] hara eaman niñuen eta earrak ikusi nittun. Gero nere buruai, ni hemendik..., urtebete ta gehiyo in nun eta. Ni hemendik nola ateako ote nitzake? Nola? Ze jarriko det, ze gezur esango det? Eta hala esan niyen, bueno, pentsatu nula josten ta ikasi behar detela eta ya etxea nijoala. Jesus! Gaiñea [...] edo Joxe difuntuan anaia zan Hondarrabin panaderua, Hondarrabin. Eta ezauna. Ta, bueno, danak marmarrian esan niyenian. Eta urtebete ta gehiyo pasa nun; baiño ni ezin nitzan; hango gaztiak hango trak!, hemengo trik!, hemengo... Gu ohittu gabiak hola, eta behinik behin alde ein nun.

9.2. Huescara neskame joan zenekoa

- **Hizlaria(k):** Bengoetxea Urruzmendi, Kristina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Erref:** USU-016/040
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:01:05. **Bukatu:** 01:03:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Hondarribiko lana utzi ostean, Donostiako lehengusu baten etxean geratu zen eta haren bitartez lortu zuen Huescako lana. Nagusi haiekin oso ondo jaten zuen. Huescatik noizean behin etortzen ziren Donostia aldera.

Transkripzioa

-Geo Donostin nere lehengusu baten etxian geldittu nitzan eta geo harek esan zian: "Kristina, Avenidan neska bat palta den ta hara zeatuko

gaittun". Eta jun giñan, amona agintzen zuna Tolosakua zan, Tolosakua, eta han'e beste denpoa pixkatian ibili nitzan, Avenidan eon nitzan ta harek alaba Huescan zakan "con un director gerente de la hidroeléctrica", e, gerra ondorenian. "Director de la hidroeléctrica". Eta geo Donostiko amon horren alaba andria. Eta bi ume txiki zittuen. Eta han harek baserriatikan haik ogik-eta ekartzen zittun. Haik ogik eta, direktore horrek. Bai ba baserrin erretzen zittuen ogik eta. "Director gerente de la hidroeléctrica". Eta geo harrek, ni ogi hua janda, eta jana ere ondo ematen zuen, e, Huescan, oso ondo. Eta babarruna're bai, eta geo arraultzak... Ondo. Baserritik ekartzen zittuen arraultzak eta gauzak eta Huescan. Eta nausiya jartzen zait eta ni irabazten zeoze, neska gaztia-ta loditzen zeoze-ta. "A la Cristina esto le va muy bien, e", nausiya.

Joxe: -Huescan baserri asko, ganau asko behiñik behin, ganau asko.

-Bai, bai. Esnia're bai. Esnia're han ekartzen zigun zea batek.

Joxe: -Potentzikan haundina Huesca izango da ganadutan.

-Eta bueno, ondo. Urte askuan ibili nitzan. Geo hemen, oain etortzen giñan Ama Birjiña Karmengotan, "en julio", Donostira, amona, alaba etortzen zan danakin honea, eta gu're bai. Han bero bat bai, berua Huescan! Trumonada askotan eta berua ikeragarri. Eta hala behiñik behin han ibili nitzan lagun bat gehiyo, jun eta etorri ta etorri ta. Ikasi nun maleta danak zeatzen eta. Bo! Holaxen. Eta geo ezkontzea.

10. Euskara

10.1. Hilabeteen izen zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Rekondo Aizpurua, Miren Jone
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref**: USU-027/002
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:00:51. **Bukatu**: 00:01:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Lehen hilabeteen izenak nola esaten ziren aipatzen du.

Transkripzioa

-Hilabetiak lehen nola zian? Gehienak bai, aber: Ilbeltza, otsailla, epailla, jorrailla, garagarrilla, uztailla, iraila, urrilla, azilla eta lotazilla.

Joxe: -Jode! Honek badakizki.

-Bai, hoik zian lehen, hoik guk ikasi giñun...

-Abuztua abuztua zan edo?

-Abuztua zan, uztailla... abuztua, abuztua.

-Ta maiatza maiatza?

-Bai. Ta enkanbio gauza asko aldatu ein dia.

10.2. Neskekin ere hika

- **Hizlaria(k)**: Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Erref**: USU-037/001
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:03

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Dantza-taldeko neskekin eta arrebarekin hika egiten zuen Iñakik, baina beste emakumeekin ez.

Transkripzioa

<p>-Lehenaokuan esan nizun eta gaixki aitu nitzan. Nik taldeko neskakin danakin hika, danakin. Ta gaiñea kontuatu nitzan Mikelen... Nola Glorin anibersaiyua, Mikel, silla de ruedasian. Ta ordun. Terexi, klaro, dantza-kuadrillakuak ya danak hor zien: Kapittonekua ta, Dionixi zea, Dioni Beraetxe ta, taldekuak: "Joño, kaixo Iñaki ta. Ze mouz habil eta". Mekauben la india!, ta, egiya. Danakin hika. Lurdes lehengusua ta. Baiño han danakin hika iten nuen nik. -Bestela beste emakumiekin? - Beste..., ez, ez. beti zu. -Konfiantza haundia bihar al zan? -Bai. Anai-arrebak hika iten gendun guk. Baiño oso konfiantza haundiya. Han nik ikeragarriya konfiantza neskakin, ikeragarriya gaiñea.</p>

11. Lanbideak

11.1. Sukaldaritzarako zaletasuna eta jakin-mina

- **Hizlaria(k):** Rekondo Aizpurua, Miren Jone
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Erref:** USU-027/044
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:08:06. **Bukatu:** 01:09:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Sukaldaritzako eskolak non izaten ziren Donostian azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta sukaldaritzako klasiak Donostin nun jaso zenitun?
-Gaur nola do Bulebarrian kafeteri bat Kale Nagusin sartzeko, Santa Maria juteko. Kafetei hoi zer da? Barandiaran. Horko alabak bizitza batian ematen zittun klasiak eta zuzenian hara bialdu niñuen. Baten batek ezautu zun. Ta ni ibilli nintzan, bi ikastaro ein nittun. Hogeit urte nittula, hemeretzi-hogeit urte nittula goatzen naiz. Biharra zeolako Aizpurun baten bat, baten batek bihar zun. Eta geo ogiya iten nun, gazta iten nun, hau iten nun, bestia iten nun eta milla gauza.
-Baiña asko ikasi zenuen ikastaro hartan.
-Ikastaro hartan? Zenbat dia, ordubeteko klasiak edo hiru ordu laurdeneko klasiak. Edozein ikastarotan ikasten da. Geo beste bi tokitan'e ibilli nintzan, beste klasetan'e bai. Asko gustatu izandu zait klasia, baiña oain dana utziya dakat, e. Asko ein det, reposteria're asko in det, asko gustatzen zait sukaldia baiña oain dana... Nere garaiya jun da eta utziya dakat.
Joxe: -Honbre.
-Liburuak'e kantidadia dazkat sukalde ikastarokuak baiña, sukaldarikuak baiña ez, hola geldittu da. Asi ke bakoitzak irtenbide bat dakala uste du baiña beste bat sortzen zaio ta heldu biharra dakazu.

12. Iritziak

12.1. Gurasoen jarrera lehen eta orain

- **Hizlaria(k):** Olasagasti Mujika, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Urkia Urdanpileta, Iñaki
- **Erref:** USU-029/003
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:04:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- **Laburpena:** Behin bihurrikeria bat egiteagatik aitak eman zion masailekoa gogoan du. Aitari errespetu handia zitzaion, ama bigunagoa zen. Gurasoek jarrera bateratua zeukaten seme-alaben aurrean.

Transkripzioa

-Lehenago nola zan?

-Lehen? Ba nik esango dizut. Oaindik hartu detan masaillekoik haundina attak eman zidan nei. Lehenoz suzarra zan hor, suzarra, eta horrea ekartzen zan egur handi bat, sagar ipurdiya edo holakua. Hua jartzen zan hola ta atzetik sua itten zan. Ta neguan hor egoten giñan exerita bueltan hola familiya. Atta altxa zan sillatik egurrak atzian sartzera. Ta anai zaharrenak esan zian "silla kenduiok, kenduiok silla". Ta atta koxkan gaiñian zeon ta punpa! atzian eta. Ta altxa zan ta jo alderdi batian eta beste aldera ez dakit noa jun nitzan ni. Bakizu. Mekauen, akabo. Errespetua hua zan, e, hua zan errespetua. Gero akabo. Hola, e!

-Zein zan aita errespetua sartzen zuna?

-Bai. Atta. Javier zan.

-Baiña amak ere errespetua...

-Amak hortaiño ez. Ama zeaua zan, biguñaua. Baiño behiñ'e, amak esaten bazun attak ez zun ama zeatuko, kontra eingo. Lagundu. Umian kontra ikusirikan arrazoi pixkat semiak, baiño egundaiño ez familin gurasuak bata bestiakin kontra. Ixildu edo lagundu. Entenditzen dezu? Hoi da in bihar dana. Ez attak [atoz honea], amak [atoz honea], bestiak kasoik ez. Kasoik ez, gaizki esan det, amak mimatu, ta attak egurra eman badio amak mimatu, jo kastigatzeko, amak "toz-toz gixajuoi". Ta aldrebes'e bai. Hoi ez, biyak bat in bihar due. Biyak bat. Entenditzen dezu? Nere iritzirako.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. San Esteban auzokoak angula bila (USU-001/002)

Oso ohikoa zen auzokoen artean erre kara angula bila jaotea, honen salmeta pil-pilean baitzen. Askotan marea zela eta ezin ziren etxeraino itzuli, eta buru gainean eramaten zuten arrantzatutakoa emakumeek. Donostian saldu ohi zuten arrantza. Haztegiak izatea ere oso ohikoa zen. Antiguoko hozkailuetan gordetzen zituzten angulak.

2. Donostiara angulak saltzera (USU-001/003)

Amak saskia buru gainean eramaten zituen Usurbiletik Donostiara, trenez. Nicolasa jatetxeari saltzen zizkion. Gurasoak ezkondu zirenean, Iruñeara joan ziren eztei-bidaia egitera, eta ezkutatuta ibili behar izan ziren, guda zela eta.

3. Trenaren tuneletik eskolara (USU-001/006)

Usurbilera joaten ziren eskolara. Hiru kilometroko bidea zuten bertaraino, eta treneko tunela pasatzen zuten hara iristeko. Ohikoak ziren orduan istripuak, trenak tunelean jendea harrapatzea.

4. Laurogei ume eskolan (USU-001/007)

Ume asko ziren eskolan, laurogei bat. Maistra euskalduna zen, eta ez zituen euskaraz hitz egiteagatik zigortzen. Hainbeste izanagatik, ikasleek batak besteei irakasten zieten ikasitakoa. Eskola partikularrak ere jasotzen zituzten. Ategorrietan majisteritza ikasketak burutu zituen gero.

5. Maistra donostiarra (USU-001/008)

Maistra euskalduna zen, nahiz eta eskolan erdaraz egitera beharturik egon. Horregatik, ez zituen ikasleak euskaraz egiteagatik zigortzen.

6. Umetako jolasak (USU-001/009)

Umetan neska-mutilek elkarrekin jolasten zuten. Auzoko jauregi bateko frontoian ibiltzen ziren, esku pilotan.

7. Jauregiko igerilekua (USU-001/010)

Auzoko jauregian igerileku moduko bat zuten, eta bertara joaten ziren soineko eta jantzi zaharrekin. Bertan ikasi zuren igerian.

8. Lehenengo telefonoak (USU-001/012)

Tabernetan eta dendetan hasi ziren lehen telefonoak agertzen. Usurbilen, hala ere, beti ezagutu ditu telefonistak.

9. Aitonaren eta amonaren oroitzapena (USU-001/013)

Amona 68 urterekin hil zen, eta aitona 87 urterekin. Basoan egiten zuen lan aitona, zuhaitzak mozten eta garraiatzen.

10. Doktrina euskaraz (USU-001/014)

Elizan ikasten zuten Doktrina, Usurbilen. Euskaraz ikasi zuten hau, eta oso baliagarria izan zen Mari Karmenentzat hau, euskaraz idazten eta irakurtzen jakiteko.

11. Mariaren Alabetako kide (USU-001/015)

Mariaren Alabetako kongregazioko kide zen Mari Karmen. Bertatik botatzen zituzten balsean eta dantza-lotuan aritzeagatik. Garizuman sermoi bereziak izaten ziren, nahiko beldurgarriak.

12. Gabonak, opari eta kantu artean (USU-001/016)

Gabonetan Jaiotza jartzen zuten etxean, eta Errege Magoek eramaten zituzten opariak. Olentzero ezagutzen zuten, baina ez zen opariak eramaten zituena, kantuan irtetearekin loturik zegoen. San Juanetan ere kantuan ibiltzen ziren mutilak.

13. Herriko oilasko-biltzaileak. (USU-001/017)

Herriko jaiak antolatzen zituzten horiek etxez etxe joaten ziren oilaskoak biltzen. Horretarako zarata egiten zuten, festa-giroan.

14. San Juan sua (USU-001/018)

San Juan sua baino hamabost bat egun lehenago prestatzen zuten sua. Ahalik eta surik handiena egiten saiatzen ziren denak, eta gainetik saltoka eta inguruan kantuan ibiltzen ziren.

15. Gabon Gaua eta Errege Eguna (USU-001/020)

Gabon gauean aiton-amonekin elkartu eta afari berezia egiten zuten: azalorea, bixigua, turroia... Errege Egunean opariak jasotzen zituzten, normalean, eskolarako materiala. Erregeak aita eta ama zirela konturatu zen eguna oroitzen du.

16. Umetako lanak (USU-001/022)

Umetatik lanean aritzen ohituta zeuden. Eskailerak garbitzeko lana oroitzen du Mari Karmenek. Igandetan goizeko seietao mezara joaten zirela ere oroitzen du.

17. Haragia igande goizetako erosketa (USU-001/024)

Amaren etxean dendatxo bat zegoen. Baina bestela, haragia harategian erosten zuten igande goizetan, eta okina herrira joaten zen kamioiaz. Arropa Donostian erosten zen, askotan tela erostea zen ohikoena, gero jostunarengana joateko.

18. Michelinek lana ekarri zuen (USU-001/025)

Usurbilen Michelin eta Luzuriaga lantegiak ziren nagusiak. Gainontzekoak beranduago iritsi ziren. Inguruko jende asko hurbildu zuen Michelin lantegiak.

19. Tren berezia baserritarrentzat (USU-001/026)

Amaren etxean abere eta baratza zituzten. San Esteban auzora baserritarrak joaten ziren asto gainean esnea saltzera. Donostiara ere joaten ziren asko saltzera.

20. Usurbilgo jaiak (USU-001/028)

Dantza Hirubiden izaten zen normalean, eta herriko jaiak Uztailean izaten ziren. Auzoetako jaiak ere ospatzen zituzten, ekainetik urrira bitartean. Arrakasta handia izaten zuten San Esteban egunak, inguruko jende asko hurbiltzen baitzen. Bertsolariak, idi-demak, musika etab. izaten ziren.

21. Donostiako kaian andereño lanetan (USU-001/030)

Majisteritza ikasten ari zela, bigarren urtean lan eskaintza bat egin zion Jone Forcadak, euskaraz zekien irakasle bat behar baitzuten arratsaldetan ikastolan lan egiteko.

22. Elvira Zipitriarekin lan egiteko bi baldintza (USU-001/031)

Jone Forcadari esker Mari Karmen euskaraz irakasten hasi zen Donostiako portuko etxe batean. Hark Elvira Zipitriarengana eramane zuen Mari Karmen, eta berekin lanean aritzea eskaini zion, beti ere, majisteritza bukatutakoan eta Elvirarekin urtebeteko praktikak egindakoan. Erabaki zaila izan zen urtebetez praktikak egitea, diruz larri baitzebiltzan etxean.

23. Elvira Zipitriarena benetako irakaskuntza (USU-001/032)

Urtebete pasa zuen Elvira Zipitriarekin praktiketan, haren metodologia ikasten. Mundu berri bat izan zen hau Mari Karmenentzat. Hamar ikasleko taldeak izaten zituzten, legez kanpoko eskolak baitziren hauek, eta eskola partikularrak zirela esaten zuten.

24. Ezkutuko ikastolak: eskaera handia (USU-001/033)

Hamar taldeko gelak izaten zituzten, txikiak, ezkutuko ikastolak legez kanpokoak baitziren. Hiru talde izaten zituen egunero Mari Karmenek, eta 75 pezeta kobratzen zituzten haur bakoitzeko.

25. Marianistetan euskarazko eskolak (USU-001/034)

Eskaintza handia zegoen, eta hamar urteko ikasleak beste ikastetxetan matrikulatu behar izaten ziren. Ikastetxe hauetan ere euskararekiko kezka piztu eta andereñoak bertaratu egiten ziren, han ere euskara eskolak ematera. Mari Karmenentzat oso ezberdina zen ikastolan lan egin edo eskolan lan egin, umeen motibazioa ez baitzen berdina bi tokietan.

26. Ezkutuko ikastoletako metodologia (USU-001/035)

Elvira Zipitriaren metodologia eta pedagogia erabiltzen zen ezkutuko ikastoletan, praktikan oinarritutakoak.

27. Eguneroko gauzak ikasmaterial gisa (USU-001/037)

Ikasgai abstraktuak ere ahalik eta praktikoan egiten zituzten, eta horretarako, egunerokoan erabilitako gauzak erabiltzen zituzten. Kantu bidezko irakaskuntza zen Elvira Zipitriarena.

28. Frantzia aldeko metodologia (USU-001/038)

Fede gisako abestiak, pedagogikoak... Frantziatik ekarri zituen asko eta asko Elvira Zipitriak. Askotan berak moldatzen zituen haurrentzako modukoak izan zitezten.

29. Jaunartzea euskaraz debekatuta (USU-001/039)

Jaunartzea euskaraz irakasten zieten ikasleei, klandestino zen orduan Donostian. Gelako norbaiten senideren bat hiltzen zenean, kanpo santua egiten zuten, erlijioa irakaskuntzan sartzeko.

30. Ia egunero polizia ate-joka (USU-001/040)

Oso kontuz ibili behar izan ziren garai batean, polizia atzetik baitzuten ezkutuko ikastolek. Umeak ezkututzen, atea ez zabaltzen, ikasleak ezkutuzatzen... ibili behar izaten zuten. Hartara, beste familien etxean eman behar izaten zituzten eskolak. Eskolaritateko kartilla eskatzen hasi ziren mehatxu gisa. Donostiako parrokoak babesa eskaini zien eta elizaren lokalak erabili ahal izan zituzten.

31. Orixe Jakintza Elkartea, ikastolaren aurrekari (USU-001/041)

Elizaren babesa lortu zuten ezkutuko ikastolek, eta eskolak elizaren lokaletan ematen hasi ziren. Ondoren, Orixe Jakintza Elkartea sortu zuten gurasoek, ikastola legalizatzeko. Inspektoreak Mari Karmenen ikasleei azterketa sakon bat pasa zien, eta Formación del Espíritu Nacional irakatsi behar zutelaren esan zuten.

32. Paseo berriko ikurriña poz iturri (USU-001/042)

Abertzaletasun giroan hazi eta hezi ziren ikastolako umeak.

33. Elvirak ikastolen alde iluna ikusi (USU-001/043)

Ikastolen sorrera, ETA erakundea, hezkuntza metodologia... Gizartea asko aldatu zen eta Elvira Zipitria gauza askoren kontra agertu zen.

34. Ikastolako kantua III (USU-001/049)

Edukia lantzeko erabiltzen zituzten abestietako bat abesten du Mari Karmenek pasarte honetan.

35. Abizenaren jatorria (USU-002/002)

Bere burua aurkezten du: izena eta abizenak. Bere abizena nondik datorren azaltzen du.

36. Eskolan eta hizkuntzetan fina (USU-002/005)

Usurbilen kaleko etxean bizi zen eta eskolara joatean anaia izan zuen irakasle. Batxilerra marianistetan egin zuen: hasieran gogorra egin zitzaion gaztelaniaz ez baitzekien ondo, baina gerora oso nota onak atera zituen. Hizkuntzak ikasteko zaletasuna izan du beti. Marianistek eta jesuitek fama ona zeukaten hezkuntzako gaietan.

37. Bazkalostean ezkutuan ikasten (USU-002/007)

Marianistak gogorak ziren, diziplina jartzen zuten. Joxe Mari ikasle onenen artean egon zen hirugarren urtetik aurrera. Bazkalostean ezkutuan ikasten zuen, galarazita baitzegoen ordu horretan ikastea.

38. Uholdeekin negozioa egiten (USU-002/012)

Umetan ez zuten izaten dirurik baloia erosteko. Uholdeak noiz izango zain egoten ziren, Tolosa aldetik ibaiko urak ekartzen zituen ontziak txatarra moduan saldu eta diru harekin baloia erosten baitzuten. Behin urrezko hortza topatu zuen eta hura ere saldu egin zuen. Uholdeak ia urtero izaten ziren, eta urak ekartzen zuen guztia aprobetxatzen zuten. Inguru batzuetan estutasunak pasatzen zituzten uholdeak zirenean. "El hombre de hierrori" buruzko anekdota kontatzen du.

39. Umetan kaniketan eta txoriak harrapatzen (USU-002/013)

Umetan kanikatan jolasten ziren eta berak saldu egiten zituen. Tiragomarekin mendira txoriak harrapatzea joatea gustatzen zitzairen. Txori mota bakoitzarekin nola jokatzeko zuten azaltzen du. Harrapatutako txoriak jan egiten zituzten, gerra ostean gosea baitzegoen. Batzuek abesten zuten txoriak harrapatu eta saldu egiten zituzten.

40. Puntapaxko erreka eta azalpen etimologikoak (USU-002/015)

Puntapaxko errekan bainatzen ziren. Puntapax izenaren jatorria azaltzen du. Bainatzeko galtza zaharrak erabiltzen zituzten.

41. Santa Agate bezperako eskea (USU-002/018)

Santa Agate bezperan kalean ibiltzen ziren abesten. Orduko kanta abesten du.

42. "Eva" fabrikaren ardura nola eraman izan duen (USU-002/020)

6 langileren ardura zuela hasi zen familiako negozioan lanean; 1964an "Eva" fabrika sortu zuen anaiarekin, eta jubilatutako zenean 50 langileko fabrika zen hura. Gehienbat Espainian saltzen zuten. Kalitatea ondo zaintzen zuten "Evan". Pasteurizatzeko egin beharrekoa azaltzen du.

43. Etxeko lanak eta animaliekiko harremana (USU-002/022)

Umetan etxean laguntzen zuten. Baratzean ama bakarrik ibiltzen zen lanean. Juanito ahuntza zuten etxean; bele bati hizketan eta txistua jotzen erakutsi zioten.

44. Etxearen egitura eta lan-banaketa (USU-002/024)

Neskak eta mutilak mahai bereizietan esertzen ziren etxean. Etxeko lan-banaketa eta etxearen egitura nolakoa izaten azaltzen du.

45. Aitarengandik gidabaimena eta lanbideak (USU-002/030)

Bere aita izan zen gidabaimena atera zuen lehenengotarikoa. Txofer eta mekaniko lanetan ibiltzen zen, eta atzerrira joaten zen lan kontuak zirela eta.

46. Anai-arreben zoria (USU-002/032)

Etxeko alabak etxean gelditu ziren lanean; semeak, ordea, etxetik kanpo aritu ziren lanean. Bi anaia nola hil ziren azaltzen du: bata bihotzekoak emanda, eta bestea gerran.

47. “Heil, Hitler” goserik ez pasatzeko (USU-002/033)

Anaiak “Heil, Hitler” esaten erakutsi zien. Afrikatik soldaduak zetozenean, esaldi hori esan eta gozokiak eta tabakoa botatzen zizkieten. Estraperloan aginagarriak ibiltzen ziren. Etxean ogia egiteko nola moldatzen ziren azaltzen du.

48. 16 dolarerekin hasi lanean (USU-002/034)

Aitak hasieran 16 dolaretan egiten zuen sagardoa. Sagardoa egiteko sagarrak nondik lortzen zituzten eta nora botatzen zituzten azaltzen du. Kamioia bazuten, baina zisternarik ez. Hasiera batean, dolareak ez ziren berenak eta lortzen zuten litro bakoitzeko ordaindu behar izaten zuten.

49. Sagardoa egiteko prozesua lehen (USU-002/035)

Lehen sagardoa egiteko prozesua nola izaten zen azaltzen du. Egurrezko kupel handiak zituzten beraiek.

50. Sagardoa lantzeko prozesuan aldaketak (USU-002/036)

Sagardoa pasteurizatzen 80. hamarkadan hasi ziren. Hasieran sagardoa barrikatan saltzen zen, naturala, gasik gabe; gerora gasa sartzen zioten denari. Sagardogintzako makinak nola joan diren aldatzen azaltzen du.

51. Berrikuntzak sagardogintzan (USU-002/037)

Merkatuak aginduta sartu izan dituzte berrikuntzak sagardoan: sagardoa gasifikatzea, sagardoa botilatan eta kortxoarekin saltzea, sagardo atxanpanatua botila txikitan saltzea, sagarrak lurrera bota eta kanaletan urarekin eramaten garbitzeko sistema berria erabiltzea...

52. Hizkuntzak bere kabuz ikasitakoa eta laneko baldintzak (USU-002/038)

Frantzian, sagarrak garbitzeko sistema berriak ikasi zituen. Han zegoela, errusieraz hitz egin zuen errusiar batekin, eta hura asko poztu zen errusiera entzuteaz. Errusiera gaztetan hasi zen ikasten, baina gizon batek modu txarrean egin zion kritika eta alemana ikasten hasi zen. Bere kabuz ikasi izan ditu beti hizkuntzak. Alemanian, ahal zuenean, alemana ikasteko gaueko klasetara joaten zen. Lana dela eta, denbora asko eman behar izan du etxetik kanpo. Izan dituen autoak aipatzen ditu.

53. Mikel Urkiarekin musika-taldea osatu eta herriz herri musika jotzen (USU-002/039)

40 urte zituela hasi zen gitarra jotzen. Mikel Urkiarekin batera musika-taldea sortu zuen, eta herriz herri ibiltzen ziren festetan musika jotzen. Beste musikari ezagun batzuekin ere tokatzen zitzairen jotzea zenbait festatan.

54. Musika-taldea sortzeko erabakia (USU-002/040)

Usurbilen beti eduki izan dute abesteko zaletasuna, eta Aiako emakume baten abestiei esker hasi ziren talde gisa abesten. Musika emanaldietan adineko jendea kantuan jartzea gustatzen zaio.

55. Kontzertuetako ohiko abestiak (USU-002/041)

Euskaraz abestea ez zegoen debekatuta. Abestien hitzak zentsuratu egiten zituzten, baina beraiek beti kanta berak jotzen zituztenez, ez zuten arazo handirik edukitzen horregatik. Kontzertuetan zer abesti kantatzen zituzten azaltzen du.

56. Usurbilgo koruko zuzendari izandakoa (USU-002/051)

Lehen dantza lotua debekatuta zegoen; bestela, kongregaziotik bidaltzen zituzten neskak. Joxe Mari luistarretako idazkaria izan zen, eta 17 urterekin Usurbilgo koruko zuzendari. Behin Parisera joan ziren kongresu batera abestera.

57. Gerra ostean gosea pasatakoa (USU-002/053)

Anai-arrebak bihurriak ziren, eta aitak zigortu egiten zituen behar zenean. Gerra ostean gosea pasa zuten eta ahal zuten moduan lortzen zuten janaria. Susana etortzen zen Getariatik arraina saltzera, eta harekin tratua egiten zuten janaria trukatzeko. Arraina lehen beste era batera baloratzen zen.

58. Mendira joateko zaletasun handia (USU-002/054)

Mendira asko joaten ziren. 51 aldiz joan izan da Arantzazura oinez Usurbildik. Inguruko mendietara ere arratsalde pasa joaten ziren bezperak bukatutakoan.

59. Erljioa oso presente eguneroko bizitzan (USU-002/055)

Gauero erreztatzen zuten etxean arrosarioa. Erramu eta ur bedeinkatua beti edukitzen zuten etxean, edozer gertatuta ere eskura izateko. San Juanetan lizarra jartzen zen sarrerako atean. Bijilia Garizuman egiten zen. Pazkozko jauna hartzeko, txartela bota behar izaten zen, eta horrela kontrolatu egiten zen zein joaten zen mezara eta zein ez.

60. Eliz mutilaren lanak (USU-002/057)

Eliz mutil zela, meza latinez zenez, erantzunak jakin behar izaten zituzten buruz; sotana altxatzen zuten, ur-ardo ontziak prestatu...

61. Lehengo janzkera (USU-002/059)

6 bat eliz mutil izaten ziren eta txandaka ibiltzen ziren beren artean. Jaiegunetan bakarrik joaten ziren eliz mutilaren jantziarekin. Abarkak erabiltzen zituzten normalean; eta geroago botak etorri ziren, zolan iltzeak zituztenak. Nolanahi ere, futbolean hanka hutsik ibiltzen ziren apretak ez hondatzeko. Artilezko txapelak erabiltzen zituen berak, baina jendea normalean txapelarekin ibiltzen zen. Baserritarrek brusa erabiltzen zuten. Emakumeek buruko zapia eta gona luzeak eramaten zituzten.

62. Etxe bakarrean 13 lagun bizitzeko nola moldatzen ziren (USU-003/003)

Amak etxean egiten zuen lan. Etxean 13 lagun bizi ziren. Ohe batean 4 lagunek ere egiten zuten lo. Koltxoia artoaren azalarekin egindakoak izaten ziren.

63. Hainbat etxetan bizi behar izandakoa (USU-003/006)

Epailleak etxetik bidali zituenean, etxe batetik bestera ibili ziren. Senide bakoitza non jaio zen azaltzen du. Alokairuan bizi ziren etxe haietan.

64. Osabak trenbide-pasagunean izandako istripua (USU-003/008)

Osabak trenbide-pasagunean istripua izan zuen eta hurrengo egunean hil zen.

65. Eskolara joateko gogoa eta aukera (USU-003/010)

Eskolara oso gustura joaten zen, baina ez nahi adina. Eskolan 30-40 lagun izaten ziren. Don Teodoro Bakailaua izan zuten maisu. Entziklopedia erabiltzen zuten ikasteko. Aitak behatzarekin sinatzen zuen.

66. Ezkongabeen haurren bataioak (USU-003/013)

Ezkongabeak umea izaten bazuen, goizean goiz egiten ziren bataioak, inork jakin ez zezan.

67. Eskolan pasatako maisuak (USU-003/015)

Eskolan mutilak bakarrik izaten ziren. Don Teodoro maisua gaixotzen zenean, haren semea etortzen zen. Eta haiek etortzen ez zirenean, militar bat etortzen zitzaien.

68. Zeukaten arropa ondo zaindu behar (USU-003/016)

Gosea izaten zen eta janzteko arropa gutxi. Apretak zaintzeko, erantzi egiten zituzten bidean. Orduko eskolako amantalak eta galtza mota batzuk nolakoak izaten ziren azaltzen dute. Galtza luzeak 14 urte ingururekin jantzi zituzten lehenengo aldiz; lehenago galtza motzak eta galtzerdiak jantzen zituzten. "Malas abarcas" erabiltzen zituzten.

69. Gaixotasunei lehen nola egiten zitzaien aurre (USU-003/017)

Osasun ona izan dute beraiek, baina lehen ume asko hiltzen zen. Gaixotzen zirenean, enplasteroak laguntzen zien. Tifus-izurria izan zen Usurbilen. Antonioren osaba 9. pneumoniarekin hil zen. Lehen pneumonia zenean, urik ez emateko esaten zuten; emanda, ordea, sendatu egiten ziren.

70. Lehen nola garbitzen ziren (USU-003/019)

12 urterekin morroi joan zen eta denetik ikasi zuen han. Lehen dutxak ez ziren eta Puntapaxko errekan garbitzen ziren. Etxean ere nola-hala moldatzen ziren garbitzeko. Arropa astean behin aldatzen zuten. Lehen ez zegoen galtzontzillorik; bai, ordea, miseria handia.

71. Gerrako armak eta umeen jolasak (USU-003/021)

Gerrako tiroak eta bonbak gogoan ditu Antoniok. Soinuaren arabera bereizten zuten zer arma motarekin botatakoa zen tiroa. Bonbak nondik botatzen zituzten azaltzen dute. Soldaduek alde egiten zutenean, umeek bolbora biltzen zuten harekin jolasteko.

72. Soldadutzan eskaladako domina irabazi zuenekoak (USU-003/027)

Gerra bukatu zenean, soldadutzara joan zen Lizarrara. 17 hilabetez egon zen han. Eskaladako domina irabazi zuen bertan 1950ean. Domina erakusten du.

73. Eskaladan non ibiltzen ziren (USU-003/029)

Lizarra inguruko mendietan aritzen ziren eskaladan.

74. Luzuriagan lanean bizi guztian (USU-003/031)

Soldadutzatik bueltatu zenean, Luzuriagan hasi zen mantentze-lanetan. Gaztetan morroi izan zenean ikasitakoak baliagarriak izan zitzaizkion han. Luzuriagan 37-38 urte aritu zen lanean eta 57 urte zituela hartu zuen erretiroa. Tailerrean 80 bat lagun ziren, eta fabrika osoan 600 inguru. Lan txarra zen hangoa. Inguruko herrietatik joaten ziren langileak hara lanera.

75. Neska-lagunarekin planak pixkanaka (USU-003/042)

Nobio zirela, zer plan egiten zituzten azaltzen dute: bizikletan ibiltzera joaten ziren igandetan. Ostegunetan "el día de las bragas" izaten zen, neska-lagunarekin joateko eguna baitzen.

76. Fabrikako lan-baldintzak eta ordu estrak (USU-004/006)

Fabrikari astean behin kobratzen zuen Antoniok. Zer soldata izaten zuen azaltzen du. Lehen ere aparteko orduak sartzen zituzten. Orduko lan-baldintzak pixkanaka hobetzen joan ziren.

77. Gabonetako menua eta orduko janariak (USU-004/008)

Umetan Gabonak familian ospatzen zituzten. Eguberri egunean zer jaten zuten azaltzen dute. Arrain-saltzaileak zozketa egiten zuen azken arrainekin. Lehen bakailaoa pobreen janaria zen.

78. Arrain freskoa Oriotik eta Getariatik (USU-004/010)

Arrain freskoa ekartzen zuten Usurbila Oriotik eta Getariatik. Arrain-saltzaileek otarra buru gainean eramaten zuten.

79. Olio-zopa baita Arzaken ere (USU-004/011)

Antionioren aitak arrainak harrapatzen zituen ibaian, baina oliorik ez zegoenez, baratzeria botatzen zituzten lurra elikatzeke. Lehen arrain-zopa ez zen egiten, olio-zopa baizik. Eztei-bazkaria Arzaken egin zuten; orduko menuan oilo-zopa sartzen zen; 125 pezeta balio zuen bazkari hark pertsona bakoitzeko. Orduan Arzaken ama zegoen sukaldean lanean. 50. urteurrena bete zutenean, Arzakera joan ziren ospatzera.

80. Ezkontzako fakturak (USU-004/016)

Ezkontzako egunean Arzaken bazkaldu zuten; orduko faktura erakusten du Nievesek. Eztei-bidaiako hegazkin-txartela erakusten dute. Ezkontzako faktura aztertzen dute.

81. Etxean erditzetik ospitalean erditzera (USU-004/019)

Nieves haurdun zegoen garai inguruan hasi ziren emakumeak ospitalean edukitzen umeak. Nievesek, hala ere, bi alabak etxean izan zituen. Nievesen koinatak erditze zaila izan zuen, haurlaguna barruan itsatsita baitzegoen; ginekologoak lagunduta salbatu zen.

82. Bi alabak etxean jaiotakoak (USU-004/020)

Nievesek bi alabak etxean izan zituen. Lehenengoa medikuarekin izan zituen; bigarrena emaginarekin. Nieves erditzen ari zen bitartean, Antonio non egon zen azaltzen dute.

83. Umea izateko prestaketak eta gorabeherak (USU-004/021)

Emakumeek haurra izateko, ohea nola prestatzen zuten azaltzen du Nievesek. Garai hartan ez zegoen epiduralik eta minak aguantatu egin behar izaten ziren.

84. Etxe zahar-zaharrea jaiotakoa (USU-004/026)

Nievesen jaiotetxea oso zaharra zen, zuloz betea. Itogin asko zeuzkan teilatuak eta hango ura biltzeko baldeak jartzen zituzten. Etxeko zenbait gelatako leihoek ez zeukaten kristalik.

85. Jaiotetxeko hotza eta koltxoiak (USU-004/028)

Jaiotetxean hotz handia pasatzen zuten. Orduko koltxoiak nolakoak ziren azaltzen du.

86. Etxeko martxa: lan-banaketa, alokairua eta Pepita astoa (USU-004/030)

Lan-banaketa denen artean egiten zuten. Pepita astoa zeukaten. Soroa tren-estazio inguruan zeukaten eta handik astoa bakar-bakarrik etortzen zen etxera. Maizter ziren etxean: alokairurako dirua ematen zuten eta borondate on gisa kapoiak ere bai; bueltan arropa zaharrak ematen zizkien nagusiak, markesak.

87. Gaztetako arropak (USU-004/031)

Markesak alokairuaren truke arropa zaharra ematen zien. Orduko gabardina bati buruz hitz egiten du. Izeba bat moja zuten, eta hark noizean behin ekartzen zizkien arropak. Gainerakoan, etxean josten zuten arropa. Orduko arropak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

88. Komunioko soinekoa (USU-004/032)

Komunio handia egin zuenean, Nievesen amandreak soinekoa egiteko tela oparitu zion. Komunioko soinekoak etxe batetik bestera uzten ziren, denek erosi behar ez izateko.

89. Zapatak baino hobea osasuna (USU-004/035)

Abarkarik ez du ezagutu Nievesek. Behin markesak moja-zapatak eman zizkion, baina Nievesi ez zitzaizkion gustatzen. Askotan zapata puskatuekin ibili behar izaten zuen, baina ez zen inoiz gaixotzen.

90. Hondartzan bainujantzia jartzeko lotsa (USU-004/040)

Hondartzara joan zen lehenengo aldian, Nievesi bainujantzia utzi egin zioten. Lotsa handia pasatzen zuen bainujantzia jartzeko. Bainujantziak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

91. Trena: bidaiatzeko eta posta jasotzeko (USU-004/041)

Orioko hondartzara joan zirenean, trenez bueltatu ziren Usurbila. Trena zenbatero izaten zen aipatzen du. Aita postaria zuten eta seme-alabek lagundu egiten zioten gutunak banatzen. Aitak lanbide ugari izan zituen.

92. Eskolara joateari etxean garrantzi handia eman (USU-004/043)

Nieves oso gustura joaten zen eskolara. Bi urte eta erdi zituela hasi zen eskolara joaten, amak garrantzi handia ematen baitzion hezkuntzari. Amak ez zuen izan eskolara joateko aukera handirik, nahiz eta berak joan nahi; 11 urterekin neskame etorri zen Usurbila. Nieves mojekin hasi zen ikasten. Orduko mojak aipatzen ditu.

93. Eskolan klase partikularrak hartzen ibilitakoa (USU-004/046)

Maistrak eskola partikularrak ematen zizkion Nievesi. Inguruko auzoetatik etortzen ziren umeak eskolan gelditzen ziren bazkaltzen, eta arratsaldeko klaseak hasi bitartean, maistrak aparteko klaseak ematen zizkien; Nieves haiekin batera sartu zuen. Klase haiek ordaindu egin behar izaten ziren; baina Nievesen etxean dirurik ez zegoenez, ez zioten kobratzen. Matematikak asko gustatu izan zaizkio Nievesi.

94. Eskolako gaiak eta metodologia (USU-004/048)

Matematikaz gain, geografia asko ikasten zuten, baina Nievesi ez zitzaion gustatzen. Eskolako metodologia nolakoa izaten zen aipatzen du.

95. Eskolako entziklopedia eta ikasgaiak (USU-004/049)

Historia sakratua, Espainiako historia, doktrina, geometria, matematika... ikasten zuten; hori dena entziklopedia batean azaltzen zen eta handik ikasten zuten. Marrazketa ikasten zuten eta herriko neska batzuk oso onak ziren. Laboreak egitea oso gustuko zuen Nievesek; ebaketa eta jantzigintza ikasi zuen gerora.

96. Gaztetan ikasitako laboreak (USU-005/001)

Eskolan laboreak ikasten zituzten: puntua egiten, josten... Kalexarko mojek bordatzen erakutsi zioten. Nievesek josten zituen etxekoan arropak.

97. Jaioberriarentzako egindako jertsea (USU-005/003)

Nievesek egindako jertsea erakusten du. "Punto cebada" eta "punto bobo" erabilia egin zuen. Errematea kakorrazarekin (gantxiloarekin) egin zuen. Liburuetatik ere ikasi izan du puntua egiten.

98. Txoko Aldeko trenaren zuloak (USU-005/008)

Txoko Aldetik Santuenera joateko tunelak zuloak ditu barruan. 40 trenbide-trabes daude tunel barruan, eta haiek kontatuz gero, zuloak non dauden jakin daiteke. Antoniok eskapada egin zuen behin tunelean. Emakume bat trenak harrapatuta hil zen. Txoko Aldeko emakume helduak oso abilak ziren trenbideko errail gainean ibiltzen.

99. Ezkondu aurreko agurra (USU-005/010)

Ezkondu aurreko agur-hamaiketakoaren ostean, juxtu-juxtu pasa ziren tuneletik Antonio eta bere lagunak. Neskei ez zitzaien egiten agur-afaririk normalean; baina Nievesen ahizpak egin zuen eta egun hura nolakoa izan zen azaltzen du.

100. Erromeria urrutitik ikustearekin konformatu behar (USU-005/012)

Neskak erromeriara arratsaldez bakarrik joaten zen. Irubidera ezin izaten zuten joan, eta urrutitik begiratzearekin konformatzen ziren.

101. "Anarkista!" (USU-005/015)

Bittor medikua tabernara joan, eta tragoa osten zioten Antoniok eta bere lagunak; "Anarkista!" deitzen zien haserre batean. Antonioren kuadrilla oso juergazalea izan da.

102. Mutilak ilunabarrean hasi dantzan (USU-005/017)

Erromerietan, mutilek ez zuten dantzatzeko ilunabarrera arte; izan ere, orduan gutxi falta izaten zen etxera joateko, eta neska-laguntzea izaten zen. Usurbilek ez du izan giro handia erromerietan; giro ona Irubiden edo herriko jaietan izaten zen.

103. Mutilek neskei dantza eskatzeko adorea (USU-005/019)

Dantza egiteko eskatzeko, adorea izan behar zuten mutilek. Neskek ez zuten arazorik izaten ezetz esateko; neskek ez zuten, ordea, inoiz eskatzen dantzarik.

104. Konfesioari buruzko txistea (USU-005/020)

Konfesioari buruzko txistea.

105. Lehen emakumeek fama txarra edozer gauzogatik (USU-005/023)

Emakumeei fama txarra edozer gauzogatik jartzen zitzaien lehen: zigarroa erretzeagatik, tabernara joateagatik, mutilekin dantzatzegatik... Elizak herrian agindu nahi zuen lehen.

106. Bizitzari eta bikoteen elkarbizitzari buruzko iritziak (USU-005/025)

Lehen neskek mutil-lagun bakarra edukitzen zuten. Ez zen suerte kontua bakarrik, elkarbizitzan errespetua izatea ere, baizik. Gaur egun jendea errazegi banantzen dela uste dute; baina lehen gehiegi ere aguantatzen zen. Badira gauza batzuk behin ere egin ezin direnak.

107. Ibaia zikindu zenekoa (USU-005/027)

Arrain batzuk ez zituzten jaten lehen, ez baitzekiten ondo nola prestatu. Lehen ez zen oliorik; haren ordeaz, seboa erabiltzen zuten. Gerora, ibaia zikindu egin zen eta galdu egin ziren bertako arrainak. Gaur egun, oraindik ez da behar bezala garbitu ibaia.

108. Lehen jaten zituzten arrain klaseak (USU-005/029)

Lehen ibaiko amuarraina eta angula jaten zuten asko; baita antxoa, sardina, akula, txitxarroa, bisigua eta berdela ere. Lehen bakailaoa pobreen janaria zen merkeena zelako. Arrain mota gehiago jaten zuten eta aipatu egiten dituzte. Arrain haiek nola prestatzen zituzten azaltzen dute. Gizon bati "Akula" deitzen zioten, mutur luzea zeukalako.

109. Haurdunaldia disimulatzeke ohitura (USU-005/032)

Haurdun zegoela, Nievesek berak egindako soinekoak eramaten zituen; nolakoak ziren azaltzen du. Lehen haurdunaldia tapatu egiten zen.

110. Umeak Paristik zetozela (USU-005/034)

Umeak txikitan Paristik zetozela esaten zieten. Umeen jaiotza ez zen otorduan hitz egiteko moduko gauza.

111. Ume-hizkera gustatu ez (USU-005/040)

Ume-hizkera ez zaio inoiz gustatu izan Nievesi. Gauzei bere izenez deitzen erakutsi izan die bere umeei.

112. Hortzak erortzean sutara (USU-005/042)

Hortzak erortzen zitzaizkienean, sutara botatzen zituzten, "to zaharra ta ekar zak berriya" esanez. Umetan ez zuten hortzak garbitzeko ohiturarik. Nieves lanean hasi zenean joan zen dentistarengana lehenengo aldiz.

113. Elizakoak ematerakoan izandako anekdotak (USU-005/045)

Elizakoak ematera joan zen behin apaiza, eta orduko anekdotak kontatzen dituzte.

114. Eguraldia asmatzeko bideak (USU-005/048)

Nievesen lehengusua artzaina zen Urbian. Behin hari bisitan joan ziren, eta hurrengo eguneko eguraldia bete-betean asmatu zuen. Ekaitza zetorreanean, ardiak bildu egiten ziren. Enarei ere begiratzen zitzaien eguraldia asmatzeko. Sorbeltzari buruz hitz egiten dute.

115. Beldurra sartzeko ipuinak (USU-005/050)

Beldurra sartzeko ipuinak zeuden lehen. Mateo Txisturen istorioa kontatzen dute.

116. Mateo Txistu eta Anbotoko Mari (USU-005/052)

Mateo Txisturen istorioa kontatzen dute. Anbotoko Mariren mitoa kontatzen dute.

117. Txiste batzuk (USU-005/054)

Nievesek txiste bat kontatzen du. Joxek txiste haren jarraipena kontatzen du.

118. Baserriko jeneroa saltzera Donostiara (USU-006/003)

Baratzean artoa eta babarruna ereiten zuten. Babarruna saldu egiten zuten Donostian; ama egunero joaten zen Donostiara baserriko jeneroa saltzera trenez. Donostian hainbat lekutan saltzen zuen.

119. Txerria hiltzean, odolkiak leku askotan banatzen zituzten (USU-006/005)

Baserrian txerriak zituzten; garaia etortzen zenean, hil egiten zuten eta gazitu egiten zuten. Txerriak nola hiltzen zituzten eta odolkiak nola egiten zituzten azaltzen du. Odolkiak egindakoan, leku askotan banatzen zituzten. Borondate ona eta konfiantza zegoen herrikoen artean. Baserriko atea askotan ez zuten ixten. Bere bizian ez du lapurretarik ezagutu etxean.

120. Maizter zirenean, alokairuaren baldintzak (USU-006/007)

Baserria ez da beti beraiena izan; duela 20 urte inguru bereganatu zuten, ordura arte maizter izan ziren. Nagusia Donostian bizi zen eta alokairua ordaintzeko urteko sagarren erdia eman behar izaten zioten. Sagarrak lan handia ematen du. Nagusiari kapoiak ere ematen zizkieten Santo Tomasetan.

121. Etxea berotzeko moduak (USU-006/012)

Elurra izaten zen noizean behin Usurbilen, lehen orain baino gehiago. Etxea berotzeko sua erabiltzen zuten. Hartarako egurra beheko basotik ekartzen zuten idiekin eta gurdiarekin. Sua ekonomikan egiten zuten; baina lurreko sua ere ezagutu zuen Praixkuk gaztea zela.

122. Lurreko sua eta gero, ekonomika (USU-006/014)

Lurreko sua nola egiten zen azaltzen dute. Gerora, ekonomika iritsi zen eta aurrerapena izan zen hura; izan ere, horrela gerria ez zuten hainbeste nekatzen. Amak 92 urte zituela hil zen.

123. Lotarakoan galtzerdiak, mantak eta adreilua (USU-006/015)

Etxeko gelak berotzeko, mantak eta adreilu beroak jartzen zituzten. Ohera sartzeko, artilezko galtzerdiak erabiltzen zituzten batzuetan. Praixkuren amak ere egiten zituen galtzerdiak.

124. Etxean argia izateko erak (USU-006/016)

Etxean kandelak, kinkak, karburoa... erabiltzen zituzten. Praixkuk 16 urte zituela jarri zuten argindarra etxean. Argi hura erraz joaten zen.

125. Orduko janaria eta hura kontserbatzeko moduak (USU-006/017)

Lehen egunean eguneko janaria jaten zuten, gehienez bi egunekoa. Txerria hiltzen zutenean, hura mantentzeko gazitu egiten zuten. Behien haragia harategian erosten zuten. Arraina jaten zuten, Donostiatik ekarrita; Getariatik tarteka etortzen ziren arraina saltzera.

126. Apaizak uztak bedeinkatzen zituenekoa (USU-006/019)

Uzta ona eskatzeko, apaiza etortzen zen baratzeak bedeinkatzera. Apaizak ura botatzen zuen, erramuaren hostoa sorotan jartzen zen... Apaizari uztak bedeinkatzeagatik oilaskoa ematen zitzaion. Horri buruzko anekdota kontatzen dute.

127. Erreguteak eta baimenak (USU-006/021)

Urtean hirutan erreguteak egiten ziren, euria falta zenean edo euri gehiegi egiten zuenean. Lehen igandetan lan egiteagatik baimena eskatu behar izaten zen elizan.

128. Ur gutxiegi edo ur gehiegi zenean (USU-006/023)

Lehortea izaten zen batzuetan, orduan erreguteak izaten ziren. Ura behar izanez gero, beheko errekarra joaten ziren. Praixku arropa asto gainean eramatera joan izan zen. Erreka hartatik ganaduarentzako ura ekartzen zen.

129. Txoriak uxatzeko moduak (USU-006/025)

Txoriak uxatzeko txorimalo (hombre txaparro) ugari jartzen zituzten eta danborra ere jotzen zuten. Txorimaloak nola egiten zituzten azaltzen du.

130. Eskolako oroitzapenak eta zigorrak (USU-006/027)

5 urte zituela hasi zen eskolara joaten. Don Teodoro Bakailaua zuten maisu: maisu ona zen, baina zorrotza ere bai. Harekin gaztelaniaz egiteko ahalegina egiten zuten. Mutilak bakarrik ziren klasean. Eskolan ikasitakoak gogoan ditu.

131. Harrobira eskolako ikasmaterial bila (USU-006/029)

Eskolako ikasmaterialari buruz hitz egiten du: eskolako arbelean idazteko, harrobira joaten ziren harri bila.

132. Pilotan aritzeko, pilota alokatu (USU-006/031)

Eskola ostean, pilotan jokatzeari gustatzen zitzaion. Mariano izeneko gizon batek pilotak alokatu egiten zituen. Pilotan aritzeko zaletasuna zuen Praixkuk, "Atano" deitzen zioten.

133. Alpargatak eta frontoiko lurra (USU-007/002)

Pilotan jokatzeko zutenean alpargatak puskatzen zituzten, eta etxean errieta egiten zieten, dirurik ez baitzegoen soberan garai hartan. Frontoiko lurra latza izaten zen eta zer materialez egin zegoen aipatzen dute. Etxetik eskolara hanka-hutsik joaten ziren alpargatak zaintzearen. Lehen arruntagoa zen hanka-hutsik joatea.

134. Gerran ihes eta gorde (USU-007/017)

Gerra hasi zenean, gizonek kanpoan egiten zuten lo, etxean egonda eraman egingo zituzten beldurra baitzuten. Tiro- eta bonba-hotsak entzuten zituzten. Gazte bat zauritu zutenekoa ikusi zuen Praixkuk; zaurituak Miserikordiararen eramaten zituzten. Granadek zulo ederrak egin zituzten mendian; beraiek bitartean etxean gordetzen ziren ahal zuten moduan. Donostiatik ihesi zihoan jendea mendian barrena joaten zen.

135. Errotara ezkutuan joan behar (USU-007/018)

Gerran ez zuten goserik pasa; gerra ostean bai, ordea. Garia eta artoa entregatu behar izaten zuten. Errotan garia ehotzeko kartilla egoten zen, eta haren arabera entregatu behar izaten zutenenez, tranpak egiten saiatzen ziren.

136. Umeen sehaskak eta pixoihalak (USU-007/028)

Umeen sehaskak nolakoak ziren azaltzen du Praixkuk. Lehen pixoihalak erabiltzen ziren.

137. Usurbilgo lehengo baserri, denda eta giroa (USU-008/002)

Lehen Usurbil oso desberdina zen. Lehen etxe ingurua politagoa zen, kotxe gutxiago pasatzen zen hortik... Lehen zeuden kale-baserriak aipatzen ditu. Beren etxean ere ganadua bazuten. Lehen zer denda zeuden aipatzen du. Herriko gizon baten xelebrequeriak aipatzen dituzte. Usurbilen izandako apaiz batzuei buruz hitz egiten du.

138. Elizatik etxera itzultakoan, arreba jaiota (USU-008/005)

Arreba jaio zenean, 6 urte zituen Martzialek. Elizara joan zen Martzial eta etxera etorri zenerako, jaioa zen arreba.

139. Emakume puzkertiaren txistea (USU-008/006)

Txiste bat kontatzen du.

140. Eskolako maisuen xelebrequeriak (USU-008/010)

Eskolara joan zirenean, Bakailaua izan zuten maisu. Mutilak bakarrik izaten ziren eskola hartan, 30-40 lagun. "Maestro Ciruelaren" bromak aipatzen du.

141. Eroi buruzko txistea (USU-008/012)

Eroi buruzko txistea kontatzen du Martzialek.

142. Eskolako gutunetan jarri beharrekoa (USU-008/014)

Eskolan oinarrizko gauzak ikasten zituzten. Diktaketak, gutunak... idazten zituzten. Gutunetan jarri behar izaten zutena aipatzen dute.

143. Lurperatzailearen analisia (USU-008/017)

Lurperatzailearen anekdota barregarria kontatzen dute.

144. Errementeria armategia bihurtu zenekoa (USU-008/019)

Gerra garaian, Francoren aldeko soldaduek errementeria konfiskatu zieten eta armategia jarri zuten bertan.

145. Gerra ostean seboa eta patata (USU-008/027)

Gerra ostean, baziren gose handia pasa zutenak. Haiek harategian errenkadan zain egoten ziren seboa lortzeko. Garai hartan, patata asko zegoen eta errazionamenduan batata banatzen zuten.

146. Doktrina nahitaez ikasi behar (USU-008/031)

Doktrina nahitaez ikasi behar izaten zuten. Hasiera batean, doktrina gaztelaniaz izaten zen, baina gerora euskaraz atera zen.

147. Soldadutzatik libratu zirenean egindako ospakizuna (USU-008/032)

Eliz mutil izandakoa da Martzial. Konjuntibitisa zeukan eta hari esker gerora soldadutzatik libratu zen. Lagun batek ere lortu zuen soldadutzatik libratzea eta hori ospatzeko Zarautza joan ziren bazkaltzera.

148. Bizikletan ibiltzeko zaletasuna umetatik (USU-008/034)

Oriora hondartzara joaten zirenean, bizikletaz edo trenez joaten zen Martzial, asko gustatzen zitzaion bizikletan ibiltzea: Usurbilgo lehenengo bi ziklo-krosak irabazi zituen. Martzialen bizikleta nolakoa zen eta nola ikasi zuen bizikletan ibiltzen azaltzen du.

149. Elizako koruan abesten eta organoa jotzen (USU-008/035)

Ingemar ondoko presan ikasi zuten igerian. Elizako koruan abesten zuten eta bi erreal ematen zizkien. Organoa jotzen ikasi zuen. Koruak mezan abesten zuen.

150. Osabaren anekdota (USU-008/038)

Meza latinez izaten zen; eta, nahiz eta ezer ulertu ez, han izaten ziren. Osabari buruzko anekdota kontatzen du.

151. Mezalagunaren arropa (USU-008/040)

Mezalagunaren janzkera nolakoa izaten zen azaltzen du. Arropa elizan ematen zieten. Egunaren arabera, janzkera bat edo beste eraman behar izaten zuten.

152. Ibaian, umetan eta gaztetan izandako anekdota (USU-008/041)

Ibaian bainatzeko, moztutako galtza zaharrak janzten zituzten; eta bertan uzten zituzten, arbolatik zintzilik lehor zitezen. Behin, urte berri egunean ibaira erori zeneko anekdota kontatzen du.

153. Hegazkina probatu zutenekoa (USU-009/003)

Hegazkina probatu zuten eztei-bidaian eta beldurra pasa zuen. Garai hartan gauza handia zen hegazkinean ibiltzea.

154. Sagardoa etxean egiten zuten (USU-009/007)

Sagardoa etxean egiten zuten. Sagastia non zeukaten eta nolakoa zen azaltzen du.

155. Bertsolarien ateraldiak eguneroko bizimoduan (USU-009/008)

Herrira kanpotik ekartzen zituzten bertsolariak. Usurbilen baziren zenbait bertsolari on. Udarregi Aiakoa zen eta hark izandako elkarrizketa bat kontatzen du. Udarregiren alaba ere bertsolari ona zen, eta farmazian botatako bertsoa aipatzen du.

156. Kaka-belarrak eta txistea (USU-009/012)

Kaka-belarrei buruz hitz egiten du eta horri lotutako txiste bat kontatzen du.

157. Pasma-belarraren balioa (USU-009/014)

Kaka-belarra, pasmo-belarra... zertarako diren aipatzen du. Anaiari behatzak moztu zizkiotenean, pasmo-belarren ura ematen zioten, nahiz eta medikuek hartan federik izan ez.

158. Astoaren koska eta lantegiko iltzea (USU-009/017)

Astoak behin ipurditik heldu zion Martziali. Behin, lanean, iltzea sartu zuen hankan eta amak sendatu zion.

159. Supositorioak eta lumbagoa (USU-009/020)

Supositorioak eztarriko minaren aurka hartzen ziren. Lumbagoa zuenean, aspirina hartzen zuen; baina mendira joaten hasi zenean, gutxitu egin zitzaizkion minak.

160. Luzuriagako lana eta lan-baldintzak (USU-009/022)

Luzuriagan zer lan mota zeuden azaltzen du. Lan-baldintzak aldatzen joan ziren denborarekin.

161. "Goiko kaleko Joxepaneko Madalen" (USU-009/033)

"Goiko kaleko Joxepaneko Madalen" kanta abesten du. Koruan kantatzen zuten.

162. "Hegoak ebaki banizkio" (USU-009/035)

"Hegoak ebaki banizkio" abesten du.

163. Txiste-kontari (USU-009/037)

Txiste batzuk kontatzen ditu.

164. Etxearen historia: errentak eta nagusia (USU-010/002)

Seme zaharrena izanda, etxean geratu zen bizitzen. Etxean lehen maizter ziren, baina azkenean lortu zuten etxea erosteko dirua biltzea. Etxearen

nagusia Gernikakoa zen eta hil zenean haren bilobek saltzera atera zuten etxea. Etxearen historiaz hitz egiten du. Nagusiari errenta ordaintzera Gernikara joaten ziren: etxeko kapoi ederrenak eramaten zizkieten eta hark bueltan bakailaoa ematen zien.

165. Pitxin maistraren istorioak (USU-010/004)

Eskolara ahal zuenean joaten zen, ikasteko gogoaz bazuen ere. Maistraren izena Pitxin zen; beti lapurretarik ez egiteko esaten zien umeei eta azkenean Pitxin bera harrapatu zuten lapurretan.

166. Eskolako bihurrikeriak eta zigorrak (USU-010/005)

Eskolan, adin ugariatako umeak elkartzen ziren. Eskolan egiten zituzten bihurrikeriak kontatzen ditu. Zigortzeko, makilarekin jotzen zituzten.

167. Eskolara joan nahi arren, etxean laguntzen gelditu behar (USU-010/006)

Eskolan oinarrizko gauzak ikasten zituzten. Angulatan gau osoa ibili ostean, nekatuta egoten zen askotan eskolara joateko. Seme zaharrena izateagatik, etxean lan gehiago egitea tokatu zitzaion.

168. Gerra aurreko giro nahasia (USU-010/011)

Gerra aurrean giroa nahasia zen: grebak zeuden, mitinak ematera etortzen ziren... Alderdien artean liskarrak zeuden orduan. Apaiza hil nahi zutenekoa kontatzen du.

169. I. Mundu Gerrako oihartzunak (USU-010/012)

Gerra hasi zen eguna gogoan du. Tiroak entzutera igotzen ziren mendira aitona, anaia eta Benito. Gerran hil zuten mutil baten istorioa kontatzen dute. I. Mundu Gerra ezagutu zuen Benitoren aitona eta orduko tiroketa batean izandako sarraskia gogoan zuen.

170. Orioko zubia bota zutenekoa (USU-010/014)

Usurbilgo frontea non zegoen azaltzen dute. Orioko zubia bota zutenean eztanda entzun zuten Aginagan; orduko kontuak aipatzen ditu. Mutil batek eskapada egin zuen bizikletan zihoala, balak gurrupila jo baitzuen eta ez bera.

171. Usurbilen fusilatu zituzten mutilak (USU-010/018)

Gerra garaian herritik ihes egin zuen jendea bazegoen. Batzuk fusilatu egin zituzten, alderdi politiko nazionalista bateko zerrendatan haien izena azaltzen zelako. Mutil haien izenak aipatzen dituzte.

172. Aitaren hileta arratsaldean, eta semea hurrengo egunean fusilatu (USU-010/021)

Herriko mutil baten izena nazionalisten zerrendan azaltzen zen; alde egiteko esan zioten, bestela hil egingo zutela eta. Mutil hark herrian geratzea erabaki zuen, ezer egingo ez ziotela sinesten baitzuen; azkenean, fusilatu egin zuten.

173. Gerran ogia falta ez; gerra ostean bai, ordea (USU-010/023)

Gerra garaian, maistrak "Madrid hartu zutela" esaten zien pozik. Gerra bukatu zenean, lasaitua hartu zuen, bestela, berak ere frontera joan beharko

baitzuen. Gerra garaian ez zuten goserik pasa; okina Oriotik etortzen zen. Gerra ostean, errotak itxi zituzten; horregatik, Mendarora trenez joaten ziren hainbat gazte garia ezkutuan ehotzera.

174. Angulak harrapatzeko teknikak (USU-010/028)

Angulak noiz eta nola harrapatzen diren azaltzen du. Hainbat tresna erabiltzen zituzten angulak harrapatzeko. Kalkuluak eginda, egunean 1.000 kilo angula harrapatzen zen Oria ibaian. Gerra ostean, angulen prezioa igotzen hasi zen.

175. Lehen angulak soberan (USU-010/034)

Angulak harrapatzeko garaia urrian hasi eta martxoan bukatzen zen. Behin 100 kilo atera zituztenekoa kontatzen du. Angulak zergatik desagertu diren azaltzen du.

176. Angulak prestatzeko jakin beharrekoa (USU-010/036)

Angulak jateko nola prestatzen diren azaltzen du: angulak tabakoarekin hiltzen dira, garbitu, ura irakiten jarri, nahastu eta prest.

177. Aitonaren osabaren anekdotak (USU-011/010)

Aitonaren osabaren anekdotak kontatzen ditu.

178. Aginagakoak vs San Estebangoak (USU-011/011)

Aginagakoek San Estebangoekin edukitzen zituzten ika-mikak. Lehendik zetorren liskarra.

179. "General Manso" eta Aginagako kuadrilla (USU-011/012)

Aginagan ezizena zuten lagun ugari zeuden eta horren kontura gertatutako anekdota kontatzen du. Ezizenak zergatik jartzen ziren azaltzen dute.

180. Gaztelu anaien bertsoak eta anekdotak (USU-011/013)

Aginagan, Gaztelu anaiak bertsolari onak ziren. Gazteluren bertsoak gogoan ditu eta abestu egiten ditu. Gaztelu anaien anekdotak kontatzen ditu.

181. Tifusa ala hilzorian? (USU-011/015)

17 urte zituela tifusa pasa zuen; etxean 6 lagun egon ziren aldi berean gaixo. Don Justo zuten medikua. Benitori hilzorian zegoela esan zion medikuak, baina geroago, Zarauzko enplasteroari esker konturatu ziren tifusa zela.

182. Eskumuturra hautsi zueneko komeriak (USU-011/017)

Gaztea zela, eskumuturra hautsi zuen arbolatik erorita; Don Justorengana joan zen hezurra bere lekuan jartzera. Don Justo medikua oinez ibiltzen zen egunero, baina lehenago zaldiz ibiltzen zen.

183. Bikiak izan eta konturatu ez (USU-011/022)

Bikiak izan zituzten, baina jaio ziren arte ez ziren konturatu bi zirenik; 38 orduko aldearekin jaio ziren.

184. Umea izan eta berehala etxea gobernatzeko gai (USU-011/025)

Emazteak haurra izan eta handik bi egunerako, etxeko martxa berreskuratu zuen. Emakume gogorra zen.

185. Behiak idiskotzera eramaten zituzteneko gorabeherak (USU-012/004)

Behiak idiskotzera eramaten zituzten ernal zitezzen. Behiak susara egon behar zuten hara eramane zezaten. Behiak susara bazeuden, erraz antzematen zitzairen.

186. Idiskoaren bizimodua eta zereginak (USU-012/006)

Idiskoaren jabea ordaindu egiten zitzaion behia ernal zezan. Idiskoa zahartutakoan, erretiratu egiten zuten, gutxiago asmatzen baitzuten ordurako. Idisko izateko zer-nolako txekorrak aukeratzen zituzten azaltzen du.

187. Mezalagun izan zeneko oroitzapenak (USU-012/009)

Manuel umetan mezalagun izan zen; orduan latina ikasi zuten, meza latinez ematen baitzen. Egunaren arabera, janzkera bat edo beste eramaten zuten mezalagunek.

188. Gerra aurreko egoera (USU-012/011)

Gerra hasi baino lehenago, dena aukeran zegoen, oparotasuna zegoen. Bere komunioko jantzia gogoan du. Gerra aurretik mitinak izaten ziren.

189. Gerra aurreko giroa eta Dantzari Txikiak (USU-012/013)

Gerra aurretik lapurretak egon ziren, komentuak erre zituzten, Calvo Sotelo hil zuten... Dantzari Txikietan ibiltzen zen Manuel bera, baina gerrarekin dena bertan behera gelditu zen. Dantzari Txikietan euskal dantza dantzatzeko zuten. Miserikordian elkartzen ziren dantzak ikasteko. Donostiatik etortzen ziren Alkortatarrak dantza erakustera.

190. Gerran hildakoak (USU-012/015)

Gerra garaian festak eten egin ziren. Beste lekuen aldean, gerra arina izan zen Usurbilen. Herrian lapurretan ibilitako gizon bat fusilatu zutenekoa gogoan du. Beste batean, mutil gazte batek pistolarekin jolasean nahi gabe miliziano bat hil zuen. Kanoikada batek bi mutil zauritu eta hil zituen. Frontea inguruko mendietan egon zen, baina denbora gutxian.

191. Gerrako borrokak eta armak (USU-012/016)

Gerra garaian, kapilauak pistola aldarean uzten zuten meza emateko. Elizgizonen armatuta egon behar izaten zuten. Etxean ehizako eskopeta zeukaten, baina Francoren aldeko soldaduek kendu egin zieten. Frontean borroka gogorrak egon ziren Eibarren eta Bizkaiko "burdinazko gerrikoan".

192. Errurik gabeko gazteak fusilatu (USU-012/017)

Frontea Usurbildik pasa ostean, Batista Aginaga inongo errurik gabe fusilatu zuten Francoren aldeko soldaduek. Nor fusilatu izendatu zutenak, ordea, herrikoak bertakoak izango ziren susmoa dago. Duela urte gutxi aurkitu zuten mutil gazte haren gorpua.

193. Eskolan ikasitakoak eta gehiago ikasteko gogoia (USU-012/019)

Gerra garaian ez zen galdu Donostia eta Usurbilen arteko harremana. Eskolak, ordea, itxita egon ziren. Eskolan ikasitakoak gogoan ditu; berari Espainiako historia gustatzen zitzaion gehien. Gerora, gau-eskolan aritu zen ikasten negu batean; orduan interes gehiago jarri zion ikasitakoari.

194. Eskolan erabiltzen zuten materiala (USU-012/020)

Liburu bat erabiltzen zuten gai guztiak ikasteko eta urtetik urtera aprobetxatu egiten zuten. Eskolan zer material izaten zuten aipatzen du.

195. Espainiako historia eta Manuelen betaurrekoak (USU-012/021)

Espainiako historia nola ikasten zuten azaltzen du. Maisu bat konturatu zen Manuelek betaurrekoak behar zituela; betaurrekoak erosi zituen, baina Kurasaalean dantzan ari zirela puskatu egin zizkioten eta ez zituen gehiago jarri nahi izan.

196. Betaurrekoak eta okulista (USU-012/022)

Lehen betaurrekoak nolakoak ziren azaltzen du. Oraingoak erakusten ditu. Lehen betaurrekoak nork eramaten zituen aipatzen du. Okulistarengana joan zenean, zenbait proba egin zizkioten.

197. Etxekoen arteko tratua (USU-012/024)

Familian lehen orain baino errespetu gehiago zegoen. Iluntzero errezatzen zuten arrosarioa amonarekin. Lan-banaketa nola egiten zuten azaltzen du.

198. Garbiketa: emakumeak elkartzeko unea (USU-012/025)

Lehen garbiketa non eta nola egiten zuten azaltzen du. Garbitoki ugari zeuden Usurbilen eta han emakumeak elkartu egiten ziren elkarri kontuak kontatzeko.

199. Gerra ostean gosea iritsi (USU-012/028)

Gerra apirilaren 1ean bukatu zen. Gerra ostean, gosea egon zen. Izan ere, janaria entregatu egin behar izaten zen. Garia ereiten zuten garai hartan eta frontoian jo.

200. Artoaren erabilerak eta auzolana (USU-012/029)

Lehen auzolanak egiten ziren laguntza beharra zegoenean. Arto-zuritzea egiteko ere auzolana izaten zen. Atunak harrapatzeko artoaren hostoak erabiltzen ziren, eta haiek prestatzen ibiltzen ziren kostako arrantzaleei emateko.

201. Orduko konjuruak eta erreguteak (USU-012/031)

Konjuruak egiten ziren lehen soroak bedeinkatzeko. Erreguteak ere egiten ziren uztarentzako eguraldi aproposa egin zezan.

202. Mezen prezioak eta apaizaren irudia (USU-012/032)

Meza ateratzeko, prezioak finkatuta egoten ziren. Lehen errespetu handia zitzaion apaizari. Sotana nolakoa izaten zen azaltzen du.

203. Soldadutzako azken uneak (USU-012/034)

1947an Franco etorri zen Aietera eta hari guardia egiten aritu zen. Egun txarrak izan ziren haiek, oso baldintza txarretan egon ziren eta. Soldadutzako urteei buruzko balantzea egiten du.

204. Getariatik ekarritako arrain frexkoak Usurbilen jaten (USU-012/037)

Usurbilen arrain asko jaten zen. Etxez etxe saltzera etortzen ziren arrain-saltzaileak Getariatik, besteak beste; trenez etortzen ziren haiek Usurbila, arrainen ontzia buru gainean zeramatela. Saldu ezineko arrainak zozketan ematen zituzten. Arrain frexkoa izaten zen hura, aurreko gauean harrapatutakoa.

205. Usurbila arraina saltzera etortzen zirenak (USU-013/001)

Usurbila arraina saltzera etortzen ziren pertsonak aipatzen dituzte. Buru gainean ekartzen zuten terreina jeneroz betea. Terreina nolakoa zen azaltzen du.

206. Usurbildik Donostiara joateko joera (USU-013/003)

Usurbildik Donostiara joateko joera zuen jendeak. Hara zalgurdiz edo trenez joaten ziren. Denbora batez autobusa egon zen, baina gerora kendu egin zuten. Tren-estazioak non zeuden azaltzen dute.

207. Hendaian nudismoa eta Usurbilen Elizaren arauak (USU-013/007)

Soldadutzan zegoela, Hendaian ikusten zituzten emakumeak bainujantzian edo larru gorritan. Elizan mahuka motzetan ibiltzea galarazita zegoen orduan Hegoaldean.

208. Espainiako Historiako oroitzapenak (USU-013/010)

Espainiako Historian zer ikasten zuten aipatzen du. Cid Campeadorren istorioa kontatzen dute.

209. Zinea eta zentsura (USU-013/011)

Zinera joateko Donostiara joan behar izaten zuten. Zenbait pelikula ikustea zentsuratuta zegoen.

210. Orduko kultura: egunkariak, musika eta irratia (USU-013/012)

Lehen zer egunkari zeuden aipatzen du. Berak La Voz de España irakurtzeko ohitura zuen. Musika ere entzuten zuten: Luis Mariano, Imperio Argentina, Carmen Sevilla... Irratian albisteak entzuten zituzten.

211. Tifusa harrapatu zueneko komeriak (USU-013/014)

25 urte zituela, tifusa izan zuen; gainera, gibelera pasa zitzaion. Don Justo medikua egunero etortzen zitzaion etxera. Aiuta izaten zen tifusaren aurkako sendabidea. Ia hilabete egon zen tifusak jota.

212. Hortzak ateratzeko erraztasuna (USU-013/018)

Umetan hortzak erortzen zirenean, sutara botatzen ziren: "to zaharra eta ekarri berriya!". Hortzaren ordeztu oparia ekartzeko ohitura zegoen lehen ere. Hagineko mina zenean, aspirina hartzen zen; dentistak hortzak erraz ateratzen zituzten lehen. Lehenengo enpatea soldadutzan egin zuen.

213. Ehiztarien txistea (USU-013/021)

Ehiztarien txistea kontatzen du.

214. Francoren txistea (USU-013/023)

Francoren txistea kontatzen du.

215. Muga igarotzean gertatutakoak (USU-013/027)

Guardia zibilek egin behar zuten lana egiten zuten beraiek soldadutzan. Iparraldera igarotzeko muga hildakoak ere egon ziren.

216. Mugako zubia zaintzen (USU-013/029)

Soldadutzan, Irundik muga pasatzeko zubia begiratzen egon zen. Han gertatutako hainbat kontu aipatzen ditu.

217. "Cigarette!" (USU-013/030)

II. Mundu Gerran, alemanak Usurbildik pasatzen zirenean, zigarroak botatzen aritzen ziren kaleko jendeari.

218. Gurasoen istorioa eta Fraisoroko umeak (USU-014/002)

Gurasoek nola ezagutu zuten elkar kontatzen du: aitaren aldeko amonak amaren senide ugari eman zion bularra jaioberritan. Gurasoak Lezora joan ziren eztei-bidaian. Lezora joaten omen zen jendea haurdun geratzeko asmoa zuenean. Koinatak haurrak izateko zailtasunak zituelakoan, Fraisorotik ekarri zuen umea; gerora, ordea, 12 ume izan zituen. Fraisorori buruz hitz egiten du.

219. Aingeruen hiletak eta kanpai motak (USU-014/004)

Aingeruen hiletak nolakoak izaten ziren kontatzen du: kaxa zuria, soineko zuria... Lehen kanpaiak desberdinak izaten ziren hildakoa gizona, emakumea edo umea bazen; agonia-kanpaiak ere izaten ziren.

220. Azken igurtzia (USU-014/006)

Azken igurtzia: olioa non eta zergatik ematen zen azaltzen dute. Olio hura bedeinkatua izaten zen.

221. Linboa eta kanposantuko txokoa (USU-014/010)

Linboari buruz hitz egiten dute. Bataiatu gabeko umeak kanposantuan txoko bereizi batean lurperatzen ziren. 9 egun igaro orduko, bataiatu egin behar izaten ziren umeak.

222. Zaldi gainean ibiltzeko zaletasuna eta trebezia (USU-014/017)

Zaldian ibiltzen nola ikasi zuen kontatzen du. Behin Kalexartik zaldi gainean ziztu bizian Gaztañagara etorri zen. Zaldi gainean joateko ez zuten soka eta eserleku askorik jartzen.

223. Aitonak izandako istripua (USU-014/021)

Aitonak treneko istripua izan zuen: besoa harrapatu zion, gangrenatu egin zen eta handik bi egunetara hil zen. Inguruko ospitaleak aipatzen dituzte.

224. Gerra ostean, ogia etxean egin behar (USU-014/028)

Gerra bukatu zeneko eguna ez du gogoan. Gerra ostean, garia ereiten zuten, harekin ogia egin ahal izateko. Ogiaren masa etxean egiten zuten, okindegira eramaten zuten eta okinak erakusten zien nola egin ogia. Behin garia ebakitzen istripua izan zuen. Odoljarioak gelditzeko armiarma-sarea erabiltzen zuten.

225. Umetako jolasak eta saguzar erretzaileak (USU-014/037)

Umetako jolasak aipatzen ditu: buleketan, saguzarrak harrapatzen... Saguzarrak harrapatzen zituztenean, zigarroa sartzen zieten.

226. Arto-bizarrekin egindako zigarroak (USU-014/040)

Nesken artean ez zegoen erretzeko ohiturarik. Arto-bizarrekin zigarroak prestatzen zituzten, baina oso zapore txarra izaten zuten. Aitona bati zenbat zigarro erre zituen galdetu ziotenekoa kontatzen du joxek.

227. Baserriko lanari esker, etxean goserik ez (USU-014/042)

Gerra ostean beraiek ez zuten pasa goserik baserriko lanari esker. Simona "bigarren mutila" zen etxean. Olio, xaboa eta azukrea ekarri behar izaten zuten kanpotik; gainerakoa etxean izaten zuten.

228. Xaboa etxean prestatzen zutenekoa (USU-015/003)

Xaboa etxean egiten ikasi zuten: seboa eta olio erabiltzen zuten hartarako. Garbiketak non egiten zituzten azaltzen du.

229. Bizikleta eta dantzak (USU-015/005)

Bizikletan ibiltzea asko gustatzen zitzairen eta igandero ibiltzen ziren. Dantzara ere joaten ziren Irubidera. Simonak han ezagutu zuen senargaia. Neska-laguntzean mutilek hartzen zuten inizatiba; neskek inoiz ez.

230. Neska-laguntzako pausoak (USU-015/007)

Neska-laguntzean eman beharreko pausoak azaltzen ditu: asko begiratzen zuten non eman musu. Aieteko mutil gazte batek eskuan eman zion musu eta inpresio handia egin zion horrek Simonari.

231. Bizkiletaren txistea (USU-015/009)

Bizkiletaren txistea kontatzen du.

232. Antzerki-emanaldietako osagaiak (USU-015/013)

Akomodadorearen funtzioaz hitz egiten dute. Antzerkiak beren artean prestatzen zituzten. Antzerki-emanaldiak Usurbilen izaten ziren. Antzezlan bateko musika gogoan du. Aretoa bete-betea egoten zen antzerki-emanaldia zenean.

233. Haurrak etxean edo erresidentzian? (USU-015/029)

Haurrak etxean edo erresidentzian izan, alde handia dago. Simonak askoz nahiago du erresidentzian izan.

234. Kanposantuan lurperatzaileari laguntzen (USU-015/034)

Kanposantuan gorpua hilketan sartzen laguntzen aritua da Simona.

235. Salmentako trikimailuak eta isunak (USU-016/005)

Bretxa lehen nolakoa zen azaltzen du. Hara esnea saltzera joaten ziren, eta guardavinoek gaztelaniaz hitz eginarazten zieten. Guardavinoen funtzioa azokan egoteagatik ordaindu beharreko zergak biltzea zen. Beste inspektore batzuk esnea urarekin nahastuta ote zegoen begiratzen aritzen ziren; tranpa egiten harrapatuz gero, esnea lurrera botatzera behartzen zituzten. Kasu horietan, nola-hala bezeroari esnea eman behar izaten zieten saltzaileek. Bezeroei egunero eman behar zieten esnea, horretarako beste bati erosi behar bazioten ere. Marmitatan jasotzen zuten esnea.

236. Behia ernaltzeko egin beharrekoak (USU-016/013)

Behia zezenarengana eramaten zenean, lagundu egiten zitzairen. Lekua prestatu egiten zuten eta behia estaltzen laguntzen zioten zezenari. Horren ostean, behia berriro susara jartzen ez bazen, ernai zegoela esan nahi zuen. Ez zen beti lehenengoan asmatzen behia ernaltzeko. Behia zezenarengana eramaten zen bakoitzeko ordaindu egin behar izaten zen, 3 pezeta.

237. Txahalen jaiotza (USU-016/014)

Txahala gaizki jaiotzen bazen, lurperatu egiten zen. Txahala nola jaiotzen zen azaltzen dute: tira egin behar izaten zuten. Arazoak zeudenean, albaitariari deitzen zitzaion. Txahala jaiotzean, txahalari zikinak kendu eta behiak milikatu egiten zuen.

238. Arropa nola garbitzen zuten (USU-016/016)

Gizonek egiten zuten ganaduekin lan. Arropa emakumeek garbitzen zuten eta hartarako zer egiten zuten azaltzen dute. Arropari usain ona jartzeko, belar batzuk botatzen zizkioten.

239. Ilea lehen nola eramaten zuten (USU-016/018)

Lehen neskek buruan brillantina botatzen zuten ilea distiratsu edukitzeko. Mutil batzuek ere ematen zuten brillantina. Gaztetan txirikordak (trentzak) eramaten zituzten; geroago, permanentea egin zuten, baina Kristinaren aitari ez zitzaion gustatzen hori. Usurbilen zer ile-apaindegitara joaten ziren aipatzen du.

240. Mojekin ikasten ibilia (USU-016/022)

Usurbilgo eskolara joan zen, miserikordiarra. 7-13 urte bitartean ibili zen han. Neskek eta mutilek aparte ikasten zuten. Zer maistra izan zituzten aipatzen du. Euskaraz hitz egiteagatik zigortu egiten zituzten. Ikasle onei mezarako bereizgarria ematen zitzaien eskolan.

241. Historia sakratuko Joseren istorioa (USU-016/026)

Historia sakratuko Joseren istorioa kontatzen dute.

242. Sansonen istorioa (USU-016/030)

Sansonen istorioa kontatzen dute.

243. Eskolako ikasgaiak eta doktrina zaharra (USU-016/033)

Eskolan aritmetikan zer ikasten zuten aipatzen du. Gero mojek galdetu egiten zuten ikasitakoa. Doktrina ere ikasten zuten, gaztelaniaz eta euskaraz. Doktrina zaharra ikasi zuten.

244. Gerra ostean janariarekin ondo moldatzen ziren (USU-016/037)

Gerra ostean ez zuten goserik pasa. Taloa jaten zuten, txerriak eta oiloak zituzten... Janaria entregatu egin behar izaten zuten. Kaletik jendea baserrira joaten zen jatera tarteka. Etxean taloak nola egiten zituzten azaltzen du.

245. Familia handia izanda, etxeko harremanak eta ohiturak (USU-016/038)

Bi amonak ezagutu zituen. Usurbilgo familia handienetarikoa ziren beraiek. Gurasoei eta amonei errespetu handia zieten. Amonarekin arrosarioa errezatzen zuten ilunabarrean.

246. Neskame Hondarribian eta Huescan (USU-017/001)

Hondarribian neskame zegoela, soldata ematen zioten. Diru harekin, arropatxoren batzuk erosten zituen. Gerora, Huescan egon zen neskame eta han Itsasondoko soldadu batekin ibili zen.

247. Lehen eramaten ziren bitxiak (USU-017/002)

Bitxiak eramaten ziren lehen: belarritako txikiak, eraztunak, eskumuturrekoak, lepoko zuriak (perlekin egindakoak).

248. Lagunekin mendira arratsalde-pasa (USU-017/004)

Lagunen arteko planak aipatzen ditu: mendi gainera igotzen ziren kuadrillan eta barre egiten pasatzen zuten arratsaldea.

249. Etxera bidean, neska-laguntzeak (USU-017/006)

Iluntzerako etxera itzuli behar izaten zuten. Orduan neska-laguntzea izaten zen, baina neskak binaka joaten ziren. Mutilekin hitzordua jartzeko nola moldatzen ziren aipatzen du.

250. Dantza lotua egitearen ondorioak (USU-017/007)

Lehen dantza asko egiten zuten, dantza soltea. Behin dantzan estropezu egin eta erori zenekoa gogoan du. Dantzan beren kabuz ikasten zuten. Lehen debekatua zegoen dantza lotua egitea, eta harrapatuz gero Mariaren alaben kongregaziotik bidaltzen zituzten neskak. Neska haiek ezin izaten zuten aldare nagusian ezkondu.

251. Senargaiarekin hasi eta ezkondu zenekoa (USU-017/011)

Senarrarekin nola hasi zen kontatzen du. Lan asko egiten zuen senarrak. 29 urte zituela ezkondu ziren eta bazkaria Hernanin egin zuten; apaiza ezkonberrien artean eseri zen bazkarian. Ezkontzara familiarteko gutxi batzuk gonbidatu zituzten; bere ezkontzako aitajaun eta amandreak zein izan ziren aipatzen du.

252. Eztei-bidaian Zaragozara iritsi (USU-017/013)

Eztei-bidaian Gasteiza joan ziren lehenengo; han hotz handia egiten zuenez, Zaragozara joan ziren trenez eta gustura ibili ziren han. Tren haiek nolakoak ziren azaltzen du.

253. Haurrak etxean izan zituen (USU-017/015)

Seme-alaba guztiak etxean izan zituen. Haurrak izaten lagundu ziotenak aipatzen ditu. Haurrak izatean, gizonak ez ziren sartzen gelara. Erditu ostean, nahiz eta oraindik osatu gabe egon, etxean Kristinaren beharra izaten zuten sukaldeko lanetan aritzeko.

254. Haurraren lehenengo egunak (USU-017/016)

Jaioberriak bataiatzeko arropa zuria erabiltzen zuten. Umea hasieran ez zuten etxetik ateratzen paseatzeko. Emakumeek teila jarri behar izaten zuten buruan elizan sartzea egin aurretik. Umeak paseatzera ateratzeko, besoetan eramaten zituzten.

255. Umeak sehaskan lasaitu (USU-017/017)

Umeak negarrez hasten zirenean, bularra ematen zitzaien. Sehaska izaten zen orduan, eta sukaldean bazegoen, eulirik ez sartzeko zumezko aro bat jartzen zuten, tela bat zintzilik zuela. Sehaska Donostian erosi zuten.

256. Jaioberriaren elikadura (USU-017/018)

Haur jaioberriari zer ematen zitzaion jaten azaltzen du. Bularra eman ezin zuten emakumeak ahal zen bezala moldatzen ziren: aberatsak baziren, beste emakume bat hartzen zuten bularra emateko.

257. Haurren lehenengo pausoak eta hitzak (USU-017/019)

Umeei lehenengo pausoak ematen nola laguntzen zien azaltzen du. Umeei hitz egiteko, ume-hizkera erabiltzen zuten.

258. Zentraleko lanaren gorabeherak (USU-018/002)

Aitak baserrian egiten zuen lan, eta gero Arozena zentrolean aritu zen. Zentrolean zer zeregin izaten zituen azaltzen du. Halako hiru zentral zeuden. Zentraleko argia leku askotara iristen zen. Batzuetan, Aginagan argirik ez zela eta, deitu egiten zuten Justoren etxera, eta Justok postera igo behar izaten zuten fusibleak aldatzera. Argiak zergatik saltatzen zuten azaltzen du.

259. Telefonoa non egoten zen (USU-018/003)

Telefonoa zenbait etxetan zegoen, baita Arozena zentrolean ere. Behin telefonoaren kablea hondatu egin zen eta Justok hura nola konpondu zuten azaltzen du.

260. Arozenari lan-baldintzak hobetzeko eskatzen (USU-018/005)

Hiru hilabetetik behin kobratzen zuten aitak zentraleko lanarengatik. Hiru zentral zeuden, eta haietako arduradunak Oriora joaten ziren Arozenarengana jornal bila. Behin haietako batek soldata igotzeko eskatu zueneko kontakatu du. Arozenari txapelean nabaritzen zioten zer umoretan zetorren.

261. Txoko Aldeko xanpain-fabrika (USU-018/007)

Txoko Alden lehen xanpain-fabrika zegoen. Fabrikak nola funtzionatzen zuten azaltzen du. Ilarramendi zen fabrika hura eta kiebra jo zuten. Batzuetan Justok xanpain baso baten truke egiten zuten umetan lan fabrika hartan. Fabrika hartan gizon eta emakumeek egiten zuten lan.

262. Emakumeek lan asko egin behar izana (USU-018/008)

Emakumeek lehen lan asko egiten zuten. Lehen familia handiak nola-hala moldatzen ziren aurrera ateratzeko.

263. Sagarra nola jotzen zuten (USU-018/009)

Lehen oso kotxe gutxi zeuden Txoko Alden. Lehen sagar asko zegoen eta Saltxipiko emakumeak sagarra jotzen laguntzeko deitzen zion Justori. Sagarra nola jotzen zuten azaltzen du.

264. Matxinbentatik ekarritako astoa (USU-018/011)

Koinata Matxinbentakoa zuten, eta baserri hartara 15 egunerako joan zen. Han bi asto zeuzkaten eta haietako bat Azpeitian saltzera eraman zuten anaiak; ez zuten saldu ahal izan, ordea. Asto hura azkenean Justok ekarri zuten etxera.

265. Eskolako materiala (USU-018/015)

Eskolan zer material erabiltzen zuten azaltzen du.

266. Gerran kanoiak idiekin igotzen Andatzara (USU-018/018)

Gerra hasi zenean, gogoan du ehiza-hegazkinak zeruan ikusten zituztela. Gogoan du kanoia idiekin igo zutela Andatzara. Gerra garaia ondo pasa zuten, baina gerra ostea izan zen txarra.

267. Trenean garia ez harrapatzeko egindakoak (USU-018/022)

Gerra ostean, gosea pasa zuten. Zizurkilgo errotara joaten ziren ezkutuan artoa eramatera. Trenean gariarekin ez harrapatzeko, zakua leihotik bota zutenekoa kontaktzen du. Treneko txartel-zulatzailuez hitz egiten du.

268. Izkirak harrapatzen aritzen zenekoa (USU-018/030)

Izkiratan ere aritua da Justo. Orion harrapatzen zituzten eta hartarako zer tresna erabiltzen zituzten eta nola funtzionatzen zuten azaltzen du.

269. Angulak tratatzeko egin beharrekoak (USU-018/032)

Angulak non saltzen ziren. Angula tratatzeko egin beharrekoak aipatzen dituzte, oso delikatuak dira.

270. Soldadutzan ilea moztetik libratu nahian (USU-018/035)

Soldadutzan urte eta erdi egon zen, Burgosen. Behin ilea moztetik libratu zen etxerako baimena zuenean. Soldadutzan ilea nola eta zergatik mozten zuten azaltzen dute.

271. Soldadutzako janaria eta dirua (USU-019/001)

Soldadutzan janari gutxi eta txarra izaten zuten. Dirua bazuen, bere kontura erosten zuen zerbait. Orduko prezioak aipatzen dituzte. Jiroak izaten ziren orduan, etxeokok dirua bidaltzeko.

272. Lagunari etxera diru bila joateko eskatu zionekoa (USU-019/003)

Behin, Joxe soldadutzan zegoela, dirurik gabe gelditu zen; lagun bat baimenarekin etxera zihoala aprobeztatuta, Joxeren etxetik diru bila joateko eskatu zion. Han gertatutako anekdota kontaktzen du.

273. Soldadutzan euskaraz egin nahi (USU-019/007)

Soldadutzan gaztelaniaz hitz egiten ikasi zuen Justok. Joxeren garaian, euskaraz hitz egitearen truke ardoa ematen zioten tenienteari.

274. Ingemarren lanean hasi zenekoa (USU-019/010)

Soldadutzatik baimena ematen ziotenean, etxean eta auzokoen etxeetan lan egiten zuen. Gerora, Ingemarren aritu zen lanean 27 urtean. Ingemarren nola hasi zen eta bere eginkizuna zein zen azaltzen du.

275. Ingemarko lana eta istripua (USU-019/012)

Ingemarko lana astuna zen, eta eskuetan min handiak izaten zituen. Gerora, beste eginkizun bat egitera bidali zuten. Lan-istripua izan zuen behin.

276. Usurbilgo tunelean izandako ezbeharra (USU-019/014)

Txoko Aldetik Ingemarra lanera joateko, tuneletik joaten zen oinez. Tuneletik igarotzeko jakin beharrekoak aipatzen ditu. Behin gizon bat hil egin zen tuneletik pasatzen ari zela.

277. Lanera tuneletik barrena (USU-019/016)

Tuneletik igarotzeko, argiak zeuden eta horren bidez bazekiten nondik zetorren trena; eskuetan linterna eramaten zuten. Tunelean izandako istripu bat aipatzen du. Tuneletik korrika batean pasatzen ziren.

278. Absoluziorik gabeko bekatua (USU-019/018)

Behin, mezara joan aurretik, mandarina jan zuen eta hori garai hartan bekatua zen; ez zioten absoluzioa eman nahi izan.

279. Nesken jarrera mutilekiko lehen (USU-019/021)

Lehen neskengana inguratzea zaila zen.

280. Zezenak zikiratu eta idi bihurtu (USU-020/003)

Zikiratzeko modu ugari zeuden eta modu horiei buruz hitz egiten dute. Albaitariak zikiratzen zituen idiak eta bitarte horretan hainbat lagunek heldu behar izaten zuten idia. Zer zezen zikiratu aukeratzeko, zer ezaugarri izaten ziren kontuan aipatzen dute.

281. Hernaniko uztargilearen uztarriak (USU-020/004)

Usurbilgo uztarriak Hernaniko uztargile batek egiten zituen. Uztarri haiek nolakoak izaten ziren azaltzen dute. Etxeko idiak ez zituzten demarako erabiltzen, hartarako erakutsi egin behar izaten zitzaaien eta.

282. Demarako idien entrenamendua (USU-020/005)

Demarako idiak Usurbilen zer baserritan egoten ziren aipatzen dute. Idi haiek entrenatzeko, karga erabiltzen zuten eta korrika eginarazten zieten.

283. Demaren izenean egindako basakeriak (USU-020/007)

Demako plazak hainbat lekutan egoten ziren. Plaza horietako harriak nolakoak izaten diren azaltzen dute. Deman apustuak egiten ziren. Idiei eztenkadak ematen zitzaizkien aurrera egin zezaten eta basakeria handiak egiten ziren horrela. Jende asko joaten zen dema ikustera.

284. Aizkolariak eta aizkora-apustuak (USU-020/008)

Lehen aizkolariak festetan izaten ziren normalean. Aizkora-apustuak desafiotan ere egiten ziren. Lokotx-bilketa festetan izaten zen.

285. Esnea eraman eta txerri-jana ekarri (USU-020/009)

Baserrian bizi zirela, goizeko bostetan jaikitzen ziren. Ama Donostiara joaten zen esne-saltzera, eta gerora Milagrosen gain geratu zen lan hura. Hartzaileei etxez etxe eramaten zien esnea, oinez. Esnearen truk dirua eta txerri-jana ematen zioten.

286. Baserritarren bizibidea lehen eta orain (USU-020/011)

Amaran eta Prim kalean banatzen zuen esnea normalean. Esnearen prezioa igo zenean, iskanbila egon zen. Gaur egun txahalak orduko prezioan saltzen dira. Baserritik bizitzea oso zaila da gaur egun.

287. Trukuman enplasteroa eta ukendu naturalak (USU-020/016)

Trukuman enplasteroa zen eta harengana joaten ziren hezurren bat hausten zutenean. Zauriren bat gaiztotzen zenean, ukendu naturala erabiltzen zuten; ukendu hori nola egiten zuten eta oraindik egiten duten azaltzen du.

288. Hezur-jartzaileak eta haien metodoak (USU-020/017)

Hankako hezurra puskatzean, makuluak egin egiten ziren. Makulu haiek nolakoak izaten ziren azaltzen dute. Elgoibarren hezur-jartzailea zegoen eta harengana joaten zen Milagrosen anaia. Hezur-jartzaileak zer egiten zuen azaltzen dute.

289. Orduko ospitaleak (USU-020/018)

Don Justo zen herriko medikua. Lehen ospitale ugari zeuden, nahiz eta jendea haietara gutxitan joaten zen: San Ignazio, Unión Previsora, Virgen del Pilar, amaetxea... Milagros izan zen Usurbilgo lehenengotariko emakumea haurra ospitalean eduki zuena.

290. Sukarra eta hileroko minak (USU-020/019)

Sukarra jaisteko, trapu freskoa kopetan jartzen zuten. Hileroko minak kentzeko ez zuten ezer hartzen; eta dutxatzea txarra omen zen.

291. Etxerako ura nondik lortzen zuten (USU-020/021)

Urik ez zeukaten etxean, baina etxe atzean menditik ur garbia ateratzen zen tokia zeukaten; ura handik edaten zuten eta inguruko baserrietatik ere hara etortzen ziren ur bila. Beraiek nola garbitzen ziren azaltzen du. Txinbo eta etxeko xaboa erabiltzen zuten. Lehortea zenean, urik ez zen egoten eta Puntapaxko errekarra jaisten ziren. Otorduetan norberak norbere plateretik jaten zuten.

292. Eskolako oroitzapenak eta zigorrak (USU-020/027)

Mojen eskolara joan zen Milagros; 6-12 urte bitartean ibili zen eskolan. Neskak eta mutilak elkarrekin egoten ziren eskolan. Hasieran ez zuen gaztelania ulertzen, etxean euskaraz bakarrik egiten baitzuten. Zer-nolako zigorrak jartzen zizkieten aipatzen du; beldurra zieten maistrei. Eskolan doktrina asko ikasten zuten.

293. Eskolako uniformeak eta igandetako soinekoa (USU-020/028)

Eskolan uniformeak eramaten zuten eta igandetarako arropa berezia izaten zuten.

294. Gaztetako orrazkerak (USU-020/029)

Ilea liso eramaten zuen gaztetan. "A lo garçon" orrazkera zegoen orduan. Orduko ile-apaintzaile batzuk aipatzen dituzte. Permanentea egiteko ohitura bazen lehen neska gazteen artean. Permanentea nola egiten zuten azaltzen du Milagrosen. Ile-kiribilak lehen asko eramaten ziren.

295. Gizonek emakume zuriak gustuko (USU-020/031)

Lehen ez zuten hondartzara eguzkia hartzera joateko ohiturarik. Lehen gizonek emakume zuriak zituzten gustuko; eta horretarako, emakumeek ozpina hartzen zuten, zuritu egiten baitzuen.

296. Joseren, Jakoben semearen, istorioa (USU-020/035)

Historia sakratuko Joseren, Jakoben semearen, istorioa kontatzen du Milagrosek.

297. Noeren istorioa (I) (USU-020/036)

Noeren istorioa kontatzen dute.

298. Noeren istorioa (II) (USU-020/038)

Noeren istorioa kontatzen jarraitzen dute.

299. Sodoma eta Gomorraren istorioa (USU-020/039)

Sodoma eta Gomorraren istorioa kontatzen dute.

300. Moisesen istorioa (I) (USU-020/040)

Moisesen istorioa kontatzen dute.

301. Moisesen istorioa (II) (USU-020/042)

Moisesen istorioaren hasiera eta bukaera kontatzen dute.

302. Jesus ur gainetik ibili zeneko istorioa (USU-020/043)

Jesus ur gainetik ibili zeneko istorioa kontatzen dute.

303. Komunio handia: doktrina, jantzia eta bazkaria (USU-020/046)

Komunio handia egiteko doktrina ondo ikasi behar izaten zuten. Buruz ikasten zuten, ulertu gabe. Komunioko jantzia nolakoa zen azaltzen du. Komunioa egindakoan, gertuko familiartekoen artean bazkaria egiten zuten.

304. Umetako jolasak eta kantak (USU-021/002)

Pilotan jokatzera gustatzen zitzaion Milagrosi. Gordeketan jolasten ziren. Orduko hainbat jolas aipatzen ditu: marruketan, mix-mix, sokasaltoan... Sokasaltoko kanta bat abesten du. Txiban jolasten zuten eta txibak nolakoak ziren aipatzen du. Kromoak eta txapak ere izaten zituzten jolasteko. Orduko txapak nolakoak ziren azaltzen du.

305. Arkume-hexurretan (USU-021/003)

Arkume-hexurretan jolasten zuten. Normalean neskek jolasten zuten hartara. Lehen jende gehienak pilotan jokatzera zuten.

306. Gerrako oroitzapenak (USU-021/005)

Gerrako oroitzapenak gogoan ditu: Buruntzatik botatzen zituzten tiroak; soldaduak baserri paretik pasatzen ziren; eta batzuk, gose izaten zirenez, etxera sartzen ziren jatera...

307. Goserik ez pasatzeko egindakoak (USU-021/007)

Goserik ez zuten pasa gerra ostean. Ogia, ordea, falta izan zen eta gaur egun oso ogizalea da. Familiako kide kopuruaren arabera ematen ziren errazionamenduko kategoriak. Goserik ez zuten pasa etxeko txerriei eta gariari esker. Garia, artoa eta babarruna entregatu egin behar izaten zituzten; errotara Nafarroara joaten ziren garia ehotzera. Hara joateko, jeneroa nola ezkutatzen zuten azaltzen du, guardia zibilek harrapatuz gero, kendu egiten baitzieten.

308. Aita estraperloan ibilitakoa (USU-021/008)

Garai hartan estraperloa bazen. Milagrosen aitak patata eramaten zuen erietxera ezkutuan.

309. Kongregazioaren indarra neskengan (USU-021/011)

Inguruko erromerietara joaten ziren. Mariaren Alaba zen eta hala ezkondu zen. Ahizpa, ordea, dantza lotua egin zuelako bidali egin zuten kongregaziotik. Aguazilak bikote bat dantza lotuan ikusiz gero, banandu egiten zuen bastoiarekin.

310. "Lo que el viento se llevó" (USU-021/013)

Erromeriak noiz eta non izaten ziren aipatzen du. Donostiara zinea ikustera joan nahi zuten "lo que el viento se llevó" ikustera, baina Elizan debekatu egin zieten.

311. Haurdunaldia disimulatu eta jaiotza natural bizi (USU-021/018)

Bi alaba izan zituen, biak etxetik kanpo: erresidentzian eta amaetxean. Erabaki hura zergatik hartu zuen azaltzen du. Lehenengo alaba izan baino lehenago ez zion beldurrik erditzeari, ez zuten horretaz hitz egiten etxean. Lehen haurdunaldia disimulatu egin behar izaten zuten, soineko zabalak jantzita.

312. Taka-takak, umeez oinez ikasteko (USU-021/024)

Umeei oinez ibiltzen erakusteko, taka-taka erabiltzen zuten. Taka-taka hura nolakoa zen azaltzen du.

313. Haurra izan osteko dieta (USU-021/026)

Lehenengo haurra izan ondoren, asko gizendu zen. Haurra izandakoan, oiloa jatea gomendatzen zuten.

314. Erditzeko momentua (USU-021/027)

Haurrak non izan zituen aipatzen du. Taxian joan ziren hara. Taxia zer markatakoa zen aipatzen du.

315. Defuntuak prestatzea eta elizara eramatea (USU-021/030)

Norbait hiltzen zenean, defuntua nola prestatzen zuten azaltzen du. Erresponstuak izaten ziren. Elizara lau gizonen bizkarrean eramaten zuten hilkutxa.

316. Elizako kanpaiak (USU-021/033)

Kanpaiak berdinak izaten ziren hileta guztietarako. Baina gaur egun galdu egin dira elizako kanpaiak. Kanpai haiek ondotik igarotzean, lurrari musu eman behar izaten zitzaion.

317. Amaren familian 17 anai-arreba (USU-022/002)

Amaren familian, 17 senide ziren eta komunioa egindakoan etxetik joan behar izaten zuten lanera. Ama Zegamatik Usurbila etorri zen neska; bere anai-arreba ugari Argentinara joan ziren lanera eta han geratu ziren.

318. Familian musikak tradizio handia (USU-022/004)

Etxean animalia ugari zeuzkaten. Aita herriko postaria eta txistularia zen. Familian musikarako zaletasuna zeukan hainbatek. Musika ikasteko, Donostiara joaten ziren. Zer bide egiten zuten azaltzen du. Teodorok berak bakarrik ikasi izan du musika: pianoa eta txistua jotzen, hain zuzen ere.

319. Lasarteko automobil-karrera II (USU-022/009)

Jende asko etortzen zen karrera hura ikustera, nazioarteko karrera zen. Behin gertatutako istripuarekin esaera bat atera zuten.

320. Europako lehenengo telefono automatikoa Donostian (USU-022/012)

Donostian egon zen Europako lehenengo telefono automatikoa. Donostian Askatasunaren hiribidean zegoen, eta gerora saldu egin zuten telefono hura. Telefono hark zer inguru hartzen zuen aipatzen du. Usurbilen telefono bat zegoen orduan. Lehen Usurbilen kotxe bakarra zegoen.

321. "Zenbat bataio klase daude?" (USU-022/018)

Komunioa egiteko, galdera batzuk erantzun behar izaten zituzten. Zenbat bataio klase egoten ziren galdetu zieten beraiei, eta mutil bakarrak jakin zuen hori ondo erantzuten. Hiru bataio klaseei buruzko azalpena ematen du.

322. Bataiatu gabeko haurrak hiltzen zirenean (USU-022/023)

Umeak bataiatu aurretik hiltzen baziren, linbora joaten omen ziren. Linboa zer zen azaltzen du. Bataiatu gabeko umeentzat aparteko lekua egoten zen hilerrian.

323. Medikuntzan izandako aurrerapenak (USU-022/024)

Jaioberriak zer gaixotasunengatik hiltzen ziren aipatzen dute. Orain medikuntza asko aurreratu da; lehengo sendabide batzuk aipatzen ditu. Aitonak pneumonia izan zueneko kontakten du.

324. Soldadutzan orkestan jotzeko aukera (USU-022/025)

Eskola bukatu zuenean, etxean aritu zen laguntzen 18 urtera arte. Gerora, "Abrasive" egin zuen lan eta handik soldadutzara joan zen. Soldadutzan orkestan aritu zen eta non jotzen zuten azaltzen du. Leku haietan zer jende joaten zen eta zer-nolako giroa egoten zen aipatzen du.

325. "Abrasivezen" egiten zen lana (USU-022/026)

Soldadutzara joan aurretik, "Abrasivezen" egin zuen lan. Hango lanaren prozesua azaltzen du.

326. Silikosiak eragindako kalteak (USU-022/027)

"Abrasivezen" lanean aritu zen bitartean, hainbat lekutan aritu zen. Lantegi hartako lanaren eraginez, silikosia izaten zuten langileek. Gaur egun silikosia lan-istripuztat hartzen da; baina garai hartan ez. Silikosiaren aurkako segurtasun-neurriak ez zuten hartzen normalean.

327. Gerra garaiko irratiak eta irratsaioak (USU-022/036)

Gerra garaiko berriak irrati bidez entzuten zituzten: Radio Galena zen hura. Irrati haiek nola funtzionatzen zuten azaltzen du. Gerora, Radio Pirenaica entzuten zuten.

328. II. Mundu Gerraren oihartzunak (USU-022/037)

II. Mundu Gerran, alemanak herrira etortzen ziren paseatzera eta zigarroak banatzen zituzten jendearen artean. Ipar haizea zenean, II. Mundu Gerrako bonba soinuak entzuten zituzten Usurbilen.

329. Hitlerri buruz entzuten zituztenak (USU-022/039)

II. Mundu Gerrako kontuak irrati bidez entzuten zituzten. Komunikabideetan lan egiten zuen gizon batek kartzelatik Hitlerren egoerari buruz egin zuen analisia kontatzen du.

330. Gose garaian, dirua edukiz gero, estraperlora jo (USU-022/040)

Francoren garaian, gosea pasa zuten; dendatan ere ez zegoen janaririk. Gerora, estraperloa hasi zen; baina handik lortutako janaria erosteko, diru asko behar zen. Estraperloko prezioak aipatzen ditu. Baserriko jeneroari esker aurrera atera ziren beraiek; behin Usurbilgo markesa patata eske etorri zitzaizen etxera.

331. Gernikako bonbardaketari buruz eman ziren bertsioak (USU-023/002)

Egunean bertan izan zuten Gernikako bonbardaketaren berri irrati bidez. Eraso egin zutenak C&ndor Legioa izan zirela garbi jakin arte, bonbardaketari buruzko bertsio ugari atera ziren.

332. Gurdien egitura lehen (USU-023/005)

Benitoren aita eta Pepita astoaren argazkia erakusten dute. Gurdien gurgilak lehen nolakoak izaten ziren azaltzen dute.

333. Gerrako berriak kanpai bidez ematen zituztenekoa (USU-023/007)

Gerra garaian, Francoren aldeko soldaduek herriren bat hartzen zutenean, kanpaien bidez jakinarazten zuten herrian; izan ere, ordurako nazionalek hartua zuten Usurbil. Gerraren eboluzioaz hitz egiten du. Komunistak apaizei segika aritzen ziren.

334. Kontrako bandoetan egon arren, lagun (USU-023/009)

Herriko Xapaterori buruz hitz egiten dute: ezkerrekoa zen eta oso lagun zuen eskuineko apaiz militarra; gerran elkarri lagundu zioten, biak bizirik ateratzeko. Elkar salbatzeko egindakoak kontatzen ditu Teodorok. Garai hartan, Oria "Rusia pequeña" zen.

335. Lasartekoan kritikei Aginagan erantzundakoa (USU-023/017)

Aginagan, garai batean, errebote-plaza zegoen; lurra buztinezkoa zen, eta han gertatutako anekdota kontatzen du.

336. Txerria ez kentzeko egin beharrekoak (USU-023/019)

Gerra ostean, txerria hildakoan, guardia zibilek kendu egiten zuten. Beraien etxean, behin, txerria etxe barruan erre zuten ken ez ziezaieten. Estankoko emakumeak txerria hiltzeko eta guardia zibilek ez harrapatzeko egindakoak kontatzen du.

337. Michelingo lanaren nondik norakoak (USU-023/021)

Soldadutzatik etorritakoan, 22 urte zituela, Teodoro Michelinen hasi zen lanean eta han ibili zen erretiroa hartu zuen arte. Bere zeregina zein zen azaltzen du. 47 urte kotizatu zituen.

338. Soltean dantzatzeko piezekin gehiago nekatu soinu-jotzailea (USU-023/023)

Erromerietan, soinua jotzen aritzen zen Teodoro. Ezkontzetan ere jotzen zuen. Dantza soltea egiteko piezak jotzeak gehiago nekaten zuen; behin, Nuarbera joan zenean, arratsalde osoa solteko piezak jotzen eman zuen. Gerora, jazz-bandarekin hasi zen jotzen.

339. Motorrek eta bizikletek ekarritako aldaketak (USU-023/024)

Erromerietara motorrez joaten zen. Garai batean, bizikleta izatea abantaila handia zen. Jendea alde batetik bestera joateko, zer garraiobidetan ibiltzen zen aipatzen du.

340. Lan-baldintzak pixkanaka hobetzen (USU-023/026)

Lehen 48 lanorduko asteak izaten zituzten; pixkanaka, lan-baldintzak hobetzen joan ziren. Soinua jotzera joateko, baimena eskatu behar izaten zuen Teodorok lantegian.

341. Motorreko gidabaimena ateratzeko (USU-023/027)

Motorra bere diruarekin erosi zuen Teodorok. Motorreko gidabaimena ateratzea orain baino errazagoa zen. Joxeren aitak Zubietako apaizarekin ikasi zuen motorrean ibiltzen.

342. Gidabaimena ateratzeko, 3 prezio (USU-023/028)

Lasarteko autoeskola batean 3 prezio klase zeuden; bakoitzaren barruan zer sartzen zen azaltzen du.

343. Motorreko gidabaimena ateratakoan, irteera Lizarrara (USU-023/030)

Motorreko gidabaimena atera zuenean, Lizarrara joan ziren 3 motorretan. Irteera hartan izandako komeriak aipatzen ditu. Ia motorra lapurtu zioten.

344. Soinu-jotzaileak: "infernuko hauspoak" (USU-023/031)

Lehen soinu-jotzaileek ospe ona zeukaten; batzuek, ordea, "infernuko hauspoa" deitzen zieten. Leku batzuetan solteko piezak jotzera derrigortzen zuten Teodoro.

345. Tabernan ez ordaintzeagatik egindakoak (USU-024/002)

Zarautzen taberna batean ez ordaintzeagatik gertatutako anekdota kontatzen du Joxek; Teodorok Txirritaren anekdota kontatzen du, tabernan ez ordaintzeko egin zuena.

346. Ur freskoa lortzeko moduak (USU-024/003)

Bozaderak zer diren eta non zeuden azaltzen du.

347. Errioxan komunera joateko "¡al corral, hija, al corral!" (USU-024/005)

Errioxara 1959an joan zirenean, etxe batean oraindik ez zegoen ur-korronterik. Behin Errioxan gizon bat ezagutu zuten, oso harro zegoena herriko lehenengo komuna bere etxekoa zelako. Etxe hartan oso ondo eman zieten jaten.

348. Soldadutzako txistea (USU-024/009)

Soldadutzako txistea kontatzen du.

349. Eztei-bidaiako txistea (USU-024/011)

Txiste bat kontatzen du.

350. Tabakoaren txistea (USU-024/013)

Txiste bat kontatzen du.

351. Harakinari zorra itzultzeko egin beharrekoa (USU-024/015)

Usurbilgo harakinari zorra ordaintzeko gizon batek izandako gorabeherak kontatzen ditu.

352. Gehiketak egiten trebea (USU-024/019)

Teodoro ura kobratzen ibiltzen zen, hasieran aitari laguntzen eta gerora bera bakarrik. Kontu haiek nola eramaten zituen azaltzen du. Gehiketak egiten trebezia hartu zuen horrela.

353. Eibarko euskarari buruzko iritzia (USU-024/023)

Lehen Eibarko euskarari barre egiten zitzaion. Orduko hitzaldi bat gogoan du.

354. Lehen orain baino euskara garbiagoa (USU-024/025)

Lehen orain baino garbiago hitz egiten zen. Basarrik esan zuen Usurbilen erabiltzen zirela ondoen aditzak. Euskara hutsean idatzitako bertso batzuk abesten ditu.

355. Euskarari buruzko iritziak (USU-024/027)

Euskarari buruzko iritziak: euskara dakigunok zaindu behar dugu. Artze eta don Anbrosioren aipamenak egiten ditu.

356. "El fresco general y los socavones" (USU-024/030)

Francori buruz "fresco general" esan zuen Iglesiasek Codorniz egunkarian, eta kartzelara eraman zuten horregatik. Beste pare bat aldiz ere eraman zuten kartzelara egunkarian idatzitakoagatik.

357. Familia bat etxetik bidali zuen epailea (USU-024/034)

Gerra garaian, epaile batek familia bat etxetik bidali zuen, errequisatutako etxe batean bizitzen ari zirelako. Familia kalean utzi zuen. Epaileak umetatik ezagutzen zuen familiako aita.

358. Batzuek salatu eta besteak fusilatu (USU-024/037)

Gerra garaian fusilatu zituzten gazteak izendatzen dituzte. Herriko jendeak salatu zituen gazte haiek.

359. Zubietako apaizaren haserrea eta indarra (USU-024/039)

Zubietako apaizak Teodorori eskatu zion berekin batera ibiliko zen txistularia izateko. Teodorok ezetz esan zion eta apaiza asko haserretu zen. Azkenean, adiskidetu egin ziren. Beste behin, gizon batek lan-istripua izan zuen behatzean; Zubietako apaizari esker, esandakoa baino indemnizazio handiagoa eman zioten: bikoitza. Apaiz hura teniente-koronel zen.

360. Zubietako apaiza eta bizikleta (USU-024/040)

Zubietako apaiza bizikletaz etortzen zen meza nagusia ematera. Bizikleta konpontzeko behin izandako anekdota kontatzen du.

361. Eroetxetik aholkuak ematen (USU-024/042)

Gizon bati Santa Ageda eroetxean autoa geratu eta torloju bat erori zitzaion. Eroetxetik autoa konpontzeko aholkua eman zioteneko anekdota kontatzen du.

362. Santa Agedako anekdotak (USU-024/044)

Santa Ageda eroetxeko anekdota eta txistea kontatzen ditu.

363. "Saltaparapetosan" ondorioak (USU-024/050)

Lehen ez zen drogarik; bai, ordea, alkohola, "saltaparapetosa". Behin herrian gazteek egindako bihurrikeria kontatzen du.

364. Zuhaitzaren eta harriaren anekdota (USU-024/051)

Herriko gazte batzuek zuhaitzarekin eta harriarekin egindako bihurrikeria kontatzen du. Umore sanoa zen hura, harriaren jabeak ez zuen gaizki hartu.

365. Bihurrikeria egin izanaren poza (USU-024/052)

Herriko mutil batek eskorga meta puntan jarri zuen; gero, jaitsi egin behar izan zuen. Baina pozik.

366. Iltzezko botak kendu soinurik ez egiteko (USU-024/054)

Gerra ostean, gose garaia etorri zen. Janaria ezkutuan eraman behar izaten zuten, kendu ez ziezaieten. Mutil batek iltzezko botak kendu zituen, soinua egin ez zezan bidean. Bota haiek nolakoak ziren azaltzen du.

367. Eroetxeko iltzeen txistea (USU-024/056)

Joxek eroetxeko txistea kontatzen du.

368. Animaliak etxean; taberna (USU-025/005)

Animaliak zituzten: behia, txerriak, oiloak... Aita Añorgan egiten zuen lana, Rezolan, arotz. Amak tabernan. Umetan hasi zen lanean. Bazkariak. Ameriketatik etorritako apopiloak.

369. Baserritarrak amorrarazten; plazara saltzera (USU-025/010)

Umetako jolasak. Baserritarrei amorrarazten ibiltzen ziren. Alberron, mizpirak. Olarrondon eta Agerren fruta ona zegoen; plazan saltzen zuten. Mertxe izebaren etxean egon zen bizitzen, Donostian; esnea eramaten zien Usurbilgo baserritar batek, astoarekin.

370. Umetako bihurrikeriak: sagardoa edatera Ugartera (USU-025/012)

Modesto Ugarte amorrarazten ibiltzen ziren. Sagardoa izaten zuen, eta ezkutuan edaten zuten upeletik. Makilarekin segitzen zien. Umetako jolasak. Ugarteko neskazarra, morroiak eta neskameak.

371. Bikotara eta diaboloa; pilota (USU-025/016)

Bikoak: sokasaltoan, azkar-azkar. Diaboloa. Non erosten zituzten, Lasarten eta Donostian. Txiba. Kanikak. Kromoak. Pilotan ere egiten zuten. Lagun taldean zeintzuk ibiltzen ziren. Pilota.

372. Panpinak eta patinak (USU-025/017)

Pepona panpinak. Panpinak nola egiten zituzten batzuek, arbiarekin. Patina egin zion osaba arotzak, berak eskatuta. Patina nolakoa zen. Elkarri uzten zizkioten gauzak, partekatu.

373. Errazionamendua eta estraperloa; guardia zibilak (USU-025/019)

Errazionamendua konfiterian hartzen zuten Joxek eta. Estraperloa. Lasartera joaten zen bizikletan Mertxe estraperloa erostera. Olio garesti, hogeiturotan litroa. Guardia zibilen kontrolak eta haiekin zuten harremana tabernan. Pistola atera zion Mertzexi behin batek. Hika.

374. Zaldi lasterketak ikustera (USU-025/025)

Mamer maistrarekin nora joaten ziren. Zaldi karrerak ikustera, 13 urterekin. Orduko zaldi lasterkariak aipatzen dituzte. Kiloak galtzeko korrika ibiltzen ziren; ura non edaten zuten. Jende aberatsa joaten zen. Sanatorioko aberatsak; medikuak. Morfina zen orduko droga.

375. Sanatorioko kontuak: Maria Antonia malagarra (USU-025/027)

Maria Antonia izeneko malagarrak zigarroa nola erretzen zuen; erotu egin zen. Sanatorioan egoten zen. Aberats batekin zegoen ezkondua. Inudea zuten. Anisa edaten zuen. Medikuak. Haren senarra prostitutekin ibiltzen zen. Dibortziatu egin ziren, eta berriz ezkondu zen senarra.

376. Sanatorioa eta Don Damian madrildarra (USU-025/028)

Madrilgo bat, Don Damian, egunero joaten zen mezara, eta bi pezetakoa botatzen zuen. Beraientzat hartzen zuten. Katalina bandeja zaintzen egoten zen. Sanatorioari utzi zizkion diruak. Larrea medikua nola hil zen. Sanatorioko mojak bidali egin zituzten.

377. Sanatorioa: Gabrielito I (USU-025/034)

Sanatorioko gaixoak herrian arazoak ematen hasten baziren, nor joaten zen bila. Gabrielitoren kontuak, zer eskatzen zuen tabernan.

378. Sanatorioa: Gabrielito II (USU-025/036)

Gabrielitoren kontuak: aberatsa zen; haren ondasunak. Etxeak non zituzten. Areetako bere etxera joan ziren hamar egun pasatzera; bi neskamerekin. Txoferrarekin ibiltzen zen.

379. Sanatorioa: Gabrielito III (USU-025/039)

Gabrielitori buruzko kontuak: eskuzabala zen.

380. Muruako markesaren alabaren kontuak (USU-025/040)

Txoferra aberatsek bakarrik izaten zuten. Uniformea zuen markesarenak. Muruako markesaren alabaren kontuak (Maria Luisa), Bravo medikuarekin zergatik ez zen ezkondu. Hika.

381. Prostituten lan-baldintzak lehen (USU-026/002)

Lehen prostitutak non egoten ziren azaltzen dute. Lehen prostitutak lan-baldintza hobek izaten zituzten; ez ziren ingurukoak izaten.

382. Donostiako putetxeak (USU-026/004)

Lehen gaizki ikusia zegoen prostituta izatea. Donostian Villa Maria Luisan egoten ziren. Gaur egun oraindik han dago etxe hura. Igeldo inguruan ere bazegoen horrelako beste etxe bat, baina hura aberatsentzat izaten zen.

383. Lehengo otorduak eta txokolateak (USU-026/006)

Lehen jaten zituzten txokolate markak aipatzen dituzte. Goizetan kafesnea zoparekin jaten zuten. Gainerakoan, otorduetan zer jaten zuten aipatzen dute.

384. Gerrako kezkak eta oroitzapenak (USU-026/007)

Gerra hasi zenean, Lasaon ziren; etxera itzulitakoan, taberna itxita zeukan amak; orduan beldurra pasa zuten senide bat falta zitzaielako eta Añorgan neska bat hil zutela jakin zutelako. Gerrako oroitzapenak gogoan ditu: soldaduak, janaria, hegazkinak... Beldurra eduki zuten, baina gerra ez zen asko nabaritu Usurbilen.

385. Gerran Usurbilen fusilatutako gizonak (USU-026/008)

Gerra garaian, Usurbilen fusilatu zituzten gizonak aipatzen dituzte.

386. Cervera kanoiontzia Donostia inguruan (USU-026/010)

Donostian egon zen, izebaren etxean, gerra garaian. Hango giroa nolakoa zen aipatzen du: Cervera kanoiontzia inguruan egoten zen kanoikadak botatzen. Kanoikada haietako batek hil zuen mutil bati buruzko istorioa kontatzen du Joxek.

387. Pakun! (USU-026/012)

Donostiako lehengusuak tiro-hotsa entzuten zuenean, harraska azpian ezkutatzen zen. "Pakun!" entzuten omen zen tiroekin.

388. Arruenea Berriren egitura lehen (USU-027/005)

Arruenea Berrin jaiotakoa da Miren Jone eta gogoan du nolakoa zen etxea erre baino lehenago. Lehen hiru kotxe ziren herrian eta haietako bat beren aitarena zen.

389. Arruenea Berri: erre aurreko oroitzapenak (USU-027/007)

Arruenea Berri barrutik nolakoa zen azaltzen du.

390. Anaiak batxilergoa eta kimika ikasi (USU-027/010)

Anaiak Lekarozen ikasi zuen 7 urtean. Han batxilergoa ikasi zuen eta gerora kimikaria izan zen. Kimika Zaragozan eta Salamancan ikasi zuen. Jarrera ona izateagatik, anaiak sariak lortzen zituen.

391. Usurbilgo mojetan ikasia (USU-027/011)

Usurbilgo mojetan ikasi zuen Miren Jonek. Hango mojei buruz hitz egiten du. Eskola nazionalera mutilak joaten ziren.

392. Mojekin ikasitakoa: eskola orokorra eta eskulanak (USU-027/012)

Eskolako mojak frantsesak ziren eta frantsesa irakasten zuten klaseak bukatu ostean. Eskola orokorra eta eskulanak ikasten zituzten. Eskulanetako materiala etxetik eramaten zuten, Donostian erosita.

393. Umetako jolasak (USU-027/014)

Kalean zer jolasetan eta non aritzen ziren aipatzen du. Frontoia lehen ez zegoen instalita. Gazteak pilotan ibiltzen ziren.

394. Gerrako kontu tristeak (USU-027/016)

Gerra hasi zenean, gauza tristeak gertatu ziren herrian. Jendeak ihes egin zuen eta liskarrak egon ziren. Bonbardaketaren beldur zirenean, elizan babesten ziren umeak. Soldaduek plazan desfilea egin zutenekoa gogoan du.

395. Aita bigarren aldiz atxilotu zutenekoa (USU-027/020)

Aita atxilotu egin zuten gerra garaian, apaizek nora egin zuten ihes jakin nahi baitzuten. Aitak jende askori eman zion pasaporteak. Gero aita etxera ekartzeko komeriak izan zituzten.

396. Etxea galdu nahi ez bazuten, odoleko norbaitek egon behar bertan (USU-027/021)

Gerra garaian, Zubietara joan ziren bizitzera amaren baserrira. Izan ere, osabak Donibane Lohizunera egin zuen ihes, eta 3 urte pasa zituen han; bere etxea konfiskatzerik nahi ez bazuen, odoleko norbaitek joan behar zuen hara bizitzera. Hainbat aldiz saiatu ziren etxea kentzen; baina, ama han zegoenez, etxea salbatu zuten.

397. Etxera itzuli baino lehentxeago, etxea erre (USU-027/022)

Beren etxea hutsik gelditu zen gerra garaian. Gerra bukatu zenean, anaiak Usurbila nahi zuen itzuli eta aitak itzuliko zirela agindu zion. Itzultzekoak zirenean, etxea erre zen eta ezer gabe gelditu ziren. Aitaren kopa eta Zubietan zeukaten arropa bakarrik salbatu zen.

398. Usurbilen eta Andoainen ikasten ibilia (USU-027/024)

Zubietan egon ziren bitartean, Usurbilen hasi ziren ikasten bi ahizpak; gerora, Andoaingo jesuitinetan ikasi zuten.

399. Urte latzak eta aita desterratuta (USU-027/026)

Aita desterratu egin zuten eta 1940-41ean Madrilen bizi behar izan zuen. Urte latzak izan ziren orduan, gosete handia egon zen. Beraiek baserrian ez zuten goserik pasa. Gerra ostean, tentsioa zegoen.

400. Aita desterratuta: Madrildik Mugiro jatetxera bizitzera (USU-027/027)

Aitaren lagunek Madrildik Elizondora etortzen lagundu zioten. Han, Mugiro jatetxean egon zen 3-4 urte eta etxekotzat hartu zuten bertan. Gipuzkoan ezin zuen sartu orduan; eta, familia ikusteko, Lekunberrin elkartzan ziren. Mugirora joaten zirenean, ogi zuria jaten zuten.

401. Aitak gerran kendu zioten autoa berreskuratu zuenekoa (USU-027/028)

Aitak, desterratuta zegoenean, ezin zuen pasa Lekunberritik aurrera. Madrilen beti hartzen zuen aldizkari ofiziala eta han ikusi zuen kendu zioten autoa Valladoliden zegoela. Hala, berreskuratu egin zuen.

402. Garia ehotzeko osabak ekarritako makina (USU-027/033)

Osaba Frantziatik itzuli zenean, baserrian bizi ziren; han garia ereiten hasi ziren. Osabak makina zoragarria ekarri zuen garia ehotzeko. Anaiak Andoainen aritu ziren ikasten eta gero Laborde enpresan hasi ziren lanean. Bitarte horretan, ahizpak ikasi zuen garia ehotzeko makina hura erabiltzen. Guardia zibilak zelatan egoten ziren, makina hura jartzea kontrabandoa baitzen. Behin guardia zibilak etorri ziren eta makina immobilizatu egin zuten.

403. Usurbila bizitzera gogoz kontra itzuli (USU-027/039)

Zubietatik nahiago zuten Lasartera joan bizitzera, Usurbila itzuli baino. Bi bizikleta zeuzkaten etxean. Igandero Usurbilgo mezara joatera behartu zituzten gurasoek, nahiz eta beraiek Usurbila joan nahi ez. Meza zeneko egunerokoa azaltzen du. Azkenean gogoz kontra itzuli ziren Usurbila bizitzera.

404. Etxean heziketari garrantzia ematen zioten (USU-027/042)

Zubietan bizi ziren bitartean, Andoaingo jesuitinetan ikasi zuten. Osaba apaizaren etxean egoten ziren han ikasten zuten bitartean. Moja haiek gauza asko nahi zizkieten erakutsi. Ahizpa gazteena Zumaian egon zen barneko ikasle gisa. Orduan baserrian jendea behar zutenez, itzuli egin behar izan zuten etxera. Etxean garrantzia ematen zioten heziketari.

405. Miren Jone sukaldeko lanetarako aukeratu zutenekoa (USU-027/043)

Ama gaixotu egin zen, eta etxeko lanak alaben esku geratu ziren amak deskantsua har zezan. Miren Joneri sukaldeko lanak tokatu zitzaizkion. Orduan, Donostian sukaldaritzako eskolak hartzera joan zen. Miren Jone ona zen sendakuntzak egiteko.

406. Miserikordiako etxea eta haren funtzionamendua (USU-027/053)

Lehen Miserikordia herrikoen artean mantentzen zuten. Miserikordiako eraikuntzaren historia azaltzen du.

407. Lasarte lehen nolakoa zen (USU-027/055)

Lehen Lasarte nolakoa zen azaltzen du: merkataritza, garraiobideak, hipodromoa... Zumaburu lehen irla zen eta hara iristeko zer bide egiten zuten azaltzen du.

408. Lasarte auzo izatetik herri bihurtzera (USU-027/057)

Lasarte eta Zubietaren artean ika-mika egon izan da. Lasarte auzo bat zen eta gero herri bihurtu zen. Lasartetik gertu dauden lur asko Usurbilenak dira.

409. Lasarteko golf-zelaia eta hipodromoaren inguruko negozioak (USU-027/058)

Atsobakar baserria zegoen lekuan golf-zelaia zegoen eta jende ospetsua etortzen zen hara. Lasarte hipodromoari esker atera izan da aurrera.

410. "Ya vienen los Pellos de Zubieta" (USU-027/060)

Neskek goiz itzuli behar izaten zuten etxera, baina mutilek ez. Mutilei Lasartekoek "los Pellos de Zubieta" deitzen zieten. Lasarten dena gaztelaniaz hitz egiten zen, euskaraz egitea makurkeria zelako haientzat.

411. Nesken artean gaztelania hitz egiteko ohitura (USU-027/061)

Garai hartan euskaraz hitz egiteagatik ez zegoen zigorrik. Behin Zubietako apaizak beren kontra esandakoa esaten du. Nesken artean gaztelania hitz egiteko ohitura zeukaten. Gerora, konturatu ziren euskara hitz egitearen garrantziaz. Kolegioan izenak erdaldundu egin zizkieten.

412. Izen euskalduna jartzeko trikimailuak (USU-027/062)

Nesken artean hika egiten zuten; gurasoei berorika. Eskolan ezin zuten euskaraz egin, izena ere erdaldundu egin zieten. Anai-arrebek euskarazko izenak zituzten, baina erdaratzeko modukoak, bestela ez zieten eta uzten izen horiek jartzen.

413. Etxean ura eta argindarra lortzeko bideak (USU-028/010)

Etxean argindarra bazuten, baina ur-korrontea ez; horregatik, ur-depositua zeukaten etxean, euriaren urarekin betetzen zena. Depositu hark nola funtzionatzen zuen azaltzen du. Argindarra Arozenatik lortzen zuten.

414. Zinera joateko zaletasuna (USU-028/011)

Gaztetan Lasartera joaten zen lagunekin. Gogoan du behin aitak hiru anai-arreba zinera eraman zituenekoa. Aitak zaletasun handia zuen pelikuletarako. Donostian zineak non zeuden aipatzen du. Zinera joateko arropa dotorea eramaten zuten.

415. Lasartera joateko joera (USU-028/013)

Inguruko festetako erromerietara joaten ziren gaztetan; baina zinera nahiago izaten zuten joan. Igandetako plana nolakoa izaten zen azaltzen du. Zubietatik Lasartera joateko joera zegoen lehen ere.

416. Erosketak egitera Alamandegira (USU-028/015)

Zubietan Alamandegira etortzen zen okina; Alamandegin hainbat janari mota eros zitekeen. Batzuetan katua egoten zen janariaren gainean.

417. Etxeko hiru txakurrak (USU-028/016)

Zubietan hiru txakur zituzten etxean. Txakur haiei buruz hitz egiten du. Behin txakurrak aitaren kopa bota zuen, eta handik konturatu ziren oso material onekoa zela kopa.

418. Ohea berotzeko plantxa pasa (USU-028/018)

Ohea berotzeko, amak plantxa pasatzen zuen maindireetan ohera sartu aurretik.

419. Lehengo egunkariak eta aldizkariak (USU-028/022)

Lehengo egunkariak aipatzen dituzte. Aldizkari ugari izaten zituzten etxean.

420. Urteroko gonbidatuak (USU-028/023)

Lehen urtero etxez etxe ibiltzen ziren Jesus Haurtxoa edo Ama Birjina eramaten. Miren Joneren familiaren etxean urtero gelditzen zen haietako bat.

421. Ilea mozteko poza (USU-028/025)

Umetan trentzak izaten zituzten, baina beraiek ile motza nahi zuten. Lasarteko ile-apaindegi batera joan ziren eta poz-pozik atera ziren. "A lo garçon" orrazkera nolakoa zen aipatzen dute.

422. Bihurrikerien ostean, zigorra (USU-029/011)

Ikasten ari zirela jolasten ibiltzeagatik, zigortu egiten zituzten.

423. Platano arbolara igota egindako bihurrikeria (USU-029/014)

Eskolan izandako maisuak aipatzen ditu. Gaueko eskolan ikasi zuen; eta, han zebilen bitartean, platano arbola baten gainera igota egindako bihurrikeria kontatzen du.

424. Zubietako eskolako maisua eta ikasgaiak (USU-029/015)

Zubietako eskolan ikasle asko ziren eta Alamandegiren goian ikasten zuten. Eskolak euskaraz izaten ziren. Koxme maisua Usurbilgoa zen eta gerran fusilatu egin zuten.

425. Etxea erosteko diru bila (USU-029/018)

Uholdea izan ostean, etxea egin behar izan zuten berriro. Etxea ez zen Felixen familiarena, baina orduan saltzera atera zen. Hura erosteko dirua handik eta hemendik bilatu zuten eta azkenean gizon batek utzi zien.

426. Gerra aurreko giroa Usurbilen (USU-029/022)

Errepublikanoak lanera pistolarekin joaten ziren gerra hasi aurretik. Errepublikanoek PNVko gizon bat egurtu zuten gerra aurretik. Gerra aurreko egoera eta giro politikoaz hitz egiten du: tentsioa zegoen Usurbilen.

427. Gerra hasi aurreko urteetako hondamendiak (USU-029/023)

1933ko uholdeen ostean, obra egin zuten etxean. Handik urtebetera ekaitza izan zen, harria egin zuen eta obrako uralita zulatu zuen. Hurrengo urtean gerra hasi zen.

428. Gerra atera zen egunean, Donostian esnea saltzen (USU-029/030)

Gerra aterako zen beldurra egon arren, ez zuten espero. Gerra atera zenean, bera Donostiara joan zen esnea saltzera. Han zegoela, tiroak hasi ziren eta Hotel Vizcaínon babestu zen. Etxera oinez itzultzea lortu zuen.

429. Gerran desabantaila nabarmenak borrokan (USU-029/032)

Gerra zegoenean, Buruntzan karlistak zeuden eta komunistak Usurbilen herrian. Desabantaila handia zegoen karlisten eta komunisten artean. Armak erabiltzeko eta beren burua babesteko nola moldatzen ziren azaltzen du.

430. Jendea gerratik ihesi (USU-029/033)

Donostiatik ihes egiten zuen jendea Usurbildik igarotzen zen. Hondamendia zen hura. Ezinikusienegatik hiltzen eta lapurtzen zuten jendea orduan.

431. Ihesi zihoan ezagun bat etxean gorde zutenekoa (USU-029/035)

Ezagun bat Donostiatik ihesi atera zen lagun batekin: laguna harrapatu egin zuten, baina berak Txara baserrira iristea lortu zuen. Bi egun eman zituen bertan ezkutatuta.

432. Zubietako apaizak jende asko salbatu (USU-029/037)

Zubietako apaizak jende asko salbatu zuen; bera ere salbatu egin zuten.

433. Koinatuaren koinatua ihesi (USU-029/038)

Etxean ezkutatuta zeukaten koinatuaren koinatuak aurrera egin zuen ihesarekin, eta Ameriketaraino iristea lortu zuen. Gizon hark bitxi-denda zuen eta haren bitxiak Txarako lur azpian gordeta egon ziren denbora askoan.

434. Ihes egiteko arrazoiak eta Usurbilen fusilatu zituzten gizonak (USU-029/040)

Ameriketara itsasontziz joaten ziren. Itsasontzi haiek Frantziatik irteten ziren gehienbat. Felixen anaia ihesi joan zen Frantziara gerran, Oriotik barkua hartuta. Jendeak zergatik egiten zuen ihesi azaltzen du. Usurbilen 7 gizon fusilatu zituzten eta haien izenak aipatzen ditu.

435. Gerrako zertzeladak: alemaniarrek, italiarrek eta koinatua (USU-029/042)

Alemaniarrek eta italiarrek jaun eta jabe ziren hemen, herritarren artean gosea zegoela aprobetxatuta. Koinatu bat ihesi joan zen Gijonaino; eta handik Txarara bueltan oinez etorri zen.

436. Gerra garaiko irratia (USU-029/043)

Gerra garaian, irratia zeukaten. Debekatuta zegoen irratia entzutea. Zer programa entzuten zuten aipatzen du.

437. Soldadutzan pneumonia harrapatu (USU-029/050)

Soldadutza egitera Logroñora joan zen 1944an. Han zegoela, pneumoniaz gaixotu zen; gaixo zegoela, gela ondoan zegoen gizona eroa

zegoen; ama eta anaia beregana joan ziren. Amaren esnezaleetako bat Dibisioko medikua zen eta Felixi bisitan etorri zitzaion: sendatzen zenean etxera bueltatuko zela agindu, eta esandakoa bete zuen. Sendatutakoan, Logroñetik itzuli zenean, Erreneriara joan zen eta arotz sartu zen.

438. Azpilikueta egiten zituzten guardiak (USU-029/052)

Soldadutzan, Erreneriatik Elizondora eraman zuten. Han, Azpilikueta guardia egin behar izaten zuten, kontrabandista asko baitzebilten handik; baina beraiek ez zuten arreta handirik jartzen guardia egitean. Kontrabandoan gauza ugari pasatzen ziren, eta Felix bera kontrabandoa egiten hasi zen.

439. Mahaiak egiteko enkargua jaso zutenekoa (USU-029/053)

Behin kapitaina etorri zitzaion, eta mahaiak egiteko eskatu zien, "arotza" baitzen Felix. Nola edo hala moldatu zen mahaiak berak egin behar ez izateko, eta dena ondo atera zen: azkenean, omenaldia egin zieten mahaiak egiteagatik.

440. Soldadutzako txekorrak eta baimenak (USU-030/002)

Soldadutzan zeudela, larunbatetan etxera etortzen ziren eta maletatan txekor bat ekartzen zuten. Horrela, dirua irabazi zuten. Soldadutzan hiru hilabeteko baimena lortzeko egindakoak kontatzen ditu.

441. Lana lortutakoan, andregaiarekin hasi (USU-030/003)

21-24 urte bitartean egon zen soldadutzan. Añorgako harrobian egin zuen lan gero. Lan finkoa lortu arte ez zuen nahi izan neska-laguna izan. Michelinen lanean hasi zenean, berehala hasi zen andregaiarekin; handik 2 urtera ezkondu ziren.

442. Añorgako harrobiko lana (USU-030/005)

Añorgako harrobian egin zuen lan eta lan hartan zer egiten zuten azaltzen du. Segurtasun-neurriak kaxkarrak ziren orduan.

443. 100 kilo porlan bizkarrean eramandakoa (USU-030/007)

Añorgan lanean zebilela, ur-depositua egin zuten. Hura egiten aritu zen Felix eta 100 kilo porlan eramaten zituen bizkar gainean.

444. Biltegietako lapurretak gerra ostean (USU-030/012)

Artoa eta babarruna entregatu behar izaten zituzten gerra ostean. Jenero hura biltegian gordetzen zen, baina lapurreta handiak egoten zirenez, Hernanin bateratu zen biltegia. Hara joateko, bizikletan eramaten zituen Felixek 40 kilo arto eta babarrun.

445. Kontrabandoaren gorabeherak (USU-030/013)

Felix kontrabandoan ibili zen. Nafarroatik baba ekartzen zuen hemen saltzeko. Gerora, garagarra saltzen hasi zen; negozio hura nola joan zen hazten azaltzen du. Horrela, dirua atera zuen.

446. 1973ko hauteskundeetako panfletoa (USU-030/017)

Felixek 1973ko hauteskundeetara aurkeztu zeneko panfletoa erakusten du.

447. Francoren hiletara joan behar (USU-031/002)

Francoren diktadura amaieran, lehenengo hauteskundeak izan zirenean, Felix zinegotzi atera zen, besteak beste. Francoren hiletara joan behar izan zuen Donostian egin zen elizkizunera.

448. Zubietako apaizaren nortasuna (USU-031/003)

Zubietako apaizari buruz hitz egiten du: gerra garaian salbatu egin zuten, baina gerora berak ere asko lagundu zuen.

449. Bergaran ikurrina defendatzen (USU-031/004)

Hauteskundeetan zinegotzi atera zenean, Bergarara joan ziren Usurbilgo zinegotzi guztiak aurreneko ikurrina defendatzera. Guardia zibil pila bat zegoen han, baina ez zen iskanbilarik egon.

450. Zinegotzi zenean egindako lanak (USU-031/008)

Zinegotzi izan zenean, askatasuna eman zioten bere gisara egiteko lanak. Ez zuen ezer kobratzen lan hori egiteagatik. Bideak egiten aritu zen eta bere lur batzuen eskubideak utzi zituen bidea egin zedin.

451. Kalean jaio, baina sei urterekin Zubietara (USU-032/003)

Arruenea-Berri etxean jaio zen. Sei senidetan bosgarrena. Aita usurbildarra eta ama Zubietakoa. Ez du ondo gogoratzen etxean nola moldatzen ziren, sei urterekin Zubietara joan zirelako bizitzera, gerra zela eta. Etxea erre zieten.

452. Eskolara gutxi; maisuaren zigorrak (USU-032/005)

Gerra aurretik gutxi joan zen eskolara. Txikitan mojetan mutilak eta neskak ibiltzen ziren. Teodoro Ruiz maisuarekin ere ibili zen. Makilarekin jotzen zuen. Makila nork eramaten zion. Zigorrak. Erdaraz.

453. Eskumuturra txikitu zuen bizikletan (USU-032/006)

Umetako jolasak. Madrildik udan familiak etortzen ziren, eta haien bizikletarekin ibiltzen ziren. Pareta jo zuen, eta eskumuturra txikitu. Medikiak zer egin zion.

454. Zubietara, gerra iristean; baserriko bizimodua (USU-032/009)

Gerra hasi zeneko askorik ez du gogoratzen. Ijitoak bezala joan ziren Zubietara. Aita udaletxeko idazkaria zen, eta horregatik joan ziren baserrira. Francoren aldekoak miaketak egiten baserrian. Osabak alde egin zuen. Neskameak, morroiak. Jai eta aste lanean.

455. Baserrian egiten zituzten lanak; sagastiak eta sagardoa (USU-032/010)

Behiak, zekorrak... animalia asko zituzten, hogei buru bai. Egiten zituen lanak: artajorran, babarruna bildu, sagarrak bildu... Lana gustura egin du beti. Lan banaketa. Sagarrak biltzen, sei-zazpi sagasti. Sagardoa egiten zuten. Dolarea.

456. Umeek pitarra edaten zuten (USU-032/012)

Umeek ere edaten zuten sagardoa, baina pitarra gehiago. Pitarra zer den. Osabak hartzen zion neurria, pitarrari zenbat ur bota. Sagardoa.

457. Sagardoa nora saltzen zuten; botilak garbitzen (USU-032/013)

Aizpuruan egiten zuten sagardoa oso ona ei zen. Elkarre gastronomikoetara saltzen zuten asko. Kamioietan eramaten zuten. Negu guztia botilak garbitzen, makina txiki batekin (nolakoa zen azaltzen du). Upela.

458. Osaba zenaren kontuak: sagardotegia (USU-032/014)

Osabak gerra aurretik aurrerapen asko zituen: sagardoa mugitzeko bonba. Donostiako jendearekin zuen harremana. Bentura Elizondo, Mariano Lasarte... Hika. Osabak esaten zuena: asturiarrak askoz aurreratuago zebiltzala sagardogintzan. Dolarea motorrarekin. Astoaren larruarekin egin zuen korrea. Larrugintza.

459. Sagardoa nola gozatu; patsa; zipotza (USU-032/015)

Upelak. Sagardoari gozoa joateko zer egiten zuten. Patsa aitzurtu egiten zuten, sagardoaz bete eta upelera. Patsa zer den. Zipotza zer den. Onila lastoarekin, iragazki bezala. Tina. Hika.

460. 80.000 sagardo litro egin, eta dena saldu (USU-032/017)

Dolarea etxetik kanpo zegoen, bordan. Sagardoa ona egiten zuen. Alizu baserria ere berea zuen osabak, eta han upelak jarri zituzten. 80.000 litro sagardo egiten zituzten, eta dena saldu. Nolatan ateratzen zitzaion sagardoa beti berdina.

461. Kupelen negarra nola geratu (USU-032/018)

Upelak garbitzen ibiltzen zen, urarekin. Upelen negarra zer den; ilargi berriarekin gertatzen da. Negarra nola geratu. Ilargiaren eragina. Temperatura beti bera zen. Seboa.

462. Dolarea goraino betetzen zuten, 35 kargarekin (USU-032/020)

Sagardoaz asko zekitenak, osabaz aparte: Nikanor eta Saltxipikoak. Dolarea puntaraino betetzen zuten, 35 kargarekin. Egunean hiru ebakialdi. Jotzeko makina garbitzen. Karga bakoitza sei zaku ziren. Bertsotan ibiltzen ziren.

463. Bertsopaperak eta Usurbilgo bertsolariak (USU-032/021)

Bertsopaperak. Kale Zaharrean, Dionixiok atera zituen, eta saldu. Usurbilgo bertsolariak: Olloki, Gaztelu... Estropaden gaineko bertsoak. Bertso-saioak debekatu egin zituzten, gerra ondoren. Basarri, Uztapide, Zepai... bertsolariak aipatzen ditu.

464. Irratia: isilpeko irrati-kateak (USU-032/024)

Irratia beti izan zuten etxean. Nolakoa zen. Pirenaica eta BBC entzuten zituzten, isilpekoak. Dolores Ibarruri. Onaindiak ere hitz egiten zuten, Doctor Olazu ezizenarekin. Ingelesa.

465. Zubietako eskola; gerrako fusilatuak (USU-032/026)

Eskolan, Zubietan ere ibili zen, falangista baten emaztearekin; azpeitiarra zen, eta euskaraz ematen zuten eskola. Lehengo maisua, Koxme, fusilatu egin zuten Francoren aldekoek. Usurbilen sei-zazpi fusilatu zituzten. Cara al Sol kantatzen zuten.

466. Bizikletan eskolara, Andoainera (USU-032/027)

Lasarten eta Andoainen ere ibili zen eskolan. Andoaingo fraide eskola. Bizikletan joaten zen egunero Zubietatik. Gero, lanera ere bai.

467. Igandean lana egiteko, elizara baimen eske (USU-032/028)

Oporrik ez zen izaten lehen. "Sabado ingles". Larunbatetan ere lana egiten zuten. Igandea beti jai, baina baserrian orduan ere lana. Belar garaian elizan baimena eskatzen zuten, lana egiteko.

468. Bazkaria eramaten zuten bizikletan, eskolarako (USU-032/029)

Zubietatik Andoainera nola joaten zen, bizikletan, ikastetxera. Bazkaria eramaten zuten, eta emakume batek berotzen zion jana. Tortilla. Lehengo bideak, zuloz beteak. Kotxe gutxi zebilen. Hika. Zubi berria. Tranbia.

469. Eskolan bustita; pilota partida berezia (USU-032/030)

Nola janzten ziren. Goizean busti, eta egun dena bustita eskolan. Oinetakoak. Galtza luzeak. Bost bat urte egin zituen Andoainen eskolan. Pilotan Etxeberriaren kontra egin zuenekoak: 15-0 galtzen hasi eta 15-16 irabazi zion. Hika.

470. Eskola profesionalan bi urte egin zituen, Andoainen bertan (USU-032/032)

Eskolan zer ikasten zuten. Oinarri gutxi zuten, eta ezinean ibiltzen ziren. Eskola profesionala jarri zuten han bertan, eta bi urte egin zituen han. Langara futbolariaren anaia zen maisua. Euskadiko Selektzioa. Cristobal Colonen arrautzaren istorioa kontatzen du; ipuin modukoa.

471. Lanbide-eskola eta Laborde (USU-033/003)

Lanbide-eskolan zer ikasi zuten azaltzen du. Labordek zerikusia zuten eskola hartan. Laborderen fabrikari zer egiten zen aipatzen du. Jexuxmariren anaia kimikaria zen eta lantegi hartan sartu zen lanean; Wolframioa erabiltzen zuten han.

472. Laborden apendiz eta osabaren laguntzaile (USU-033/005)

Labordera apendiz joaten ziren, praktikarekin ikastera. Han ikasitakoak asko balio izan dio. Soldadutzara joan ostean, osabari laguntzen hasi zen arotzerian. Usurbilgo etxea egiten aritu zen osabarekin batera.

473. Zerrategian hutsetik hasi eta pixkanaka hazi (USU-033/008)

Zerrategian lanean hasi zenean, hutsetik hasi ziren. Pixkanaka hazten joan ziren.

474. Zuhaitzak botatzeko, ilargiari begiratu (USU-033/009)

Inguruko basoetan aritzen ziren lanean egurra lortzeko. Hasieran, trontzarekin botatzen zituzten arbolak. Ilargi sasoiak errespetatzen ziren zuhaitzak mozteko. Sasoi horiei buruzko azalpenak ematen ditu.

475. Zuhaitz motak eta haien ezaugarriak (USU-033/010)

Zuhaitz moten ezaugarriak aipatzen ditu: egur onak, txarrak...

476. Egurra lantzeko moduak eta tresnak (USU-033/011)

Egur mota bakoitza lantzeko aldeak daude. Hainbat tresna erabiltzen dira horretarako.

477. Egurra lantzeko prozesua (USU-033/013)

Egurra zertarako erabiltzen zen azaltzen du. Beraien zeregina egurra landu eta prestatzea izaten zen. Egurra lantzeko prozesua azaltzen du.

478. Egurra neguan moztu eta udan haren bila joan (USU-033/015)

Egurra lortzeko, baserritarren lurretara joaten ziren eta haiekin tratua egiten zuten. Neguan mozten zituzten zuhaitzak, prestatu egiten zuten dena, eta udan idiekin joaten ziren egur harekin kamioia kargatzera. Egunean 6 kamioi inguru betetzen zituzten.

479. Ilargi-sasoiari begiratu gabe egindako lanen emaitza (USU-033/017)

Pinutara dedikatzea pagotxa izan da, asko ekoitzi ahal izan baitute. Kantitateari begiratuta, ordea, ez zaio begiratu ilargiari; eta pinutara dedikatu izan den batek behin onartu zion ilargi-sasoi garrantzitsua dela zuhaitzak botatzeko.

480. Zuhaitzen gaitzak eta haien aurka zer egin daitekeen (USU-033/019)

Zuhaitzek gaitzak izaten dituzte. Horren kontra egiteko, pestizidak egoten dira. Zumarrak eta gaztainak gaitza izan dute; baina gaitz horiek desegin arte, ezin izaten da ezer egin.

481. Pinu gutxiago gaur egun (USU-033/020)

Gaur egun dagoeneko ez da horrenbeste pinu landatzen, bai baitaude beste konifero on batzuk. Ameriketatik ekarritako zuhaitzak pixkanaka sartu dira hemengo inguruetan.

482. Zuhaitzak landatzeko pazientziaren trukean, saria (USU-033/022)

Pinuaren hazia nolakoa izaten den azaltzen du. Zuhaitz mota bakoitzak bere denbora behar du hazteko. Eskerrak gure arbasoek zuhaitzak landatzeko ideia eta pazientzia izan zuten. Arbola bat landatzeak eta zaintzeak lurra aberastu eta ondu egiten du. Mendian ganadua ibiltzen bada, sua izateko arrisku gutxiago dago.

483. Arbola landatu eta zaintzeak balioa ematen dio lurrari (USU-033/024)

Arbola landatu eta aldatzearen aldeko da Jexuxmari. Lurrari balioa ematen zaio horrela. Zuhaitzak landatzeak ekarri duen onurari dagokionez, berak izan duen esperientzia kontatzen du.

484. 1953ko uholdearen aurretiko zerrategiaren martxa (USU-033/028)

1953ko urriaren 14an, uholde handia izan zen. Uholde haren aurretik, gaur egungo zerrategia hiru lan motatara dedikatzen zen.

485. 1933, 1953 eta 1983ko uholdeak (USU-033/029)

1953ko urriaren 14an izandako uholdeak utzitako marka oraindik ikusgai dago zerrategian; 1983ko uholdea metro erdi beherago iritsi zen; 1933an ere uholdeak izan ziren. "Ura eta sua belaunetik behera". Uholdeak zirenean, urari alde egiten zioten.

486. Eguraldiari begira ikasitakoak (USU-033/031)

Lana dela eta, eguraldiari begiratu behar izan dio. Horrela ikasitakoak aipatzen ditu: ipar haizeak eguraldi ona dakarrela, hego haizeak beroa... Hego haizea omen da haize klase txarrena.

487. Eguraldiari buruzko esaera zaharrak (USU-033/033)

Eguraldiari lotutako esaera zaharrak aipatzen ditu.

488. Eguzkia non sartzen den begira (USU-033/035)

Urte-sasoia araberan, eguzkia puntu desberdinean sartzen da. Metafisikari buruz hitz egiten dute.

489. Errebotea babestu eta lagundu izan dutenak (USU-034/004)

Enrique Abrili buruz hitz egiten du. Pixkanaka dirua biltzen joan ziren pilotako gastuak ordaintzeko; elkarte bat sortu zuten hartarako. Zubietako plaza hasieran ez zegoen ondo zaindua, baina Jexuxmari soldadutzan zegoela, txukundu eta pilotarako prestatu zuten.

490. Jokoaren arauak (USU-034/005)

Errebotera nola jokatzeko azaltzen du: arauak, "arraina", plazaren banaketa, taldeak...

491. Erreboteko sakea (USU-034/009)

Sakea nola egiten den azaltzen du.

492. Erreboteak eragindako agujetak (USU-034/010)

Pilotak astunak izaten dira errebotean. Kirol nekosoak dira; denboraldi hasieran, ohitu arte bizkarreko minak eta agujetak izaten zituzten. Agujetak bere gisa joaten ziren. Ez zuten entrenatzailearik. 40 urte ingurura arte aritu ziren errebotean jokatzeko.

493. Belaunaldi berriak pixkanaka errebotean (USU-034/011)

Pixkanaka gazteak sartzen joan izan dira errebotean; lagundu egin behar zaie sartzen. Lehen orain baino jende gutxiago ibiltzen zen errebotean.

494. Partiduaren ostean denek batera bazkaldu (USU-034/014)

Sarara joaten zirenean, bazkaria ematen zieten beste taldekoek; haiek Zubietara etortzean, hemengoek ematen zieten bazkaria. Denek elkarrekin bazkaltzen zuten. Emakumeek ez zuten errebotean jokatzeko.

495. Errebotearen jarraitzaileak (USU-034/016)

Hemen jendea joaten zen partiduak ikustera. Iparraldean jende asko joaten zen, eta sarrera kobratu egiten zen. Partiduak jokatzeko behar diren tresnak azaltzen ditu.

496. Errebotean jokatzeko gertatutako istripuak (USU-034/017)

Errebotean jokatzeko, azkarra eta arina izan behar da. Jokatzeko ari zirela gertatutako zenbait istripu aipatzen ditu.

497. Karmelo Balda (USU-034/018)

Karmelo Baldari buruz hitz egiten du. Hark egin zuen erreboteko plaza Donostiako Anoetan. Karmelo Balda dentista zen eta Francoren dentista izan omen zen.

498. Udaletxean zinegotzi bi aldiz (USU-035/002)

Udaletxean bi aldiz egon izan da zinegotzi. Bost gizon sartu ziren batera, eta bakoitzak kargu bat hartu zuen: Jexuxmariri obrak eta bideak tokatu zitzaizkion.

499. Bideak egiteko pausoak eta aurrekontua (USU-035/003)

Baserritarrekin batera erabaki zuten bideak egiten nondik hasi. Orduko aurrekontuarekin nola moldatu ziren kontatzen du.

500. Franco hil eta Herri Lan sortu (USU-035/004)

Udaletxean egon zen bigarren aldian, telefonoa eta ura jarri zuten baserrietan. Franco hil ostean izan zen, eta orduan Herri Lan alderdi politikoa sortu zuten.

501. Usurbilen urarekin izandako arazoak konpontzeko egindakoak (USU-035/008)

Usurbilen urarekin arazo handiak egon izan dira. Hori konpontzeko egindakoak kontaktzen ditu Jexuxmarik.

502. Udaletxeko soldata alderdiari babesa emateko (USU-035/010)

Francoren garaian ez zuten ezer kobratzen udaletxean lan egiteagatik; Franco hil ostean, bai, ordea. Herri Laneko zinegotziek alderdiari ematen zioten udaletxean kobratzen zuten dirua.

503. Depositua egiteko neurketak (USU-035/012)

Depositua egiteko neurketak nola egiten zituzten azaltzen du.

504. Deposituan sartzen den ura eta handik irteten dena (USU-035/014)

Presan egindako neurketetatik ondorioztatu zuen ur asko galtzen zela presan sartzen zenetik depositutik ateratzen zen arte. Andatzako ura oso ona omen da.

505. Andatzako uraren kalitate ona (USU-035/015)

Andatzako ura oso ona da, mendiak berak iragazi egiten baitu ura. Michelin sortu zenean, Jexuxmari zen udaletxeko sekretarioa. Andatzako ura iristen zen fabrikara eta non garbitzen zen galdetu zioten Jexuxmariren aitari.

506. Jai eta aste lanean (USU-035/016)

Ur-deposituaren neurketak noiz egiten zituen azaltzen du. Langilea izan da beti.

507. Nekazal sindikatuaren sorrera eta jarduera (USU-035/018)

Nekazal sindikatuan ibili zen lanean: 1908n sortu zen sindikatu hura denen artean egindako ekarpenei esker. Jexuxmariren familiako belaunaldi ugari egon izan dira sindikatuan, eta Jexuxmari bera juntan egon zen. Han izandako nondik norakoak kontaktzen ditu.

508. Sindikatuko bazkideen zerrenda eguneratzen (USU-035/019)

Sindikatuan zerrenda batean azaltzen ziren sindikatuko bazkide guztiak, eta zerrenda hura eguneratu egin zuten.

509. Sindikatuaren helburua eta funtzionamendua (USU-035/020)

Baserritarrek elkarri laguntzeko batetik, eta makinaria aurrerratuagoa denen artean eskuratzeko bestetik, sindikatua sortu zen. Diruak jendean duen eraginari buruzko iritzia ematen du.

510. Sindikatuan bazkide berriak sartzeko prozesua bideratzen (USU-035/023)

Jexuxmari sindikatuan lanean hasi zenean, bazkide berriak sartzeko prozesua bideratzen saiatu zen.

511. Ikastolaren sorreran Elizaren babesa (USU-035/026)

Ikastolaren sorreran Elizaren babesa izan zuten. Orduko arazo handiena diru falta izaten zen. Hasieran izandako maistra aipatzen du.

512. Ikastolako andereñoen erretiroa (USU-035/028)

Ikastolen sorreran lan egindako andereñoek erretiroa jaso zezaten, lege bat atera zuten duela urte gutxi.

513. Ikastolako umeen gurasoen meritua (USU-035/030)

Hasiera batean 6-8 ikasle joaten ziren ikastolara. Ume haien gurasoek konfiantza handia jarri zuten ikastolan.

514. "Paris" etxearen egitura eta jabeak (USU-036/002)

"Paris" etxean jaio zen Iñaki eta etxearen egitura nolakoa zen azaltzen du. "Paris" etxearen jabeak bi anaia ziren.

515. Baserriko lanetan ibilitako kale-umea (USU-036/004)

Paris etxean errentan bizi ziren eta dirutan ordaintzen zuten. Kale-umea da Iñaki, baina kale-baserrietan laguntzen aritua mutil koskorra zenetik. Baserriko lana gogorra iruditzen zaio.

516. Gerra osteko ogia nolakoa zen (USU-036/007)

Gerra ostean, gose garaia etorri zen. Etxean jaten zuten ogia nolakoa zen azaltzeko anekdota kontatzen du; txerriek ere ez zuten jan nahi izaten ogi hura.

517. Taloa jaten aspertuta (USU-036/008)

Etxean taloa egiten zuten, baina ogia ez. "Cementos Rezolari" esker aurrera atera ziren janariarekin. Hainbeste talo jan zuten, gaur egun ez baitzaie gustatzen taloa jatea.

518. Baserrietan lagunduta irabazi ogia (USU-036/009)

Baserrietan laguntzen aritzearen truke, zerbait ematen zioten eta horri esker aurrera ateratzen ziren.

519. Eskolako maisuak eta haiekin izandako anekdotak (USU-036/010)

Eskolan mojekin ikasitakoa da eta orduko anekdota kontatzen du. Guillermo maisu andaluzarekin ere ikasi zuen. Dena gaztelaniaz ikasten zuten. Guillermok ez zuen sekula ikusi elurra, Usurbilen egon baino lehenago, eta hunkitu egin zen hura ikusi zuenean.

520. Bonbilla puskatzeagatik epaitu zituztenekoa (USU-036/012)

Behin lñakik faroleko bonbilla puskatu zuen tiragomarekin eta udaletxean epaitu zituzten bera eta lagunak. Kartzelara eramango zituztela uste zutenez, ardoa eta kartak prestatu zituzten han egon behar zutenerako. Isuna jarri zieten azkenean.

521. Kilkerrekin egindako bihurrikeria (USU-036/013)

Bihurrikeriak eskolatik kanpo egiten zituen lñakik. Hala ere, behin eskolan kilkerrekin egindako bihurrikeria kontatzen du. Haren zigorra 40 lezio ikastea izan zen.

522. Maisuaren zigorrak (USU-036/014)

Behin maisuak dantzan egiteko esan zien. Ondo egiteagatik, ordu laurden lehenago joan ziren jolas-ordura. Zigor gogorak ere jasotzen zituzten batzuek.

523. Eskolako materiala (USU-036/015)

Eskolako mahaiak eta ikas-materiala nolakoak izaten ziren azaltzen du.

524. Añorgara elektrizitatea ikastera (USU-036/016)

Usurbilgo eskolatik Añorgara joan zen lanbidea ikastera. Bizikletaz joaten zen egunero hara. Elektrizitatara bideratutako gaiak ikasten zituzten han. Eskola hura non zegoen azaltzen du. Eskola hartara joateko, Cementos Rezolako langileen semea izan behar zen. Mutilek bakarrik ikasten zuten han orduan. Hango maisuen izenak eta haiek ematen zituzten irakasgaiak aipatzen ditu.

525. Donostiako arte- eta lanbide-eskolan ibilia (USU-036/017)

Cementos Rezolako eskola bukatutakoan, Donostiara joan zen arte- eta lanbide-eskolan ikastera. Garai hartan ama hil zitzaion eta gaez atera zituen ikasketa haiek. Orduan Ingemarren hasi zen lanean. Arte- eta lanbide-eskolan zer ikasgai izaten zituzten azaltzen du. Hara joateko, trena hartzen zuen.

526. Zineko gallineroa (USU-036/018)

Arte ederretako zinera joaten ziren batzuetan igandetan. Han "derecho a escándalo" zegoen, neskei eskua sartzen zitzaien.

527. Kartzelara ez joateagatik hartu zuten desilusia (USU-036/019)

Kartzelara sartu behar zituztela uste zutenean, ondo prestatu ziren barruan zeudenean aspertu ez zitezen. Azkenean ez zituzten sartu eta desilusia hartu zuten. Lehen gazte hasten ziren edaten, eta orain baino askoz gehiago edaten zen. Lanera ere ardoa eramaten zuten.

528. Pilota, kanikak eta txapak (USU-036/020)

Umetan pilotan ibiltzen ziren gehienbat. Txapatan ere aritzen ziren, jokoaren arauak azaltzen ditu. Kanikatan ibiltzen ziren: kanikak lurrezkoak izaten ziren eta era askotara jolasten ziren haiekin.

529. Gordeketan eta sokasaltoan (USU-036/021)

Gordeketan eta sokasaltoan aritzen ziren. Sokasaltoko kanta bat abesten du. Umetan ez zuten ulertzen zer esan nahi zuen kanta hark. Sokasaltoko beste kanta bat abesten dute.

530. Kalexarko eskolan euskara galarazita (USU-036/023)

Kalexarko eskolan euskaraz egitea galarazita zegoen: mojak ez zuten ulertzen euskara eta beldur zen beragatik gaizki esaka ariko ote ziren.

531. Usurbilen dantza lotua debekatuta (USU-036/027)

Erromeriak eta festak izaten ziren lehen. Usurbilen ttun-ttuna jotzen zen jai arratsaldetan. Dantza lotua debekatuta zegoen; Irubiden, ordea, libre zen.

532. Iñaki Iberorekin dantzan ikasia (USU-036/030)

Isidro Ansorenak behin Lasarteko dantzarietara egindako errieta gogoan du Iñakik. Horregatik, Iñakik dantza soltea ikasi zuen: Victoria Eugeniaren azpian ikasi zuen Iñaki Iberorekin. Gerora, soldadutzatik itzultitakoan, dantza-taldea sortu zen eta Iñaki hango irakasle izan zen. Iñaki Iberori buruz hitz egiten du.

533. Guardia Zibilak Iñaki jipoitu zueneko (USU-036/033)

"Paris" etxeko behean lapurreta izan zen, Iñaki eraman zuen Guardia Zibilak eta egurtu egin zuten. Gogoan ditu guardia zibil haiek. Franco hil ostean, euskaldunen batasuna galdu egin zen. Dantza taldekoek, hala ere, elkartzen jarraitu dute.

534. Emakumeak hilero bereziki zaindu behar (USU-037/002)

Neskek hilerokoa zutenean kontu handia izaten zuten: ezin zuten esfortzu handirik egin, ez dutxatu, ez dantzatu... Dantza-taldeko kideen artean konfiantza zegoen.

535. Dirua lortzeko, lehiaketara aurkeztu (USU-037/003)

Dantza-taldeko entseguak egiteko, ezin izaten zuten denek batera elkartu, ez baitzegoen denentzako lekurik. Dantza-emanaldiak hainbat lekutan izaten ziren. Dantzan gastu handia egin behar da arropatan. Diru hori lortzeko, Usurbilgo dantza-lehiaketara aurkeztu zireneko kontaketa du.

536. Oilasko-biltzaileen festa (USU-037/005)

Oilasko-biltzaileetan lehen mutilak bakarrik ateratzen ziren: zer ibilbide egiten zuten azaltzen du; oiloak bizirik eramaten zituzten zintzilik makilan. Gero, egun bertan, oilasko haiek afaltzeko jaten zituzten.

537. Herriko festetako jolasak (USU-037/006)

Lehen, Usurbilgo festetan, ogi-irinez betetako balde batean txanponak ezkututzen zituzten, eta txanpon haiek ahoarekin atera behar izaten zituzten. Neskek zinta-karrera egiten zuten; nola izaten zen azaltzen dute; Usurbilgo neskak karrera horren zain egoten ziren.

538. Baso-dantza: arropa eta apustua (USU-037/010)

Hainbat dantza mota egin izan dute taldean, baina gutxitan egin zuten arropa berria. Baso-dantza ikasi zuten dantzatzeko, eta behin apustu batean dantza hori egin zuenekoak kontatzen du. Entseatzeko, baso gogorak erabiltzen zituzten.

539. Dantza motak eta emanaldiak (USU-037/011)

Hainbat dantza mota egin izan dute dantza-taldean. Donostiako Loiolako festetara ere joan ziren dantzatzera musu truk. Igarara eraman nahi izan zituzten, baina azkenean ez zuten lortu.

540. Dantzako irakasle zeneko metodologia (USU-037/013)

Dantzako irakasle zela, ikasleei nola erakutsi zien dantzatzeko aipatzen du. Gimnasia egin behar izaten zuten orduan.

541. Kontxako estropadan parte hartutakoa (USU-037/015)

Kontxako estropadak ikustera joaten ziren, eta askotan ligidotik ikusten zituzten. Orduko traineruak aipatzen dituzte. Joxe Usurbilgo traineruan ateratzen Kontxan. Behin Donostiako zezen-plazara joan ziren biak, eta gerora Joxek entrenatzera joan behar izan zuen; orduan arraunlari ugari ez zekiten igerian eta orduko anekdota kontatzen du Joxek.

542. Traineru txarra eta estropada galdu (USU-037/016)

Usurbil eta Aginagako traineruen artean ika-mika zegoen. Behin Usurbilgoek Aginagaren aurka galdu zuten estropada batean, Usurbilgo traineruari ur asko sartu zitzaion eta. Iñakik egun hartan Usurbilen aldeko apustua galdu zuen. CATen lortzen zituzten traineruak, eta hango txarrena eman omen zieten.

543. Usurbilgo trainerua (USU-037/019)

Lehen orain baino jende gehiago joaten zen estropadatan animatzera. Usurbilgo traineruaren bandera gorria zen; Alkortak laguntzen zuen diruz trainerua. Orioko umeez teknika hobea zuten arraunerako, oso txikitatik ikasten baitzuten. Arraunlariak izan arren, lehen ez zitzaien eskatzen igerian jakitea.

544. "¡Perrita al agua, caballero!" (USU-037/025)

Txoko Alde inguruan, txanponak botatzen zituzten uretara eta Iñakik ahoan sartuta ateratzen zituen. Donostian Alde Zaharrean "perrita al agua, caballero" esaten zuten gazteek uretatik, txanpona bota ziezaieten; inguru hartan, ordea, sakonera handia zegoen, eta zailagoa zen txanpon guztiak harrapatzea.

545. Animaliekiko ikuspegia aldatu da denborarekin (USU-037/027)

Lehen, animaliak errazago hiltzen zituzten; orain, ordea, sentsibilitate handia dute animaliekiko. Behin Joxeri txoriak nahi gabe eskutan hil zitzaizkionekoak kontatzen dute. Lehen Joxeri deitzen zioten txerriak hiltzeko, baina pixkanaka uzten joan zen lan hori, pena ematen baitzion txerriak.

546. Txoriekiko sentsibilitatea denboran zehar (USU-037/028)

Iñakiren etxean txori asko hazi izan dituzte; orain, ordea, ez zaio gustatzen txoriak kaiolan ikustea.

547. Udaletxearen jarrera animaliekiko lehen eta orain (USU-037/030)

Lehen udaletxean diru-saria ematen zuten hegazti harrapariak hiltzeagatik. Orain, ordea, denak babestuta daude. "Gure goraintzian" esaeraren esanahia azaltzen dute.

548. Mutilek gaztetatik erretzen; neskengan, ordea, oso gaizki ikusia (USU-037/034)

Iñakik 13 urte zituenerako erretzen zuen. Zigarroak lehen bildu egiten zituzten eta azkar asko egiten zuten. Hasieran ezkutuan erretzen zuen Iñakik. Lehen emakumeek ez zuten erretzen, oso gaizki ikusia baitzegoen.

549. Emakumeek erretzea lehen oso gaizki ikusia (USU-038/002)

Emakumeek erretzea oso gaizki ikusia zegoen lehen. Behin Iñaki lagun batzuen etxera joan zen eta bertako bilobei zigarroa eskaini zienean aitona esandakoa kontatzen du.

550. San Ferminetako abenturak (USU-038/004)

San Ferminetan izan zenekoa kontatzen du: entzierroan egin zuten korri eta estutasunak pasa zituen. "Bar El Marranora" joan ziren entzierroaren ostean. Arratsaldean, guardia zibil batzuekin egin zuten topo, eta haiekin izandako elkarrizketa kontatzen du.

551. Soldadutza ona tokatu zitzaion (USU-038/006)

Irunen egin zuen soldadutza. Familiarteko ugari zituen bertan. Han zegoela, komentu batean lan egiteko boluntarioak eskatu zituzten; lagun bat eta bera joan ziren hara; oso gustura ibili ziren han eta gainera soldata ematen zieten.

552. Antzezlan egin eta Goenkaletik deitu (USU-038/009)

Antzerkian ibili izan dira Joxe eta Iñaki. Antzezlan bateko anekdotak kontatzen dituzte. Gerora, Goenkalen lan egiteko deitu zioten.

553. Adarra jotzeko gaitasuna, baita antzerkian ere (USU-038/011)

Antzezlan batean, 14 urteko mutil baten pertsonaiarena egin zuen. Orduko anekdotak kontatzen ditu. Antzerkia egitean, oso lasai sentitzen zen Iñaki.

554. Neskekin antzezlanak noiz arte (USU-038/012)

Solferinoko itsua antzezlan egin zuteneko anekdota kontatzen dute. 12 urtera arte, antzerkian neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren; orduetik aurrera, ordea, ez. Neska-mutilek batera egindako antzezlan bateko anekdota kontatzen du.

555. Antzerkia prestatzen (USU-038/013)

Mutilekin bakarrik, antzezlan asko egin izan ditu Iñakik. Usurbilen bakarrik erakusten zituzten antzezlanak. Nola-hala moldatzen ziren arropak lortzeko. Behin, entseguaren ostean, jatera joan ziren tabernara eta hango anekdota kontatzen du Iñakik.

556. Inuxente eguneko enkargua (USU-038/016)

Inuxente egunean, txiki-txikitatik jo izan diote adarra elkarri. Lehen beste umore bat zegoen.

557. Lehengo adarjotzeak eta "sanidadea" (USU-038/018)

Inuxente egunean, lehen potoak lotzen zizkieten kotxeei. Garai hartan, bestelako umorea eta "sanidadea" zegoen. Astoa margotu zuenik ere bada. Lehen adarjotzeak oso ohikoak ziren beren artean.

558. Defuntuari ere adarra jotzen (USU-038/019)

Herrian gizon bat hil zen, eta Iñakiren izebari tokatu zitzaion hura jantzi eta hilkutxan sartzea. Han ere adarjotzea izan zen.

559. Arrosario xelebrea (USU-038/022)

Behin, Iñakiren izeba Txoko Aldera joan zen norbait hil zelako. Lehen arrosarioa errezatu behar izaten zen hildakoaren etxean bertan; arrosario hura xelebrea xamarra izan zen.

560. Aitaren garaiko adarjotzeak (USU-038/024)

Santixabeletan aitaren anaiak elkartu egiten ziren, eta kontu-kontari aritzen ziren. Haien anekdota bat kontatzen du.

561. Lagunarteko giroa (USU-038/026)

Behin, San Estenbango festetan, lagun artean elkartu eta han izandako anekdotak kontatzen ditu Iñakik.

562. Eskolan finak (USU-041/008)

Eskolan maisu andaluz batekin ikasten zuten. 40 ume inguru izaten ziren orduan, baina ikasle onak ziren. 13 urtera arte ibili zen eskolan.

563. 13 urterekin abere-hiltzaile (matarife) (USU-041/009)

13 urterekin eskola bukatutakoan, ganadua hiltzen ikasi zuen. Montevideotik etorritako aitonak erakutsi zion lanbidea. Txerri-hiltzea nolakoa izaten zen eta ordainetan zer ematen zieten azaltzen du.

564. Doktrina ikastea garrantzitsua, baina beste gaiak ere ikasi zituzten (USU-041/018)

Eskolan dena gaztelaniaz ikasi zuten. Doktrina goitik behera zekiten. Etxekoentzat oso garrantzitsua zen doktrina. Beste gai batzuk ere ikasten zituzten eskolan; orduko liburuak oraindik gordeta dauzka. Eskolatik kanpo kantak ikasten zituzten.

565. Ezkutuan erretzen zutenekoa (USU-041/021)

Joxe eliz mutil sartu zen eta bihurrikeriatan aritzen zen. 13 urte zituenerako, tabakoa erretzen zuen. Lehen normala zen hain gazte hastea erretzen. Zer tabako marka erretzen zituzten aipatzen du. Ezkutuan erretzen saiatzen ziren; baina, apaizak harrapatuz gero, zigorra izaten zuten. Soldadutzatik etorritakoan, etxekoei esan zien erretzen zuela. Zigarroek pezeta bat balio zuten lehen, eta enkarguak egiteagatik lortutako diruarekin ordaintzen zuten.

566. Bizikleta ordaintzeko asmotan, emaztea ezagutu (USU-041/022)

Inguruko festetara joaten ziren, oinez ez zenean, bizikletaz. Bizikleta ordaintzeko, Lasarten hasi zen lanean 16-17 urte zituela. Orduan ezagutu zuen neska-laguna. Harekin zer plan egiten zituen aipatzen du. Lehen neska ez ziren tabernara sartzen.

567. Neska-laguntzea eta lehenengo musua (USU-041/025)

Dantza bukatzen zenean, neska-laguntzea izaten zen. 5-6 aldiz laguntzen zitzaionean neskari etxera, musua eskatzen zitzaion. Bere lehenengo musua nola izan zen kontatzen du. Ezkutuan egin behar izaten zen.

568. Mutila deklaritzen zenekoa (USU-041/028)

Neska bat mutil batekin hasteko, mutilak bere maitasuna aitortu behar zuen. Mutilak urduri egoten ziren noiz esango.

569. Neska-lagunaren urtebetetzeko oparia ahaztu zuenekoa (USU-041/029)

Neska-lagunari opariak egiten zitzaizkion. Behin Joxek bere neska-lagunari opari bat egingo ziola promesa egin zion, baina ahaztu egin zitzaion; Lasartera joan zen orduan bizikleta hartuta eta urrezko eskumuturrekoa erosi zion. Oraindik gordeta dauka opari hura emazteak.

570. Autoak eta autobusak Usurbilen (USU-041/033)

Usurbilen lehen auto gutxi zeuden. Autobusak bazeuden eta nondik nora joaten ziren azaltzen du.

571. Michelinen lanean bizi guztian (USU-041/034)

Michelinen lan egin izan du Joxek. 1961ean hasi zen han lanean eta 58 urte zituela hartu zuen erretiroa. Autobusez, motorrez edo bizikletaz joaten zen egunero lanera. Bere eginkizuna zein zen aipatzen du. Giro ona zeukaten lanean.

572. Lasarte herri bihurtu zenekoa (USU-041/035)

Usurbilek Lasarterekin izan du pikea. Lasarte herri "berria" da; lehen auzo-alkatea zeukaten. Lasarten fabrika garrantzitsuak zeuden eta jende asko etorri zen kanpotik; herria asko handitu zen.

573. Trenaren ibilbidea eta treneko giroa (USU-041/036)

Trena lehen nondik igarotzen zen azaltzen du. Usurbildik Lasartera lehenago bazegoen trena, Zubietatik barrena. Treneko txartel-zulatzailereangandik ihesi ibiltzen ziren txartela ez ordaintzearen; harrapatuz gero, isuna ordaindu

behar izaten zuten. Txartel-zulatzaille batzuk gogoan dituzte. Treneko txartela kartoizkoa izaten zen.

574. Trenak gizon bat harrapatu zuenekoa (USU-041/039)

Behin trenak tunelean gizon bat harrapatu zuenekoa kontaktzen du. Trenak tutua jotzen zuen tunelean sartzean, barruan zeudenek neurriak har zitzaten.

575. Kontrabandoari esker aurrera atera zen Usurbil (USU-042/002)

Kontrabandoari esker, Usurbil aurrera atera zen. Kontrabandoa Valentzia aldetik ekartzen zuten. Joxeren etxean nahikoa babarrun zutenez, ez zuten goserik pasa. Errazionamenduak nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

576. Garia entregatu, baina banatu ez (USU-042/003)

Garia eta artoa egiten zuten etxean, baina zati bat entregatu egin behar izaten zuten. Garia ez banatzeagatik, alferrik galtzen zen batzuetan.

577. Errotak itxita zeudenean, ezkutuan joan behar (USU-042/005)

Errotak itxita zeudenez, ezkutuan joan behar izaten zuten garia ehotzera. Usurbildik Zizurkila garia oinez astoarekin eramaten zutenak baziren; harrapatuz gero, kendu egiten zuten jeneroa.

578. Hamarrenak eta bulak (USU-042/007)

Elizari hamarrena eman behar zitzaionekoa gogoan du Joxek. Bulak zer diren azaltzen du eta horrekin lotutako anekdota barregarria kontaktzen du. Bula lortzeko galdera batzuk erantzun eta ordaindu egin behar izaten zen.

579. Apaiza salataria (USU-042/009)

Apaizak kontrolatu egiten zuen nork hartzen zuen jauna, eta apaiz hura gerra garaian salataria izan zen, nor fusilatu esaten zuena.

580. Don Francisco apaizaren anekdotak (USU-042/012)

Joxe Don Franciscoren mezalaguna izan zen eta hari buruzko anekdota kontaktzen du.

581. Gaixotasunean ere umorea (USU-042/013)

Lehen gaixotasun gogorrak izaten ziren: pneumonia, apendizitisa, tifusa... Tifusari buruzko anekdota kontaktzen du.

582. Tifusa eta egarria (USU-042/014)

Tifusa ohikoa zen lehen; eta makina bat lagun egarriak jota hil zen, deshidratatuta. Gaixoei ez zieten uzten ura edaten, baina gerora Don Justo medikuak berak onartu zuen tratamendu hori okerra zela.

583. Herriko medikuaren ibilaldiak (USU-042/015)

Lehen mediku bat egoten zen herri guztirako. Goizeko 6etan hasi eta herri guztiari ematen zion buelta jendea zer moduz zegoen galdetuz. Mediku hura oinez ibiltzen zen batetik bestera, baina Joxeren aitaren garaian zaldiz joaten zen medikua. Joxeri medikuak 12 puntu eman zizkionekoa kontaktzen du.

584. Herriko emaginak (USU-042/017)

Umeak etxean jaiotzen ziren. Emaginak zein ziren eta jaiotzak nola prestatzen ziren azaltzen dute.

585. Kristala hautsi eta umea izan (USU-042/020)

Leihoak kristalik gabe zituzten familia batean, seme-alaba ugari eduki zituzten. Kristal haren kontura izandako anekdota kontatzen dute.

586. "Atsua / antzua" (USU-042/022)

Lehen gaizki ikusia zegoen seme-alabarik ez izatea. "Atsoa" esaten zitzaion "antzuari".

587. Aitona berritsuaren anekdota (USU-042/023)

Joxeren aitona oso berritsua zen. Behin bizarra ebakitzera barberuarengana joan zenean gertatutako anekdota kontatzen du.

588. Ttonttorraren orrazkera (USU-042/025)

Gizonen orduko orrazkera nolakoa izaten zen azaltzen dute. Orrazkera hura normalean baserriko jendeak eramaten zuen.

589. Kaleko mutilak eta baserrikoak (USU-042/026)

Kaleko mutilek baserrikoei burla egiten zieten lehen. Baserri batean apaizarekin gertatutako anekdota kontatzen du Joxek.

590. Berorika egitea justifikatua? (USU-042/027)

Apaizari berorika egiten zitzaion lehen. Iñakik gurasoei eta izeba-osabei ere berorika egiten zien. Medikuari berorika egiten zitzaion. Baina pixkanaka galtzen joan zen berorika egitearen ohitura.

591. Medikuen eta apaizen ikasketak (USU-042/028)

Medikuntza Zaragozan ikasten zen lehen. Don Justo zen Usurbilgo medikua eta haren semea ere mediku sartu zen. Apaizgai izateko, Gasteizko seminariora joaten ziren lehen; gerora, Donostiara joaten hasi ziren.

592. Soldadutza uste baino laburragoa (USU-042/030)

Soldadutza Donostian egin zuen: ofizialki 16 hilabete ziren; baina, azkenean, 4 hilabete eman zituzten han. Soldadutzako anekdota kontatzen du.

593. Soldadutzako soldata (USU-042/033)

Soldadutzan zeudela, bi erreal ordaintzen zizkieten eguneko. Hilabetean zehar kalteren bat eragiten bazuten, soldatetik kentzen zieten.

594. Herrian konfiantza giroa (USU-042/040)

Usurbilen aguazila zegoen, baina gauzaina (serenoa) ez. Gauzainaren funtzioa zein zen aipatzen dute. Lehen atea ez zuten ixten Iñakiren etxean, konfiantza baitzegoen herrian.

595. "Ur bila" baserrira (USU-042/042)

Lehen baserriak irekita egoten ziren, hartarako konfiantza baitzegoen. Behin "ur bila" zebiltzaneko anekdota kontatzen du Iñakik.

596. Ehizarako zaletasuna gaztetan (USU-042/043)

Ehizan ibiltzen ziren Joxe eta Iñaki. Pixkanaka ikasi zuten nola egiten zen ehiza. Joxek hiru eskopeta ditu gordeta oraindik.

597. Lehen jaten zen arraina (USU-042/044)

Arrantzan oso ona izan da Iñaki; txapelketatan ere ibiltzen zen. Arraina saltzera Getariatik etortzen ziren Usurbila. Zer arrain jaten zuten garai hartan aipatzen dute. Arrain mota bakoitzaren "ospeaz" hitz egiten dute. Kantauri itsasoa lehen aberatsa zen, arrain asko zegoen.

598. Tolosara erromeriara eta Donostiara "zina" (USU-042/046)

Tolosara joaten ziren erromeriara neskalagunarekin; zina ere joaten ziren, Arte Ederretako "gallinerora". Donostian lehen zer zina zeuden aipatzen dute.

599. Mendian irristatzen (USU-042/048)

Mendira joan eta euria egin zien behin. Neskak erraz irristatzen ziren, eta orduan izandako anekdota kontatzen dute.

600. Matxismoa eta Mariaren Alabak (USU-042/052)

Lehen matxismo handia zegoen, baina pixkanaka kentzen joan zen. Mariaren Alabak kongregaziotik bidaltzen zituzten dantza lotua egiteagatik.

601. Jauna hartu aurretik baraurik egon behar (USU-042/054)

Konfesatu egin behar izaten zuten. Behin, jauna hartu baino lehenago, gozokia jan zuen Iñakik; baraurik joan behar izaten zuten, ordea.

602. Matriarkatua nagusi (USU-043/001)

Emakumeek lehen ez zuten etxetik kanpo jarraitzen lanean ezkondu ostean. Matriarkatua egon izan da hemen, emakumeek eraman izan dute etxeko martxa.

603. Bastoiak nork eta noiz (USU-043/003)

Bastoiari buruz hitz egiten dute. Alkateak bastoia eramaten zuen egun berezietan. Bastoia agintea zeukanak eramaten zuen.

604. Usurbili buruzko bertsoak (USU-043/005)

Usurbilgo himnoa abesten dute. Diyo kale-garbitzaileari buruzko bertsoak aipatzen dituzte. Txamuntoren abestia kantatzen dute.

605. Hiletako kantak eta bataioetako ohiturak (USU-043/007)

Hiletako kanta eta bataioetako ohiturak aipatzen dituzte. Amak teila jarri behar izaten zuen elizan sartzea egin aurretik kalera irten nahi bazuen.

606. Umearen izena nork aukeratu? (USU-043/009)

Umearen izena aukeratzeko amandrearen eta aitajaunaren iritzia garrantzi handia zuen.

607. Mikel bataiatu zutenetik (USU-043/010)

Iñakiren lehengusua gerra garaian bataiatu zuten eta Mikel izena jarri zioten, nahiz eta jakin geroago agian Miguel izena jarri beharko ziotela. Bizi guztian Mikel deitu izan diote.

608. Seme-alabei abestiak erakusten (USU-043/013)

Seme-alabekin abesteko ohitura izan dute. Iñakik alabari euskal kantu bat erakutsi zioneko anekdota kontatzen du.

609. Mendian abesten zituzten kantak (USU-043/015)

Mendira joaten zirenean, abestu egiten zuten. Orduko abestiak kantatzen dituzte. Amak etxeko lanak egiten eta kantuan aritzen ziren.

610. Garbigailuak ekarritako onurak (USU-043/017)

Garbigailua aurrerapen handia izan zen etxekoandreentzat. Garbigailu sorginduaren anekdota kontatzen du Iñakik. Emakumeek lehen lan handia izaten zuten arropa garbitzeko.

611. Aurrerapenak sorginkeriak omen ziren (USU-043/019)

Eliza irriaren eta garbigailuaren aurka egon zen hasieran, sorginkeria zelakoan.

612. Etxeko irratian entzuten zutena (USU-043/020)

Irratia entzuten zuten etxean: irradi-nobelak emakumeek entzuten zituzten gehienbat. Gaztelaniaz izaten zen irratia beti. Radioestacion Pirenaica entzuten zuten, Dolores Ibarrurik hitz egiten zuen hor.

613. Elizako txistea (USU-043/022)

Elizako txistea kontatzen du Iñakik.

614. Dantza lotua egin eta aurpegia eman (USU-043/023)

Behin Iñakik dantza lotua egin zuen lehengusinarekin, eta gerora apaizak galdetu zion ea hala izan zen.

615. Apaizaren makila eta maisuaren pala (USU-043/026)

Apaizak eta maisuak jo egiten zuten. Denak isildu egiten ziren.

616. Eskola garaiko "gaiztakeriak" (USU-043/027)

Behin Iñaki eta lehengusua arrantzara joan ziren eskolatik piper eginda; baina apaizak ez zion jo. Beste behin, eskularruak jantzita egon zen klasean, hotzaren hotzaz.

617. Udaletxeko eskolara joandakoa (USU-046/002)

Eskolara udaletxera joaten ziren. Don Teodoro zuten maisu. Mutilek eta neskek aparte ikasten zuten. Mojen eskolako moja batzuk gogoan ditu.

618. Miserikordiako mutilak (USU-046/005)

Miserikordiara mutilak zergatik joaten ziren aipatzen du. Mutil haietako bat kale-garbitzailea zen, "atsua" deitzen zioten.

619. Komunioa: data garrantzitsua (USU-046/007)

Eskolan ibili zen 14 urterekin komunioa egin arte. Komunioa ez zuten denek adin berarekin egiten. Don Guillermo Arana erretorearekin komulgatu ziren. "Kalabazeroak" zeuden orduan. Komunioan irakurri egin behar izaten zuten egun osoan zehar, txandaka. Komunioa egin ostean, Urkiolara joan ziren oinez Durangotik.

620. Osabarekin okindegian lanean (USU-046/008)

Komunioa egin ostean, 14 urte ingururekin, lanean hasi behar izan zuen. Osabaren okindegian aritu zen lanean. Osabaren bizitzari buruz hitz egiten du.

621. Gerra garaian gau eta egun lanean (USU-046/009)

1936an, gerra hasi zenean, gau eta egun aritzen ziren lanean okindegian. Ez zuten deskantsatzeko denborarik izaten ia; elizan ere lo hartzen zuen.

622. Soldadutzara Afrikara (USU-046/010)

Soldadutzarako garaia iritsi zitzaionean bukatu zen gerra juxtu. Afrikara joatea tokatu zitzaion zozketan. Trenz joan ziren Algecirasa, eta handik itsasontziz Afrikara. Soldadutzako gorabeherak kontatzen ditu.

623. Makien mobilizazioa (USU-046/011)

Makien mobilizazioarekin, penintsulara bidali zituzten Afrikatik. Gaixo egon zen bera orduan. Baimena lortu zuenean, etxera itzuli ziren.

624. Soldadutza ostean, okindegira buelta (USU-046/012)

Soldadutzatik itzulitakoan, lanean hasi zen berriro. Lehen ogiak zaldiz banatzen ziren, baina bere garairako furgonetan bazuten. Gidabaimena atera zuen eta garraiolari aritu zen batetik bestera.

625. Gerra zibilaren ostean, II. Mundu Gerra (USU-046/014)

Gerra zibila bukatu zenean, II. Mundu Gerra hasi zen. Beraiek garai hartan Afrikan zeuden soldadutzan. Jorge juxtu-juxtu libratu zen, egun hartan ospitalean zegoelako. Joan ziren mutil batzuen izenak aipatzen ditu.

626. Tenientearen harengak eta lizentziatura (USU-046/015)

Teniente batekin egunero izaten zituzten harengak. Lizentziatu zirenekoa aipatzen du.

627. Lehen etxe gehienetan behiak (USU-046/017)

Lehen Usurbilgo etxe gehienetan zeuden behiak. Orduan zer etxe eta denda zeuden aipatzen du. Lehen kotxe gutxi zegoen Usurbilen.

628. Kallentaren istorioak (USU-051/002)

Kallentaren istorioak kontatzen ditu.

629. Demetrio Gaztañagakoaren istorioak (USU-051/003)

Demetrio Gaztañagakoaren istorioa: Paraguayen jaio zen eta gaztetan Usurbila etorri zen. Oso gizon umoretsua zen. 1918an gripe izurritea izan zen, eta Demetrio laguntzen aritu zen premia zegoen lekuan.

630. Sorginak bukatu zirenekoa (USU-051/004)

Demetrioni sorgina azaldu zitzaionetik aurrera, bukatu ziren sorginak Usurbilen.

631. Erramun Kale eta ardo-usaina (USU-051/005)

Erramun Kale sindikatuko teilatuan ari zen lanean, eta sagardo pitarra eramateko eskatu zuen; geroago, ardo asko edan zuen, eta etxera iristean emazteak errieta egin zion. Lagun batek besteari pobreziazi buruz esandako komentario barregarria.

632. Eibarko txirloiaaren agurra (USU-051/006)

Eibarko txirloiaaren agurra.

633. Joxe bete-bete eginda (USU-051/007)

Joxe bete-bete eginda: egun batean Joxe mozkor joan zen etxera eta emaztearekin izan zuen elkarrizketa kontatzen du.

634. Altzu baserrikoak eta gaztelania (USU-051/008)

Erramun Kale eta Altzu baserrikoak: Praixku Mari (Altzu baserrikoa) etxera zetorrela, guardia zibilekin topo egin eta erdaraz hitz egin behar izan zuen nola-hala. Manuel (Altzu baserrikoa) Ameriketara bi bider izana zen, eta bazekien gaztelaniaz: harekin izandako anekdotak.

635. Sanatorioa eta treneko balentria (USU-051/009)

Anttonio Lartzandieta eta "San Antonioren" anekdota. Jai goiz batean, barberuarengana etorri zen gizon bat treneko balentria kontatzen.

636. Anttonio Kuartroneakoa (USU-051/011)

Antonino Kuartroneakoa: pinua botatzen ari zela, guardiarekin izandako elkarrizketa.

637. Hauteskundearen aurretik bikarioarekin hizketan (USU-051/012)

Isidro Txara eta bikarioa: hauteskundeak ziren eta bikarioarekin izandako elkarrizketa kontatzen du.

638. Munduaren erdia non dago? (USU-051/013)

Bikario jauna paseatzen ari zela, Isidro topatu zuen baratzean lanean. Orduan izandako elkarrizketa kontatzen du.

639. Jainkoak nahi ez badu ere... (USU-051/014)

Landa eta bikarioa: ostegunetan bikarioa merienda jatera joaten zen Artsuaganeara. Han Landarekin izan zituen elkarrizketak aipatzen ditu.

640. Kartzelara zergatik sartu zintuzten? (USU-051/015)

Inaxio Asteasuainzaharra: errotari iaioa zen eta kartzelara eraman zuten; bikarioak zergatia galdetu zionean izandako elkarrizketa kontatzen du.

641. Morroiaren errimak (USU-051/016)

Antonio Artutxa: lehen morroiak egon ohi ziren baserrietan, eta haietako bati gertatutako anekdota kontatzen du.

642. Morroiaren iratzargailua (USU-051/017)

Morroia eta iratzargailua: morroia astoaren arrantzarekin esnatzen zen, eta orduan izandako komeriak kontatzen ditu.

643. Ximon Beraetxeren tripa (USU-051/018)

Ximon Beraetxe: Michelinen egiten zuen lan atezain. Frantses batekin izandako elkarrizketan emandako erantzun xelebrea.

644. Bizikleta nork eramango (USU-051/019)

Aintzi: Joxe Martin bizi zen Aintzin, eta bizikletaz ibiltzen zen, Atanasioki bizikleta eskatuta. Behin, Atanasiok utzi ez zionekoa kontatzen du.

645. Lagunaren ibiltzeko baimenarekin (USU-051/020)

Zumarragarra: Francoren garaian, ibiltzeko baimena (salbokonduktua) behar izaten zen. Behin, Zumarragako gizon bat etorri zen herrira; eta beste baten ibiltzeko baimenarekin joan zenean gertatutako anekdota kontatzen du.

646. Usurbilen bizi nahi (USU-051/021)

Periko eta Xabin: Usurbilen gehien gustatzen zitzaiona.

647. Kilkerrentzako poto bila (USU-051/022)

Xabin: behin, kilkerak harrapatu zituen eta haiek gordetzeko lekua behar zuen. Hura lortzeko egindakoak aipatzen ditu.

648. Auto-istripua errematatzeko (USU-051/023)

Anjel Galardi: autoz etorri zen Lasartetik Usurbila, eta istripua izan zueneko anekdota kontatzen du.

649. Kolera garaiko anekdota (USU-051/024)

Kolera garaia: Usurbilen jende asko hil zen garai batean kolerak jota. Gaixoentzako txabola txukuna egin zen; eta, hiltzen zirenean, lurperatu egiten zituzten. Behin gaixo bat "hil" zeneko anekdota kontatzen du.

650. Txakolin botilaren gorabeherak (USU-051/025)

Anjel Galardi eta Julian Bengoetxea: txakolin botilaren anekdota.

651. Arbia osten zuen lapurraren bila (USU-051/026)

Atanaxio eta Kaxko: arbia osten zuen lapurra bilatzeko anekdota.

652. Bertso berezia (USU-051/027)

Behin zentro errepublikanoan elkartu ziren bertsoan egiteko, orduko bertsoak abesten ditu.

653. Dultzaina jota lortutakoa (USU-051/028)

Pablo Orbeldi: Orbeldin dultzaina jotzen ari zela, anaiak dantzan jarri zituen.

654. Sagardotegiko jabearen balioa (USU-051/029)

Joxe Lizarraga eta Lokate: sagardotegiko jabea hil zenean, haren semeei eskatu zien sagardotegia irekita edukitzeko. Orduko anekdota.

655. Ura edateko egiten zituenak (USU-051/030)

Prontxio Txaramuntokoa: egunero egiten zuen ibilaldia, ura edatera joateko. Hara zergatik joaten zen azaltzen du.

656. Hil egin nahi zuen gizona (USU-051/032)

Putroxo eta Praixku Konportto: gauetan elkartzen ziren eta heriotzari buruz hitz egiten zuten. Orduan gertatutakoa kontatzen du. Gerora, horri buruz hitz egin zuten.

657. Gipuzkoari buelta, bizikleta gainean (USU-051/033)

Domingo Herrerua eta Munua: Gipuzkoari buelta ematera joan ziren bi egunean bizikletaz; Zestoan Usurbilgo lagun bat zegoenez, han egin zieten harrera kontatzen du. Andoaindik bueltan zetoze, guardia zibilek gelditu zituzten. Zubietan ere gelditu zituzten eta isuna jarri nahi izan zieten.

658. Jende asko izan al da hiletan? (USU-051/034)

Demetrio eta Anastaxi Patrinekkoa: hileta bat izan zen, eta Demetrio Patrinerak joan zen gorpua lurperatu ostean. Han izandako elkarrizketa kontatzen du.

659. Musean haserretu zirenekoa (USU-051/035)

Domingo Aitzeta eta Joxe Martin igeltseroa: egunero tabernan musean jarduten ziren, eta behin haserretu egin ziren.

660. Ostegun Santuan topo egin zutenekoa (USU-051/037)

Araetako Kaskabeltza eta Inaxio Haundia: Ostegun Santu egunez, topo egin zuten bidean eta orduan izandako elkarrizketa kontatzen du.

661. Diyo bidezainaren doinua (USU-051/038)

Diyo bidezainak kantatzen zuen doinua abesten du.

662. Gerra hasi eta frontera joan behar (USU-052/003)

14 urterekin, eskola utzi eta Lasartera joan zen lanera gerra hasi zen arte. Gerra garaian, hainbat frontetan ibili zen beste usurbildar batzuekin. Frontean izandako gorabeherak aipatzen ditu: Flechas Negras (haiei esker onik atera ziren, ondo portatu baitziren)...

663. Gerran, Bilbon eta Laredon (USU-052/004)

Gerra garaian, Bilbon kamioia kendu zieten. Laredora joan zirenean pasatako komeriak azaltzen ditu. Etxera itzuli eta beldurrez ibili zen.

664. Burgosa makien mobilizazioarekin (USU-052/006)

1942n, makien mobilizazioa egon zen eta Burgosa eraman zituzten: automobilismoaren arduradun izan ziren han. Hango lan-baldintzak oso txarrak izan ziren batzuentzat.

665. Eskola utzi beharra etxean laguntzeko (USU-052/010)

14 urtera arte ibili ziren eskolan: 80 ume inguruk ikasten zuten maisu batekin. Gogoan du non esertzen ziren. Eskolan erakutsitakoak ikasten zituzten, baina ez zituzten ulertzen. 14 urterekin gizon egin zen, eta lanean hasi zen etxean. Berak nahiago zuen eskolara joan, baina dirua falta zen horretarako. Goserik ez zuten pasa. Eskolatik etxera joandakoan ogia eta txokolate ontza erdia jaten zuten.

666. Mekaniko izateko ikasten garaje San Sebastianen (USU-052/011)

16-17 urte zituela, mekaniko ikasi nahi izan zuen. Garaje San Sebastianen hasi zen lanean, eta bi urte eman zituen han.

667. Itsas armadan ibilia Ferrolen (USU-052/012)

Itsas armadara joan behar izan zuen, zozketan hala tokatu baitzitzaion. Ferrola eraman zuten tren zahar batean. Han lorezain hasi zen lanean. Gerora, autoak garbitzeko eta mahaiak zerbitzatzeko hartu zuten. Hiru urte eman zituen Ferrolen.

668. Kallentaren bertsoak (USU-052/017)

Kallentaren istorioa: bertsoan abila zen eta ematen zituen erantzun batzuk bogoan ditu Anttonio Pellok.

669. 1933ko uholdeak eta 1934ko harria (USU-052/025)

1933ko ekainaren 15ean, gorputz gauean, uholdeak izan ziren. Hurrengo urtean, harria egin zuen galanta: orduan egondako kalteak aipatzen dituzte.

670. Komun berria egiteko neurriak (USU-052/027)

Komun berria egiteko anekdota kontatzen dute.

671. Euskal presoeri buruzko bertsoak (USU-055/002)

Euskal presoeri buruzko bertsoak.

672. Testamentuari buruzko bertsoak (USU-055/004)

Testamentuari buruzko bertsoak.

673. Semea mozkor etxera datorreneko bertsoak (USU-055/006)

Etxera mozkor datorren mutilak aita topatu du atean. Horri buruzko bertsoak.

674. Bertsoak: banketxeen irabaziak krisi garaian (USU-055/008)

Krisi garaian banketxeek dituzten irabaziei buruzko bertsoak.

675. Entzuleei buruzko bertsoak (USU-055/009)

Entzuleei buruzko bertsoak.

676. Usurbilgo bertso-saioari buruzko bertsoak eta adarjotzeak (USU-055/010)

Usurbilgo bertso-saioari buruzko bertsoak eta adarjotzeak.

677. Bertsoak puntuka adarra jotzeko (USU-055/011)

Adarjotzea puntuka.

678. Adarjotzea puntuka (USU-055/013)

Adarjotzea puntuka.

679. Izeta anaien bertsoak (USU-055/015)

Izeta anaien arteko adarjotzea bertsotan.

680. Agurra egiteko bertsoak (USU-055/018)

Bukaerako agurrak.

681. Lanerako eguraldi txarrik ez (USU-057/004)

Eskolara Arratzaina joan zen 9 urterekin hasita. Hainbat baserritako umeak joaten ziren hara. Eskola bukatutakoan, lanean hasi behar izan zuen. Lanerako ez zegoen eguraldi txarrik.

682. Animaliei nola hitz egin (USU-057/009)

Idiei eta astoei zuka egin izan die Eustakiok. Zakurrari hika egiten zitzaion.

683. Animalien onomatopeiak (USU-057/010)

Animalien onomatopeiak aipatzen ditu.

684. Oilarraren gauerdiko kukurrukua (USU-057/013)

Oilarrak gaueko 12etan jotzen bazuen, txarra izaten omen zen; eta orduan, oilarra hil eta jan egin behar izaten zen, bestela zorte txarra ekartzen baitzuen.

685. Anaien izengoitiak (USU-057/019)

Ezizenak: anaien izengoitiak nondik datozen azaltzen du.

686. Zapo-erdara (USU-057/026)

Zapo-erdara nola hitz egiten den azaltzen du.

687. Umetako jolasak eta zapo-erdara (USU-057/028)

Garai batean, zapo-erdara normal-normal hitz egiten zuten. Umetako jolasak aipatzen ditu: harrapaketan, gordeketan...

688. Dona-dona, zotz egiteko kanta (USU-057/033)

Dona-dona eta zotz egiteko antzeko kantak abesten ditu.

689. Basoko animalien ehiza (USU-057/039)

Azeriak edo basakatuak harrapatuz gero, ehiztari hura etxez etxe joaten zen diru eske. Azkonarrarekin ez zegoen ohitura berezirik. Trikuak jan egiten zituzten, larrutu ostean. Trikuak bizirik larrutzen dira.

690. Muskerrari buruzko sinesmenak (USU-057/040)

Muskerra gaiztoa izaten omen da. Muskerra belarritik sartuz gero, kanpaia jo behar izaten zen hura barrutik ateratzeko. Inguru hauetako muskerrek ez omen dira pozoitsuak; erreumarentzako oso ona omen da musker-salda.

691. Satorra harrapatzeko moduak (USU-057/042)

Satorra noiz eta nola harrapatzen den azaltzen du.

692. Munduaren bukaera igartzeko zantzuak (USU-057/049)

Munduaren bukaera bazetorrela antzemateko, zenbait gauza ikusiko zirela esaten zen lehen: ezaugarri horiek aipatzen ditu.

693. Aita bere buruaren dentista (USU-057/051)

Haginak ateratzeko tenazak erabiltzen zituen Eustakioren aitak. Orduko anekdota kontatzen du.

694. Gorputz-atalei buruzko sineskerak (USU-057/054)

Begiei buruzko sineskerak. Bekatxoa izatea gezurren bat esan izanaren seinale zen. Ezkerreko belarria gorritzean, norberari buruz gaizki esaka ari zirela esaten zen.

695. Doministikuak eta zotina (USU-057/062)

Doministiku egitean "San Blas" esaten zen. Zotina kentzeko hainbat era zeuden lehen.

696. Zeruaz esaten zirenak (USU-057/065)

Zeruari buruz esaten zirenak aipatzen ditu.

697. Trena eta behiaren ipuina (USU-057/067)

Ipuin bat kontatzen du.

698. Ibai inguruko hegaztiak (USU-059/003)

Ibaiko hegaztiak aipatzen dituzte: ahateak, oilagorrak, ur-oiloak, ur-txoriak, Martin politak... Haien ezaugarriak aipatzen dituzte. Lehen saguzar asko zegoen ibai inguruan.

699. Txakur itsua zutenekoa (USU-059/007)

Txakur itsua eduki zuten garai batean. Hari buruzko anekdota kontatzen du.

700. Umetako jolasak eta maistrak (USU-061/002)

Nesken jolasak aipatzen dituzte: marruketan, sokasaltoan, "harratxabaletan"... Ez zuten denbora askorik izaten jolasteko, etxean lan egin behar izaten baitzuten. Maritxu Olariaga izan zen Teresaren maistra eta ez zen gogorra. Ferminen maistra Gertrudis izan zen; gogorra zen emakumea. Nola ikasten zuten azaltzen dute.

701. Dona-dona eta antzerako kantak (USU-061/004)

Dona-dona eta antzerako kantak kantatzen ditu Teresak.

702. Usurbilgo "Zentral txikia" (USU-068/002)

Usurbilera noiz etorri zen gogoan ez duen arren, "Zentral txikian" lana topatu zuelako etorri zela kontatzen du. 6 duro irabazten zituen egunean eta soldata txiki harekin, sei kideko familia mantentzen zuela dio.

703. Inguruko lantegien argindar-hornidura (USU-068/003)

Zentraleko makinaren funtzionamenduaz arduratzen zen Joxe Mari. Inguruko lantegiak hornitzen zituen "Zentral txikiak"

704. Orion sereno 65 urte bete zituenera arte (USU-068/006)

Sereno lanetan jardun zuen Orioko lantegi batean 65 urte bete zituenera bitartean. Soldata txikia izan arren, baldintza hobekak zituela kontatzen du. Ordutegi eta eginbeharrei buruzko azalpenak. Hainbeste urtetako lanaren ordainetan ez zuen ordea merezi zuen erretiroa hartzerik izan.

705. 21 anega gari errentaren truke (USU-068/009)

"Errentero" ziren baserrian (maizter). 21 anega gari ordaindu behar zituzten urtean. Garia, errenta ordaintzeko edo saltzeko baino ez zen izaten, etxerako artoa erabili ohi zuten. Garia ereiteari buruzko azalpenak.

706. Gabirian eskolan (USU-068/011)

Eskolako zein dotrinako kontuak dakartza gogora. Euskaraz zein gaztelaniaz ikasi behar izan zuen. Gabiriako eskolako hainbat kontakizun.

707. 24 duro urteko morrontza lanagatik (USU-068/012)

10 urte zituela galdu zuen aita.azpi seme-alabarekin geratu zen ama etxean. 11 urterekin morroi bidali zuten Eibarrera. 24 duro ekarri zituen etxera urte beteko lanaren ordainetan. Orduko hainbat gertakari kontatzen ditu.

708. Morroiaren eginbeharrak (USU-068/014)

Eibarko baserri batean morroi egon zeneko bizimoduaz dihardu. Eginbeharrak eta ordutegiak. Urardoarekin mozkortu zeneko anekdota kontatzen du.

709. Urrestillako azken burdinolako hotsak entzuten zituen (USU-068/015)

13 urte inguru zituela, morrontza utzi eta jaiotetxera itzuli zen. Ardiak erosi zituzten eta artzaintzan jardun zuen orduz geroztik. Izazpi mendian artzain zegoela, Urrestillako azken burdinolaren mailu hotsak entzuten zituela kontatzen du. Burdinola utzi eta Ameriketara joan zen senar-emazte hura.

710. Trukumanek sendatu zion hautsitako besoa (USU-068/016)

Gaztainondo batetik erori eta besoa hautsi zuen behin. Trukuman petrikiloarengana nola eraman zuten eta bidean pasatako oinazeei buruz dihardu. Zumitzekin lotu zion olio z igurtzitako besoa. 11 pezetaren truke konpondu ziola kontatzen du.

711. Umetako jolasak (USU-068/018)

Jolaserako denbora gehiegirik ez zitzairen geratzen umeak zirela. Baserrian beti egoten zen zereginen bat. Zer nolako jolasak izaten ziren kontatzen du: pelotan futboleak, harrapaketa... 5 zentimoko pilotekin aritzen zirela dio. Gabiriako bolalekuari buruzko aipamena.

712. Sagardoa egiten zuten etxerako (USU-068/019)

Ohikoa zen baserrietan sagardoa egitea. Bere etxean sagardo bikaina egiten zela kontatzen du Joxe Marik. Nahiz eta errege-sagarra zen bere ustez hobereana, edozein sagar klase erabiltzen zela dio. Prozesuaren inguruko azalpenak.

713. Baserriko abereak (USU-068/021)

Behi gorriak ziren ugariak garai hartan. Esne gutxi ematen zuten arren, uztarrirako aproposenak zirela dio. Ardi eta astoak ere izaten zituzten baserrian.

714. Ehizatutako azeria baserriz baserri erakusteko ohitura (USU-068/022)

Azeria harrapatuz gero, baserriz baserri eskean ibiltzea zen ohikoena. Ohitura hari buruzko azalpenak.

715. Gabiriako pasiotarretan ikasia (USU-071/002)

Gabiriako pasiotarretan ikasi zuen. Han latina dezente ikasi zuen.

716. 'Esperando' ezizenaren jatorria (USU-071/007)

Esperando ezizena nondik datorkion azaltzen du.

717. Haurrak izateko, kristalek zeresan handia (USU-071/008)

Don Justo nondik nora ibiltzen zen azaltzen du. Behin, Sebastian barberuarekin izandako elkarrizketa kontatzen du: familia batek ume asko eta kristalik gabeko etxea zuen, eta haurrak izateko giltza kristalak puskatzea zela ondorioztatu zuten.

718. Joxeren etxeko kafea (USU-071/010)

Joxeren etxean, kafe ona prestatzen zuten. Behin, lagun bat etxera etorri, eta amak kafea eskaini zionean izandako elkarrizketa kontatzen du Joxek.

719. Galtza gastatuekin ibili beharra (USU-071/012)

Galtzak gastatuta egoten ziren, anai-arrebengandik jasotzen zituztenean. Horren harira gertatutako anekdota kontatzen du.

720. Arrasteko arrantzan aritu zenekoa (USU-071/016)

Arrasteko arrantzan aritu zen lanean. Ternua aldera joaten ziren bakailaotara. Itsasontziko patroiarekin izandako elkarrizketa kontatzen du.

721. Hiltzea debekatuta (USU-071/019)

Luzuriagan, gizon batzuk hil egin ziren. Kartel bat jarri zuten abuztuan, hiltzea debekatuta zegoela esanez.

722. Lurperatzaile zela izandako anekdotak (USU-071/021)

Lurperatzaile-lanetan ibili zeneko anekdotak kontatzen ditu Joxek. Hildakoen kaxe buruz hitz egiten dute.

723. Oiloaren anekdota (USU-071/025)

Oilategia zeukaten etxean. Oiloarekin izandako anekdota kontatzen du.

724. Tripak eragindako elkarrizketa (USU-071/027)

Aitak Matibe frantsesarekin tripa zela eta izandako liskarra kontatzen du: tripa, baratzea eta seme-alabak aipatzeko modu xelebrea izan zen hura.

725. Ofizinak itxita zeudenekoa (USU-071/029)

Aita ondo komunikatzen zen kanpotik zetozenekin. Elkarrizketa haietako bat kontatzen du.

726. Erratzen anekdota (USU-071/031)

Aitak behin izandako anekdota kontatzen du: zakarrak zeramatzan gurdian erratzak ere bazeramatzan. Horrengatik izandako komentarioak aipatzen ditu Joxek.

727. Puntuak emateko metodoa (USU-071/035)

Luziano getariarrari buruz hitz egiten du. Soinua jotzea gustatzen zitzaion. San Anton egunean istripua izan zuen, eta medikuarekin izandako anekdota kontatzen du Joxek.

728. Aingirak harrapatzeko teknikak eta tresnak (USU-072/006)

Aingira nola harrapatzen den azaltzen du: zizarea kotoizko harian sartu, karabela puntan kordela lotu, eta itsaso hondora bota. Zizareak bilatzeko nora joaten ziren.

729. Angula-toki onak (USU-072/011)

Angula-toki bati buruz hitz egiten dute.

730. 1933ko uholdeek eragindako kalteak (USU-072/012)

Troyan istripu handia egon zen uholdeengatik: behiak hil egin ziren urarengatik 1933an.

731. Ibaian ito zen gaztea (USU-072/014)

Ibaian ezagutu izan duen sakonune handiena non dagoen azaltzen du. Gabarran zihoan artzainari gertatutakoa: urak irauli egin zuen gabarra, eta mutila hil egin zen itota.

732. Lasarte eta Zubieta inguruko aingira-tokiak (USU-072/015)

Aingira-toki batzuk aipatzen ditu, Lasarte-Zubieta inguruan daudenak.

733. Angula asko harrapatzen zeneko garaia (USU-072/017)

Aingira gehien harrapatu izan duteneko kontakten du: 150 kilo atera zituzten. Beste batzuetan berrogeitaka eta hirurogeitaka kilo harrapatu izan dituzte.

734. Aingira-tokien ezaugarriak (USU-072/018)

Aingira-tokien ezaugarriak aipatzen ditu: geografia, eguraldia...

735. Aingiraren salmenta (USU-072/020)

Lehen aingira kiloa 15-18 pezetatan saltzen zuten. Aingira Pasaian saltzen zuten: kanpora saltzeko erosten zuten askok han.

736. Aingira nola jaten zen (USU-072/022)

Aingira janari inportantea zen lehen; nola jaten zuten azaltzen du.

737. Aingiren fisonomia (USU-072/025)

Aingirak hortzak baditu, baina ez die pertsoneri eraso egiten. Aingirak lirdinga izaten du, harrapatuz gero irrist egiteko.

738. Ikasteko, batetik bestera ibilitakoa (USU-075/003)

10 urte inguru zituela, Lasarteko eskola nazionalera eraman zuten. 1935-1936an, 11 urterekin, Bartzelonara joan zen. 1936ean itzuli zen etxera, gerra hasi baino hiru egun lehenago; beste batzuek ez ziren handik garaiz irten, eta komeriak izan zituzten Bartzelonatik etxera itzultzeko. Geroago, Iruñean ikasi zuen Martinek.

739. Norteko haritza (USU-075/008)

10-12 urte zituela jarri zituzten Norteko haritzak, diputazioari esker.

740. Kuartelean lo egiteko txoko bila (USU-075/010)

Ez da parrandazalea izan Martin. Behin pasa zuen gaua kanpoan, eta hurrengo goizerako kuartelera joan behar izan zuenez, han egin zuen lo armairu batean sartuta.

741. 1933ko uholdeak Usurbilen (USU-075/014)

Lehen barkuak egurrezkoak ziren, eta gogoan du nola moldatu ziren Loiditarrak halako barku batekin 1933ko uholdeetan; orduan izandako kalteak aipatzen ditu.

742. Zubietaren nortasun berezia (USU-075/018)

Zubietako etxe batzuk Donostiakoak dira eta besteak Usurbilgoak. Banaketa hori XIV. gizalditik omen dator. Zubietak auzo-alkatea izan izan du, eta hura nola aukeratzen zen azaltzen du.

743. Aliri baserriaren historia (USU-075/025)

Aliri baserriaren historiaz hitz egiten dute: XIII. mendean, Tolosan bazen Aliri etxea. Beti bizi izan dira Aliritarrak Zubietako etxean.

744. Eskolaren funtzionamendua (USU-076/003)

2-3 urterekin mojen eskolan hasten ziren ikasten, eta 5-6 urterekin mutilak eskola nazionalera bidaltzen zituzten maisuarekin ikastera. 6-14 urteko umeak maisu bakarrarekin egoten ziren.

745. Umetako jolasen oroitzapenak (USU-076/004)

Umetan jolastu egiten zuten: panpinekin, etxeketan... 13 urtez gero, jolasak bukatu eta etxean laguntzen hasi behar izan zuen. Etxean egiten zituzten jolasak aipatzen ditu.

746. Mojekin izandako anekdotak (USU-076/006)

Lehen, ostegun arratsaldetan, ez zuten eskolarik izaten; baina bai, ordea, larunbatetan. Mojak frantsesak ziren eta haietako batzuk aipatzen ditu. Sor Sidoniri gertatutako anekdotak kontatzen ditu.

747. Hilean 2 pezeta ordaintzen zuten mojetara joateagatik (USU-076/008)

Hilean 2 pezeta ordaintzen zuten mojetara ikastera joateagatik; askok hori ere ezin izaten zuten ordaindu, baina inor ez zuten eskolatik bidaltzen hori ez ordaintzeagatik.

748. Igandetako planak gaztetan (USU-076/009)

Igandetan meza nagusira joaten ziren, arratsaldean bezperetara, eta geroago dantza egiten zuten. Irubideko erromerietara ere joan izan da Matilde, oinez.

749. Usurbilgo lehenengo autoak (USU-076/010)

Usurbilgo lehenengo kotxeak zein izan ziren aipatzen du. Behin, Orendaina meza batera joateko, kotxez joan ziren, baina atzean esertzeko beldurra zeukaten.

750. Garizumako eta Aste Santuko ohiturak (USU-076/012)

Garizumako egunak nolakoak izaten ziren aipatzen du: ostiralero kalbarioak, zazpi urtetik behin misio nagusiak, Ostegun Santuan sermoia, Ostiral Santuan hitzaldi nagusia... Lasa eta Aranguren izaten ziren misio nagusietako hizlariak.

751. Ilean txirikordak eta mototsak (USU-076/018)

Lehen ilean txirikordak eta mototsak eramaten zituzten, gauza dotorea baitzen.

752. Bekatxoak eta garatxoak (USU-076/019)

Bekatxoak gezurra esateagatik ateratzen omen ziren, eta giltza hotzarekin ukituta joaten omen ziren. Garatxoak izaten zituztenean, San Estebana joaten ziren. Inakik garatxoak izan zituenekoa kontatzen du.

753. Hitz-motelei hitza ateratzen zien santua (USU-076/021)

San Estebana hitz-motelak joaten ziren hitza ateratzeko. Orduko anekdota kontatzen du.

754. Gerra ostean goseak eragindako aldaketak (USU-076/025)

Garia gerra garaian egiten zen. Frontoian izaten zen gari-jotzea. Baba ere ereiten zen. Gerra ostean, janaria entregatu egin behar izaten zen. Guardia zibilek janaria ezkututzen harrapatuz gero, kendu egiten zuten. Gose handia egon zen gerra ostean. Seboa hartzeko, errenkadan egoten ziren harategian. Esnegaina erabiltzen zuten grasa pixka bat izateko.

755. Gose garaian, janaria opari baliotsuena (USU-076/026)

Gose garaian behin ogia ekarri zieteneko poza gogoan du Matildek. Añorgan fabrika lan egiten zutenei arrosa ematen zieten. Lehen oilaskoa jatea gauza handia zen.

756. Gaztainak jateko eta intxaurrak jolasteko (USU-076/027)

Gaztainak Gabonetan jaten zituzten. Intxaurrak ostu egiten zituzten. Intxaurrak jolasteko ere erabiltzen zituzten.

757. Larreak San Juan surako (USU-076/029)

Larrea nahi baino gehiago egoten zen eta San Juan sua egiteko biltzen zuten. Auzo batekoek bestekoei lapurtu egiten zien larrea; norgehiagoka handia egoten zen Kalexar eta kalekoen artean, nor su handiagoa egingo. Baserritarrak gustura egoten ziren, San Juan suarengatik gazteek eraman egiten baitzizkieten larreak.

758. Usurbilgo lurretan ereiten zena (USU-076/031)

Usurbil inguruko zuhaitzak aipatzen dituzte. Sagarrondo asko zegoen lehen Usurbilen. Lur bakoitzean zer landatzen zen azaltzen dute.

759. Enarak eta usoak ugari Usurbilen (USU-076/033)

Enarei "eneak" deitzen zieten. Habia asko zeuden herrian, eta arazo horrentzako konponbidea topatu zuten. Usoak ere izaten ziren; usoen usaina oso zikina da, eta haren simaurrak indar handia du, ukitzen duena usteltzeko adina.

760. Lehengo mutil koskorak naturalak ziren (USU-076/034)

Mutil koskorak txorien arrautzen bila aritzen ziren lehen. Ume haiek naturalak ziren; gaur egungo umeei buruzko iritzia ematen dute. Orduko bihurrikeriak sanoagoak ziren.

761. Usurbil inguruko txoriak (USU-076/035)

Usurbil inguruko txoriei buruz hitz egiten dute: beleak, mikak, izkin-usoak...

762. Kukuak eta zapelatzak (USU-076/036)

Kukuei buruz hitz egiten dute: kukuaren portaera, hari buruzko sinesmenak... Zapelatzak maiz izaten ziren inguruan; kasu horietan, hegaztiak barrura sartzen zituzten, zapelatzak eraman ez zitzaizkien.

763. Animaliren arabera, euskaraz edo erdaraz (USU-079/002)

Ganaduari hika egiten zioten; zakurrari, ordea, erdaraz.

764. Idien eta ardien izenak (USU-079/003)

Idiei eta ardiei izena jartzen zitzaizkien. Izen haietako batzuk aipatzen ditu.

765. Astoak eta haiei hitz egiteko modua (USU-079/005)

Asto pare bat izaten zuten beti etxean; haien izenak aipatzen ditu. Astoari nola hitz egiten zioten.

766. Azeriak pixkanaka azaldu inguru hauetan (USU-079/007)

Azeriak harrapatzen zituztenak etxez etxe ibiltzen ziren eskean. Lehen azeriak ez ziren inguru hauetan, baina pixkanaka azaltzen joan dira. Azeriek etxean eragindako kalteak aipatzen ditu.

767. Katua jateko ohitura (USU-079/008)

Etxean beti izaten zituzten 3-4 katu. Katua jateko ohitura gehiago zegoen lehen, baina beraiek etxean ez dute inoiz jan izan ez katurik ez barraskilorik. Etxean argindarra jarri zutenekoa gogoan du: egun hartan hainbat gizon etorri ziren instalazioa egitera, eta katua jan behar zutela erabaki zutenekoa kontatzen du.

768. Muskerrari eta erbinudeari buruzko sinesmenak (USU-079/010)

Muskerraren gainean badaude sinesmenak. Erbinudeari buruzko usteak aipatzen ditu.

769. Satorrak baserrian (USU-079/013)

Satorrak kalteak eragiten ditu, lurra mugitu egiten baitu. Badira katuak satorrak harrapatzen dituztenak.

770. Txerria hiltzean, probak egin, banatu eta jan (USU-079/014)

Txerriak izan dituzte etxean. Txerria hiltzen zutenean, baserriz baserri ibiltzen ziren txerri-muinak banatzen. Txerria jateko moduan zegoen ala ez jakiteko, lagin bat ematen zitzaion albaitariari. Etxean aitek hiltzen zuen txerria, baina herriko txerri-hiltzailea Demetrio zen.

771. Garizuma eta Aste Santuko ohiturak (USU-079/016)

Astegunen izenak aipatzen ditu. Larunbatean bukatzen zen lehen lan-astea. Garizumako egunei buruz hitz egiten du. Aste Santuko ohiturak aipatzen ditu.

772. Hilabeteen izen zaharrak (USU-079/018)

Hilabeteen izen zaharrak aipatzen ditu.

773. Azken judizioa (USU-079/019)

Azken judizioari buruz esaten zirenak kontatzen ditu.

774. Gorputzeko atalak (USU-079/022)

Erdaldunei "belarrimotzak", "txurriano", "maketo" esaten zieten. Gorputzeko atalak aipatzen ditu. Lehen ilea motz eramaten zuten.

775. Etxeko frutak eta sagardoa (USU-079/023)

Lehen zer fruta jaten zuten azaltzen du. Sagar mota ugari zegoen. Sagardoa etxean egiten zuten eta etxerako izaten zen normalean; behin gogoan du kanpora saldu zutenekoa, baina salbuespena izan zen.

776. Baratzeko produktuak (USU-079/024)

Artoa, babarruna eta garia landatzen ziren lehen; garia ez beti, ordea. Baratzuria, aza eta tomatea lantzen zituzten baratzean. Baratzuria 7 gaitzen kontrako erremedioa omen da.

777. Lehengo belar motak (USU-079/025)

Belarrei buruz hitz egiten du.

778. Lehengo janaria eta egurra (USU-079/027)

Intxaur gutxi ezagutu izan ditu Eliasek. Garoa lehen ere bazen, baina ez orain beste. Garoak estimazio handia izan du, baina garai batean galtzen joan zen. Garoa noiz mozten den aipatzen du. Patata gutxi egiten zen gerra aurrean, baina jaten zuten.

779. Lehengo zuhaitzak eta 1941eko haizea (USU-079/028)

Lehen zeuden zuhaitzak aipatzen ditu. 1941ean, haize izugarria izan zen eta zuhaitz batzuk lurretik atera zituen; beste hainbat kalte ere eragin zituen.

780. Beleak inguruan (USU-079/030)

Beleak beti izaten ziren etxe inguruan. Belearn gaineko sinesmenak aipatzen ditu.

781. Kukuari lotutako sinesmenak (USU-079/031)

Kukuari eta haren inguruko sinesmenei buruz hitz egiten du. Zenbait esaera aipatzen ditu.

782. Erromerietako giroa (USU-079/037)

Lehen dantza egiteko ohitura bazuten erromerietan. Orduko bilera bati buruz hitz egiten du: soinu zahar bat etxean zuenez, gizon bat hura jotzen hasi zen eta bilera egiten hasi zen; inguruetatik etortzen zen jendea hara, 100 bat

lagun. Gerra bukatu ostean, hainbat lekutan izaten ziren erromeriak; haietako giroa nolakoa izaten zen aipatzen du.

783. Gerra aurreko dirua (USU-079/039)

Gerra aurreko dirua: txanponak eta billeteak nolakoak ziren azaltzen du.

784. Duro batekin egunpasa egiteko adina (USU-079/040)

Lehengo prezioak aipatzen ditu. Diru gutxirekin irteera onak prestatzen zituzten.

785. Diruaren balioa beheraka (USU-079/042)

Prezioak asko igo dira lehendik hona. Terrenoak lehen zenbatean saltzen ziren azaltzen du. Diru gutxiago zegoen lehen.

786. Seiluekin ere ordaintzen zeneko garaia (USU-079/044)

Orduko edarien neurriak eta prezioak aipatzen ditu. Lehen seiluekin ere ordaintzen zen.

787. Ehizako gorabeherak (USU-079/046)

Ehizan ibili izana da, baina lanean hasi zenean utzi egin zuen. Hegaberak, zozoak, birigarroak... harrapatzen zituzten, gero etxean jateko. Garai batean ez zegoen perdigoirik eta orduan nola moldatzen ziren azaltzen du. Oilagorrei lazoak jartzen zizkieten batzuek.

788. Gezurrak esateko trebezia (USU-079/048)

Gezurrak eta gezurtiak beti izan dira. Pello Manso artista zen gezurrak esaten: gezurra esan zueneko anekdota batzuk kontatzen ditu.

789. Gosea, estraperloa eta janari eskasia (USU-079/050)

Zer jaten zuten azaltzen du. Nahikoa jaten zuten. Gerra ostean, gosea etorri zen, baina baserrian ondo eutsi zioten egoerari. Gerra ostean, janaria entregatu egin behar izaten zuten. Estraperloa etorri zen orduan. Kaleko jendeak gorriak ikusi zituen janari eskasiagatik.

790. Txistua jotzeko ohitura (USU-079/052)

Txistua jotzea lehen arrunta zen.

791. Zozomikoteei buruzko kontakizuna (USU-079/055)

Zozomikoteei buruzko kontakizun zaharra kontatzen du.

792. Aita aiarra, ama usurbildarra (USU-086/002)

Beñat Usurbilen jaio zen 1993an. Bera baino gazteagoa den anaia bat dauka. Bere aita Aiakoa da eta ama Usurbilgoa.

793. Hezkuntza ibilbidea (USU-086/003)

Lehenengo eta bigarren hezkuntzak Udaregi Ikastolan burutu zituen, eta ondoren, Zurriolako institutura joan zen batxilergo artistikoa ikastera.

794. Euskararen erabilera Zurriolako institutuan (USU-086/004)

Nahiz eta Usurbil eta Donostia oso gertu egon, euskalkia oso desberdina da. Ikastolan dena euskaraz egitera ohituta zegoen, eta institutuan euskaraz irakasleekin bakarrik hitz egiten zen; lagunartean dena gaztelaniaz.

795. Heziketa zikloak (USU-086/005)

Heldutasun faltagatik unibertsitatean ez sartzea erabaki zuen. Bi urteko heziketa ziklo bat aukeratu zuen; kirol ekintzaren inguruko bat. Baina berehala konturatu zen hori ez zela bere etorkizuneko lana, zaletasuna baizik. Honen ondoren gizarte integrazioko zikloa egin zuen.

796. Zahar-etxetan mantentze-gimnasia klaseak (USU-086/006)

Kirol ekintzaren heziketa zikloa egin eta gero zahar-etxetan lanean aritu zen mantentze-gimnasia klaseak ematen. Oso gustora ibili zen lanean.

797. Usurbilgo gazteria (USU-086/007)

Orain dela urte batzuk Usurbilen 'lokalismoa' zegoen. Gazte guztiak lokalean sartuta egoten ziren, inongo erlazorik izan gabe besteekin. Poliki-poliki lokalak ixten joan dira eta orain gazte mugimendu indartsu bat sortzen ari da. Honez gain, kirola tresna garrantzitsua izan da sare-sozialak sortzeko.

798. Haur eta gazteen begirale (USU-086/009)

Beñat haur eta gazteen begiralea da. 18 urterekin Hezkide Eskolan begirale titulua atera zuen. Titulua ateratzen zuen bitartean eta baita ondoren, jende asko ezagutu du. Orain egunerokotasuneko bizitza, gehienetan, Usurbiletik kanpo egiten du.

799. Zergatik begirale? (USU-086/010)

Beñat udalekuetara joaten berandu hasi zen. 11-12 urterekin Usurbilgo Ziortza udalekuetara joan ziren zaharrenak bezala. Urtero apuntatu eta beti zaharrenak ziren. Azkenean begirale izateko unea iritsi zela pentsatu eta titulua atera zuen.

800. Usurbilgo gazte elkarte (USU-086/011)

Usurbilen ludoteka, kiroleko klubak eta gazte elkarte bat dago. Beñat gazte elkartean aritzen da. Urte osoan zehar egiten dituzte ekintzak. Ikasturtea urrian hasten da eta hilabetero topaketak egiten dituzte. Gabonetan kabalkada prestatzen dute.

801. "Alternatiba bat sortu deu" (USU-086/012)

Orain dela urte batzuk zegoen gazte kopurua eta gaur egungoa oso desberdina da; gazte kopurua hirukoiztu egin da. Hau guzti hau sortzen ari den gazte mugimenduaren ondorioetako bat da.

802. Harremana inguruko herriekin (USU-086/013)

Zubietan herri eskola bat dago. Adin batetik aurrera batzuek erabakitzen dute Usurbilera joatea, beste batzuk Lasarte aldera edo Donostiara. Usurbilera joaten direnek kuadrilla bertan egiten dute. Herrian denek ezagutzen dute elkar baina azkenean ez dute horrenbesteko loturarik egiten.

803. Usurbilgo euskararen erabilera (USU-086/015)

Usurbil herri euskaldun eta abertzalea da. Kanean euskararen erabilera normala da. Euskaraz hitz egiten ez duenak, ez duelako nahi izaten da edo bizitza Usurbiletik kanpo egiten duelako.

804. Egunerokotasunean euskaraz (USU-086/016)

Beñatek egunerokotasuneko bizitza euskaraz egiten du. Baina hirugarren adineko pertsonekin lanean aritu zenean gaztelaniaz hitz egiten zuen. Aukera polita iruditu zitzaion gaztelania praktikatzeko.

805. Usurbilen hika eta noka (USU-086/017)

Usurbilen euskara batuan hitz egiten ikasi baino lehen hika hitz egiten ikasten da. Baina hau mutilen artean gertatzen da. Gaur egun emakumeek ez daukate ohiturarik noka aritzeko.

806. Sare-sozialak eta euskara (USU-086/018)

Beñatek sare-sozialak euskaraz jarriak ditu. Horietan idazten dituen iruzkin guztiak euskaraz idazten ditu. Baina euskalduna izateak eta euskaraz bizitzeak, ez du esan nahi gaztelerari bizkarra eman behar zaionik; horregatik, kasu batzuetan gaztelaniaz idazten du.

807. Usurbilgo hitz bereziak (USU-086/019)

DBH 4. mailan, 15 eta 16 urte bitartean, hitz bereziak erabiltzen zituzten zenbait gauza esateko. Baina orain Beñatek ez du hitz berezirik erabiltzen eta erabiltzen baditu nahigabe izaten da, egunerokotasuneko hitzak direlako.

808. Zaletasun handiena kirola (USU-086/021)

Bere zaletasunik handiena kirola da. Baina ez du beti kirol berdina egiten. Eskiatzea da urtero errepikatzen duen kirol bakarra. Honez gain, aisialdia da duen beste zaletasunetako bat.

809. Ziortzako udalekuak (USU-086/022)

Gazte elkartean beste rol batzuk hartu ditu eta orain ez da gazteekin hainbeste ibiltzen; baina udalekuetara joaten saiatzen da. Ziortzan antolatzen dituzten udalekuetara usurbildarrak bakarrik joaten dira. Udaleku hauetan giro polita sortzen da eta denak usurbildarrak izanik, hau gero kanean ere nabaritzen da.

810. Hezkuntza ez-formala (USU-086/023)

Usurbilen etorkinak edo euskaraz ez dakiten pertsonak aurkitzen badituzte, hauek integratzen saiatzen dira. Menpekotasuna duten pertsonekin egiten duten bezala. Azken finean, hezkuntza ez-formalean egiten dute lan eta beraien burua hezitzaile sentitzen dute nahiz eta bolondres izan.

811. Boluntariotzak baloraziorik ez (USU-086/024)

Gazte elkarteetan burutzen duten lana boluntarioa da. Askotan zapalduak sentitzen dira, ez delako baloratzen bolondres batek egiten duen lana.

812. Usurbilen kuadrila bi (USU-086/025)

Beñatek betidanik izan du ikastolako mutil koadrilla eta aldi berean, badu beste koadrilla bat, non neska-mutilak denak batera ibiltzen diren. Biak usurbildarrak. Baina jendea ezagutzea gustuko duenez, beste herrietako jendearekin ere ibiltzen da.

813. Lokaletik parrandara (USU-086/026)

Orain dela urte batzuk ia denbora gehiena lokalean pasatzen zuten. Gaur egun aldiz, kirolean. Eta bestela parrandak bilatzen dituzte.

814. Euskal Herriko parrandaren egoera (USU-086/027)

Orokorrean Euskal Herriko parrandak ahalik eta ekitatiboan izaten saiatzen direla uste du: genero aldetik, integrazioa bultzatzen dutenak eta herrikoiak.

815. Parranda ligatzeko tresna? (USU-086/028)

Parrandak ligatzen laguntzen du baina ez da bide bakarra.

816. "Sagardoa Usurbilgo erregina da" (USU-086/029)

Alkohola parrandaren zentroa da. Usurbilen sagardoa edaten da gehien, etxeke mahai guztietan dago. Honez gain, garagardoa eta kalimotxo ere asko edaten dira.

817. Tabernak gazteen elkargune (USU-086/031)

Usurbilen ludoteka bat dago, baina noski, adin-tarte bat arte. Baina 17 urtetik gorakoentzako ez dago horrelako ezer. Hortik aurrera tabernetara pasatzen da gazteria. Garai batean gaztetxea ere bazegoen baina azkenean utzi egin behar izan zen, jendearen babesik lortu ez zuelako.

818. Egonkortasun ekonomikoa helburu (USU-086/033)

Egonkortasun ekonomiko eta sozial bat lortu nahi du etorkizunean. Bidaiatzea eta gustatzen zaizkion zaletasunekin jarraitzea.

819. Usurbilen hika hitz egitea normala (USU-090/004)

Kalean ikasi dute hika hitz egiten. 7-8 urterekin hasi ziren. Normalena hori da Usurbilen. Landerri aitak ere egin izan dio hika; Aimarri ez. Lasarte-Oriako gazteek gaztelaniaz egiten dute gehiago eta hika saiatzen direnek ez dutela ondo egiten diote. Beraien hika ere ez ei da ona.

820. Hika, mutilen artean eta modu naturalean ikasita (USU-090/005)

Belarriz ikasi dute, modu naturalean. 16-17koei entzunda. Ez dira gogoratzen ikasketa-prozesuaz. Mutilen artean hitz egiten dute. Neskei normalean ez, aditz solte batzuk eta toka noka beharrean. Noka Usurbilen ez dute entzuten; uste dute neskek ez dakitela ondo.

821. Euskaraz eta mutil artean hika beti (USU-090/007)

Landerri aitonak hika egiten zion eta Aimarri ere bai bereak. Aitak ere egiten dio batzuetan Landerri. Euskaraz ari direnean, hika ari dira beti mutilen artean. Norbait hika hasten bazaio, Landerrek hika erantzuten dio, baina neskak ez zaizkio hika hasten. Beraiek erabiltzen duten hitanoa ez dela liburuetakoa diote, baina ikastetxean hikari buruzko klaseak eman beharko lirakeela.

822. Noka esaldi solteak soilik (USU-090/008)

Usurbilen hitanoaren egoera osasuntsua dela diote. Kanean asko entzuten da. Mutilen artean bai, nesken artean ez hainbeste. Noka bultzatu beharko litzatekeela dioten arren, arraroa egingo litzaieke neskak noka entzutea. Noka esaldi solteak erabiltzen dituzte, umore tonuan, baina ez dira noka elkarrizketa bat mantentzeko gai, eta neskak ere ez.

823. Hitanoaren iritzi ona dute (USU-090/009)

Herri txikietan hobeto mantendu da hitanoa. Donostiako bati hika eginez gero, baserritarrak direla pentsa dezakete. Beraiek iritzi ona daukate hitanoari buruz, egunerokoan erabiltzen dutelako.

824. Errespetuaren izenean, zuka (USU-090/011)

Errespetuarekin lotzen dute zuka. Itxuraren eta adinaren arabera erabiltzen dute hika. Landerri ez zaio ondo iruditzen nagusiagoek berari hika egitea eta berak ezin hika erantzun ahal izatea.

825. Aitari hika egiteko ohiturarik ez (USU-090/013)

Landerri ez zaio ateratzen aitari hika egitea, zuka egiten dio. Ohitura kontu bat da.

826. Noka ikasteari buruz (USU-090/014)

Landerri animatuko litzateke noka ikastera. Zaila egingo litzaioke. Kaleko hika dakite, eta ez dela oso zuzena diote. Noka lehenengo neskek ikasi behar dutela diote, bestela alferrik dela beraiek ikastea: ez dute izango norekin egin.

827. Hika, konfiantza girokoa (USU-090/016)

Noka zabaltzeko, neskek beraien artean hitz egin beharko luketela dio Aimarrek. Hika konfidantzarekin lotzen dute. Ezezagun bati ez diote hika egingo. "Euskal label" batekin ere lotzen dute, baina hika ez dutela ondo egiten diote.

828. Ikastolako euskara eta beraiena diferenteak (USU-090/018)

Ikastolako euskara ez dela beraiek hitz egiten dutena esaten dute. Lasarteko batzuek hika gaizki egiten dute, beraiek baino okerrago.

829. Hika-ikastaro batean beraienak lekurik ez (USU-090/020)

Landerri animatuko litzateke hika ikastaro batera, baina bere ustez beraien hitz egiteko era ez luke irakasleak onartuko. Beste leku batzuetako hika arrotza egiten zaie.

830. Lasarten gaztelaniaz hitz egiteko ohitura handiagoa (USU-090/022)

Lasarteko ikaskideek gaztelaniaz hitz egiteko ohitura dute, beraiek hika egiten duten bezalaxe. Usurbilen hika egiten dute kalean; ez dute gaztelania asko entzuten.

831. Aisialdian ere gehiena hika egiten dute (USU-090/023)

Eskubaloi taldean jokatzeko dute, eta han ere hika hitz egiten dute. Parranda giroan ere hika gehiena. Lagun batzuek gaztelaniaz hitz egiteko ohitura dute, eta haiekin gaztelaniaz egiten dute. Erosoago sentitzen dira euskaraz.

832. Telebista gaztelaniaz; euskal musika taldeak (USU-090/024)

Aimarrek irratia euskaraz entzuten du, baina telebista gaztelaniaz. Landerrek ere bai. Euskarako liburuan ikastetxean bidalitakoak dira. Euskal musika talde batzuk aipatzen dituzte: Glaukoma, Berri txarrak... Regetoia gustatzen zaie, eta erdaraz. Su ta Gar eta Negu Gorriak gurasoen garaikoak dira.

833. Whassapa eta sare sozialak (USU-090/025)

Whassapa euskaraz erabiltzen dute, baina Instagram eta Twitter gaztelaniaz, eduki gehiago dagoelako. Whassapean nola idazten duten.

834. Mutilek hika Usurbilen (USU-091/003)

Usurbilen neskek ez, baina mutilek hika erabiltzen dute. Lasarten euskara gutxiago erabiltzen da Usurbilen baino eta hika are gutxiago.

835. Noka ikastaroa institutuan; Usurbilgo egoera (USU-091/005)

Noka ikastaroa beraiek proposatu zuten institutuan, eta Usurbilgo neskek apuntatu ziren. Usurbilen hitanoaren egoera zein den: neskek ez dute erabiltzen, mutilek bai. Neskek zergatik ez duten erabiltzen: mutilen kontu bezala ikusten dutelako, maskulinoa, lotsa ematen die... Ixoneren amak noizean behin egiten du.

836. Zergatik noka ikasi? (USU-091/006)

Zergatik proposatu zuten hika ikastaroa. Beraien artean hika hitz egiteko eta mutilei erantzuten jakiteko. Mutilei ez zaie ateratzen berarekin hika egitea, baina egiten dietenean askotan toka. Hitanoak ematen duen gertutasuna ere bilatzen zuten.

837. Ikastaroa nolako izan zen (USU-091/007)

Ikastaroa nolako izan zen. Ordu eta erdiko hiru saio izan ziren, eguerdian. Ez zen ordurik onena, eta teoria pixka bat astuna egin zitzaien. Zerbait praktikoa nahiago zuten. Hala ere, teoriak balio izan die. Talde handiagoa balitz hobeto izango litzakeela diote. Gehiago dakite toka noka baino, mutilei entzunda, Usurbilgoak direlako.

838. Hitanoa beraien familietan (USU-091/008)

Familian hitanoak duen presentziaz. Ixonek ama eta amona entzuten ditu noka hizketan. Enekaren amonak ere erabiltzen du, baina bere etxean gaztelania erabiltzen da gehiago (aitak ez du euskara menperatzen).

839. Zergatik joan da galtzen noka? (USU-091/010)

Hitanoa zakartasunarekin lotzen dute, eta neskek feminitatea galtzen dutela ematen du hika hitz egiten badute. Beraiei horregatik gustatzen zaie: 'bastoa' delako eta informala delako. Bazilatzeko erabiltzen dute hika.

840. Hika esaten dituzten esaldiak (USU-091/011)

Hika erabiltzen dituzten esaldiak aipatzen dituzten. "Ze esatek", "juango al gaittun?"... Lau aditz erabiltzen dituzte. Aditzak laburtzeari buruz. Kaleko hizkera interesatzen zaie.

841. Noka, ahalduntzeko tresna? (USU-091/012)

Noka jakitea ahalduntzeko tresna moduan ikusten dute. Mutilek erabiltzen dute, neskek zergatik ez? Berdintasuna lortzea ondo legoke.

842. Hika egitea positiboa orain (USU-091/013)

Hitanoa baserritarra izatearekin lotzen zuten garai batean eta desprestijiatuta zegoen. Beraien ikuspegia ematen dute: ez dute baserriarekin lotzen, eta uste dute euskaraz bizitzeko erraztasuna dutenek darabiltela hika. Ikuspegi positiboa dute gaur egun: balio positiboa da hika jakitea.

843. Hitanoaren "garbi puntua" (USU-091/014)

Hitanoak errejistro informal bat ematen du, eta "garbi puntu bat" ematen du: erdarako "jo, tia" bezalako esamoldeak gutxiago erabiltzen dira.

844. Hika erakargarria gazteentzat (USU-091/016)

Hika erakargarria da gazteentzat. Aberastasuna eta gertutasuna ematen du. Nola ipini modan? Kontsumoa inportantea dela diote. "Erlauntza" filma aipatzen dute: bertan noka hitz egiten dute, natural. Zaila da telebistan erabiltzea, hala ere. Transmisioa da giltza.

845. Noka, ahalduntzeko tresna II (USU-091/018)

Hitanoa kalean ikasten da gaur egun, mutilek beti izan dutelako aisialdian horretarako eremu bat. Enekak bere amonaren kasua kontatzen du. Nokaren transmisioa eten egginzen eta zaila da berreskuratzea. Oraindik ere gizonezkoak dira nagusi taberna giroan, eta inportantea da emakumeak bere tokia hartzea.

846. Erabilera-ohiturak malgutzearen alde (USU-091/020)

Hitanoaren erabilera-ohiturak malgutzearen alde daude. Sustatu nahi baldin bada, muga batzuk aldatu egin behar direla diote. Ixonek dio bere amak errespetu falta bezala hartzen duela berari hika egitea.

847. Usurbilen hika ikastaroa, baina ez oso erakargarria gazteentzat (USU-091/022)

Usurbilen hitanoa bultzatzeko ekimenak egiten ari dira, baina ikastaroetara beti berak apuntatzen direla uste dute, jada badakitenak eta ez hutsetik hasten direnak. Errespetua ematen diete helduek. Serioegiak iruditzen zaizkie halako ikastaroak gazteentzat. Liburuxka ere atera zuten.

848. Euskaraz bizi dira, baina erdaraz asko kontsumitzen dute (USU-091/023)

Euskaraz bizi dira. Eneka etxean ez, baina kalean bai. Eskolan eta futboleak ere bai gehiena. Enekek badauka euskaraz hasteko joera, baina beti erdaraz dabilzanekin zaila da jarrera mantentzea.

849. Telebistan euskaraz eskaintza urria (USU-091/024)

Euskaraz kontsumitzea zaila da, telesail eta programa gutxi daudelako. "Gu eta gutarrak" gustatzen zitzaizkien. "Goazen"... Pena da "El conquis" erdaraz izatea. ETBko erabaki batzuk auzitan jartzen ditu Enekek. "Wazemank" bezalakoak gustatzen zaizkie.

850. Gustuko euskal musika taldeak (USU-091/025)

'Berri txarrak' entzuten dute, 'Ken zazpi'... Gustuko taldeak aipatzen dituzte. "Chill Mafia" taldea. Regetoia euskaraz. Gero eta musika estilo gehiago daude euskaraz.

851. Euskaraz irakurtzeari buruz (USU-091/026)

Literatura. Ez dute asko irakurtzen. Euskaraz irakurtzea arrotzagoa egiten zaie, tristeia izan arren. Euskara batua formalegia egiten zaie, pisutsua. Klaseko liburuez aparte, ez dute askorik irakurtzen. Ohitura-falta.

852. Whassapak euskaraz (USU-091/027)

Whassapa euskaraz erabiltzen dute. Instagrama ezin da euskaraz ipini. Tik Tok-en ia dena gaztelaniaz da. Twitter-en jende euskalduna jarraitzen dute.

853. Hitanoa ikastetxean (USU-091/030)

Ikastetxean usurbildarrek soilik egiten dute hika, eta mutilek. Lasartekoek usurbildarrek kutsatuta, baina gutxi.

854. Iaz, noka ikastaroa institutuan (USU-092/002)

Noka ikastaroa antolatu zuten institutuan, beraiek eskatuta. Sei bat apuntatu ziren. Ordutegia ez zen ona izan. 3-4 saio izan ziren, eta dinamikoak izan zirela diote, baina praktikoagoa izatea faltan bota zuten: ahozkoa lantzea eta ez idatzizkoa.

855. Familian hitanoa entzuteko aukera (USU-092/003)

Enararen familian hika asko erabiltzen dute, eta entzuten du, baina berari ez diote asko egin. Iratik aitonari entzun dio batez ere, toka. Usurbilen asko entzuten da toka.

856. Hitanoaren egoera Usurbilen (USU-092/004)

Aditz batzuk asmatu egiten dituzte. DBH1etik aurrera mutilek hika egiten dute. Usurbilen osasuntsuen aitonen artean ikusten dute. Neskei noka egin beharrean toka egitea. Beraiek bazilatzeke erabiltzen dute hika. Mutil batzuek ez zekiten noka existitzen zenik ere.

857. Hizkuntza-ohiturak aldatzea (USU-092/005)

Ikastaroa egin nahi zuten beraien artean erabili ahal izateko. Zuka hitz egiteko ohitura aldatzea ez da erraza. Hikalagunean parte hartuz gero, beharbada errazagoa izango litzateke. Lotsa ere sentitzen dute, segurtasun falta: gaizki esateko, hobe isilik. Eskolan ez dituzte hikako formak ikasten.

858. Gaztelaniaz hitz egiteko joera herrian (USU-092/006)

Adineko neskek ez dute hika egiten eta euskaraz ere batzuek ez, ez Lasarten bakarrik baita Usurbilen ere. Beraiei zaila egiten zaie hika egitea, eta euskara erabiltzen ez dutenei ba are gehiago.

859. Toka hikaren sinonimo moduan (USU-092/007)

Usurbilgo mutilek hika egiten dute beraien artean, baita ikastetxean ere. Kanean ikasten dute. Toka kale-hizkuntza moduan hartu da, patriarkatuaren eraginez. Ohituago daude toka entzutera. Hika tokaren sinonimo moduan erabiltzen dute.

860. Noka, ahalduntze-tresna moduan (USU-092/010)

Usurbilen mutilek hika hitz egiten dute eta neskek ez. Ahalegina eskatzen du eta ez dakite pausoa nola eman. Konfort eremutik ateratzea kosta egiten da. Kulturaren parte bat da, berreskuratu nahi dutena.

861. Hitanoa baserriarrena; erabilera-ohiturak (USU-092/012)

Hitanoa baserriarekin lotu izan da, pobrea izatearekin. Enarak ikusten du hitanoa gure etorkizuneko euskararen. Erabilera-ohiturak. Zuka errespetuzkoa izatea eta hika ez kaltegarria izan da. Erabilera-ohiturak malgutzearen alde daude: beraien aitonei eta gurasoei hika egitea nahiko lukete.

862. Konfiantzarekin lotutako hizkera (USU-092/013)

Hikak gertutasuna ematen die. Ez diote edozeineri hika egiten. Antzuolako ikerketa batean gazteek "euskal label" batekin lotzen zuten hitanoa. Beraientzat ere bada harrotasun iturri.

863. Eremu informalerako hika (USU-092/014)

"Jo, tia" asko erabiltzen dute, hitanoko formulak baino errazago. Euskara menperatzen ez duen bati ez diote hika egingo. "Aizan" asko erabiltzen dute. Hika zaila dela dioen ustea aitzakia moduan erabiltzen dute batzuek, ez ulertzeko.

864. Usurbilen liburuxka banatu zuten (USU-092/016)

Usurbilen hika ikastaroa egin dute, liburuxka ere banatu zuten Noaua aldizkariarekin. Hikapoteoak ideia ona dira praktikatzeko. Koadrilan noka egiteko zer egin dezaketen komentatzen dute.

865. Euskaraz bizi dira; eremu erdaldunena ikastetxea (USU-092/020)

Iratik familian orokorrean euskara erabiltzen du, eta lagunekin ere bai. Ikastetxean asko entzuten du gaztelania. Aldaketa handia izan zen Lasarte-Oriara etortzea. Euskaraz jarduteko ohiturarik ez duten ikaskideak euskaraz zuzentzen zaizkie askotan eta asko apreziatzen dute.

866. Aisialdian normalean euskaraz (USU-092/021)

Euskaraz erosoago sentitzen dira. Enararen aitona ez daki euskaraz eta larri ibiltzen da harekin. Iratiri hasieran kosta egiten zaio gaztelaniaz egitea, eta nahiago du euskaraz. Enararen yogakideak ez daki euskaraz, eta klasea gaztelaniaz izaten da. Iratiren futbol taldean badaude gaztelaniaz egiten dutenak, baina haiek ere saiatzen dira.

867. Telebista eta teknologia berriak (USU-092/022)

"Ur handitan" ikusten zuen Enarak. Saiatzen da euskaraz kontsumitzen. "Errementari" eta "Handia" pelikulak aipatzen dituzte. Gutxi dago euskaraz. Eguraldia eta berriak ikusten dituzte euskaraz. Teknologia berriak ere askotan gaztelaniaz. Twitter normalean euskaraz. Instagram ez hainbeste. Whassapak euskaraz idazten dituzte oro har.

868. Eskolako euskara eta liburuetakoa ez datoz bat (USU-092/023)

Enara saiatzen da liburuak euskaraz eta gaztelaniaz, bietara irakurtzen. Ez daude ohitura maila altuko euskarazko liburuak irakurtzen. Miren Agur Meabe aipatzen dute. Gaztelaniaz testu askoz jasoagoak irakurtzen dituzte. Iratik informazio-bilaketa gaztelaniaz egiten du googlen. Enarak Berria irakurtzen du on-line.

869. Euskal musika eskuragarri (USU-092/024)

Euskal musika asko entzuten dute. Berri txarrak, Ruper Ordorika... Ken Zazpi gustatzen zaio Enarari. Klasikoak entzuten ere disfrutatzen du. Euskal musika kontsumitzea errazagoa da pelikulak baino, eskuragarri dago Spotifyn edo Googlen. Rockaz aparte estilo asko daude euskaraz orain. Regetoia gehiena gaztelaniaz da.

870. Rapa gaztelaniaz, baina bertsolaritza (USU-092/025)

Oraindik badago euskaraz ez duela gauza guztietarako balio, tabu hori. Adibidez, rapa egiteko. Enara oso bertsozalea da. Udarregi ikastolan ematen zuten bertsolaritza. Gero eta gazte gehiago daude bertsolaritzan eta geroz eta neska gehiago.

871. Zergatik ikasi hika? (USU-092/030)

Altxor bat dela diote, gure kulturaren parte.

872. Aginagan jaioa (USU-093/002)

Galardi Zahar kale-baserrian jaio zen, Aginagan. Baserriaren kokapena. Aita zegamarra eta ama Aginagakoa. Auzoa nolakoa zen. Lehengusu guztiak elkarrekin ibiltzen ziren umetan, kalean jolasean.

873. Aginagako eskola eta Pitxita maistra (USU-093/003)

Umetako jolasak: baloian, gordeka... Auzoko lagunekin ez zuten jolasten. Kanean eta bideetan ibiltzen ziren, lasai asko. Aginagako eskolara joaten zen. Pitxita donostiarra zen maistra.

874. Maistrak jo zuenekoa; zigorrak (USU-093/004)

Behin, eskola garbitzen gelditu ziren lau lagun eta leihoak zabalik utzi zituzten. Haizearekin, kristalak puskatu ziren eta maistrak jo egin zuen Begoñak. Garai batean, maisu eta maistrak ikasleak jotzen zituzten. Euskaraz hitz egiteagatik ez zituzten zigortzen Aginagan.

875. Bost zentimoko isuna euskaraz hitz egiteagatik eskolan (USU-093/005)

Etxean euskaraz egiten zuten baina eskolan gaztelaniaz. Euskaraz hitz egiten bazuten, 5 zentimoko isuna ordaindu behar zuten. Eskolan ez zuen gauza handirik ikasi. Esku-lanak.

876. Egurra txikitzen zuen umetan (USU-093/008)

Umetan, sukaldeko lanak eginda joaten zen eskolara. Egurra txikitzen zuen. Aita bidezaina zen.

877. Etxeko sukaldea: ekonomika, aska... (USU-093/009)

Etxeko sukaldea nolakoa zen. Udan, Zarautzera bidean joaten zirenak ikusten zituzten etxe paretik pasatzen.

878. Lasaora arropa garbitzera; angulak (USU-093/010)

Arropa garbitzera Lasaora joaten zen. Bertan osabak angulak zituen eta depositu bat zuenez, han garbitzen zuten arropa.

879. Osabaren angula hazitokia (USU-093/011)

Osabak, angulentzat askak zituen. Nolakoak ziren. Nola jasotzen ziren angulak. Garai batean angula asko jaten zituzten.

880. Angulak jan aurretik egin beharreko lana; hozkailuak (USU-093/012)

Angulak jan aurretik egin beharreko lana: hil, garbitu, egosi, hoztu... Hozkailurik ez zeukaten etxean, baina angulen hazitegia bai.

881. Angulak batu eta prestatzearen lana (USU-093/013)

Osabak angulak Donostian, Tolosan, Iruñean... saltzen zituen hotel eta jatetxeetan. Angulak asko daudenean, laguntza behar izaten da eta osabari laguntzen zion. Guardia zibila kontrolatzen ibiltzen zen.

882. Baserriko lanetatik ihesi (USU-093/015)

Etxeko baratzean, lurra mugitzen herriko aitona batek laguntzen zien. Babarrunak eta artoa ateratzen beste ezer egin baino lehen. Ez zitzaizkion baserriko lanak gustatzen. Siesta, gizonak.

883. Donostiatik arraina ekarri eta Aginagan saldu (USU-093/016)

Begoñaren ama, arraina saltzen hasi zen. Donostian arraina erosi, trenean herrira eraman eta Begoñak gero bizikletaz banatzen zituen baserriz-baserri eta gero herrian postu bat jartzen zuten. Eskolatik atera eta gero saltzen zuen arraina.

884. Eskola eta gero, akademiara (USU-093/017)

Hamalau urtera arte ibili zen Aginagan eskolan. Klase-partikularrak.

885. Zaldi-lasterketak zeudenean, dotore jantzitako jendea ikustera joaten ziren (USU-093/019)

Lasartera joaten ziren gaztetan. Behin, auto batean sartu ziren etxera joateko eta bertan gertatukoa kontatzen du. Ez zuten dirurik. Zaldi-lasterketak zeudenean, dotore jantzitako jendea ikustera joaten ziren.

886. Alpargatak estreinatu eta puskatu egun berean (USU-093/020)

San Estebango dantzara joateko, alpargatak estreinatzen zituzten.

887. Ileko orrazkerak (USU-093/021)

Ilea nola orrazten zuten. Ile-apaindegira joaten ziren. Garai batean, etxea edo negozioak beti irekita zeuden.

888. Aldaketa handia Aginagatik Lasartera (USU-093/022)

Gaztetan Lasartera dantzara joaten ziren. Senarra Tolosan ezagutu zuen baina Michelin-en lan egiten zuenez, Lasartera joan ziren bizitzera. Aldaketa handia izan zen Begoñarentzat.

889. Ikastolan ikasitako seme-alabak (USU-093/024)

Lasarten beti euskaraz hitz egin dute. Momentu batean euskarak indarra hartu zuen baina gaur egun asko jeitsi dela uste du. Seme-alabak ikastolara bidali zituen.

890. Etxerako garbigailua, aurrerapen oso handia (USU-093/027)

Etxera garbigailua eraman zutenekoa. Nori erosi zioten. Aurrerapen oso handia izan zen. Arropan belardian zabaltzen zituzten.

891. Sendabelarrak: asuna, plantila-belarra... (USU-093/028)

Garai batean, sendabelarrak erabiltzen zituzten. Amak belauna asunarekin ("ozin") estaltzen zuen mina zuenean. Plantila-belarra.

892. Euskararen erabilerari buruz (USU-093/030)

Euskararen erabilerari buruz.

893. Irratia entzuteko argia itzali beharra (USU-093/032)

Irratia entzuteko, argiak kendu behar zituzten. Maria Dolores Agirre eta Basarri bertsolaria irratian entzuten zituzten. Irratsaioak euskaraz.

894. "El Diario Vasco" eta "La voz de España" (USU-093/033)

Igandetan egunkaria erosten zuten, "El Diario Vasco" edo "La voz de España". Euskaraz, Zeruko Argia.

895. Euskarazko antzerkia Usurbilen (USU-093/034)

Usurbilen euskarazko antzerkiak egoten ziren. Lehenengo meza entzun behar zuten. Amak pikuak biltzen zituen.

896. Derrigorrezkoa mezetara joatea (USU-093/035)

Aginagan zazpiretan joaten ziren mezetara. Derrigorrezkoa zen joatea. Kongregazioak. Mezetako hizkuntza.

897. Gaztelaniara jotzeko joeraz (USU-093/036)

Lasartera jende asko heldu zen lan egitera, ia denak erdaldunak. Seme-alabak ikastolara eraman zituzten askok.

898. Konfesatzea (USU-093/037)

Gaztetan Donostiara joaten ziren zinemara. Trenean edo autobusean joaten ziren. Konfesatzea derrigorrezkoa zen. Deba zen bekatua.

899. Zubietako jaietan, bertsolariak beti (USU-093/040)

Zubietako jaietan urtero bertsolariak egoten ziren. Basarri, Uztapide... Dantza.

900. Mutilekin sartzen ziren tabernara (USU-093/041)

Gaztetan ez ziren tabernetara joaten. Mutilak bai, ordea.

901. Moja eta fraideak (USU-093/042)

Aginagara moja batzuk joan ziren josten erakustera. Garai batean, moja eta fraide joatea ohikoa izaten zen.

902. Haurrak etxean jaiotzen ziren (USU-093/043)

Garai batean haurrak etxean jaiotzen ziren. Aginagan, Maria izeneko emakume bat ibiltzen zen haurrak jaiotzen laguntzen. Moja bati buruz hitz egiten du.

903. Kartila eta rasionamendua; estraperloa (USU-093/045)

Izebak taberna eta denda bat zuen eta Usurbilera jaoten ziren rasionamenduaren bila, auzokoei banatzeko. Guardia zibilak behin Begoñaren ama harrapatu zuen ogi zuriarekin.

904. Mojak lagundu zioten ezkontzako soinekoa josten (USU-093/048)

Moja batzuen laguntzaz, gona bat josi zuen behin. Ezkontzako soinekoa ere haiekin egin zuen. Oihalak Donostian erosten zituzten.

905. Lagunekin beti hika; familiartean batzutan (USU-093/050)

Gurasoek hika egiten zieten. Begoñak lagunekin hika, gaur egun ere. Beste etxe batzuetan zuka egiten zuten. Seme-alabei hika egiten die, errieta egiten dienean batez ere. Alabak anaiei, zuka.

906. Aginagan denei hika (USU-093/051)

Aginagan denei hika: etxekoei, mutilei, helduei, neskei...

907. Errieta egiteko beti hika (USU-093/052)

Errieta berriz hika egin die seme-alabei, indar gehiagorekin ateratzen delako eta erreztasun gehiago izan duelako.

908. Doktrina eta jaunartzea euskaraz (USU-093/054)

Aginagan, doktrina eta jaunartzea euskaraz egin zuten. Don Segundo apaiza.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2024-04-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com